Apirilaren 18ko 49/2023Foru Dekretua argitaratu da, Bizkaiko nekazaritza sektoreko ekoizleen elkarteei zuzendutako 2023. urterako laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdiarena.

Horrez gain, kasuan kasuko hitzarmenak izapidetu dira Lorra sozietate kooperatiboarekin eta Bizkaiko Txakolina jatorri deiturarekin; LORRArekin lortutako hitzarmena onesteke dago.

Objetivo 5.- Fomento del asociacionismo y profesionalización del sector.

Se ha publicado el Decreto Foral, 49/2023, de 18 de abril de bases reguladoras y convocatoria para 2023 de las ayudas a las asociaciones de personas productoras del sector agrícola de Bizkaia.

Asimismo, se han tramitado los convenios oportunos con la Sociedad Cooperativa Lorra y la Denominación de Origen Bizkaiko Txakolina estando el convenio con LORRA a la espera de su aprobación.

49/2023 Foru Dekretua, apirilaren 18koa, nekazaritza elkarteen laguntzena, 2023ko deialdia / Decreto Foral 49/2023, de 18 de abril de ayudas Asociaciones Agrícolas convocatoria 2023.	85.000 euros
Bizkaiko Txakolina jatorri deituraren Kontseilu Arautzailea, Bizkaiko txakolina eta mahastizaintza hobetu eta sustatzeko / Consejo Regulador de la Denominación de Origen BizkaikoTxakolina para fomento y mejora de la viticultura y del Txakolí de Bizkaia.	60.000 euros
Lorra kooperatiba, nekazaritza zerbitzuak eta nekazaritza elkarteak sustatzeko. / Cooperativa Lorra para el fomento del asociacionismo agrario y servicios agrícolas.	290.000 euros

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Saila eta Programa / Departamento y Programa

02	**INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA** ***MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA***
412103	**LANDARE EKOIZPENA ETA OSASUNA** ***PRODUCCION Y SANIDAD VEGETAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	**NEKAZARITZAKO EKOIZPEN-BIDEEN ETA NATURAKO BALIABIDEEN ZENTZUZKO ERABILERA** ***USO RACIONAL DE MEDIOS DE PRODUCCION AGRICOLAS Y RECURSOS NATURALES***			
1	NEKAZARITZAKO EKOIZPEN-BIDEEN ERREGISTRO OFIZIALAK *REGISTROS OFICIALES DE MEDIOS DE PRODUCCION AGRICOLAS*			
1	Nekazaritzako makineriaren erregistro ofizialeko inskripzioak (REGMAQ) *Inscripciones registro oficial de maquinaria agrícola (REGMAQ)*	325	255	143
2	Ekoizle eta eragile fitosanitarioen erregistro ofizialeko inskripzioak (ROPO) *Inscripciones registro oficial de productores y operadores fitosanitarios (ROPO)*	150	80	83
2	PRODUKTU FITOSANITARIOAK EGITEKO EKIPOAK IKUSKATU ETA KONTROLATZEA *INSPECCION Y CONTROL DE LOS EQUIPOS DE TRATAMIENTOS FITOSANITARIOS*			
1	Ikuskatutako ekipoen kopurua *Nº de equipos inspeccionados*			
3	NEKAZARITZAKO LURZORUAREN ZENTUZKO ERABILERA, URBANIZAGARRIA EZ DEN LURZORUAREN GAINEKO EKINTZEI BURUZKO TXOSTENAK *USO RACIONAL SUELO AGRARIO, INFORMRES SOBRE ACTUACIONES SUELO NO URBANIZABLE*			
1	Lurzoru urbanizaezinari eta sailetako kalteei buruzko txosten-kopurua *Nº de informes de suelo no urbanizable y daños cultivos*	200	210	
2	**INGURUMENAREKIN BAT DATOZEN NEKAZARITZA JARDUERAK SUSTATZEA (PDRS 2014/2020)** ***PROMOVER PRACTICAS AGRARIAS COMPATIBLES CON EL MEDIO AMBIENTE (PDRS 2014/2020)***			
1	NEKAZARITA-INGURUMENEKO NEURRIA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOA 1305-2013 (EE) ERREGELAMENDUA *MEDIDAS AGROAMBIENTALES Y AGRICULTURA ECOLOGICA REGLAMENTO (CE) 1305/2013*			
1	Nekazaritzaren, ingurumenaren eta klimaren arloko konpromisoak *Compromisos agroambiente y clima*	350	350	523
2	Nekazaritza ekologikoaren arloko konpromisoak *Compromisos agricultura ecológica*	130	130	142
3	**NEKAZARITZAKO EKOIZPENEN BERRIKUNTZA ETA HOBEKUNTZA SUSTATZEA** ***PROMOVER LA INNOVACION Y MEJORA DE LAS PRODUCCIONES AGRICOLAS***			
1	ESPERIMENTAZIO PRAKTIKOA ZALLAKO FRUTAGINTZAKO ESTAZIOAN *EXPERIMENTACION PRACTICA EN LA ESTACION FRUTICULTURA DE ZALLA*			
1	Aztertzen ari diren fruta pipitadunen eta kiwien kopurua *Número de variedades frutales de pepita y kiwi en estudio*	130	130	130
2	Aztertzen dagoen bertoko ardo barietate kopurua *Número de variedades viníferas en estudio.*	40	40	40

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
3	Ikertzen ari diren fruitu txikien barietateen kopurua *Número de variedades pequeños frutos en estudio*	30	30	30
4	Fruitu lehorren barietateen kopurua *Número de variedades de frutos secos*	19	19	19
5	Frutagintzari eta mahastizaintzari buruzko ikerketen kopurua *Número de estudios de fruticultura y viticultura.*	32	32	30
2	ZALLAKO FRUTUGINTZA ESTAZIOKO UPELTEGI ESPERIMENTALA *BODEGA EXPERIMENTAL DE LA ESTACION DE FRUTICULTURA DE ZALLA*			
1	Txakolin eta sagardoaren elaborazioen kopurua *Número de elaboraciones de txakoli y sidra.*	35	35	
2	Enologiari buruzko ikerketen kopurua *Número de estudios de enología.*	35	35	
3	ZALLAKO FRUTAGINTZA ESTAZIOKO TEKNOLOGIAREN TRANSFERENTZIA EGITEKO EKINTZAK *ACCIONES DE TRANSFERENCIA DE TECNOLOGIA DE LA ESTACION DE FRUTICULTURA DE ZALLA*			
1	Bertaratutakoen kopurua *Número de asistentes.*	250	250	
4	(EB) 1308/2013 ARAUDIAN, MAHASTIGINTZA SEKTOREARI LAGUNTZEKO NEURRIAK *MEDIDAS DE APOYO AL SECTOR VITIVINICOLA REGLAMENTO (UE) 1308/2013*			
1	Mahastiak berregituratu eta aldatzeko planak dituzten ustiategien kopurua *Nº de explotaciones planes de reestructuración y reconversión viñedos*	6	6	7
5	MAHATSA EKOIZTEKO AHALMENA KUDEATU ETA KONTROLATZEA *GESTION Y CONTROL DEL POTENCIAL VITICOLA*			
1	Izapidetutako espedienteen kopurua *Número de expedientes tramitados.*	60	60	67
4	**NEKAZARI ELKARTEAK SUSTATU ETA PRODUKTUAK SUSTATZEA** ***FOMENTAR EL ASOCIACIONISMO AGRÍCOLA Y PROMOCIÓN DE PRODUCTOS.***			
1	NEKAZARITZAKO ELKARTEEI ETA BESTE ORGANISMO BATZUEI LAGUNTZEA *APOYO A ASOCIACIONES SECTORIALES AGRÍCOLAS Y OTROS ORGANISMOS*			
1	Lagundutako entitateen kopurua *Número de entidades apoyadas.*	9	9	
2	NEKAZARITZAKO SEKTOREA PROFESIONALTZEA *PROFESIONALIZACION DEL SECTOR AGRÍCOLA.*			
1	Elkartutako ustiategien kopurua *Número de explotaciones asociadas.*	300	300	
5	**LANDAREEN OSASUNA ETA HIGIENEA HOBETU ETA KONTROLATZEA** ***MEJORA Y CONTROL DE LA SANIDAD E HIGIENE VEGETAL***			
1	AGENTE KALTEGARRIAK SARTZEAREN AURKAKO BABESA: 2000/29/EEE ZUZENTARAUA *PROTECCION CONTRA LA INTRODUCCION DE AGENTES NOCIVOS DIRECTIVA 2000/29 (CEE)*			
1	Ekoizle eta merkatarien erregistroan erregistratutako eragileen kopurua *Número de operadores registrados en el registro de productores y comerciantes.*	62	62	62
2	Ikuskapen tekniko-administratiboen kopurua *Número de inspecciones técnico-administrativas.*	100	100	20
3	Mintegietako langileei eta ekoizleei egindako ikuskapen fitosanitarioen kopurua *Número de inspecciones fitosanitarias a viveristas y productores*	90	90	5
2	LANDAREEN IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK ANTZEMAN ETA DIAGNOSTIKATZEA *DETECCION Y DIAGNOSTIVO DE PLAGAS Y ENFERMEDADES DE LOS VEGETALES*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Landareak Babesteko Zentroaren diagnostikoen kopurua *Número de diagnósticos Centro de Protección Vegetal*	450	450	215
3	INFORMAZIO FITOSANITARIOAREN SAREA *RED DE INFORMACION FITOSANITARIA*			
1	Lagundutako pertsonen kopurua *Número de personas asistidas.*	650	650	650
2	Abisu fitosanitarioen kopurua *Número de avisos fitosanitarios.*	30	30	6
3	Izurriteen eta gaixotasunen aldizkarien kopurua *Número de boletines plagas y enfermedades*	8	8	4
4	INTERESEKOAK DIREN IZURRITE ETA GAIXOTASUNEN JARRAIPENA ETA AZTERKETA *SEGUIMIENTO Y PROSPECCION DE PLAGAS Y ENFERMEDADES DE INTERES.*			
1	Berrogeialdiko patogeno kontrolatuen kopurua *Nº de patógenos controlados de cuarentena*	30	30	15
5	ELIKAGAIEN KATEAREN KONTROL OSOA (EE 882/2004 ERREGELAMENDUA) *CONTROL INTEGRADO CADENA ALIMENTARIA (REGLAMENTO CE 882/2004)*			
1	Landareen laginen kopurua *Nº de muestras de vegetales*	10	10	
6	**PLAGIZIDEN ERABILERA IRAUKORRARI BURUZKO PLANA, 2009/128/CE ZUZENTARAUA** ***PLAN USO SOSTENIBLE DE PLAGUICIDAS DIRECTIVA 2009/128/CE***			
1	PRODUKTU FITOSANITARIOAK MERKATURATZEKO ZAINTZA-PROGRAMA *PROGRAMA DE VIGILANCIA COMERCIALIZACION PRODUCTOS FITOSANITARIOS*			
1	Erregistratutako eragileen kopurua *Número de operadores controlados*	6	6	3
2	Produktuen laginen kopurua *Número de muestras de productos*	3	3	
2	PRODUKTU FITOSANITARIOEN ERABILERA ZAINTZEKO PROGRAMA *PROGRAMA DE VIGILANCIA UTILIZACION PRODUCTOS FITOSANITARIOS*			
1	Erregistratutako eragileen kopurua *Número operadores controlados*	20	20	2
2	Landare eta produktuen laginen kopurua *Número muestras de vegetales y productos*	5	5	
3	IZURRITEEN KUDEAKETA OSOTUA EZARTZEA *IMPLANTACION DE LA GESTION INTEGRADA DE PLAGAS*			
1	Izurriteen kudeaketa osotua duten ustiategien kopurua *Número explotaciones en gestón integrada de plagas*	180	180	293
4	PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIO KANPAINA *CAMPAÑA DE FORMACION E INFORMACION*			
1	Jardueren kopurua *Número Actividades*	3	3	2

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto

Aldia: Urtarrila - Ekaina
Periodo: *Enero - Junio*

Saila		**IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA**
Departamento	**02**	***SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL***
Programa		**Ehiza fauna, Arrantza eta Fauna basatia**
Programa	**412.105**	***Fauna Cinegética, Pesca y Fauna silvestre***

Ehiza eta arrantza:

Arrantzari dagokionez, jarduera hauek egin dira:

- Arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzen duen araudia garatzeko foru agindua argitaratu da, eta Bizkaian arrantzari buruzko dibulgazio esku-orri bat argitaratzearekin osatu da (3.000 ale).

- Arrantza denboraldia hasi aurretik, arrantza seinaleen inbentarioa egin da, eta seinaleak hornitu eta birjarri egin dira.

- Lehen seihilekoan amuarrain arrunta eta ortzadar amuarraina hornitzeko proposamena prestatu da, 2023ko denboraldian esparruak birpopulatzeko.

- Ohiko jardueraren esparruan arrain hazkuntzarako birpopulazioak partzialki egin dira, Bizkaiko arrain esparruetarako, ortzadar amuarrainaren kasuan; horrez gain, ekotipo atlantiarreko amuarrain arrunta gazte fasean gehitu da arro goiburuetan.

- Tokiko arrantza elkarteekin lankidetza mantendu da ibaietako arrantza eskoletan: Ibaizabal (Iurreta eta Amorebieta-Etxano), Mayor edo Barbadun (Muskiz), Mañaria (Durango), Nerbioi (Urduña, Bilbo, Ugao-Miraballes~~,~~ eta Arrigorriaga), Oka (Ajangiz eta Gernika - Lumo) eta Elexalde erreka (Leioa).

Caza y pesca:

En relación con la Pesca se han llevado a cabo las siguientes actividades:

- Publicación de la Orden Foral por la que se desarrolla la normativa que regula el aprovechamiento de la pesca continental, complementada con la edición un folleto divulgativo relativo a la pesca en Bizkaia (3.000 Uds.).

- Con carácter previo al inicio de la temporada de pesca, se ha procedido al inventario, reposición y colocación de señalización piscícola.

- En este primer semestre se ha elaborado la propuesta de suministro de trucha común y arco iris para repoblación de diferentes cotos durante la temporada 2023.

- En el marco de la actividad usual se han llevado a cabo parcialmente las repoblaciones piscícolas anuales que corresponden a truchas triploides destinadas a los acotados de pesca de Bizkaia, así como la incorporación en fase de juvenil de trucha común de ecotipo atlántico en las cabeceras de cuencas.

- Se mantiene la colaboración con las sociedades de pesca locales en las escuelas de pesca de los ríos: Ibaizabal (Iurreta y Amorebieta-Etxano), Mayor o Barbadun (Muskiz), Mañaria (Durango), Nervión (Orduña, Bilbao, Ugao-Miraballes~~,~~ y Arrigorriaga), Oka (Ajangiz y Gernika - Lumo) y arroyo Elexalde (Leioa).

- Horrez gain, seihileko honetan, eta denboraldia hasi aurretik, zenbait ibai tarteren ibaiertzak egokitu egin dira, batez ere itxitako tarteetan zentratuta.

- Beharrezkoak izan diren prozedurak ezarri dira edozein erabiltzailek arrantza baimenak lortzeko aukera izan dezan, doakoak edo tasa bidez ordaintzekoak.

Horrenbestez, ehizari dagokionez jarduera hauek egin dira:

* Ehizaren horma irudi iragarleak eta seinaleak jartzea.

* Urtarrilean eta otsailean 2022-2023 ehiza denboraldia bukatzearekin batera, Sopuertako ehiza kontrolatuko zona bat kudeatzen jarraitu da, eper eta faisaiak ereiteari dagokionez.

* Tarte horretan, gainerako ehiza kontrolatuko zonetan, oilagorraren ehizarako baimenak izapidetzen jarraitu da Eskualdeetako Nekazaritza Bulegoetan, Herritarren Arretarako Bulegoetan eta Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzuko herritarren arretarako bulegoan.

* Bizkaiko Ehiza Federazioarekin lankidetzan, kartutxo ontzien hainbat bilketa kanpaina osatu dira, ehiztari azterketa prestatzeko ikastaroak egin dira eta komunikabideetan zein bitarteko digitaletan hedapena eman zaio.

* Dima, Ispaster, Morga, Orozko, Turtzioz, Urdaibai, Zeberio eta Zeanuriko ehiza kontrolatuko zonak kudeatzen dituzten ehiza sozietateekin lankidetzan aritu gara, baita Karrantza eta Urduñako esparruekin ere, ehiza antolatzeko plan teknikoen edukien jarraipena egiteko, kudeaketa helburuak lortzea bermatzeko ezarritakoak.

- También durante este semestre y previo al inicio de la temporada se ha llevado a cabo la adecuación de riberas de diversos tramos de río centrada fundamentalmente en los tramos acotados.

- Se han implementado los procedimientos necesarios para que cualquier persona usuaria pueda obtener los permisos de pesca, gratuitos o de pago mediante tasa.

Por lo que respecta a la caza se han realizado las siguientes actividades:

* Colocación de carteles anunciadores y de señalización cinegética.

* En los meses de enero y febrero, coincidentes con la finalización de la temporada cinegética 2022-2023 se ha continuado con la gestión de la zona de caza controlada de Sopuerta en relación con la siembra de perdices y faisanes.

* En ese mismo periodo, en el resto de las zonas de caza controlada se ha continuado con la expedición de permisos para la caza de la becada en las diferentes oficinas comarcales agrarias, en las oficinas de atención ciudadana y en la oficina de atención al público del Servicio de Fauna Cinegética y Pesca.

* En colaboración con la Federación Territorial Vizcaína de Caza se han llevado a cabo las campañas de recogida de vainas de cartuchos, cursillos de preparación para el examen del cazador y divulgación en los medios de comunicación y a través de medios digitales.

* Colaboración con las sociedades de caza que gestionan las zonas de caza controlada de Dima, Ispaster, Morga, Orozko, Trucios, Urdaibai, Zeberio y Zeanuri, así como con los cotos de Karrantza y Urduña para realizar el seguimiento del contenido de los planes técnicos de ordenación cinegética de que se disponen al objeto de garantizar el cumplimiento de los objetivos de gestión.

* Sopuertako Ehiza Kontrolatuko Zona sortzeko espedientea eta Orozkoko ehiza-barrutia sortzeko espedientea itxi dira.

* Enkarterrin orkatz arraren bakarkako zelata ehiza kudeatzea kontratatzea.

* Seihileko honetan orkatzen laginekin jarraitu da, espezie horrek Bizkaian duen populazioa kalkulatzeko eta populazioa kontrolatu eta klaseen, adinaren eta sexuen egitura mantentzeko behar diren parametroak definitzeko, hain zuzen ere kudeaketaren jasangarritasunaren eta lurraldean presentzia duten gainerako erabilerekin bateragarriak izango diren parametroak.

* Orkatz emeak kontrolatu dira Bizkaiko Lurralde Historikoko ehiza-lurrak, espezie horretarako ezarritako kupoak betearazteko, espezie horrek ingurune naturalari eragiten dizkion kalteak murrizteko.

* Seihilekoan zehar, orkatzaren eta basurdearen populazioa kontrolatu da, zelata-ehizaren bidez.

* Beharrezkoak izan diren prozedurak ezarri dira edozein erabiltzailek ehiza baimenak lortzeko aukera izan dezan, doakoak edo tasa bidez ordaintzekoak.

Gorlizko Fauna Basatia Berreskuratzeko Zentroa:

- Azpiegituretan eta diagnostikoen laborategietan hobekuntzak egiteari esker, Fauna Basatia Berreskuratzeko Zentrora iritsitako fauna basati guztiaren osasun kontrol zorrotza egitea dakarren lan sistematikak ezarri dira, eta interes berezia jarri zaie Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan jasotakoei.

* Se ha concluido el expediente de creación de la Zona de Caza Controlada de Sopuerta y el expediente de creación del coto de Orozko.

* Contratación de la gestión de los recechos de corzo macho en Encartaciones

* Durante este semestre se ha proseguido con los muestreos de corzo al objeto de estimar la población de esta especie en Bizkaia y los parámetros necesarios para proceder al control de la población y mantener una estructura de clases, de edad y relación de sexos compatible con la sostenibilidad en la gestión y el resto de los usos presentes en el Territorio.

* Se ha llevado a cabo el control de corzos hembras en diferentes terrenos cinegéticos del Territorio Histórico de Bizkaia, al objeto de cumplir con los cupos establecidos de esa especie intentando minimizar los daños que produce la especie en el medio natural.

* A lo largo del semestre se han realizado controles poblacionales de corzo y jabali mediante la modalidad de caza a la espera o aguardo.

* Se han implementado los procedimientos necesarios para que cualquier persona usuaria pueda obtener los permisos de caza, gratuitos o de pago mediante tasa.

Centro de Recuperación de Fauna Silvestre de Gorliz:

- Las mejoras en infraestructura y en laboratorios de diagnóstico han permitido implantar sistemáticas de trabajo que llevan consigo un estricto control sanitario de todos los ingresos de fauna silvestre en el Centro de Recuperación de Fauna Silvestre, con especial interés en los que quedan reflejados en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas.

- Animalia bizien kasuan, tratamendu mediko-kirurgikoak, errehabilitazioa, muskulazioa alde batera utziz, laginak hartu dira gure faunaren osasun egoera ebaluatzeko: orofaringe isipuak eta kloakalak (hegazti influenza, Newcastleko gaixotasuna), gorotzak (parasitoen azterketa), aho mukosa (kapilaria), odola (errekuentoak, Hto., Pt,.) etab.

- En animales vivos, al margen de tratamientos médico-quirúrgicos, rehabilitación, musculación, se lleva a cabo la toma de muestras para evaluar el estado de salud de nuestra fauna: hisopos orofaríngeos y cloacales (influenza aviar, enfermedad de Newcastle), heces (estudio de parásitos), mucosa bucal (capilaria), sangre (recuentos, Hto., Pt,.) etc.

- Hildako animalien kasuan, hainbat organoren osagai sistematikoak egitea ezarri da: gibela, giltzurruna, pankrea eta hesteak, tindatze azkarraren eta finkapenaren bitartez, ebaluazio histopatologikoetarako. Nekropsiak egin dira, balizko heriotza kausa ezagutzeko, bereziki elektrokuzioetan, intoxikazioetan eta tiro bidezko heriotzetan, baita laginak eta animalien hilotzak bidaltzea ere, fauna basatiaren gaixotasunak diagnostikatzeko, Fauna Basatiaren Osasun Zaintzarako Plan Nazionalaren barruan.

- En animales muertos se ha implementado la realización de componentes sistemáticos de los distintos órganos: hígado, riñón, páncreas e intestinos, por medio de tinción rápida y fijación para evaluaciones histopatológicas. Realización de necropsias para conocer la posible causa de la muerte, de especial importancia en electrocuciones, intoxicaciones y muertes por disparo, así como remisión de muestras y cadáveres de animales para el diagnóstico de enfermedades de la fauna silvestre dentro del Plan Nacional de Vigilancia Sanitaria en Fauna Silvestre.

- Bestalde, beste berreskurapen zentro batzuekin kolaboratu da, baita beste zentro eta entitate batzuen ikerkuntza programetan ere.

- Por otro lado, se colabora con otros Centros de recuperación y en programas de investigación con otros Centros y entidades.

- 13 hegaztiri eraztun zientifikoa jarri zaie, eta belatz handiaren *(Falco peregrinus*) ale askatu batean transmisorea jarri da, haren birgaitzearen jarraipena egiteko.

- Se ha realizado el anillamiento científico de 13 aves, así como la colocación de transmisor en un ejemplar liberado de Halcón peregrino *(Falco peregrinus)* para realizar un seguimiento de la rehabilitación del mismo.

- Lehen seihilekoan 781 ale iritsi dira, eta sendatu ondoren 67 askatu dira.

- El número de ejemplares ingresados en el primer semestre ha sido de 781, liberándose 67 una vez rehabilitados.

- Madrilgo Alfonso X el Sabio Unibertsitateko albaitaritzako ikasle baten praktikak.

- Realización de prácticas de una estudiante de veterinaria d la Universidad Alfonso X el Sabio de Madrid

Saila eta Programa / Departamento y Programa

02	**INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA** ***MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA***
419105	**EHIZA FAUNA, ARRANTZA ETA FAUNA BASATIA** ***FAUNA CINEGÉTICA, PESCA Y FAUNA SILVESTRE***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	**EHIZA ETA ARRANTZAKO BALIABIDEAK ANTOLATU ETA HOBETZEA** ***ORDENACION Y OPTIMACION DE LOS RECURSOS CINEGETICOS Y PISCICOLAS***			
1	JATORRIZKO POPULAZIOEI LAGUNTZA EMATEA *AYUDAR A LAS POBLACIONES NATURALES*			
1	Ibaietan birpopulatutako arrain kopurua (milakak) *Número de ejemplares repoblados en los ríos. (miles)*	32	32	17
2	ARRANTZA ETA EHIZA ARAUTZEA *REGULAR LA PESCA Y LA CAZA*			
1	Arrantza-barrutietan emandako baimen kopurua *Número de permisos expedidos en cotos de pesca.*	2.000	2.000	3.788
2	Ehiza-barrutietan emandako baimen-kopurua *Número de permisos expedidos en cotos de caza.*	12.000	12.000	3.108
3	Ehiza lizentziak *Licencias de caza.*	9.500	9.500	4.550
4	Arrantza lizentziak *Licencias de pesca.*	3.500	3.500	2.015
2	**BIZKAIKO ANIMALIA ETA LANDARE BASATIEN ESPEZIEAK KONTROLATZEA** ***CONTROL DE LAS ESPECIES DE FAUNA Y FLORA SILVESTRE DE BIZKAIA***			
1	BASA-ANIMALIAK BIRGAITZEA ETA ASKE UZTEA *REHABILITAR Y PONER EN LIBERTAD ESPECIES DE FAUNA SILVESTRE.*			
1	Batutako animalia kopurua *Número de ejemplares recogidos.*	1.000	1.000	781
2	Birgaitu eta aske utzitako animalia kopurua *Número de ejemplares rehabilitados y puestos en libertad.*	400	400	67
3	**ANIMALIA BASATIEK NEKAZARITZA SEKTOREAN ERAGINDAKO KALTEEN JARRAIPENA** ***SEGUIMIENTO DAÑOS FAUNA SILVESTRE EN EL SECTOR AGRARIO***			
1	ANIMALIA BASATIEK NEKAZARITZA SEKTOREAN ERAGINDAKO KALTEAK *DAÑOS FAUNA SILVESTRE EN EL SECTOR AGRARIO*			
1	Baloratu diren kalteen kopurua *Número de daños valorados*	1.500	1.500	350
2	Ehiza-ekintzen kopurua (itxaronaldiak, aparteko uxaldiak...) *Número de Acciones de caza (esperas, batidas extraordinarias...)*	300	300	122

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena Aldia: Urtarrila - Ekaina
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto *Periodo:* *Enero - Junio*

Saila		**IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA**
Departamento	**02**	***SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL***
Programa		**Ingurumen-azpiegiturak**
Programa	**456.116**	***Infraestructuras Ambientales***

INGURUMENA KUDEATZEKO ZERBITZUA

INGURUMEN AZPIEGITURAK

URAK

Uraren arloan garatutako jarduketen helburuak honako hauek dira:

- Bizkaiko herritar guztiek ura aski kantitate eta kalitatez izatea lortzea.
- Hiri eta industria ur isuri guztiak biltzea eta araztea bermatzea, 1991eko maiatzeko Zuzentarauak ezarritako baldintza eta betekizunetan.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko ur masen egoera ekologiko ona lortzen kolaboratzea, bat etorriz 2000/60/CE Zuzentarauan ezarritakoarekin.

2023ko lehen seihilekoan honako jarduketa hauek egin ziren:

- Karrantza haraneko edateko uraren EUT Edateko Uraren Planta berriaren mantentzea.
- Amaitu egin dira Montefuerte parkeko hornidura-sarea ordezteko lanak.

Hurrengo ekitaldietan egin beharreko proiektuei dagokienez, Gorlizko Pinudiko atsedenlekuko hornidura-sarea berritzeko proiektu bat idatzi da.

SERVICIO DE GESTION AMBIENTAL

INFRAESTRUCTURAS AMBIENTALES

AGUAS

Las actuaciones llevadas a cabo en materia de aguas tienen como objeto:

- Conseguir que toda la ciudadanía vizcaína disponga de agua en cantidad y calidad suficiente.
- Garantizar la recogida y depuración de todos los vertidos de aguas industriales y urbanas en las condiciones y exigencias impuestas por la Directiva de mayo de 1991.
- Colaborar en la consecución del buen estado ecológico de las masas de agua del T.H. de Bizkaia, de acuerdo con lo establecido en la Directiva 2000/60/CE.

Durante el primer semestre del año 2023 se han llevado a cabo las siguientes actuaciones:

- Mantenimiento de la nueva Planta de Tratamiento de agua potable ETAP del Valle de Karrantza
- Se han culminado las obras para la sustitución de la red de abastecimiento del Parque de Montefuerte.

En lo referente a los proyectos a ejecutar en los próximos ejercicios, se ha redactado un proyecto para la renovación de la red de abastecimiento del área de esparcimiento del Pinar de Gorliz.

Saneamendu eta horniketako dirulaguntzei dagokienez:

- 2022. urtean Lankidetza hitzarmen berri bat sinatu zen Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin, saneamendu eta hornidura obrak finantzatzeko, 2022-2028 denbora esparruarekin. Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29ko bileran onartu zuen hitzarmena.

- Urteko lehen seihilekoan hitzarmeneko lehen urtekoa ordaindu da: 2 milioi euro.

En materia de Subvenciones en saneamiento/abastecimiento:

- En 2022se firmó un nuevo Convenio de Colaboración con el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia para la financiación de obras de saneamiento y abastecimiento, con un marco temporal 2022-2028. Este convenio fue aprobado por el Consejo de Gobierno de la Diputación el 29 de marzo de 2022.

- Durante el primer semestre del año se ha procedido al abono de la primera de las anualidades del convenio, de 2 millones de euros.

HONDAKINAK

Programa hau garatzeko helburuek eta ekintzek oinarritzat hartuko dituzte hondakinen kudeaketaren inguruan Nazio Batuek eta Europar Batasunak prestatutako printzipioak eta zehaztapenak, baita gainerako zuzentarau eta programek ere, hondakinak modu integralean kudeatzeko aukera estrategiko hauek modu hierarkikoan aplikatu behar direlako:

– Prebentzioa maximizatzea (murriztea eta berriz erabiltzea).

– Balorazioa maximizatzea (birziklapen material eta energetikoa).

– Aprobetxamendua deuseztatzea minimizatzea (isurtzea).

Kudeaketaren erkidego mailako hierarkiaren helburu horiei erreparatuz, 2023ko lehen hiruhilekoan jarduketa hauek egin dira:

- Urtarrilaren 110eko 2/2023 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoan hondakinen kudeaketa eraginkorra eta jasangarria sustatzeko ematen dituen dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dituena.

RESIDUOS

Los objetivos y las acciones para desarrollar en este programa se fundamentan en los principios y determinaciones que sobre gestión de los residuos han elaborado las Naciones Unidas y la Unión Europea, así como por los restantes Programas y Directivas comunitarias, para una gestión integral de los residuos pasa por la aplicación jerarquizada de las siguientes opciones estratégicas:

– Maximizar la prevención (reducción y reutilización).

– Maximizar la valorización (reciclaje material y energético).

– Minimizar la eliminación sin aprovechamiento (vertido).

Atendiendo a estos objetivos de la jerarquía comunitaria de gestión, durante el primer trimestre del ejercicio 2023 se han realizado las actuaciones siguientes:

- DECRETO FORAL 2/2023 de 10 de enero de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones que se conceden por el Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural para promover una gestión eficaz y sostenible de los residuos

Aurkeztutako eskaerak aztertu dira, eta laster argitaratuko dira esleipendunak.

en el Territorio Histórico de Bizkaia. Se han analizado las solicitudes presentadas y próximamente se publicarán los adjudicatarios.

2021ean diruz lagundutako jardueraren betetze maila materialki egiaztatzen ari da, eta 2022ko espedienteak ixten aurreko ekitaldiko dirulaguntzei dagokionez.

Se está efectuando la comprobación material del cumplimiento de la actividad subvencionada en 2021 y cerrando los expedientes relativos a 2022 en relación a las subvenciones del ejercicio anterior.

- Hondakinen arloko beste dirulaguntza batzuei dagokienez, nabarmentzekoa da Bizkaiko Foru Aldundiak –Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren bitartez– eta Bizkaiko Elikagaien Bankuak sinatutako hitzarmena, elikagaien xahubideari aurre egiteko jarduketa finantzatzeko. 2023ko aurrekontuetako dirulaguntza izendun baten bidez bideratu da, eta hitzarmena 2023ko martxoan sinatu zen. Dagoeneko ordaindu da 2023ko urtekoa.

- Respecto a otras subvenciones en materia de residuos, destacar el Convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural y la Entidad Banco de Alimentos de Bizkaia, para la financiación de la actuación contra el despilfarro de alimentos recogida en suvbención nominativa de los presupuestos 2023. Este convenio fue firmado en marzo de 2023, y ya se ha realizado al abono correspondiente a la anualidad 2023.

- Hondakinen arloko plangintzari dagokionez, 2023ko martxoaren 7an Gobernu Kontseiluak hasieran onetsi zuen Bizkaiko Toki Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Plan Integral berria. 2023ko ekainaren 13an onetsi zen plana behin betiko.

  Orain, ingurumen-adierazpen estrategikoa egitea falta da, Batzar Nagusietan izapidetzen jarraitzeko

- En lo referente a la planificacion en materia de residuos, con fecha 7 de marzo de 2023 el Consejo de Gobierno aprobó inicialmente el nuevo Plan Integral de Prevención y Gestión de Residuos de Competencia Local de Bizkaia 2030. Con fecha 13 de junio de 2023 el plan se aprobó definitivamente.

  Actualmente se encuentra a la espera de la Declaración Ambiental Estratégica a fin de continuar su tramitación parlamentaria en las JJGG.

- Inbertsio obrei dagokienez, Garbikerrekin kolaboratu da Artigasko zabortegian egiten ari diren obrak osatzeko:

  Artigasko ezkerreko ibarbideko zigilatzea konpontzeko lanak

  Artigasko ezkerreko ibarbidea zigilatzeko bigarren fasea amaitzea.

- En lo referente a las obras de inversión, se ha colaborado con Garbiker en el desarrollo de las obras que se están llevando a cabo en el vertedero de Artigas:

  Reparación del Sellado de la vaguada izquierda en Artigas

  Finalización de la segunda fase de sellado de la vaguada izquierda de Artigas.

- Hondakinen azterketaren eta kontabilitatearen arloan, Bizkaiko udal hondakinen karakterizaziorako laguntza teknikoaren zerbitzua garatzen ari da. Hondakinen zenbait karakterizazio egin dira dagoeneko, eta poltsa tipoaren lehen konposizio bat (2022).

- Azpiegitura linealen betelanak egiteko proiektuen jarraipena egin da, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan oinarrituz, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duena.

  Arlo honetan, Ermuan, Uretamendiko iparraldeko betelana berriro irekitzeko baimena eman da duela gutxi.

  Halaber, Marurin, BI-2120 errepidea atontzeko lanei lotutako soberakinen biltegi berriaren jarraipena egiten da oraindik ere.

- Orkonera aldean, Garbikerrek galeriako kolapsoa konpontzeko obra adjudikatu du dagoeneko: Ortuellan (Bizkaia), Orkonera auzoa zeharkatzen duen tartean, Granada ibaiaren ibaiadarrak bideratzen dituen galeria birgaitzeko proiektua.

  Obra hori sailaren aurrekontuen kargura finantzatuko da, eta Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzua arduratuko da obren zuzendaritzaz.

- Leku berean, lur-betelana egiteko eraikuntza-proiektu bat egiten ari da ere. Haren xedea da Orkonerako hondakin geldoen zabortegiari itsatsita dagoen lohien baltsaren egonkortasuna hobetzea. Zabortegi hori zigilatuta dago jada, eta itxi osteko aldian dago. Lehen seihileko honetan, dagokion kanpaina geoteknikoa egin da.

- En el ámbito del estudio y contabilidad de los residuos, se está ejecutando el contrato de servicio de Asistencia Técnica para la caracterización de los Residuos Municipales de Bizkaia. Se han realizado ya varias caraterizaciones de residuos y una primera composición de la bolsa tipo 2022.

- Se ha realizado el seguimiento de los proyectos de rellenos de infraestructuras lineales en base al Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos.

  En este ámbito recientemente se ha autorizado la reapertura del relleno Norte de Uretamendi en Ermua.

  Asimismo se prosigue con el seguimiento de un nuevo depósito de sobrantes en Maurri asociado a las obras de acondiconamiento de la BI2120.

- En el área de Orkonera,Garbiker ha adjudicado ya la obra para la reparación del colapso de la galería: Proyecto para la rehabilitación de la galería que conduce los afluentes del rio Granada a su paso por el barrio Orkonera, en el término municipal de Ortuella (Bizkaia).

  La obra se fianciará con cargo a los presupuestos del Departamento y el Servicio de Gestión Ambiental ejercerá la Dirección de las obras.

- En ese mismo emplazamiento, también se está desarrollando un proyecto constructivo para la ejecución de un relleno de tierras cuya finalidad es la mejora de la estabilidad de la balsa de lodos anexa al vertedero de inertes de Orkonera, ya sellado y el periodo de postclausura. Durante este primer semestre se ha desarrollado la campaña geotécnica correspondiente.

HONDARTZAK

Denboraldia hasi aurreko hilabete hauetan, denboraldia antolatzeko eta instalazioak martxan jartzeko lanekin, hondartzetako materiala erosi eta alokatzeko kontratazioak ere egin dira (moduluak, pasarelak etab.), instalazio osagarriak (komunak), bainu lagundua (makuluak, flotagailuak, aulkiak, garabiak), paperontzi berriak, kartelak eta serigrafia berria.

Hondartzetako 2023ko denboraldiak berritasun bat du: bainu lagunduaren zerbitzua udako lau hilabeteetan emango da (ekainaren 1etik irailaren 30era), eta, ohiko hondartzetan emateaz gainera (La Arena, Ereaga, Plentzia, Laidatxu, Isuntza eta Arrigorri), Gorlizen eta Bakion ere emango da.

Denboraldia ekainaren 1ean hasi zen. Oro har, Istripuak prebenitzeko, Sorospen eta Laguntza zerbitzua emango duen lantaldea uretako 154 soroslek eta beste 15 pertsonak osatuko dute. Azken horiek koordinazio lanak egingo dituzte. Egunero zonako 7 koordinatzaile eta 88 sorosle izango dira lanean, modu honetara banatuta: 7 pertsona, La Arenan; 2 Areetan; 5 Ereagan; 4 Arrigunagan; 3 Gorrondatxen; 5 Barinatxen; 7 Arriatera-Atxabiribilen; 2 Muriolan; 4 Plentzian; 6 Gorlizen; 2 Armintzan; 7 Bakion; 2 Aritzatxun; 2 Laidatxun; 2 Toñan; 4 San Antonion; 6 Laidan; 4 Lagan; 2 Ean; 2 Ogellan; 3 Isuntzan; 5 Karraspion; eta 2 Arrigorrin.

Zerbitzu honetako pertsonek bitarteko hauek izango dituzte: 113 ontzi, uretako 8 motor, 13 buggy (8, elektrikoak), 3 quad, PGLzko (gas-petrolio likidotua) lur orotako 4 ibilgailu, 11 turismo (1, elektrikoa; 8, hibridoak, eta 2, gasezkoak), gehi desfibriladore erdiautomatikoak, glukometroak, pultsioximetroak, ohatilak eta hondartzetan laguntza behar duten pertsonei laguntza emateko behar diren elementu guztiak.

PLAYAS

Durante los meses previos al inicio de la temporada, entre las labores de organización de la temporada y puesta a punto de las instalaciones también se han llevado a cabo las contrataciones para el alquiler y la adquisición de material de playas (módulos, pasarelas, etc), instalaciones auxiliares (wcs), baño asistido (muletas, flotadores, sillas, grúas), nuevas papeleras, cartelería y nueva serigrafía.

La temporada de playas 2023 presenta como novedad: en la prestación del servicio de baño asistido la ampliación a lo largo de los cuatro meses estivales (del 1 de junio al 30 de septiembre) y a dos playas más de las habituales, de manera que además de en La Arena, Ereaga, Plentzia, Laidatxu, Isuntza y Arrigorri, se desarrollará en Gorliz y Bakio también.

El 1 de junio dio comienzo la temporada. En conjunto, el equipo humano que prestará el servicio de Prevención de Accidentes, Socorrismo y Asistencia esta temporada, estará conformado por 154 socorristas acuáticos y otras 15 personas que realizarán labores de coordinación. Cada día estarán de servicio 7 coordinadores de zona, 1 coordinador general y 88 socorristas, distribuidos de la siguiente manera: 7 en La Arena, 2 en Las Arenas, 5 en Ereaga, 4 en Arrigunaga, 3 en Gorrondatze, 5 en Barinatxe, 7 en Arriatera-Atxabiribil, 2 en Muriola, 4 en Plentzia, 6 en Gorliz, 2 en Armintza, 7 en Bakio, 2 en Aritzatxu, 2 en Laidatxu, 2 en Toña, 4 en San Antonio, 6 en Laida, 4 en Laga, 2 en Ea, 2 en Ogella, 3 en Isuntza, 5 en Karraspio y 2 en Arrigorri.

Las personas de este servicio contarán con 13 embarcaciones, 8 motos de agua, 13 buggys (8 eléctricos), 3 quads, 4 todoterrenos de GLP (gas licuado del petróleo), 11 turismos (1 eléctrico, 8 híbridos y 2 de gas), además de desfibriladores semiautomáticos, glucómetros, pulsioxímetros, camillas y todos los elementos necesarios para prestar asistencia a las personas que lo requieran en las playas.

Hondartzetako mantentze eta garbiketa zerbitzuan 91 langilek egingo dute lan, hainbat ordutegitan, ekainetik irailera. Pertsona horiek ekipamendu mekaniko batekin egiten dute lan, besteak beste, honako hauekin osatuta: hondartzak garbitzeko 11 makina handi, 3 kamioi, 2 furgoneta, 12 traktore, ekortzeko 3 makina, mantentze-lanetarako materiala garraiatzeko ontzi irekia duen kamioi bat, ekortzeko 4x4 motako 9 pick-up makina (bat plataforma jasotzailearekin) eta eskuzko 5 makina bereizle.

El servicio de limpieza y mantenimiento de las playas va a ocupar a 91 personas en diferentes horarios entre los meses de junio y septiembre. Estas personas trabajan con un equipo mecánico que incluye 11 máquinas limpia-playas grandes, 3 camiones, 2 furgonetas, 12 tractores, 3 barredoras, así como con 1 camión de caja abierta para el transporte de material de mantenimiento, 9 pick-up 4x4 (una de ellas con plataforma elevadora) y 5 cribadoras manuales.

Hondakinak biltzeko paperontziei eta bidoiei dagokienez, aurreko denboraldian bezala, hondartzetarako sarreretan jarriko dira, hondartzatik kanpo, 2022an erabiltzen hasi ziren paperontzi adimendunak barne. Hondartzek, guztira, 481 paperontzi eta 144 bidoi izango dituzte hondakinak biltzeko. Hala ere, kopuru hori aldatu egin daiteke udan zehar ematen diren beharrizanen arabera.

En cuanto a las papeleras y bidones de recogida de residuos, como ya ocurriera en la pasada temporada se colocarán en los accesos a las playas, fuera del arenal, incluidas las papeleras inteligentes que comenzaron a utilizarse en 2022. El conjunto de las playas contará con 481 papeleras y 144 bidones de recogida de desechos, aunque esta cantidad puede variar en función de las necesidades que se detecten en el transcurso del verano.

Hondartzetako ekipamenduei dagokienez, aurten hauek instalatu dira: 85 dutxa (333 ihinztagailu), oinak garbitzeko 76 iturri, edateko 7 iturri eta desgaitasuna duten pertsonentzako 2 eserleku, 367 plataforma parrilatu eta 2.049 metro egurrezko pasabide

Respecto a los equipamientos de las playas, este año se han instalado 85 duchas (333 rociadores), 76 fuentes/lavapiés, 7 fuentes y 2 asientos para personas con discapacidad, 367 plataformas emparrilladas y 2.049 metros de pasarela de madera.

Hondartzetan egindako inbertsioei dagokienez, nabarmentzekoa da Getxoko Arrigunaga hondartzan zerbitzu-eraikina eraisteko proiektua idatzi dela eta laster gauzatuko dela.

En materia de inversiones en el área de las playas cabe destacar la redacción del proyecto y próxima ejecución de la Demolición del edificio de servicios en la playa de Arrigunaga en Getxo.

Proiektu horri eta lotutako beste jarduketa batzuei dagokienez, lankidetza-hitzarmen bat sinatu da Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Arrigunaga hondartzarako sarbideetan komun autogarbitzaile bi instalatzeko eta dagoen zerbitzu-eraikina eraisteko lanak egiteko.

En relación a este proyecto y otras actuaciones asociadas, se ha aprobado y firmado el Convenio de Colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia para las obras de instalación de dos aseos autolimpiables en los accesos a la playa de Arrigunaga y demolición del edificio de servicios existente.

Hondartzetako ekipamenduari dagokionez, Sopelako Sabino Arana kaleko 120B zenbakian dagoen erdiko industria-pabilioia birgaitzeko proiektuaren lizitazioa hasi zen. 2023ko ekainean atzera egin zen lizitazio horretan, Ogasun eta Finantza Sailak argudiatu baitzuen pabilioi horiek saltzeko prozesuan zeudela.

Bestalde, hondartzetako eremu garbien proiektuak idazteko lanak egiten ari dira. Eremu horiek hondartzetan bildutako hondakinak batzeko eta sailkatzeko eremuak izatea nahi da. 2023an, Sopelako eremu garbia kontratatzeko izapideak hasteko ahalegina egingo da.

Hondartzen arloan, nabarmendu behar da martxan jarri dela aplikazio informatiko berri bat, zeinak aukera ematen baitu hondartzetan emandako zerbitzuekin zerikusia duten datu eta erregistro guztiak integratzeko: sorospen-zerbitzuan eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzuan izandako gorabeherak, kexak eta erreklamazioak, bainu lagundurako egindako erreserbak, hondartzei buruzko informazioa edo banderen egoera.

INGURUMEN BERRESKURAPENA

Aisialdi eremuak aire librean egoteko leku gisa daude pentsatuta, gehienetan ingurune naturalean, eta oinarrizko nolabaiteko azpiegitura izaten dute. Funtzio nagusia aisialdiari lotuta dago, eta populazioak eta bisitariek naturarekin elkartzea ahalbidetzea. Erabiltzaileek hiri inguruak normalean ez dauzkan espazioak aurkitzen dituzte hemen.

Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatutako aisialdi eremuetan zenbait ekipamendu dago, inguruaz eta aisialdiaz gozatzea ahalbidetzeko, pertsona horiek espazio horietara sartzeko baldintza egokietan; Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoan urte osoan zehar ematen dituen zerbitzuetako bat da.

Con relación al equipamiento de playas, se inició la licitación del proyecto Rehabilitación de pabellón industrial central en la calle Sabino Arana Nº120B de Sopela".En el mes de junio de 2023 se desistió de la misma al argumentar el Departamento de Hacienda y Finazas que las naves se encontraban en proceso de venta.

Por su parte se está trabajando en la redacción de los proyectos de puntos limpios de las playas, concebidos como espacios de reunión y clasificación de los residuos recogidos en los arenales. En 2023 se tratará de iniciar la contratación del punto limpio de Sopela.

En el ámbito de las playas cabe destacar la puesta en marcha de la nueva aplicación informatica que permite la integracion del conjunto de datos y registros relacionados con los servicios prestados en las playas: incidencias diarias del servicio de socorismo y de limpieza y mantenimiento, quejas y reclamaciones, reservas del baño asistido, información sobre las playas u estado de las banderas.

RECUPERACION AMBIENTAL

Las áreas de esparcimiento están concebidas como lugares de esparcimiento al aire libre, generalmente en el medio natural, que disponen de una cierta infraestructura básica. Su función primordial es la de recreo y la de posibilitar el encuentro de la población y los visitantes con la naturaleza. Sus usuarios encuentran en estas áreas el espacio del que normalmente no se dispone en el medio urbano.

Las áreas de esparcimiento gestionadas por la Diputación Foral de Bizkaia, están dotadas de diversos equipamientos que facilitan el ocio y el disfrute del entorno, en condiciones idóneas a las personas que acceden a estos espacios, siendo uno de los servicios que presta el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural a lo largo de todo el año en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Kudeaketa integralerako behar diren mantentze eta garbiketa lanak egiten dira, erabiltzaileei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko; lan horien artean honako hauek nabarmendu behar dira: landaredia hondakinak kentzea eta garbitzea, erabiltzaileek lurrean utzitako hondakinak kentzea eta batzea, paperontziak hustea, belarra moztea, zuhaitzak inaustea, hondakinak kudeatzea, altzariak konpondu eta bernizatzea, etab.

Se realizan trabajos de mantenimiento y limpieza necesarios para una gestión integral de las mismas con el objeto de ofrecer un servicio de calidad a los usuarios, entre estos trabajos destacan: limpieza y retirada de restos vegetales, recogida y retirada de restos dejados por las personas usuarias en el suelo, vaciado de papeleras, siega de la hierba, poda del arbolado, gestión de los residuos, barnizado y reparación del mobiliario, etc.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko diputatuaren 2023ko urtarrilaren 12ko 463/2023 Foru Aginduaren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiko BIZKAIKO BASALAN AKZIOZKO BALTZUA AB sozietateari emandako agindua garatzen da. Agindu hori 2022ko abenduaren 20an onartu zen Gobernu Kontseiluan, besteak beste, Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzuari lotutako atsedenlekuetan garbiketa eta mantentze lanak egiteko 2023ko ekitaldian zehar.

Mediante la Orden Foral463/2023 de 12 de enero de 2023, de la Diputada del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, se desarrolla el encargo a la Sociedad Pública BIZKAIKO BASALAN AKZIOZKO BALTZUA A. B de la Diputación Foral de Bizkaia que se aprobó con fecha. 20 de diciembre de 2022 en el Consejo de Gobierno para la realización, entre otros, de trabajos de Limpieza y Mantenimiento de áreas de esparcimiento asociadas al Servicio de Gestión Ambiental durante el ejercicio 2023.

Nabarmendu behar da, halaber, digitalizazioaren arloan martxan jarri dela aplikazio berri bat, lanerako aginduak BASALANekin erregistratzeko aukera ematen duena, aginduaren kontrola eta kudeaketa hobetzeko.

Destacar tambien en el ámbito de la digitalización, la puesta en marcha de un aplicativo que permite el registro de órdenes de trabajo con BASALAN en orden a la mejora del control y gestión del encargo.

Atsedenlekuei dagokienez, proiektu bat idatzi da Artatzako parkeko zerbitzu-eraikineko saneamendua udalerriko sarearekin lotzeko. Urteko bigarren seihilekoan gauzatuko da.

En lo referente a las áreas de esparcimiento, se ha redactado un proyecto para la conexión del saneamiento del edificio de servicios del Parque de Artaza a la red municipal cuya ejecución se llevará a cabo en el segundo semestre del año.

Bestalde, zerbitzu-kontratu bat lizitatu da, Bizkaiko Foru Aldundiaren atsedenlekuetako eta hondartzetako ondasunen eta elementuen inbentarioa egiteko. Kontratu horren xedea da aisialdirako eremu horietan dauden ondare-ondasun guztiak kudeatzeko aukera emango duen datu-base bat izatea.

Por su parte, se ha licitado un contrato de servicios para la elaboración del inventario de bienes y elementos de las áreas de esparcimiento y las playas de la Diputación Foral de Bizkaia. Este contrato tiene por finalidad el disponer de una base de datos que permita gestionar el conjunto de bienes patrimoniales existentes en estos espacios de ocio.

Atsedenlekuei dagokienez, nabarmendu behar da Aldundiaren webgune berri bat dagoela, erabiltzaileei espazio horiei buruz ematen zaien informazio eguneratuarekin.

En el ámbito de las áreas cabe destacar también la publicación de la nueva web foral que ha actualizado la información ofrecida a los usuarios en relación a estos espacios.

Azkenik, Arrigorriagako Montefuerte atsedenlekuan, lurzoruaren kalitatea zehazteko, duela hilabete batzuetatik hona egiten ari den ikerketa aipatu behar da.

Atsedenleku horren zati batean, aipatzekoa da ere Santa Isabeleko aparkalekutik kendu diren isuriak eta legez kanpoko egonlekuak ondo-ondo garbitzeko egindako lana.

Gaztelugatxeko eremuan, hiru eraikuntza-proiektu aipatu behar dira; haietako bi NEXT funtsekin finantzatu dira. Hauek dira:

- «Gaztelugatxeko (Bizkaia) San Juan ermitarako bidea birgaitzeko esku-hartzea. III. Fasea».
- Ermitarako bideko beheko mendi-hegala egonkortzeko lanak. NEXT
- Bermeo-Bakio oinezkoen bidean pasabide bat eraikitzeko lanak. NEXT

Azken bi proiektuak Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuaren jarduketak dira, eta lankidetza estua dago harekin.

Lezamako Trenbide Zaharreko Natura Bidearen proiektuari dagokionez, eraikuntza-proiektua idatzita eta berrikusita dago, eta 2023ko maiatzaren 9an behin betiko onetsi zen trazatu-proiektua.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren otsailaren 27ko 1714/2023 FORU AGINDUAREN bidez, «Bilbo eta Derio udalerrien artean Lezamako Bide Zahar Naturala Eraikitzeko proiektuaren» ingurumen inpaktuari buruzko txostena egitea ebatzi da.

En último lugar, citar la investigación para la determinación de la calidad del suelo que se está llevando a cabo desde hace unos meses en el área de Montefuerte-Arrigorriaga.

En parte de esta área, es de destacar también la labor de limpieza extraordinaria realizada respecto de unos vertidos y asentamientos ilegales retirados en el aparcamiento de Santa Isabel.

En el entorno de Gaztelugatxe, cabe destacar la licitación de tres proyectos constructivos, dos de ellos financiados con fondos NEXT:

- “Intervención para la rehabilitación del camino de acceso a la Ermita de San Juan de Gaztelugatxe (bizkaia). Fase III”.
- Estabilización de la ladera inferior del acceso a la ermita. NEXT
- Construcción de una pasarela en la senda peatonal Bermeo-Bakio. NEXT

Los dos últimos proyectos corresponden a actuaciones del Servicio de Patrimonio Natural, con el cuál se colabora de manera estrecha.

Con relación al proyecto del Camino Natural de la Via Vieja de Lezama, se ha finalizado la redacción y revisión del proyecto constructivo y con fecha 9 de mayo de 2023 se ha procedido a la aprobación definitiva del proyecto de trazado.

Mediante la ORDEN FORAL 1714/2023, de 27 de febrero, de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, se resolvió formular Informe de impacto ambiental del «Proyecto Constructivo del Camino Natural Vía Vieja de Lezama entre los municipios de Bilbao y Derio (Bizkaia).

Proiektu horrek okupatutako lurzorua desjabetzeko, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren ekainaren 16ko 3447/2023 FORU AGINDUAREN bidez «Bilboko eta Derioko (Bizkaia) udalerrien artean Lezamako Bide Zaharra natura-bidea trazatzeko proiektuak» ukitzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea ebazten da.

En el ámbito de la expropiación del suelo ocupada por este proyecto, mediante ORDEN FORAL 3447/2023, de 16 de junio, de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, por la que se resuelve someter a información pública la relación de bienes y derechos afectados por el «Proyecto de trazado del camino natural vía vieja de Lezama entre los municipios de Bilbao y Derio (Bizkaia)».

Bestalde, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren asmoa da obren lizitazioa urteko bigarren seihilekoan zehar egitea.

Por su parte, el Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación prevé la licitación de las obras durante el segundo trimestre del año.

HIDROLOGIA

Bizkaiko sare hidrometeorologikoko ur-emaria neurtzeko estazioen ustiapena URA-Ur Agentziari lagatzeko akordioa sinatu ondoren, erakunde horri dagokio estazioen ustiapena. Hala ere, oraindik ere Aldundia denez instalazio horien titularra, hainbat betebehar ditu haiei dagokienez.

HIDROLOGÍA

Tras la firma del acuerdo de cesión de la explotación de las estaciones de aforo de la red hidrometeorológica de Bizkaia a URA-Ur Agentzia, la explotación de las mismas corresponde a este ente. No obstante y dado que la Diputación continua siendo la titular de dichas instalaciones, ostenta sobre las mismas una serie de obligaciones.

Estazio horietako arriskuen ebaluazioa eguneratu, eta URAri aurkeztu ondoren, zenbait esku-hartze egiten ari dira, Aldundiaren higiezin horiekin lotutako akats batzuk zuzentzeko, indarreko araudian ezarritakoa bete dezaten.

Tras la correspondiente actualización de la evaluación de riegos en las mismas, y su presentación a URA, se está procediendo a realizar una serie de pequeñas intervenciones que tienen por objeto subsanar las deficiencias relacionadas con estos inmuebles forales para su adecuación a la normativa en vigor.

Saila eta Programa / Departamento y Programa

02	**INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA** ***MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA***
456116	**INGURUMEN-AZPIEGITURAK** ***INFRAESTRUCTURAS AMBIENTALES***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	**ERAKUNDE ETA TALDE BATZUEI EKONOMIKOKI LAGUNDU HORNIDURA ETA SANEAMENDUKO JARDUERAK EGITEKO** ***AYUDAR ECONÓMICAMENTE A INSTITUCIONES Y ORGANISMOS DIVERSOS PARA REALIZAR ACTUACIONES DE ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO.***			
1	BILBAO BIZKAIA UREN PARTZUERGOAREN DIRU-LAGUNTZA *SUBVENCIÓN AL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA.*			
1	Diru-laguntza bezala emandako euroak (milioitan) *Nº de millones de euros subvencionados*	2	2	2
2	**ATSEDENLEKUAK MANTENDU ETA HOBETZEA** ***MANTENIMIENTO Y MEJORA DE ÁREAS ESPARCIMIENTO***			
1	ATSEDENLEKUAK MANTENDU ETA HOBETZEA *ACTUACIONES EN ÁREAS DE ESPARCIMIENTO*			
1	Zaindutako atsedenleku kopurua *Nº áreas de esparcimiento atendidas*	76	76	76
2	Tratamendua eman zaion azalera, hektareatan *Superficie tratada en hectareas*	228	228	228
3	Atsedenlekuetan egindako obra-kopurua *Nº de obras en áreas de esparcimiento*	4	4	
3	**HIRIKO HONDAKINEN KUDEAKETA** ***GESTION DE RESIDUOS URBANOS***			
1	HONDAKINEI BURUZKO AZTERLAN ETA LAN TEKNIKOAK EGITEA *REALIZACION ESTUDIOS Y TRABAJOS TECNICOS SOBRE RESIDUOS*			
1	Azterlan eta lan teknikoen kopurua *Nº de estudios y trabajos técnicos*	3	3	1
2	OBRA LINEALETAN BETELANAK EGITEKO PROIEKTUEN JARRAIPENA *SEGUIMIENTO DE LA EJECUCIÓN DE PROYECTOS DE RELLENOS DE OBRAS LINEALES*			
1	Gauzatzen eta jarraipena egiten ari zaien proiektuen kopurua *Nº de proyectos en ejecución y seguimiento*	2	2	2
2	Baimena behar duten betelanen proiektuen kopurua *Nº de nuevos proyectos en rellenos a autorizar*	1	1	1
3	ENKARGUA GARBIKER-I *ENCARGO A GARBIKER*			
1	Emandako milioi euroen kopurua *Nº de millones de euros aportados*	9	9	5
4	HONDAKINEI BURUZKO HITZARMENAK *CONVENIOS RESIDUOS*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Hondakinak tratatzeko udalekin eta mankomunitateekin indarrean dauden hitzarmenen kopurua *Nº convenios para tratamiento de residuos vigentes con ayuntamientos y mancomunidades*	78	78	78
5	ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, HONDAKINAREN KUDEAKETA ERAGINKOR ETA JASANGARRIRAKO *SUBVENCIONES A INSTITUCIONES PARA LA GESTIÓN EFICIENTE Y SOSTENIBLE DEL RESIDUO*			
1	Dirulaguntzetan emandako milioi euroen kopurua *Nº de millones de euros subvencionados*	1	1	
2	Diruz lagundutako proiektuen kopurua *Nº proyectos subvencionados*	20	37	29
4	**HONDARTZAK GARBITU, MANTENDU ETA HOBETZEA** ***LIMPIEZA, MANTENIMIENTO Y MEJORA DE PLAYAS***			
1	HONDARTZEN GARBIKETA ETA ALTZARIEN INSTALAZIOA, KONPONKETA ETA KONTSERBAZIOA *LIMPIEZA DE LAS PLAYAS E INSTALACION,REPARACIÓN Y CONSERVACIÓN DEL MOBILIARIO.*			
1	Megafonia-dorreen kopurua *Nº torres megafonía.*	42	42	42
2	Komun eramangarrien kopurua. *Nº aseos portatiles.*	11	11	10
3	Eskuz garbitu beharreko hondartza-kopurua *Nº playas a limpiar manualmente.*	28	28	28
4	Mekanikoki garbitu beharreko hondartza-kopurua *Nº playas a limpiar mecanicamente.*	22	22	22
2	AZPIEGITURETAKO OBRAK HONDARTZETAN *OBRAS INFRAESTRUCTURAS EN PLAYAS.*			
1	Obra kopurua *Nº de obras*	1	1	
5	**HONDARTZEN ZAINTZA** ***VIGILANCIA DE PLAYAS***			
1	HONDARTZETAKO SOROSLEEN ETA LAGUNDUTAKO BAINUAREN KONTRATAZIOA *CONTRATACIÓN DE SOCORRISTAS Y BAÑO ASISTIDO EN PLAYAS*			
1	Lagundutako bainurako laguntzaileen kopurua *Nº de asistentes para baño asistido*	18	18	38
2	Sorosleen kopurua *Nº socorristas*	168	168	168
3	Bainu lagundua duten hondartzen kopurua *Nº playas con prestación de baño asistido*	6	6	8
6	**BIDE BERDEAK ETA BIDEZIDORRAK** ***VÍAS VERDES Y SENDEROS***			
1	BIDE BERDEEN ETA BIDEZIDORREN PROIEKTUAK IDAZTEA *REDACCIÓN DE PROYECTOS DE VÍAS VERDES Y SENDEROS*			
1	Idatzitako proiektuen kopurua *Nº de proyectos redactados*	1	1	1
2	Aztertutako ibilbideen kilometro-kopurua *Nº Kms de rutas analizadas*	35	35	

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto

Aldia: Urtarrila - Ekaina
Periodo: *Enero - Junio*

Saila		**IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA**
Departamento	**02**	***SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL***
Programa		**Babesa eta Ingurumena**
Programa	**172.103**	***Protección y Medio Ambiente***

Ingurumen Programaren helburua ingurumen kalitate handiko lurraldea lortzea da, garapen sozioekonomikoarekin bateragarria dena.

Ingurumen politikak oinarritzat hartzen ditu prebentzio printzipioa, ardura kolektiboa, gaitasuna eta subsidiariotasuna.

1. Jasangarritasuna eta klima aldaketa

Jasangarritasuna

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak garatutako ekintzen artean nabarmendu behar dira 2023an hasi diren edo garatzen jarraitu diren ekintza hauek:

- Udalsarea 2030

  Bizkaiko Foru Aldundiaren parte hartzea Udalsarea 2030ean, Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea.

- Ekosistemen Zerbitzuak. Zerbitzu ekosistemikoak eta giza ongizatearekin duten lotura aztertzen duen ikerkuntza proiektua.

  Bizkaiko azpiegitura berdearen formulazioa, zerbitzu ekosistemikoen ikuspegitik, eta haren elementuen garapena.

  Udalerrietan azpiegitura berde-urdina garatzeko edo hobetzeko gida prestatzeko lanak.

El Programa de Medio Ambiente tiene como objetivo lograr un territorio con una gran calidad medioambiental, compatible con el desarrollo socioeconómico.

La política medioambiental está basada en los principios de prevención, responsabilidad colectiva, competencia y subsidiariedad.

1. Sostenibilidad y Cambio climático

Sostenibilidad

Entre las acciones desarrolladas por el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural cabe destacar las siguientes acciones, que se han continuado desarrollando o se han iniciado a lo largo de 2023:

- Udalsarea 2030

  Participación de la Diputación Foral de Bizkaia en Udalsarea 2030, Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad.

- Servicios de los Ecosistemas. Proyecto de la investigación que estudia los servicios ecosistémicos y su relación con el bienestar humano.

  Formulación de la Infraestructura Verde-azul de Bizkaia desde la perspectiva de los servicios ecosistémicos y desarrollo de los elementos de la misma.

  Elaboración de una Guía para desarrollar o mejorar una Infraestructura Verde-Azul a escala municipal.

- Planetaren Jardunaldiak: “Basque Environment and Oceans Week” 2023

  Planetaren osasun-egoera aztertzeko jardunaldi zientifiko-tekniko horien sustapena, eta parte-hartzea

Ingurumen hezkuntza

Hainbat jarduketa bultzatu dira, tartean, 2023. urteko lehen seihilekoan garatutako honako hauek:

- Web korporatiboan hezkuntza baliabideak eta ingurumen edukiak eguneratzen laguntzea.
- Sare Berdeak ingurumen jasangarritasunaren aldeko toki udalerrien egitasmoen sarea sustatzea eta garatzea, Global Action Planekin lankidetzan (GAP).
- Zero Zabor Uretan kanpainan laguntzea. Kanpainak agerian jartzen ditu itsasoko hondakinen arazoak, eta prebentziorako aukerak eraikitzea eta Itsaso Bizia hezkuntza eta dibulgazio baliabideak prestatzea sustatzen du.
- Hitzarmena Aranzadi sozietatearekin eta BBK banku fundazioarekin, Urdaibai Bird Centerren ingurumen hezkuntza eta parte hartzerako jarduerak garatzeko.
- Martxan da BBK banku fundazioarekin sinatuko den hitzarmena formalizatzea, BBK Klima proiektua sustatzeko, jasangarritasun eta klima aldaketa arloan programatutako jardueretarako.
- Naturari eta biodibertsitateari buruzko BioTa tailerrak egitea Bizkaiko ikastetxeetan.
- Soinu Kalitatea tailerrak egitea Bizkaiko ikastetxeetan.

- Jornadas para el Planeta "Basque Environment and Oceans Week" 2023

  Impulso y participación en estas jornadas científico-técnicas para conocer el estado de salud del Planeta.

Educación ambiental

Se han impulsado diferentes actuaciones entre las que, a lo largo del primer semestre del año 2023, se han desarrollado las siguientes:

- Apoyo a la actualización de contenidos de medio ambiente y recursos educativos en la web corporativa.
- Impulso y desarrollo de Sare Berdeak, red de iniciativas de la comunidad local por la sostenibilidad ambiental, en colaboración con Global Action Plan (GAP).
- Colaboración en la campaña Zero Zabor Uretan que da visibilidad a la problemática de los residuos marinos y anima a construir alternativas para su prevención y elaboración de recursos divulgativos y didácticos Itsaso Bizia.
- Convenio con la Sociedad de Ciencias Aranzadi y la fundación bancaria BBK para el desarrollo de actividades de educación y participación ambiental en Urdaibai Bird Center.
- En marcha la formalización del convenio con la fundación bancaria BBK para impulsar el proyecto BBK Klima para las actividades programadas en materia de sostenibilidad y cambio climático
- Realización de talleres BioTa sobre naturaleza y biodiversidad por centros de enseñanza de Bizkaia.
- Realización de talleres Calidad Sonora-Soinu Kalitatea en centros de enseñanza de Bizkaia.

- Farmer Fish erronka garatzea. Biekonomia zirkularrari buruzko tailerrak dira, lehen hezkuntzako ikasleentzat. Bizkaiko ikastetxeetan egiten da.

Energia eta klima aldaketa

- Jasangarritasun Energetikoaren Batzordean eta haren Zuzendaritza Batzordean lan egitea, Foru Aldundian jasangarritasun energetikoaren arloko jarduketak koordinatu eta zuzentzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Energia-jarduketen Plan Orokorra (EJPO) egin eta onestea.
- Martxan jartzeaBizkaiko Foru Aldundiaren Energia-jarduketen Plan Orokorrean (EJPO) aurrezkiari eta energia-efizientziari dagokienez programatutako jarduketak: inbentarioak, prestakuntza-ikastaroak, sentsibilizazioa, aurrezteko neurriak, mugikortasun jasangarria, etab.
- Bizkaiko foru-sektore publikoaren energia-diagnostiko aurreratua egitea, Energia-jarduketen Plan Orokorra (EJPO) berrikusi aurretik, Bizkaiko Foru Aldundia jasotzeaz gainera, foru-sektorea osorik hartzeko.
- Ondorioak prestatzea, Bizkaiko Foru Aldundiak klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko estrategia bat zabaltzeko kontuan hartu behar dituen erronkak identifikatzeko, lurraldeko funtsezko eragileekin kontsulta-prozesu bat egin eta gero. Oinarria diagnostiko aurreratua izan da.
- Bizkaian 2050erako klima-neutraltasuna lortzeko estrategia egiteko kontratazio-prozesua hastea.

- Desarrollo del reto Farmer Fish-Talleres sobre bioeconomía circular para el alumnado de educación primaria, que se desarrolla en centros educativos de Bizkaia.

Cambio climático y energía

- Trabajo de la Comisión de Sostenibilidad Energética de la Diputación Foral de Bizkaia y su Comité Director para coordinar y dirigir las actuaciones en materia de sostenibilidad energética en la Diputación Foral.
- Elaboración y aprobación del Plan General de Actuación Energética (PGAE) de la Diputación Foral de Bizkaia
- Puesta en marcha de las actuaciones programadas en el Plan General de Actuación Energética (PGAE) respecto al ahorro y a la eficiencia energética: inventarios, cursos formativos, sensibilización, medidas de ahorro, movilidad sostenible, etc..
- Realización del Diagnóstico avanzado energético del sector público foral de Bizkaia, como paso previo para la revisión del Plan General de Actuación Energética (PGAE) de manera que incluya no sólo a la Diputación Foral de Bizkaia, sino también a todo su sector foral.
- Elaboración de las conclusiones tras la puesta en marcha de un proceso de consulta entre agentes clave del territorio para identificar retos a considerar desde la Diputación Foral de Bizkaia en el despliegue de una estrategia de cambio climático y transición energética, a partir del diagnóstico avanzado elaborado
- Inicio del proceso de contratación para la “Elaboración de la Estrategia para la neutralidad climática de Bizkaia 2050

- Bizkaiko Lurralde Historikoan lehengoratze ekologikoaren eta klima-egokitzapenaren xede izan daitezkeen eremuei buruzko aurretiazko azterlana egitea.
- "Bizkaiko azpiegitura berde-urdinerako proposamena" egitea
- Urban Klima 2050 (LIFE 18 IPC 000001) proiektu europarrean parte hartzea, entitate bazkide modura.
- Kostegoki programan parte hartzea, klima aldaketaren aurrean euskal kostaren zaurgarritasunari buruzko ikerkuntza proiektuan.
- Toki entitateei zuzendutako laguntza deialdia (udalak eta mankomunitateak):

Martxan da 2023. urteko deialdia, abenduaren 7ko 148/2022 Foru Dekretuaren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiarena, udalei eta mankomunitateei energia eraginkortasunaren arloko jarduketetarako, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko eta energia berriztagarriak sustatu eta ezartzeko dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia onetsi zituena. Dagoeneko 70 proiektu esleitu zaizkie beste horrenbeste udalerri eta mankomunitateei.

- Realización de un estudio preliminar de áreas susceptibles de restauración ecológica y adaptación climática en el territorio histórico de Bizkaia
- Elaboración de una "Propuesta para la Infraestructura Verde-Azul de Bizkaia"
- Participación como entidad socia en el proyecto europeo Urban Klima 2050 (LIFE 18 IPC 000001).
- Participación en el programa Kostegoki, proyecto de investigación sobre vulnerabilidad de la costa vasca ante el cambio climático.
- Convocatoria de ayudas a entidades locales (ayuntamientos y mancomunidades):

En marcha la convocatoria del año 2023, mediante el Decreto Foral 148/2022, de 7 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones a Ayuntamientos y Mancomunidades para actuaciones en materia de cambio climático, con el fomento de medidas de ahorro y de eficiencia energética, y la promoción e implantación de energías renovables. Ya se han adjudicado 70 proyectos a otros tantos municipios y mancomunidades.

Ingurumen informazioa

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea betez, non ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu baitzen, uztailaren 18ko 27/2006 Legean ezarritako prozeduraren arabera, ingurumenaren gaian informazioa eskuratzeko eskubidea arautu duena, honako hauen inguruan:

a) Ur, aire, lurzoru, lur, fauna, flora, eta espazio naturalen egoera.

Información Ambiental.

En cumplimiento de la ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental del País Vasco, en la que se regula el derecho de acceso a la información en materia de medio ambiente, según el procedimiento establecido en la Ley 27/2006 de 18 de julio, sobre el derecho de acceso a la información en materia de medio ambiente, estando ésta referida:

a) Al estado de las aguas, el aire, el suelo y la tierra, la fauna, la flora y los espacios naturales y

b) Ingurumena kudeatzeko plan edo programak, eta ingurumena babesteko neurri edo jarduketak.

Aipatutako ondorioetarako, eduki desberdin baina osagarria duten ekintzak martxan jarri dira.

- Aipatutako aginduen esparruan Bizkaiko Foru Aldundira bideratutako informazio eskaerak jaso, izapidetu eta erantzun egin dira.
- Informazio postontziak (sarbidea Laguntza zerbitzuaren bitartez du) informaziora sarbidea izatea errazten die erabiltzaileei, teknika informatikoak ematen dituen aukerak erabiliz.
- Telefono bidezko arreta eta arreta presentziala Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dagoen ingurumen informazioaren inguruko interesa agertzen duten herritarrentzat.
- Ingurumen arloan informazio eskaera instituzionalei erantzuna eman zaie.

Azken finean, arreta eman zaie ingurumen informazio eskaerei, baita iradokizun, kexa eta salaketei ere. Laguntza zerbitzuaren bitartez iristen diren eta sailean beste kanal batzuen bitartez, aurrez aurre edo telefonoz jasotzen diren beste eskaera batzuen erantzunak.

Guztira 221 informazio eskaera, iradokizun eta salaketa kudeatu dira.

2. Ondare naturala

Plan, proiektu, obra eta jarduerei buruzko nahitaezko baimen eta txostenak eman dira, mehatxatutako espezien kudeaketaren zein espazio babestuen ingurukoak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legea eta horren garapen arautzailea aplikatuz. Horrez gain, espazio babestuen sarean baso kudeaketari buruzko txosten eta baimenak eman dira, baita

b) A los planes o programas de gestión del medio ambiente y a las actuaciones o medidas de protección ambiental.

A los mencionados efectos se han puesto en marcha acciones con diferente pero complementario contenido.

- Se han recogido, tramitado y respondido las solicitudes de información que en el ámbito de los mencionados preceptos se han dirigido a la Diputación Foral de Bizkaia.
- El buzón informático~~,~~ al que se accede a través del servicio Laguntza, y que facilita a los usuarios el acceso a la información usando las posibilidades que la técnica informática proporciona.
- La atención telefónica y presencial de la ciudadanía que se interesa por la información ambiental en poder de la Diputación Foral de Bizkaia
- Se han realizado respuestas a solicitudes institucionales de información en materia ambiental.

En definitiva, atención a las demandas de información ambiental, así como a las sugerencias, las quejas y las denuncias. Respuestas a las demandas que llegan a través de Laguntza y las que se reciben en el Departamento por otros canales como el presencial o el telefónico.

Se han gestionado un total de 221 solicitudes de información, sugerencias y denuncias.

2. Patrimonio Natural

Se emiten los informes y autorizaciones preceptivas sobre planes, proyectos, obras o actividades, relativos tanto a la gestión de las especies amenazadas como a los espacios protegidos, en aplicación de la Ley 42/2007 del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad y de su desarrollo normativo. Se emiten asimismo informes y autorizaciones referentes a la gestión

espazio natural babestuetan erabilera publikoari lotutakoak ere (fauna eta flora espezialisten laginak, bisitak barrunbeetara, kirol probak).

Kudeaketa eta dinamizazio zerbitzuak eman dira Urkiola, Gorbeia eta Armañongo parketxeetan; horrek barne hartzen du bisitariei arreta ematea, modu partikularrean bertaratzen direnei zein ikastetxeekin adostutako bisitetan datozenei, zentro bakoitzeko hezitzaileek jarduera gidatua egiteko.

Horrez gain, Gaztelugatxeko Doniene Natura-Monumentuko sarbide kontrola eta bisitariei arreta zerbitzuak eskaintzen dira.

Espazio natural babestuetako zaintza eta mantentze lanak egin dira: Parke Naturalak, Natura-Monumentuak, Paisaia Natural Babestuak eta Kontserbazio Bereziko Eremuak.

forestal en la red de espacios protegidos, así como en relación con el uso público en los espacios naturales protegidos (muestreos de especialistas en fauna y flora, visitas a cavidades, pruebas deportivas).

Se presta el servicio de la dinamización y gestión de los Parketxeak de Urkiola, Gorbeia y Armañón, que incluye la atención de visitantes, tanto de los que acceden a título particular como los correspondientes a visitas concertadas con centros escolares para realizar una actividad guiada por los educadores de cada centro.

Asimismo, también se presta el servicio de control de accesos y atención a visitantes del Monumento Natural de San Juan de Gaztelugatxe.

Se realizan labores de conservación y mantenimiento de los espacios naturales protegidos: Parques Naturales, Monumentos Naturales, Paisajes Naturales Protegidos y Zonas de Especial Conservación.

2.1. Biodibertsitatea eta paisaia

Espedienteak eta salaketak

Lehen seihilekoan zehar ondare naturalean eragina izan dezaketen jardueren inguruko 388 txosten eta baimen eman dira, besteak beste, obra baimen eta txostenak, mehatxatutako fauna eta flora espezien interes bereziko eremuei kalte egiten dieten proiektu eta jarduerak (116), mendiko kirol probak (40), baso ustiapenei buruzko txostenak (5, naturagune babestuetatik kanpo), espezie basatiak manipulatzeko baimenak (33), erabilera baimenak espazio babestuetan: filmaketak, grabazioak, etab. (167), zehapen espedienteak hasteko txosten fakultatiboak barne hartuz (27).

Ikerketak

Seihileko honetan mehatxatutako flora eta faunaren inguruko hainbat azterketa hasi dira.

2.1. Biodiversidad y Paisaje

Expedientes y denuncias

A lo largo del primer semestre se han emitido 388 informes y autorizaciones sobre actividades que pueden incidir sobre el patrimonio natural, tales como informes y autorizaciones de obras, proyectos o actividades que afectan a áreas de interés especial de especies de fauna y flora amenazadas (116), pruebas deportivas de montaña (40), informes sobre explotaciones forestales (5, fuera de los espacios naturales protegidos), autorizaciones de manipulación de especies silvestres (33), autorizaciones de uso en espacios protegidos: filmaciones, grabaciones, etc. (167), incluyendo informes facultativos durante la incoación de expedientes sancionadores (27).

Estudios

Durante este semestre se han iniciado diversos estudios de flora y fauna amenazada.

- 2023ko hazkuntza-denboraldirako Bizkaiko Lurralde Historikoan ubarroi mottodunaren (*Phalacrocorax aristotelis*) errolda osoa eta kontrol-kolonien jarraipena egiteko azterlana.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko erleak 2023: Ezagutzeko eta kontserbatzeko oinarriak
- Galapago autoktonoen (Emys *orbicularis* eta *Mauremys leprosa*) populazioen lokalizazioa eta jarraipena eta exotikoen kontrol eta ateratzea Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2023.
- Germoplasma biltzea eta Bizkaian espezie mehatxatuen euskal katalogoko landare espezieak ekoiztea, 2023ko kanpaina.
- Apo lasterkariaren kostaldeko populazioaren kontserbazio egoeraren azterketa Gorrondatxeko hareatzan eta inguruetan. 2023ko kanpaina.
- Karramarro autoktonoaren (*Austropotamobius fulsicianus*) banaketa eguneratzea Bizkaiko Lurralde Historikoan, ingurumen-genetikaren bidez, 2023
- Lea Ibaia KBEko eta Artibai Ibaia KBEko paduretako, Galindo, Kadagua eta Asua ibaietako eta Astondoko dunak KBEko habitaten eta flora mehatxatuaren kartografia eta ebaluazioa
- Parke naturalaren eta Gorbeiako kontserbazio bereziko eremuaren ehiza egokitzapenerako plana idazteko azterlana.
- Ordunteko Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) dauden ehiza-espezieak.

- Estudio para el censo completo y seguimiento de colonias control del cormorán moñudo (*Phalacrocorax aristotelis*) en el territorio histórico de Bizkaia para la temporada de cría 2023
- Abejas del Territorio Histórico de Bizkaia 2023: Bases para su conocimiento y conservación.
- Localización y seguimiento de las poblaciones de galápagos autóctonos (*Emys orbicularis* y *Mauremys leprosa*) y control y extracción de exóticos en el T.H. de Bizkaia, 2023
- Recogida de germoplasma y producción de planta de especies incluidas en el catálogo vasco de especies amenazadas en Bizkaia. Campaña de 2023.
- Estudio del estado de conservación de la población costera de sapo corredor en el arenal de Gorrondatxe y sus alrededores. Campaña 2023.
- Actualización de la distribución en el T.H Bizkaia del cangrejo autóctono (*Austropotamobius fulsicianus*) mediante genética ambiental, 2023
- Cartografía y evaluación de hábitats y flora amenazada de las marismas de la ZEC Río Lea y ZEC Río Artibai, los ríos Galindo, Kadagua y Asua, así como de la ZEC dunas de Astondo
- Estudio para la redacción del plan de adecuación cinegética del parque natural y Z.E.C. de Gorbeia
- Situación de especies cinegéticas en la Zona Especial de Conservacion (ZEC.) de Ordunte.

- Ordunte eta Armañongo KBEetan eta Meatzaldeko Pasaia Natural Babestuan basokoak ez diren hegazti menditarren azterketa.
- *Genista legionensis* (Pau) Lainz.-en in vitro n vitro hazkuntza-lanen optimizazioa. Gogortzea
- Bizkaian Lurralde Historikoaren katalogatutako flora baskularreko taxonen egoeraren analisia eta populazioen jarraipena. 2022-2023 denboraldia.
- Zerbitzu zientifiko-teknikoak. Bizkaiko *Quercus coccifera* uzta-populazioen karakterizazio genetikorako azterlana
- Bizkaiko Lurralde Historikoan sai arrea (*Gyps fulvus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) eta belatz handia (*Falco peregrinus*) harrapari errupikolen monitorizazio azterketa. 2022-2023 denboraldia.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Belatzen (*Falco peregrinus*) eta Sai Zurien (*Neophron percnopterus*) dieta eta karga parasitarioaren hurbilketa genomikoa 2023an
- Karrantza-Ordunteko sarraskigunearen jarraipena.
- Sai zuriaren jokabide-programa bat garatzeko lanak.

Natura leheneratzea

- Apo lasterkariaren habitata hobetzeko jarduketak Azkorriko hondartzan.
- Naiadeen habitata hobetzea Butroe ibaian.
- Astondo, La Arena eta Lagako duna-sistemak babesteko jarduerak.

- Estudio de las aves montanas no forestales en las Zonas Especiales de Conservación de Ordunte y Armañon y el Paisaje Natural Protegido de Meatzaldea.
- Optimización de trabajos de cultivo in vitro de *Genista legionensis* (Pau) m. Lainz. Endurecimiento.
- Seguimiento de poblaciones y análisis de situación de táxones de flora vascular catalogados en el Territorio Histórico de Bizkaia. Temporada 2022-2023
- Servicios científico-técnicos. Estudio para caracterización genética de poblaciones de coscoja *Quercus coccifera* de Bizkaia.
- Estudio de monitorización de las rapaces rupícolas: buitre leonado (*Gyps fulvus*), alimoche común (*Neophron percnopterus*) y halcón peregrino (*Falco peregrinus*) en el Territorio Histórico de Bizkaia. Temporada 2022-2023.
- Aproximación genómica a la dieta y carga parasitaria de los Halcones (*Falco peregrinus*) y Alimoches (*Neophron percnopterus*) del Territorio Histórico de Bizkaia en 2023.
- Seguimiento del comedero-muladar de Karrantza-Ordunte.
- Trabajos para el desarrollo de un programa de actuación del alimoche común.

Restauración de la naturaleza

- Actuaciones de mejora del hábitat del sapo corredor en la playa de Azkorri.
- Mejora del hábitat de náyades en el río Butroe.
- Actuaciones para la protección de los sistemas dunares de Astondo, La Arena y Laga.

Espezie inbaditzaileak

Bisoi amerikarra, mapatxea, liztor beltza eta flora exotiko inbaditzaileen kontrolerako erauzketak egiten jarraitzen da Bizkaian.

Barbadungo KBEan, La Arenan eta Lagan, flora exotiko inbaditzailearen aleak kendu dira

Especies invasoras

Se continua con la erradicación del visón americano, mapache, avispa asiática y flora exótica invasora en Bizkaia.

Se han eliminado ejemplares de flora exótica invasora en la playa de La Arena (ZEC de Barbadún) y Laga.

2.2 Babestutako Natura Guneen kudeaketa

Bizkaiko babestutako natura espazioen kudeaketak dakar babestutako natura espazioen kudeaketa, zaintza eta mantentze lanak egin behar izatea: Parke Naturalak, Natura-Monumentuak, Paisaia Natural Babestuak eta Kontserbazio Bereziko Eremuak.

Baso kudeaketako lan proposamenak egin dira jabari publikoko lurretan, eta ingurumen ebaluazio egokiari buruzko txosten teknikoak egiten dira, jarduketa propioetan zein edozein sustatzaileren kasuan, kasuan kasuko kudeaketa dokumentuetara egokitzeko.

Naturgune babestuen antolamendua:

- Armañongo natur parkea eta kontserbazio gune berezia erabili eta kudeatzeko plan zuzentzailea idazten hastea.

Ingurumen hezkuntza eta bisitarien arreta:

Ingurumen hezkuntzarekin eta bisitariei arreta ematearekin lotutako jarduerak parke naturaletan bideratzen dira, interpretazio zentroen bitartez. Urkiolako parketxearen kasuan, Toki-Alain (informazio eta interpretazio zentroa), guztira, 7.513 bisitari jaso dira. Gorbeiako kasuan, Areatzako zentroan, 7.981 bisitari, eta Armañonen, Raneroko zentroan, 6.713 bisitari.

Zuhaitz eguna ere ospatu da, landareak erosten horretarako

2.2 Gestión de Espacios Naturales Protegidos

La gestión de los espacios naturales protegidos de Bizkaia conlleva realizar labores de gestión, conservación y mantenimiento de los espacios naturales protegidos: Parques Naturales, Monumentos Naturales, Paisajes Naturales Protegidos y Zonas de Especial Conservación.

Se elaboran propuestas de trabajos de gestión forestal en los terrenos de dominio público y se realizan informes técnicos relativos a la adecuada evaluación ambiental tanto de actuaciones propias como de cualquier otro promotor para su adecuación a los respectivos documentos de gestión.

Ordenación de los espacios naturales protegidos:

- Inicio de la redacción del Plan Rector de Uso y Gestión del parque natural y zona especial de conservación de Armañón.

Educación Ambiental y atención de visitantes:

Las actividades relacionadas con la educación medioambiental y la atención de visitantes se canalizan en los parques naturales a través de los centros de interpretación. En el caso de Urkiola se han recibido en Toki-Alai (centro de información e interpretación) en total 7.513 visitantes. En el caso de Gorbeia, en el centro de Areatza, han sido 7.981 visitantes, y en Armañón, en el centro de Ranero, 6.713 visitantes.

También se ha celebrado el día del Árbol, suministrándose plantas para ello.

LIFE OREKA Mendian eta beste Life batzuk:

Life 15 Nat/Es/805 proiektua bukatutzat ematen da “Oreka Mendian” izenekoa, babestutako natura espazioetan belardi habitatak kudeatzeari dagokiona; azken txostenak aurkeztu dira baita Europan.

Post-LIFE OREKAren esparruan, bi putzu eraiki dira Artzentalesen, udan aska hornitzen dela bermatzeko, eta, aldi berean, fauna-biodibertsitatea handitu da ur-erreserba horiekin.

LIFE OREKA Mendian y otros Life:

Se ha dado por concluido el Life 15 Nat/Es/805 denominado “Oreka Mendian” relativo a la gestión de los hábitats pascícolas en E.N.P., presentándose los informes finales a Europa.

En el marco del Post-LIFE OREKA se han construido dos balsas en Artzentales para asegurar el suministro del abrevadero en periodos estivales, aumentando a la par la biodiversidad faunística con dichas reservas de agua.

Ikerketak:

Aurreko atalean aipatutako espezie eta habitatez gain, honako hauek garatzen ari dira:

- Gaztelugatxen ikerketa geologiko eta geoteknikoekin jarraitzen da, mendi-hegalaren ezegonkortasuna dela eta.
- Pozalaguako (Karrantza) parametro mikroklimatikoen txostena. 2022 aldia.
- Armañon eta Otsobasoko (Gorbeia) aztarnategi megalitikoetan ikerketak egin dira.
- -Ehiza-espezieen jarraipena Armañon, Gorbeia, Ordunte eta Urkiolako Zainketa Bereziko Eremuetan.
- -Gorbeiako Parke Naturaleko eta Zainketa Bereziko Eremuko ehiza egokitzeko plana idazteko azterlana.
- Dimako Eskuaga OPMren mugaketarako azterlan-memoria egin da.

Estudios:

Además de los relativos a especies y hábitats citados en el apartado anterior, se están desarrollando los siguientes:

- En Gaztelugatxe se continua con las investigaciones geológicas y geotécnicas debido a la inestabilidad de la ladera.
- Informe de los parámetros microclimáticos de Pozalagua (Karrantza). Periodo 2016-2022.
- Investigaciones en yacimientos megalíticos de Armañón y Otsobaso (Gorbeia).
- Seguimiento de especies cinegéticas en la Zona Especial de Conservación de Armañon, Gorbeia, Ordunte y Urkiola.
- Estudio para la redacción del plan de adecuación cinegética del Parque Natural y Zona Especial de Conservación de Gorbeia.
- Memoria/investigación para el Deslinde del MUP Eskuaga en el TM de Dima.

Baso eraberritzeak:

Babestutako natura espazioen baso kudeaketari dagokionez, zenbait jarduketa egin dira moztu eta ebakitako mendiak birgaitze aldera eta baso birpopulazioak egoera onean mantentzeko. Espezie hostozabal eta konifero autoktonoekin 2022ko amaieran hasitako basoetako birpopulazio lanak jarraitu egin dira (22,84 ha Gorbeian (Areatza eta Zeanuri), 16,72 ha Armañonen eta 2 ha Ordunten (Karrantza)): zuloak egin eta espezieak landatu, hodi babesleak jarri, hainbat itxitura, belar-sastrakak kendu...

Repoblaciones forestales:

En lo referente a la gestión forestal en los E.N.P. al objeto de restaurar los montes talados y rasos y mantener en buen estado las repoblaciones forestales se han realizado diversas actuaciones. Se ha continuado con los trabajos de repoblación forestal con especies de frondosa autóctona y coníferas autóctonas iniciados a finales de 2022 (22,84 ha en Gorbeia (Areatza y Zeanuri), 16,72 ha en Armañon y 2 ha en Ordunte (Karrantza)): ahoyado y plantación de especies, colocación de tubos protectores, diversos cierres, desbroces...

Basoko pisten hobekuntza eta mantenimendua:

Pistak mantentzeko lanen barruan, hainbat jarduketa egin dira babestutako natura espazioetan (lur jausiak kentzea, harri lubetak eraikitzea, bionda berriak jartzea,..), batez ere euriteek eragindako kalteengatik.

Bestalde, Ordunte, Armañon, Urkiola eta Gorbeiarako 2023ko pistak hobetzeko proposamena esleipen prozesuan dago.

Mejora y mantenimiento de pistas:

Dentro de los trabajos de mantenimiento de pistas se han realizado diversas actuaciones en los ENP, como retirada de desprendimientos, construcción de escolleras, colocación de biondas deterioradas, ...), debido en la mayoría de los casos a los daños producidos por las lluvias.

Por otro lado, la propuesta de mejora de pistas de 2023 para Ordunte, Armañón, Urkiola y Gorbea, está en proceso de adjudicación

Abeltzaintza jarduera:

Abeltzaintza-erabilerei dagokienez, GPS monitorizazio-gailuekin jarraitzen da (konponketak eta kuoten mantentzea); Aramotzen (Urkiola) ganadua batzeko manga ere konpondu da, bai eta aipatutako Artzentaleseko putzuak sortu ere.

Actividad ganadera:

En lo que respecta a los usos ganaderos se continua con los dispositivos de monitorización GPS del ganado (arreglos y mantenimiento de cuotas); también se ha arreglado la manga ganadera de Aramotz (Urkiola) así como la creación de las mencionadas balsas de Arcentales.

Erabilera publikoa eta ekipamendu zein azpiegituren hobekuntza:

Gaztelugatxeko Monumentu Naturalean erreserba duten bisiten kudeaketa.

Uso público y mejora de equipamientos e infraestructuras:

Gestión de las visitas con reserva en el Monumento Natural de San juan de Gaztelugatxe.

Gaztelugatxe-Bermeo oinezkoentzako bidea eraikitzeko lanei ekitea, Lur-Erleko Puntan.

Inicio de los trabajos de construcción de la senda peatonal Gaztelugatxe-Bermeo, en su tramo Lurgorri-Erleko Punta.

Gorbeiako seinaleztatutako ibilbideen eta bidexken sarea aztertzen ari da, Parkeko bidexken sarea zabaltzeko

Se está realizando un análisis de la red de rutas y sendas señalizadas de Gorbeia para la divulgación de la red de sendas del Parque. En

Era berean, Gorbeiako Aldape bidea lehengoratzeari ekin zaio. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzak finantzatu du, baina Atalak prestatu eta zuzendu du.

Asimismo, se ha acometido la restauración del camino del Aldape en Gorbeia, proyecto financiado por Gobierno Vasco, aunque preparado y dirigido desde la Sección.

Gorbeian ere Saldropoko hezeguneko infografiak eguneratzeko panel berriak amaitzen ari dira.

También en Gorbeia se están ultimando los nuevos paneles para actualizar las infografías del humedal de Saldropo.

Pozalagua haitzuloko (Armañon) mikroklimaren jarraipen estazioak berritzea

Renovación de las estaciones de seguimiento del microclima de la cueva de Pozalagua (Armañón).

Mendien antolamendua:

Ordenación de montes:

Urkiolako PNko eta KBEko udal jabari publikoko ondasunak antolatzeko planaren lizitazioa hasi da.

Se ha iniciado la licitación del Plan de ordenación de los MUP y demaniales del PN y ZEC de Urkiola.

Dimako Eskuaga OPMren mugaketarekin hasi da.

Se ha comenzado con el deslinde del MUP Eskuaga en el TM de Dima.

3. Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legea 2022ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean, eta ingurumen ebaluazioaren araudi berria ezarri zuen, planetan zein proiektuetan. 62.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila eratu da Foru Ingurumen Organo gisa.

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen oinarrizko artikulatuak indarrean jarraitzen du, eta ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen ebaluazioaren printzipio informatzaileak eta oinarri arautzaileak ezarri zituen. Euskadiko Ingurumen Administrazioaren

3. Evaluación de Impacto Ambiental.

El 1 de enero de 2022 entró en vigor la Ley 10/2021 de Administración Ambiental de la CAPV, que establece una nueva regulación de la evaluación ambiental, tanto de planes como de proyectos. De acuerdo con lo establecido en el Artículo 62.2. el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia se constituye como Órgano Ambiental Foral.

Sigue vigente el articulado de carácter básico de La Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, que establece las bases que deben regir y los principios informadores de la evaluación ambiental de los planes, programas y proyectos que pueden tener efectos significativos sobre el medio ambiente. Lo establecido en la Ley

10/2021 Legeak zein Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautu zuen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak ezarritakoak eratzen dute oinarrizko araudia ingurumen eraginaren ebaluazioaren ondoriotarako, kasuan kasuko sektore araudiarekin batera.

2023ko lehen seihilekoan, guztira, 5 txosten eman dira ingurumen ebaluazioa behar duten planeamenduari dagokionez, guztira 9 txosten proiektuen ingurumen eraginaren ebaluazioa izapidetzeko, guztira 14 txosten egin dira beste Administrazio Publiko batzuei erantzuteko eta guztira 4 txosten eman dira hainbat azpiegituren ingurumen jarraipena egiteko.

4. Ingurumen prebentzioa

Ingurumen prebentzioko jardueren barruan jarduera sailkatuei, ingurumen egokitasuneko ziurtagiriei eta kutsadura akustikoari buruzko jarduerak egin dira.

JARDUERA SAILKATUAK

Gai honetako eskumenak handitu egin dira Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Lege berria onartzeari esker, eta une honetan jarduera sailkatu guztiak barne hartzen ditu, zein lur motetan egiten diren kontuan hartu gabe. Arlo honetako lana neurri babesle eta zuzentzaileen txostenak ematean datza, batez ere.

Aipatutako araudiarekin bat etorriz, jarduera sailkatu gisa definitzen dira pertsonei edo ondasunei eragozpenak edo arriskuak sorrarazi ahal dizkieten jarduerak, baita ingurumenean kalteak eragin ahal dituztenak ere.

Kalifikazio txostena eman duten izapideen 2023. urteko lehen seihilekoko espedienteen kopurua 46koa da, honela banatuta:

10/2021 de Administración Ambiental de Euskadi, así como el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, constituyen, junto con la sectorial correspondiente, la normativa base a efectos de la Evaluación de Impacto Ambiental.

En el primer semestre de 2023, se han emitido un total de 5 informes en relación con el planeamiento sometido a evaluación ambiental, un total de 9 para la tramitación de la evaluación de impacto ambiental de proyectos, se han elaborado un total de 14 informes en respuesta a consultas de otras Administraciones públicas y se han emitido 4 informes de seguimiento ambiental de diferentes infraestructuras.

4. Prevención Ambiental

Dentro de las actividades de Prevención Ambiental se desarrollan cuestiones relativas a actividades clasificadas, certificados de idoneidad ambiental y contaminación acústica.

ACTIVIDADES CLASIFICADAS

La competencia en esta materia se ha ampliado con la aprobación de la nueva Ley 10/2021 de Administración Ambiental de Euskadi y en estos momentos alcanza a todas las actividades clasificadas, con independencia del tipo de suelo en el que se ubiquen. Las tareas en este campo se centran principalmente en la emisión del informe de medidas protectoras y correctoras.

De acuerdo con la normativa citada se definen como actividades clasificadas, aquellas susceptibles de causar molestias o producir riesgos para las personas o sus bienes, así como de originar daños al medio ambiente.

El número total de expedientes tramitados durante el primer semestre del presente año 2023, con emisión del informe de calificación, asciende a 46, cuyo desglose es el siguiente:

JARDUERAK Lehen seihilekoa 2023. URTEA / *ACTIVIDADES. Primer semestre AÑO 2023*	
Uko eginda/ Desistidos	3
Aurretiazko komunikazioa behar duten instalazioak eta jarduerak/ *Actividades e instalaciones sometidas a comunicación previa*	2
Eusko Jaurlaritzari/ *Traslado a Gobierno Vasco*	1
Laguntza teknikoaren eskaera/ *Petición de asistencia técnica*	2
Aurretiazko kontsultak/ *Consultas previas*	0
Salaketak/ *Denuncias*	1
Espedientearen kopiaren eskaera/ *Solicitud copia de expediente*	3
Beste batzuk / *Otros*	3
Industriak, oro har / *Industrias en general*	10
Bernizatzeko edo pintatzeko gainazal-tratamendua duten tailerrak / *Talleres con tratamiento superficial de barnizado o pintado*	5
Askotariko tailerrak eta lantegiak, 25 kW Azal > 300 m2 / *Talleres y Obradores varios, 25 kW Sup > 300 m2*	3
Biltegiratze, Salmenta, Erakusketa > Toxikoa, Arriskutsua, Sukoia / *Almacenamiento Comercio Exposición > Tóxico, Peligroso, Inflamable*	2
Zerbitzuguneak/ *Estaciones de Servicio*	2
Dantzalekuak, diskotekak, disko tabernak, karaokeak, taberna bereziak, pubak/ *Salas de Fiestas, Discotecas, Disco Bares, Karaokes, Bares Especiales, Pubs*	1
Beste motako establezimendu publikoak edo jolas-jarduerak 300p/ *Otros Establecimientos de Espectác Públicos o Act Recreativas 300p*	3
20 UGM baino gehiagoko etxeko eskorta eta abeltzaintza ustiategiak / *Explotaciones ganaderas y corrales domésticos de más de 20 UGM*	1
Beste jarduera batzuk / *Otras actividades*	4
GUZTIRA / *TOTAL*	**46**

Horrez gain, aldizka, sailak partikularren salaketak jasotzen ditu, martxan dauden jardueren inguruan, batez ere zarata eta bibrazioek eragindako eragozpenengatik. Kasuan kasuko udal aginte eskudunari bideratzen zaio.

Además, periódicamente se reciben en el Departamento denuncias de particulares en relación con actividades en funcionamiento, principalmente por causa de las molestias producidas por ruidos y vibraciones. Éstas se canalizan hacia la autoridad municipal competente.

Halaber, instantzia judizialekin kolaboratzen da zenbait jarduera sailkaturen inguruan irekitako prozedurei buruzko txostenak, ebaluazioak eta/edo aditu lanak egiten. Udalek hasitako kontrol, ikuskaritza eta isun lanetan laguntza teknikoa ere ematen da.

Horrez gainera, lurralde historikoko udalekin lankidetzan aritzeko eta laguntza emateko esparruan, 2022ko abenduan "jarduera sailkatuak kudeatzeko tailer praktikoa" egin ondoren, tailer horren emaitzak eta ondorioak biltzen zituen txosten bat bidali zen Bizkaiko udaletara.

Laburbilduz, gai honetan Bizkaian ingurumen kalitatea hobetzea da helburu nagusia, jarduera sailkatuen kalifikazioaren inguruko eskumenak kudeatuz, kasuan kasuko neurri zuzentzaileak ezarriz, balizko kalteak eta eragozpenak saihesteko.

INGURUMEN EGOKITASUN ZIURTAGIRIAK

Bat etorriz Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 3512/2022 Foru Aginduarekin, garapen iraunkorra, ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorrena lortzeko inbertsioen ingurumen egokitasunaren ziurtagiriaren eta komunikazioaren araubidea arautzeari buruzkoa, Sozietateen Zergan aurreikusitako kenkariaren ondorioetarako, 53 espediente izapidetu dira; 43 espediente ingurumen egokitasunaren ziurtagiriari buruzkoak izan dira, 0 amortizazio askatasunari buruzkoak eta 10 atzera egin dutenak edo ebazteke daudenak.

Igualmente, se colabora con instancias judiciales elaborando informes, evaluaciones y/o peritaciones relacionadas con procedimientos abiertos a diversas actividades clasificadas. También se presta apoyo técnico a las labores de control, inspección y sanción emprendidas por los ayuntamientos.

Asimismo, en el marco de colaboración y asistencia a los ayuntamientos del territorio histórico, tras la celebración en diciembre de 2022 de un "Taller práctico de gestión de actividades clasificadas", se remitió a los ayuntamientos bizkainos un dossier con los resultados y conclusiones de dicho taller.

En resumen, el objetivo principal en esta materia es mejorar la calidad ambiental en Bizkaia a través de la gestión de las competencias relativas a la calificación de Actividades Clasificadas, con la imposición de medidas correctoras oportunas, al objeto de evitar posibles daños y molestias.

CERTIFICADOS DE IDONEIDAD AMBIENTAL

Conforme a la Orden Foral 3512/2022, de la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, sobre la regulación del régimen de la comunicación y del Certificado de Idoneidad Ambiental de las inversiones que procuren el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía, a los efectos de la deducción prevista en el Impuesto sobre Sociedades, se han tramitado 53 expedientes, 43 correspondientes al Certificado de Idoneidad Ambiental, 0 sobre Libertad de Amortización y 10 desistidos o pendientes de resolver.

FISKALITATE JASANGARRIA Lehen seihilekoa 2023. URTEA ***FISCALIDAD SOSTENIBLE. Primer semestre AÑO 2023***	
Ingurumen egokitasunaren ziurtagiria (proiektu bakoitzak kasu bat baino gehiago eduki dezake) *Certificado de Idoneidad Ambiental* (Puede haber más de un supuesto por proyecto)	
Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balorizatzea *Minimización, reutilización y valorización de residuos*	10
Mugikortasuna eta garraio iraunkorra *Movilidad y transporte sostenible*	7
Natura espazioak ingurumen aldetik birsortzea *Regeneración medioambiental de espacios naturales*	0
Ur kontsumoa minimizatzea eta ura araztea *Minimización del consumo de agua y su depuración*	0
Energia berriztagarrien erabilera eta energia eraginkortasuna *Empleo de energías renovables y eficiencia energética*	28
Beste kasu batzuk *Otros supuestos*	0
Ingurumen egokitasunaren ziurtagiria (aldeko txostena jaso duten proeiktuak) *Certificado de Idoneidad Ambiental (Proyectos informados favorablemente)*	39
Ez Ingurumen egokitasunaren ziurtagiria *No Certificado de Idoneidad Ambiental*	4
Atzera egindakoak *Desistimientos*	5
Eusko Jaurlaritzara igortzea *Traslado Gobierno Vasco*	0
Beste batzuk *Otros*	0
Eskatutako dokumentazioa jasotzeke *Pendientes de recibir documentación requerida*	5
Ebaluatutako proiektuak, guztira ***Total proyectos evaluados***	**53**
Amortizazio askatasuna *Libertad de amortización*	0
Ebaluatutako AA proiektuak, guztira ***Total proyectos LA evaluados***	**0**

SOINU KALITATEA ETA KUTSADURA AKUSTIKOA

Zaratak kutsadura akustiko modura dituen ondorioek eta giro zarataren eraginpean egoteak osasunean dituen ondorio negatiboen inguruko ebidentzia zientifikoek areagotu egin dute gizarteak kutsadura akustikoaren aurrean duen sentsibilitatea eta soinu kalitateaz gozatzeko premia.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak zarata kudeatzeko egindakoari dagokionez, 2023an Bizkaiko Informazio Akustikoaren aplikazioa hobetzen jarraitu da, datu akustikoak trukatzeko sistema garatzeko eta Foru Aldundiaren webgunean eskuragarri dagoen zararen tresna mantentzeko.

CALIDAD SONORA Y CONTAMINACION ACUSTICA

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
2	Altak *Altas*	15	15	75
3	Bajak *Bajas*	9	9	24
4	Aldaketak *Modificaciones*	25	25	49
5	BICES ERAIKINAK *EDIFICIOS BICES*			
1	Guztira *Totales*	1.937	1.937	1.938
2	Altak *Altas*	10	10	10
3	Bajak *Bajas*	5	5	11
4	Aldaketak *Modificaciones*	3	3	1
6	HIRIKO ERAIKINETAKO ELEMENTUAK *ELEMENTOS EN EDIFICIO URBANO*			
1	Guztira *Totales*	1.521.813	1.521.813	1.490.283
2	Altak *Altas*	5.220	5.220	5.745
3	Bajak *Bajas*	3.508	3.508	1.751
4	Aldaketak *Modificaciones*	4.838	4.838	16.446
7	LANDAKO ERAIKINETAKO ELEMENTUAK *ELEMENTOS EN EDIFICIO RUSTICO*			
1	Guztira *Totales*	9.190	9.190	9.263
2	Altak *Altas*	256	256	844
3	Bajak *Bajas*	32	32	373
4	Aldaketak *Modificaciones*	56	56	2.338
8	BICE ERAIKINEKO ELEMENTUAK *ELEMENTOS EN EDIFICIO BICE*			
1	Guztira *Totales*	4.377	4.377	3.080
2	Altak *Altas*	320	320	13
3	Bajak *Bajas*	65	65	17
4	Aldaketak *Modificaciones*	45	45	105

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
9	ORUBEAK *SOLARES*			
1	Guztira *Totales*	14.752	14.752	14.490
2	Altak *Altas*	86	86	36
3	Bajak *Bajas*	30	30	15
4	Aldaketak *Modificaciones*	52	52	41
10	ESKUALDATZEAK *TRANSMISIONES*			
1	Eskualdatzeak *Transmisiones*	27.368	27.368	18.189
11	ZUZENKETAK *CORRECCIONES*			
1	Zuzenketak *Correcciones*	3.257	3.257	1.415
2	**BALORAZIOA** ***VALORACION***			
1	EGIAZTATZEAK *COMPROBACIONES*			
1	Ondasun higiezinen espedienteen balio-egiaztapenak eta peritu-tasazioak (TR eta SU) *Comprobaciones de valor y tasaciones periciales de expedientes de bienes inmuebles (TR y SU)*	15.000	15.000	7.680
2	Beste autonomia erkidego batzuek eskatutako espedienteen balio-egiaztapenak eta peritu-tasazioak *Comprobaciones de valor y tasaciones periciales de expedientes solicitados por otras CCAA*	50	50	303
2	TXOSTENAK *INFORMES*			
1	BFAko beste zerbitzu batzuek eskatutako balorazio-txostenak (S2) *Informes de valoración solicitados por otros Servicios de la DFB(S2)*	200	200	34
3	KONTSULTAK *CONSULTAS*			
1	BFAko kontsultak (VMA) *Consultas de (VMA) en la DFB*	200.000	200.000	111.399
4	VMA *VMA*			
1	BFAn eskatuatko VMA ziurtagiriak *Certificaciones de VMA solicitadas en la DFB*	150.000	150.000	90.387
2	Notarioek eta erregistratzaileek eskatutako VMA ziurtagiriak *Certificaciones de VMA solicitadas por Notarios y Registradores*	60.000	60.000	21.012

Saila		**OGASUNA ETA FINANTZAK**
Departamento	**05**	**HACIENDA Y FINANZAS**
Programa		**Ikuskapen, KLTZ, eta Informazioa eta sistemak**
Programa	**932.122**	***Inspección, SCAT e Información y Sistemas***

932.122 programak, “Ikuskapen, KLTZ eta Informazioa eta Sistemak” izenekoak, Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren mendeko Ikuskapen, Koordinazio eta Laguntza Teknikoko eta Informazio eta Sistemen zuzendariordetzei dagokien jarduera biltzen du.

1. Ikuskapen Zuzendariordetza.

932.122 programaren helburuetako bat da, Ikuskapen Zuzendariordetzari dagokionez, zergapekoen (fisikoak, juridikoak eta gainerako erakundeak) zerga-egoera egiaztatzea, Foru Ogasunarekiko betebeharrak eta betebeharrak zehatz-mehatz betetzen dituztela egiaztatzeko, eta, hala badagokio, dagokion erregularizazioa egingo da. Helburuok hobeto betetzeko, azken urteotan zerbitzu berriak sortu dira Zuzendariordetzaren barruan. Zehazki, 2020. urtean Bulego Teknikoaren Zerbitzua sortu zen, Zuzendariordetzaren mendeko aurreko Atalaren ordez, eta eginkizun berriak eman zaizkio.

Aipatutako funtzioa zailduz joan da denboraren joan-etorriarekin, neurri batean, hainbat arrazoirengatik hala nola iruzurra egiteko bitartekoen sofistikazioa, ekonomiaren globalizazioa, zerga-nazioartekotzea eta finantza-modu eta negozio-eredu berriak agertu izana. Horren guztiaren ondorioz, iruzur sistema sofistikatuagoak sortu dira. Halako jarduerak antzeman eta zailtzeko, beharrezkoa da kudeaketa, ikuskapen eta diru-bilketako organoen arteko elkarlan estua, jatorrian detektatu eta prebenitzeko. Horrek guztiak langile kopuru handia eskatzen du horrelako zereginetan, eta, prebentziozkoak izan arren, diru-bilketa hobetuko dute.

El programa 932.122 denominado “Inspección, Scat e Información y Sistemas” aglutina la actividad correspondiente a las Subdirecciones de Inspección, de Coordinación y Asistencia Técnica y de Información y Sistemas, dependientes de la Dirección General de Hacienda.

1. Subdirección de Inspección.

El programa 932.122, por lo que se refiere a la Subdirección de Inspección, tiene entre sus objetivos la comprobación de la situación tributaria de las personas obligadas tributarias (físicas, jurídicas y demás entidades) con el fin de verificar el exacto cumplimiento de sus obligaciones y deberes para con la Hacienda Foral, procediendo, en su caso, a la regularización correspondiente. Para un mejor cumplimento de estos objetivos se han creado estos últimos años nuevos Servicios dentro de la Subdirección. En concreto, en 2020 se creó el Servicio de Oficina Técnica en sustitución de la anterior Sección dependiente de la Subdirección y se le han dotado de nuevas funciones.

La función mencionada se ha ido dificultando con el tiempo en parte debido a una serie de circunstancias, como la sofisticación de los medios de defraudación, la globalización de la economía, la internacionalización fiscal y la aparición de nuevas figuras financieras y modelos de negocio. Todo ello ha dado lugar a la aparición de nuevos sistemas de fraude más sofisticados. Para detectar y dificultar la realización de este tipo de actuaciones es necesaria una estrecha colaboración entre los órganos de gestión, e inspección y recaudación, con el objeto de prevenir y detectarlas en origen. Todo ello supone una importante dedicación de personal en este tipo de tareas que, aún siendo preventivas, redundarán en la mejora de la recaudación.

Arestian aipatutako prebentzioko lanez gain, egiaztapen eta ikerketa jarduketak egiteko, zergapekoak aldez aurretik hautatu behar dira. Horretarako, dagokion jarduketa planera egokitu behar dira funtzio horiek. Nazioarteko Plangintza eta Fiskalitate Zerbitzuak, ikuskapen plana egiteko talde espezifikoa den aldetik, Saileko organo gorenek emandako jarraibideei jarraituz, zergapeko pertsonak hautatzen ditu, hain zuzen ere egindako zergapeko egitate guztiak zerga-aitorpenetan egiaz eta osorik jaso ez dituztelako arrazoizko zantzuak ikusten direnean. Ildo horretan, Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzurraren aurka Borrokatzeko Batzordearen esparruan ezartzen diren jarraibideei jarraituko zaie. Batzorde horretan parte hartzen dute Nazioarteko Plangintza eta Fiskalitate Zerbitzuko buruak, Ikuskapena Koordinatzeko Zerbitzuko buruak eta Ikuskapen zuzendariordeak. Horri guztiari dagokionez, kontuan hartzen dira Iruzurraren kontrako Borrokarako Baterako Planaren barruko baterako jarduerak. Jarduera horiek hiru Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duen Iruzurraren Aurka Borrokatzeko Batzordean ezartzen dira.

Además de las tareas preventivas señaladas anteriormente, la realización de actuaciones de comprobación e investigación requieren de una previa selección de las personas obligadas tributarias. Para ello, el ejercicio de estas funciones se debe adecuar al correspondiente plan de actuación. El Servicio de Planificación y Fiscalidad Internacional, como grupo específico para la elaboración del plan de inspección que, siguiendo las directrices emanadas de los órganos superiores del Departamento, se encarga de seleccionar las personas obligadas tributarias en las que se detectan indicios racionales suficientes de que no han consignado en sus declaraciones tributarias, de forma veraz y completa, todos los hechos imponibles realizados. En este sentido, se seguirán las directrices que se establezcan en el marco de la Comisión de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia, en la que participan el Jefe del Servicio de Planificación y Fiscalidad Internacional, el Jefe del Servicio de Coordinación de la Inspección y el Subdirector de Inspección. Todo ello teniendo en cuenta también las actuaciones conjuntas del Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude que se fijen en el seno de la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal en la que participan las tres Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco.

Zergen arloan garrantzia duten datuak lortzea eta datu horiek, batez ere, informatikoki aztertzea dira zergen arloko anomaliak antzemateko erabiltzen diren tresna nagusiak, diskrezionalitate eta eraginkortasun irizpideekin. Izan ere, anomalia horiek gomendatzen dute eragindako zergapekoak ikuskaritza-planean sartzea.

La obtención de datos con trascendencia tributaria y el análisis, fundamentalmente informático, de los mismos, constituyen las principales herramientas empleadas en la detección, con criterios de discrecionalidad y eficacia, de las anomalías fiscales que aconsejan la inclusión en el plan de inspección de las personas obligadas tributarias afectadas.

Zergaren arloan garrantzia duen informazioaren kalitatea eta kantitatea hobetzea da iruzurraren aurkako borrokan eragina izan behar duten lehentasunetako bat. Informazioaren kalitateak balio behar du zergapekoak egiaztatzeko jarduketen emaitzak hobetzeko nahiz etorkizuneko ikuskapen-planak osatuko dituzten jardueren hautaketa hobetzeko.

La mejora en la calidad y cantidad de la información con trascendencia tributaria es una de las prioridades que deben incidir en la lucha contra el fraude. La calidad de la información debe servir tanto para la mejora de los resultados de las actuaciones de comprobación de las personas obligadas tributarias, como para la mejora en la selección de las que conformarán futuros planes de inspección.

Ikuskapen Planaren betearazpenean efizientzia areagotzeko, jarduera ekonomikoak eta profesionalak garatzen dituzten zergapekoen sistema informatikoen egiaztapena orokortu da ikuskapen-egiaztapenetan. Auditoretza informatiko horien helburua da ikuskatzaileei sistema informatikoetako eragiketa ekonomikoen erregistroaren edo idatzoharraren osotasunari eta zehaztasunari buruzko iritzi arrazoitua osatzeko aukera emango dieten ebidentziak lortzea. Eragiketa ekonomiko horien ondorioz kontabilitateko egoera-orriak eta zerga-aitorpenak izaten dira, era guztietako prozesu eta kontrolak eginez, tresna informatiko egokien laguntzarekin eta Europar Batasunean gomendatutako estandarren eta lan-metodologiaren arabera.

Con el objeto de incrementar la eficiencia en la ejecución del Plan de Inspección, se ha generalizado en las comprobaciones inspectoras la verificación de los sistemas informáticos de las personas obligadas tributarias que desarrollan actividades económicas y profesionales. El objeto de la realización de estas auditorías informáticas es obtener las evidencias necesarias que permitan al personal inspector formarse una opinión fundada sobre la integridad y exactitud del registro o anotación de las operaciones económicas en los sistemas informáticos, de los que derivan los estados contables y las declaraciones tributarias, mediante la realización de todo tipo de procesos y controles con la ayuda de las herramientas informáticas apropiadas y conforme a los estándares y metodología de trabajo recomendados en la Unión Europea.

Ikuskapen-prozedurak izapidetzen dituzten ikuskatzaileek egiten dute jarduera hori, eta ikuskatzeko funtzioa ahalik eta modu eraginkor, efiziente eta seguruenean garatzea da helburua, eta, aldi berean, informazioaren gizartearen garapen osoan diharduten eragile ekonomiko gehienek erabiltzen dituzten kudeaketa konponbideetara egokitzea, zerga-betebeharpeko pertsonen zeharkako presio fiskala murrizteko onura gehigarria sortuta, kontrol-prozesuetan ikuskapen organoekin lankidetzan aritzeko betebeharra betetzearen ondorioz.

Esta actividad es realizada por el propio personal inspector que tramita los diversos procedimientos de inspección, y cuyo objetivo último es atender al desarrollo de la función inspectora de la forma más eficaz, eficiente y segura posible, al tiempo que adaptada a las soluciones de gestión utilizadas por la mayoría de los agentes económicos, inmersos en el pleno desarrollo de la Sociedad de la Información, produciendo el beneficio adicional de reducir la presión fiscal indirecta de las personas obligadas tributarias, derivada del cumplimiento de su deber de colaboración con los órganos de inspección en los procesos de control.

2023. urtean, auditoretza informatikoko tekniken erabilera indartzen eta are gehiago zabaltzen jarraitzen dugu ikuskapen-prozeduretan, oro har, eta, bereziki, sistema informatikoen «in situ» kontroleko jarduketa inkisitiboak sustatu ditugu. Jarduera horien helburua da "erabilera bikoitzeko softwarea" dagoen ala ez detektatzea, eta beraz, sistema informatikoak modu egokian erabiltzen diren eta Ogasunari ematen zaion informazioak enpresaren benetako jarduera islatzen duen egiaztatzeko balio dute.

Durante el año 2023 seguimos reforzando y ampliando aún más la utilización de técnicas de auditoría informática en los procedimientos de inspección en general, potenciando, en particular, las actuaciones inquisitivas de control “in situ” de los sistemas informáticos. Estas actuaciones tienen por objeto detectar la existencia de “software de doble uso” y, por tanto, sirven para verificar si los sistemas informáticos se utilizan de forma adecuada y si la información que se aporta a Hacienda es fiel reflejo de la verdadera actividad de la empresa.

Horretarako, arloko teknikari espezialisten lana indartu dugu, haien kopurua handituta eta, azken batean, jarduera horretara bideratutako giza baliabideak berrantolatuta.

Para ello hemos reforzado el trabajo del personal técnico especialista en esta materia, incrementando su número y, en definitiva, procediendo a la reorganización de los medios humanos dedicados a esta actividad.

Ildo beretik, aurreko urteetako Iruzurraren aurka Borrokatzeko Planetan hartutako konpromisoa aplikatuta, 2023. urtean sistema informatikoak ezartzen jarraitu da, astiro-astiro, zergapekoen diru-sarrerak kontrolatu ahal izateko BATUZ proiektuaren barruan.

En el mismo sentido, en aplicación del compromiso asumido en los Planes de Lucha contra el Fraude de años anteriores, durante el año 2023 se ha continuado con la implantación progresiva de sistemas informáticos que permitan el control de los ingresos de las personas obligadas tributarias dentro del denominado proyecto BATUZ.

Ikuskapen Zuzendariordetzaren beste eginkizun batzuk dira eskubideen, errenten, produktuen, ondasunen, ondareen, enpresen eta gainerako elementuen balioa egiaztatzea, zerga-onurak edo zerga-pizgarriak eta zerga-itzulketak lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzea, eta zergen gaineko araubide bereziak aplikatzea.

Otras funciones realizadas en la Subdirección de Inspección son la comprobación del valor de derechos, rentas, productos, bienes, patrimonios, empresas y demás elementos, así como la comprobación del cumplimiento de los requisitos exigidos para la obtención de beneficios o incentivos fiscales y devoluciones tributarias, así como para la aplicación de regímenes tributarios especiales.

Arestian adierazitako eginkizunak betetzeko, Ikuskapena Koordinatzeko Zerbitzua Agente Fiskalen Atal batean eta Dokumentazio Fiskalaren Atal batean antolatuta dago, administrazio langileekin eta ikuskatzaileak eta ikuskatzaileordeak izateaz gain. Agente Fiskalen Atalak informazioa lortzeko, egiaztapen murriztuak egiteko eta egiaztapen mugatuak egiteko eginkizunak betetzen ditu, baita egiaztatzeko eta ikertzeko prozedurei buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko zeregin osagarriak ere. Egiaztapen murriztuko prozedura izapidetzea tresna arina eta eraginkorra da zergapeko egitatearen elementu zehatzak egiaztatzeko, zergadunen egiaztapenak metaka ahalbidetzeko moduan. Dokumentazio Fiskalaren Ataleko administrazio langileek hainbat lan egiten dituzte, hala nola hautatzeko lanetan laguntzea, aktuarioek eskatutako informazio zehatza bilatzea, espedienteak izapidetzea, etab.

Para la realización de las funciones señaladas anteriormente, el Servicio de Coordinación de la Inspección está organizado en una Sección de Agentes Fiscales y en una Sección de Documentación Fiscal con personal administrativo, además de contar con personal inspector y subinspector. La Sección de Agentes Fiscales realiza funciones de obtención de información, comprobaciones reducidas y comprobaciones restringidas, así como tareas auxiliares de recopilación y análisis de información en relación con procedimientos de comprobación e investigación. La tramitación del procedimiento de comprobación reducida resulta un instrumento ágil y eficaz en la comprobación de elementos concretos del hecho imponible, de forma que permita la comprobación masiva de contribuyentes. El personal administrativo de la Sección de Documentación Fiscal realiza tareas diversas como el apoyo en las funciones de selección, búsqueda de información concreta a petición del personal actuario, tramitación de expedientes, etc.

2023. urterako 4.900 ikuskapen egitea aurreikusten da. Jarduketa horien barruan, hauexek daude: egiaztapen eta ikerketa jarduketak eta ikuskatzaileek eta ikuskatzaileordeek izapidetzen dituzten egiaztapen murriztuak. Hori guztia Ikuskaritzak iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko egindako ahaleginaren ondorio dela uste da. Urteko lehen seihilekoaren amaieran 1.722 jarduketa egin da, eta aurrekontuan jasotakoaren % 35,14 hartzen du. Atzemandako zorraren zenbateko osoa, interesak eta zehapenak barne, 48,65 milioi eurokoa da, ekainaren 30ean.

Aurretik adierazitako jarduketa horiez gain, Agente Fiskalen Atalak egiten duen lana aipatu behar da. Helburua 2.000 jarduera egitea da, besteak beste honako hauxek barne: egiaztapen murriztuak, informazioa lortzea eta ikuskatzaileekin eta ikuskatzaileordeekin elkarlanean aritzea. Lehenengo seihilekoan lortutako emaitzek 1.258 jarduketa batzen dituzte guztira, hau da, urte osorako aurrekontuaren % 62,90, eta aurkitutako zor osoa 14,08 milioi eurokoa da.

Ikuskaritzak aurrekontuan sartutako beste helburu bat "Txostenak eta Balorazioak" izenekoa da, bi ekintza mota biltzen dituena. Lehenengo ekintza txostenak egitea da, eta Ikuskaritzak egitate jakin batzuei buruz duen iritzia eta, hala badagokio, horien kalifikazio juridikoa islatzen duten dokumentuak ematean datza, ebazpena eman behar duen organoak asmatzeko berme handienekin emateko beharrezkoak diren judizio-elementu guztiak izan ditzan. Nabarmendu behar da gero eta ugariagoak direla merkataritzako eragiketen egiazkotasunaren azterketari buruzkoak. Horretarako, eragiketa horietan ustez esku hartu duten subjektu pasiboen kontabilitateak, garraio-dokumentuak eta, hala badagokio, erabilitako ordainbideak aztertzen dira. Horrelako jarduerak egiteari dagokionez, helburua 1.250 jarduketa egitea da. Lehenengo seihilekoan 739 egin dira guztira, hau da, urteko aurrekontuaren % 59,12 bete da.

Para el año 2023 está previsto que se realicen 4.900 actuaciones inspectoras. Estas actuaciones engloban las actuaciones de comprobación e investigación y las comprobaciones restringidas y reducidas que se tramitan por el personal inspector y subinspector. Todo ello se estima como consecuencia del esfuerzo de la Inspección en la lucha contra el fraude fiscal. El trabajo realizado al finalizar el primer semestre del año asciende a 1.722 actuaciones, cubriendo un 35,14 por 100 de lo presupuestado. El importe total de la deuda descubierta, incluyendo intereses y sanciones asciende, a 30 de junio, a 48,65 millones de euros.

A las actuaciones señaladas anteriormente hay que añadir el trabajo que realiza la Sección de Agentes Fiscales. El objetivo es que realicen 2000 actuaciones, incluyendo, entre otras, las comprobaciones restrigidas y reducidas, las de obtención de información y la colaboración con el personal inspector y subinspector. Los resultados obtenidos en el primer semestre suman 1.258 actuaciones, es decir, un 62,90 por 100 de lo presupuestado para todo el año, ascendiendo la deuda total descubierta a un importe de 14,08 millones de euros.

Otro objetivo presupuestado por la Inspección es el que se denomina “Informes y Valoraciones”, que comprende dos tipos de acciones. La primera acción es la elaboración de informes y consiste en la emisión de documentos que reflejan el parecer de la Inspección respecto de ciertos hechos y, en su caso, la calificación jurídica de los mismos, con el objeto de que el órgano al que corresponda dictar la resolución disponga de todos los elementos de juicio necesarios para hacerlo con las mayores garantías de acierto. Merece destacarse que cada vez son más numerosos los que se refieren al análisis de la veracidad de operaciones comerciales, examinando, para ello, las contabilidades de los sujetos pasivos que presuntamente han intervenido en las mismas, los documentos de transporte y los medios de pago utilizados, en su caso. En relación con la realización de este tipo de actuaciones, el objetivo es que se realicen 1250 actuaciones, habiéndose

Era berean, administrazio prozedurak izapidetzeko, Auditoria Informatikoaren Unitatearekin lankidetzan aritzeko egindako eskaeren kopurua ezarri da helburu, baita prozeduretan jarduteko modu horiek erabiltzen dituzten jarduleen kopurua ere. Ondorio horietarako, 2023. urterako helburu ezarri da AIUrekin lankidetzan aritzeko 450 eskaera egitea. Ekainaren 30ean, 189 eskaera izapidetu dira, auditoretza informatikoko probak erabilita horretarako.

Bulego Teknikoaren Zerbitzua.

Funtsean, Ikuskapen Zuzendariordetzak formalizatutako aktak eta zehapen-espedienteak berrikusi eta likidatuko ditu, espediente horien aurka jartzen diren errekurtsoak ebazteko proposamenak egiteko. Halaber, erantzukizun zibila eta Ogasun Publikoaren aurkako delituen espedienteen ondoriozko isunak likidatzea dagokio, epai judizialak beteta.

2020tik aurrera, egitura organikoaren erregelamendu berriak beste funtzio batzuk esleitzen dizkio, hala nola ikuskapen-prozeduren emaitzak aztertzea, hauxe egiaztatzeko: ea bat datorren jarduketak proposatu dituen organoak ezarritako aurreikuspenekin. Eta urteko txostena egitea, zergadunen hautaketa hobetzeko proposamenak biltzen dituena, ikuskapen-prozeduretan lortutako probetan eta emaitzetan oinarrituta.

Hauxe egiaztatzea lortu nahi da: aipatutako espedienteak eta horien ondoriozko ondorengo jarduketak guztiz bat datozela indarrean dagoen araudiarekin (tributuena, zehapenena eta prozedurarena), betiere zergapekoen eskubideak zainduta.

realizado durante el primer semestre un total de 739, que supone el cumplimiento del 59,12 por 100 del presupuesto anual.

Se establece igualmente como objetivo el número de solicitudes de colaboración con la Unidad de Auditoría Informática realizadas para la tramitación de los procedimientos administrativos, así como el número de personas actuarias que utilizan estas formas de actuación en los distintos procedimientos. A estos efectos se establece como objetivo para el año 2023 un número de 450 solicitudes de colaboración con la UAI. A 30 de junio, se han tramitado utilizando pruebas de auditoría informática un total de 189 solicitudes.

Servicio de Oficina Técnica.

Sus funciones consisten básicamente en la revisión y liquidación de las Actas y Expedientes sancionadores formalizados por la Subdirección de Inspección en la formulación de propuestas de resolución de los recursos que contra los citados expedientes se interpongan. Asimismo le corresponde la liquidación de la responsabilidad civil y de las multas derivadas de los expedientes de delito contra la Hacienda Pública, en ejecución de las sentencias judiciales.

A partir del año 2020, el nuevo reglamento de estructura orgánica le atribuye otras funciones, como el análisis del resultado de los procedimientos de inspección a efectos de contrastar si se ajusta a las previsiones fijadas por el órgano proponente de las actuaciones y la elaboración de un informe anual con las propuestas de mejora en la selección de contribuyentes en base a las pruebas y resultados obtenidos en los procedimientos de inspección.

La finalidad que se persigue es la de comprobar que los mencionados expedientes y las posteriores actuaciones que de ellos se deriven se ajusten en todos sus términos a la normativa (tributaria, sancionadora, y de procedimiento) vigente, salvaguardando en todo caso los derechos de las personas obligadas tributarias.

Logikoa denez, zeregin horien kuantifikazioa Ikuskapen Zuzendariordetzako Zerbitzuek aurrekontuan sartutako adierazleek zehazten dute aurrez. Komeni da azpimarratzea Ikuskapen Zuzendariordetzako Zerbitzuek akten, zehapen-espedienteen eta egindako txostenen kopurua erabiltzen dutela adierazle, eta bulego honek, berriz, horien ondoriozko likidazioen kopurua, hala badagokio.

Lógicamente, la cuantificación de tales tareas viene predeterminada por los indicadores presupuestados por los Servicios de la Subdirección de Inspección. Es conveniente resaltar que los Servicios de la Subdirección de Inspección utilizan como indicadores el número de actas, expedientes sancionadores e informes evacuados y esta oficina el número de liquidaciones, que, en su caso, se derivan de los mismos.

Hainbat zerga-erreformaren ondorioz ikuskapen-prozeduran izandako aldaketak direla-eta, ikuskapenerako proposamenak likidazio bihurtzeko erabili izan diren tresna edo prozesu informatikoak hobetzea edo berritzea, hain zuzen ere espedienteei buruzko informazio osoa, azkarra eta eraginkorra lortzeko, bai espedientearen jarraipenaren ikuspegitik (epeak betetzeari, akta identifikatzeari eta zehapen-espedientearekin lotzeari arreta berezia eskainita), bai ikuspuntu ekonomikotik (egindako likidazioak osatzen dituzten partidei edo etekinei buruzko informazioa, zergak kudeatzen dituzten bulegoek egiten dituzten likidazioen oinarri izan daitezkeenak).

Los cambios producidos en el procedimiento inspector con motivo de las diversas reformas tributarias han aconsejado la mejora y/o renovación de las herramientas o procesos informáticos que se han venido utilizando para la conversión de las propuestas inspectoras en liquidaciones, con el fin de obtener una información completa, rápida y eficaz de los expedientes, tanto desde el punto de vista del seguimiento del expediente (con especial atención al cumplimiento de plazos, identificación y vinculación del acta con su expediente sancionador) como desde el punto de vista económico (información sobre las distintas partidas o rendimientos que integran las liquidaciones practicadas y que pueden servir de base a las liquidaciones que se practiquen por las oficinas gestoras de los distintos impuestos).

2023. urtean, bulegoaren lana babesten duten prozesu informatikoak zabaltzen eta hobetzen jarraitu da, Ikuskaritzak erabiltzen dituen tresnekin duen koordinazioan arreta berezia jarrita.

Durante el año 2023 se ha continuado profundizando en la ampliación y mejora de los procesos informáticos que apoyan la labor de la oficina prestando especial atención a su coordinación con las herramientas utilizadas por la Inspección.

2023. urterako, likidazioen helburua 2.900 da, eta zehapenen ondoriozkoa, 1.900, ordainketa-konpromisoarekin bat datozen aktek duten eragina kontuan hartuta, zerga-zorraren eta zehapenaren likidazio bakar bat dakartenak. Urteko lehen seihilekoan 1.240 likidazio egin dira, hau da, aurrekontuan jasotakoaren % 42,76, eta zehapenen ondoriozko 752 likidazio, hau da, aurrekontuan jasotakoaren % 39,58.

Para el año 2023 el objetivo de liquidaciones es de 2.900 y el de las derivadas de sanciones de 1.900, teniendo presente el efecto que producen las actas de conformidad con compromiso de pago, que derivan en una única liquidación de la deuda tributaria y de la sanción. En el primer semestre del año se han realizado 1.240 liquidaciones, lo que supone un 42,76 por 100 de lo presupuestado, y 752 liquidaciones derivadas de sanciones, suponiendo un 39,58 por 100 de lo presupuestado.

2. Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetza.

932.122 Programaren helburuetako bat da, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzari dagokionez, zerga-politika propioa definitzea. Horretarako, Zerga Politikako Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea du helburu, bere eskumeneko gaietan eragina duten arau-proiektuak egiteko prozesuetan. Zerbitzu horrekin lankidetzan dihardu politika hori ezartzeko beharrezkoak diren neurriak diseinatzen, Bizkaiko Lurralde Historikoaren helburu orokorrekin bat etorriz.

Bestalde, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren bigarren helburua Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak emandako doktrina administratiboa lantzea eta zabaltzea da, eta doktrina hori aplikagarria izatea Bizkaiko Foru Ogasunak zergak aplikatzeko egiten dituen prozedura guztietan, batez ere zergadunek idatziz egindako zerga-kontsultei eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 84. artikuluan eta hurrengoetan eta ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuan xedatutakoaren babesean zerga ordaindu aurretik egiten dituzten proposamenei emandako erantzunen bidez, eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak bere mendeko administrazio organo guztiek beren eginkizunak hobeto betetzeko ezartzen dituen jarraibide eta irizpide administratiboak prestatuta. Hartara, ahaleginak egingo dira administrazioaren jardunean ahalik eta gehien bete dadin berdintasunaren printzipioa eta orokortasunaren printzipioa

Horri dagokionez, aurtengo lehen seihilekoan idatzizko 167 zerga-kontsultari erantzun zaie, zergak ordaindu aurreko 3 proposamen ebatzi dira eta 4 jarraibide prestatu dira, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari buruz.

2. Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica.

El programa 932.122, por lo que se refiere a la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica, tiene entre sus objetivos trabajar en la definición de una política fiscal propia, para lo cual tiene encomendada la colaboración con el Servicio de Política Fiscal en los procesos de elaboración de proyectos normativos que incidan en materias de su competencia, con quien coopera en el diseño de las medidas necesarias para establecer dicha política, alineada con los objetivos generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Por otro lado, el segundo objetivo de la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica consiste en “la elaboración y difusión de la doctrina administrativa” emanada de la Dirección General de Hacienda y aplicable en todos los procedimientos de aplicación de los tributos llevados a cabo por la Hacienda Foral de Bizkaia, fundamentalmente mediante la contestación a las consultas tributarias escritas realizadas por las personas contribuyentes y a las propuestas previas de tributación presentadas por las mismas al amparo de lo dispuesto en los artículos 84 y siguientes de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y en el Decreto Foral 101/2005, de 21 de junio, y a través de la elaboración de las instrucciones y criterios administrativos establecidos por la Dirección General de Hacienda para el mejor desempeño de sus funciones por todos los órganos administrativos de ella dependientes, tratando de conseguir que el principio de igualdad y el de generalidad en la actuación administrativa se cumpla con la máxima amplitud.

A este respecto, en el primer semestre de este año se han contestado 167 consultas tributarias escritas, se han resuelto 3 propuestas previas de tributación y se han elaborado 4 instrucciones relativas al Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, al Impuesto sobre Sociedades y al Impuesto sobre el Patrimonio.

Bestalde, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren hirugarren helburua "beste administrazio publiko batzuekiko harremanak zentralizatzea" da, eta, bereziki, Justizia Administrazioko organoekiko eta Fiskaltzarekiko harremanak zentralizatzea. Aurtengo lehen seihilekoan, Justizia Administrazioko organoen 575 eskaerari erantzun zaie. Justizia Administrazioko organoen eskaeren kopuruan izandako beherakadaren justifikazioa da epaitegien jarduna murriztu egin dela Justiziako funtzionarioen grebaren ondorioz. Era berean, Ministerio Fiskalari 2 espediente igorri zaizkio. Espediente horietan, Ogasun Publikoaren aurkako ustezko 3 delituren zantzuak hauteman dira balio erantsiaren gaineko zergari dagokienez, eta dokumentu ofizialean ustezko faltsutze delitu bat ere.

Por otro lado, el tercer objetivo de la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica es “la centralización de las relaciones con otras Administraciones Públicas”, y singularmente con los órganos de la Administración de Justicia y con el Ministerio Fiscal. En el primer semestre de este año se han atendido 575 peticiones de los órganos de la Administración de Justicia. La bajada en el número de las peticiones de los órganos de la Administración de Justicia tramitadas encuentra su justificación en el hecho de que la actividad de los juzgados ha estado reducida por la huelga de los funcionarios de Justicia. Y se han remitido también al Ministerio Fiscal 2 expedientes en el los que se han apreciado indicios de la comisión de 3 presunto~~s~~ delito~~s~~ contra la Hacienda Pública, en relación con el Impuesto sobre Sociedades y otro presunto delito de falsedad en documento oficial.

Informazioa emateko jarduketa horiek informazioa emateko sistema automatizatu batekin osatzen dira. Sistema horretan, Ogasun eta Finantza Saileko zerbitzu informatikoek Bilboko Epaitegi Dekanoaren bitartez metaka bideratutako informazio-eskaerei erantzuten diete, eta informazioa ematean eraginkortasun eta efizientzia handiena bermatzen saiatzen dira, baita zerga-administrazioaren eskura dagoen informazioaren izaera erreserbatua zehazten duten arau juridikoak zorrotz errespetatzen direla, beste organo batzuei ematen zaiela, justiziarekiko lankidetza bermatzen dela eta datu pertsonalak babesteari buruzko legeria errespetatzen dela ere. Urte horretako lehen seihilekoan 5426 eskaerari erantzun zaie bide elektroniko horretatik.

La realización de estas actuaciones de suministro de información se complementa con un sistema automatizado de suministro de información en el que los servicios informáticos del Departamento de Hacienda y Finanzas atienden las peticiones masivas de información canalizadas a través del Juzgado Decano de Bilbao, tratando de garantizar la mayor eficacia y eficiencia en el suministro de información así como el más escrupuloso respeto a las normas jurídicas que disciplinan el carácter reservado de la información a disposición de la Administración tributaria, su suministro a otros órganos, la colaboración con la Justicia y el respeto a la legislación sobre protección de datos de carácter personal. En el primer semestre de ese año se han atendido por esta vía electrónica 5426 peticiones.

Ekitaldi honetan, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren laugarren helburua da Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren barneko koordinazioa egitea, Ikuskapen Plana egiteko eskuragarri dagoen informazioaren kalitatea eta kantitatea hobetzen saiatuta, administrazio organoen jarduna hobetuta haien jarduna planifikatuta eta zerga-iruzurraren aurkako borrokan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzen saiatuta.

En este ejercicio el cuarto objetivo de la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica se centra en “la coordinación interna de la Dirección General de Hacienda”, tratando de mejorar la calidad y la cantidad de información disponible para la elaboración del Plan de Inspección, mejorando la actuación de los órganos administrativos desde la planificación de la actuación de los mismos y tratando de conseguir la mayor eficacia posible en la lucha contra el fraude fiscal.

Aurtengo lehen seihilekoan 261 zergadun sartu dira Ikuskapen Planean.

Bizkaiko Foru Ogasunaren Iruzurraren aurka Borrokatzeko Plana ere landu da, Zerga Kudeaketako eta Zergadunari Laguntzeko Zuzendariordetzarekin, Ikuskapen Zuzendariordetzarekin, Bilketako Zuzendariordetzarekin eta Informazioko eta Sistemetako Zuzendariordetzarekin koordinatuta. Plan hori Bizkaiko Foru Ogasunak bizkaitarren interesentzat kaltegarrienak diren jokabideak jazartzeko egin beharreko jardueren giltzarria da, eta parte-hartze handia izan du Bizkaiko Foru Ogasuneko Iruzurraren aurka Borrokatzeko Batzordean.

Bestalde, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzak bere eskumeneko gainerako lanak egiten jarraitu du, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari eta gainerako zuzendariordetzei laguntzeko, edo zergen arloan Europar Batasuneko Zuzenbidea betearazteko.

3. Informazio eta Sistemetako Zuzendariordetza.

932.122 programak, Informazio eta Sistemetako Zuzendariordetzari dagokionez, Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren barruko organo horizontal gisa eratua, zerga-administrazioaren informazioaren analisia, tratamendua eta ustiapena koordinatzeko funtsezko helburua du.

Informazio eta Sistemetako Zuzendariordetzaren beste helburuetako bat Iruzurraren aurka Borrokatzeko Plana egitea da, Zerga Kudeaketako, Ikuskapeneko, Bilketako eta Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordetzekin koordinatuta, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak onar dezan, eta plana aplikatzean lortutako emaitzak ebaluatzeko eta berrikusteko laguntza teknikoa ematea. Plan horretan jasoko dira Bizkaiko Foru Ogasunaren arlo horretako jardueraren urteko gidalerroak, ebaluatzeko eta berrikusteko mekanismoak, baita Zuzendariordetza bakoitzak urteko gidalerroekin lerrokatuta dituen plan zehatzak ere.

En el primer semestre de este año se han incluido en Plan de Inspección 261 contribuyentes.

También se ha trabajado en la elaboración, en coordinación con las Subdirecciones de Gestión Tributaria y Asistencia al Contribuyente, de Inspección, de Recaudación y de Información y Sistemas, del Plan de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia, verdadera piedra angular de las actuaciones a desarrollar por esta Hacienda Foral de Bizkaia en persecución de las conductas más lesivas para los intereses de las vizcaínas y los vizcaínos, participando activamente en el seno de la Comisión de Lucha contra el Fraude de la Hacienda Foral de Bizkaia.

Por su parte, la Subdirección de Coordinación y Asistencia Técnica ha continuado desarrollando las demás tareas de su competencia, de apoyo a la Dirección General de Hacienda y a las demás Subdirecciones, o de ejecución del Derecho de la Unión Europea en el ámbito tributario.

3. Subdirección de Información y Sistemas.

El programa 932.122, por lo que se refiere a la Subdirección de Información y Sistemas, configurada como un órgano horizontal dentro de la Dirección General de Hacienda, tiene el objetivo fundamental de coordinar el análisis, tratamiento y explotación de la información de la Administración tributaria.

Otro de los objetivos de la Subdirección de Información y sistemas consiste en la elaboración del Plan de Lucha contra el Fraude, en coordinación con las Subdirecciones de Gestión Tributaria, de Inspección, de Recaudación y de Coordinación y Asistencia Técnica, para su aprobación por la Dirección General de Hacienda, y la asistencia técnica para la evaluación y revisión de los reultados obtenidos en su aplicación. Dicho plan contendrá las directrices anuales de la actuación de la Hacienda Foral de Bizkaia en este ámbito, sus mecanismos de evaluación y revisión así como los planes concretos de cada Subdirección alineados con las directrices anuales.

Hirugarren helburua Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetearekin eta Lantik SArekin koordinatzea da, Bizkaiko Azpiegitura Teknologikoaren (BAT) elementu teknikoak eta antolakuntzakoak ezartzeko.

Laugarren helburua Ogasun eta Finantza Sailaren informazio-sistema berriaren ezarpena koordinatzea eta gainbegiratzea da.

Zentsua Kontrolatzeko eta Informazioa Kudeatzeko Zerbitzua.

Zentsua Kontrolatzeko eta Informazioa Kudeatzeko Zerbitzua arduratzen da informazio-aitorpenak aurkezteko betebeharra betetzen dela kontrolatzeaz, aurkeztutako informazio-aitorpenak berrikusteaz eta elkartrukatzen den informazioa jasotzeko eta beste zerga-administrazio batzuetara bidaltzeko beharrezkoak diren azpiegitura teknologikoak egiten, diseinatzen, probatzen eta ontzat ematen laguntzeaz. Halaber, autolikidazioak eta zerga-aitorpenak baliozkotzeaz eta sistema informatikoan kargatzeaz arduratzen da.

Zerbitzu horretan, dokumentuak eta zergadunak identifikatzeko lan zentralizatuak egiten dira, baita zerga-arloan garrantzia duten dokumentuak grabatzeko eta eskaneatzeko lan zentralizatuen jarraipena eta kontrola eta dokumentu horien egoeraren kontrola ere, Saileko gainerako zerbitzuen eskura jarri arte.

Beste erakunde publikoekin eta pribatuekin egindako horniketarako hitzarmenak edo informazio-trukeak betearazteaz arduratzen da, hitzartutako informazioa jaso eta bidaltzen dela kontrolatuz eta jarraipena eginez, baita beste zerga-administrazio batzuekin informazioa aldizka trukatuz ere, jasotako informazioa Saileko gainerako zerbitzuen eskura jarrita. Era berean, zergen arloan garrantzia duen informazioa bidali eta jasotzeaz arduratzen da elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, eta

El tercer objetivo consiste en la coordinación con el Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa, y con Lantik, S.A. para la implementación de los elementos técnicos y organizativos de Bizkaiko Azpiegitura Teknologikoa (BAT).

El cuarto objetivo consiste en la coordinación y supervisión de la implantación del nuevo Sistema de Información del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Servicio de Control Censal y Gestión de la Información.

El Servicio de Control Censal y Gestión de la Información es el encargado del control del cumplimiento de la obligación de presentar declaraciones informativas, la revisión de las declaraciones informativas presentadas, colaborando en la elaboración, diseño, prueba y visto bueno de las infraestructuras tecnológicas necesarias tanto para la recepción como para la remisión a otras Administraciones tributarias de la información objeto de intercambio, siendo responsable de la validación y carga en el sistema informático de las autoliquidaciones y declaraciones de carácter tributario.

En dicho Servicio se realizan las tareas centralizadas de identificación de documentos y contribuyentes así como el seguimiento y control de las tareas centralizadas de grabación y escaneo de documentos de trascendencia tributaria y el control de su situación hasta su puesta a disposición del resto de los Servicios del Departamento.

Se encarga de la ejecución de los convenios de suministro o de intercambio de información celebrados con otras entidades, públicas y privadas, mediante el control y seguimiento de la recepción y envío de la información conveniada así como del intercambio general periódico de información con otras Administraciones tributarias, poniendo la información recibida a disposición de los demás Servicios del Departamento; encargándose así mismo del envío y recepción de información con trascendencia

beharrezko bidalketak egiten laguntzen du, bai edukia diseinatzen, bai aldez aurreko baliozkotzeetan.

Era berean, zerga-erroldak kudeatzea eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia esleitzea eta, hala badagokio, baliogabetzea dagokio.

Aitorpen informatiboei dagokienez, 782, 781, 720, 347, 346, 345, 199, 198, 192, 189, 182, 181, 179, 171, 170, 159 zerga-ereduak kontsultatu, aitortu, eskatu eta kudeatzeko erabiltzen diren aplikazio, laguntza-programa eta prozesu asko eguneratzea eta egokitzea, baita horien bidez lortutako informazioa kudeatzea ere, lehentasunezko helburua izaten jarraitu du aldi honetan ere. Izan ere, aipaturiko aitorpen horietako askotan jasotako informazioa oinarrizkoa da honako hau lortzeko: errentaren gaineko kanpaina egitea, aitorpen-zirriborroak sortzea ahalbidetuta, interesdunek webean kontsultatu ahal izatea, dagozkion errekerimenduak egitea, behin-behineko likidazio eta likidazioak egitea, ikuskapen-jarduerak egitea...

Beste alde batetik, areagotu egin dira nazioarteko trukean garrantzia duten aitorpen informatiboak kudeatzeko eta arazteko jarduketak, Europako zuzentarauen ondorioz: zergen 290, 289, 236, 235, 234 eta 231 ereduak (eta aurretiazko komunikazioa – AK 231).

2023ko lehen seihilekoan 43.200 aitorpen aurkeztu dira, hau da, gutxi gorabehera 1.500 aitorpen gehiago 2022. urteko aldi berean egindakoekin alderatuta.

Halaber, 19 zehapen ezarri dira, eta 115 errekerimendu eta jakinarazpen egin dira.

tributaria a través de los servicios de interoperabilidad colaborando en el diseño del contenido, y en las validaciones necesarias previas tanto a la carga en el sistema como al envío de la información.

Le corresponde así mismo la gestión de los Censos Tributarios y la asignación y, en su caso, revocación del Número de Identificación Fiscal.

Por lo que a las declaraciones informativas se refiere, la actualización y adecuación de muchas de las aplicaciones, programas de ayuda y procesos utilizados para consultar, declarar, requerir y gestionar los modelos tributarios 782, 781, 720, 347, 346, 345, 199, 198, 192, 189, 182, 181, 179, 171, 170, 159, así como la propia gestión de la información obtenida a través de éstos, ha seguido siendo un objetivo prioritario durante este periodo; ya que la información recogida en muchas de estas declaraciones resulta básica para: realizar la campaña de Renta permitiendo generar los borradores de declaración que las personas interesadas podrán consultar en la Web, practicar los correspondientes requerimientos, propuestas de liquidación y liquidaciones provisionales, actuaciones inspectoras, ...

Por otro lado, se han intensificado las actuaciones de gestión y depuración de las declaraciones informativas con trascendencia en el intercambio internacional y derivado de las directivas europeas, modelos tributarios 290, 289, 236, 235, 234 y 231 (y comunicación previa – C.P. 231).

Durante el primer semestre del año 2023 se han presentado 43.200 declaraciones, lo que supone un ascenso de aproximadamente 1.500 declaraciones, respecto de las formuladas en el mismo periodo del año 2022.

Así mismo, se han impuesto 19 sanciones, y se ha llevado a cabo un total de 115 requerimientos y notificaciones.

Zentsu Fiskalen Atalari dagokionez, esan dezakegu 2023ko lehen seihilekoan eta 036 ereduaren bidez, 2.880 alta, baja edo IFZ aldatzeko aitorpen aurkeztu direla, baita 22.438 betebehar eta aldizkako jardueren hasiera, aldaketa eta eteteko aitorpen ere.

Era berean, Erkidego barruko Operadoreen Erregistroan alta eskatzen duten eta arriskutsutzat jotzen den jarduera bat garatzen duten enpresaburuen eta/edo profesionalen kontrola egiten jarraitzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak arautzen dituen abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, baita bertan barne diren operadoreen jarraipen-lanak egitea ere, alta-eskaerei, kautelazko bajari edo baja horretatik baztertzeari uko egin ahal izateko. Alde horretatik, lehen seihilekoan 2011 alta eta baja izan dira erregistro horretan.

Bestalde, Hileko Itzulketen Erregistroko altak eta bajak, guztira, 141 izan dira 2023ko ekitaldiaren amaieran.

Pertsona juridikoen IFZ ezeztatzeari dagokionez, 2023ko lehen seihilekoan 11 ezeztapen egin dira.

En cuanto a la Sección de Censos Fiscales, podemos decir que durante el primer semestre del 2023 y a través del modelo 036, se han presentado 2.880 declaraciones de alta, baja o modificación del NIF, así como 22.438 declaraciones de comienzo, modificación y cese de obligaciones y actividades periódicas.

Asimismo, se sigue llevando control de aquellos empresarios y empresarias y/o profesionales que solicitan el alta en el Registro de Operadores Intracomunitarios y que desarrollan una actividad considerada de riesgo, según lo establecido en el Decreto Foral 205/2008 de 22 de diciembre, por el que regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como la realización de labores de seguimiento de los operadores incluidos en el mismo, a los efectos de las posibles denegaciones de solicitudes de alta, baja cautelar o exclusión del mismo. En ese sentido, a lo largo del primer semestre se han producido 2011 altas y bajas en este Registro.

Por otro lado el total de altas y bajas en el Registro de Devoluciones Mensuales ha sido de 141 al final del primer semestre del 2023.

En relación con la revocación del NIF de personas jurídicas, durante este primer semestre del año 2023 se han llevado a cabo 11 revocaciones.

Barne Koordinazio eta Kontroleko Zerbitzua.

Lantik SArekin lankidetzan, zerga-arloko datu-baseetan dagoen informazioa, horietara sartzeko mekanismoak eta Sailaren datu-baseetako informaziorako sarbide-kontrola zehaztu, kudeatu eta kontrolatzeaz arduratzen da, Segurtasuneko Datu Basearen kudeaketaren bidez.

Servicio de Coordinación y Control Interno.

Encargado de la definición, gestión y control, en colaboración con Lantik, S.A. de la información contenida en las bases de datos tributarias, los mecanismos de acceso a las mismas y la administración del control de acceso a información de las bases de Datos del Departamento mediante la gestión de la Base de Datos de Seguridad.

2023. urtean, aurreikusita zeukan EAEko zein beste lurralde batzuetako zenbait administrazio publikok 800 eskaera izapidetzea BFAren Elkarreragingarritasun Plataforman azaldutako zerga-zerbitzuetara sartzeko, eta ekainaren 30ean 622 eskaera erantzun ziren, Saileko langileei zeharkako aplikazio berrietara sartzeko baimenak kudeatzeaz gain, horiek ezarri ahala.

Sailean datuen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloko organo dinamizatzailea den aldetik izaera horri dagozkion eginkizunak betetzen jarraitzen du.

Era berean, berari dagokio Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren menpeko organo guztiei dagokien foru aurrekontu informatikoaren betearazpenaren plangintza, koordinazioa, kontrola eta jarraipena egitea.

Zergadunei arreta telematikoa emateko kanala diseinatu eta kudeatzeaz arduratzen da, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. 2022an, izapide eta zerbitzu elektroniko guztiak BizkaiBai Bulego Birtualetik eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik eskaintzen dira. Bide elektronikoa finkatu da zergadunekiko harremanetarako lehentasunezko bide gisa, 2023ko lehen seihilekoko datu hauetan gauzatuta:

- Bide elektronikoz aurkeztutako zerga-aitorpenak: 762.799, PFEZaren aurkezpenak eta Batuz sartu gabe.
- Bide elektronikoz lortutako zerga-ziurtagiriak: 143.505.
- Bide elektronikoz egindako jakinarazpenak: 685.048.

En el año 2023 tenía previsto tramitar 800 solicitudes de diversas administraciones públicas, tanto de la CAPV como de otros territorios, de acceso a los servicios tributarios expuestos en la Plataforma de Interoperabilidad de la DFB, habiéndose atendido a fecha de 30 de junio 622 solicitudes, además de gestionar las autorizaciones de acceso del personal del Departamento a las nuevas aplicaciones transversales a medida que las mismas se van implantando.

Como órgano dinamizador en materia de protección de datos y seguridad de la información en el Departamento continúa realizando las funciones inherentes a dicha condición.

Le corresponde así mismo la planificación, coordinación, control y seguimiento de la ejecución del Presupuesto Informático Foral correspondiente a todos los órganos dependientes de la Dirección General de Hacienda.

Es el responsable del diseño y gestión del canal de atención telemática a las personas contribuyentes a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia. Durante 2022 todos los trámites y servicios electrónicos se ofrecen indistintamente desde la Oficina Virtual BizkaiBai y desde la Sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia. Se consolida el canal electrónico como el canal preferente en la relación con los y las contribuyentes materializado en los siguientes datos del primer semestre 2023:

- Declaraciones tributarias presentadas por canal electrónico: 762.799, sin incluir presentaciones de IRPF y Batuz.
- Certificados tributarios obtenidos por canal electrónico: 143.505.
- Notificaciones efectuadas por canal electrónico: 685.048.

Arriskuak Aztertzeko eta Iruzurraren aurka Borrokatzeko Zerbitzua.

Bere helburuen artean honako hauek nabarmentzen dira: Bizkaiko Foru Aldundiaren datu-baseetan zerga-arloan garrantzia duen informazioa aztertzea, hautatzea, tratatzea, kontserbatzea eta zentralizatzea; Iruzurraren aurka Borrokatzeko Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera, informazioa lortzeko jarduera orokor edo selektiboen plangintza egitea; eta zerga-arloan garrantzia duen informazioa lortzeko jarduketetan emandako informazioa normalizatzea eta aztertzea, pertsona behartuen hautaketa hobetzeko helburuarekin.

Era berean, arriskuak aztertzeko eta iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko jarduerak planifikatzeko beharrezkoak diren tresna teknologikoak inplementatzea du helburu.

Eta, azkenik, jarduera ekonomikoen kontrol integraleko proiektuaren diseinua, inplementazioa, kudeaketa eta jarraipena koordinatzea du helburuetako bat. Hala, 2020ko ekitaldian ekoizpenean jarri dira software bermatzailea garatzen duten erakundeen erregistroa eta, halaber, "Egin zuren faktura" aplikazioa.

2021ean, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuari buruzko aplikazioak garatu ziren, eta 2022. urteko urtarrilaren 1ean jarri zen ekoizpenean. Era berean, 2021. urtean jarduera ekonomikoak egiten dituzten Bizkaiko pertsona eta erakundeetan Batuz deritzon sistema ezartzea errazteko, 2022. eta 2023. urteak Batuz sistema aplikatu nahi duten zergadunentzat borondatezko aldi pizgarria izatea onartu zen, eta aldi baterako 8 atxikipen-leiho onartu ziren.

Servicio de Análisis de Riesgos y Coordinación de la Lucha contra el Fraude.

Entre sus objetivos destaca el estudio, selección, tratamiento, conservación y centralización de la información con trascendencia tributaria incorporada en las bases de datos de la Diputación Foral de Bizkaia así como la planificación de actuaciones, generales o selectivas, de obtención de información, de acuerdo con las directrices fijadas por la Comisión de Lucha contra el Fraude; y la normalización y análisis de la información suministrada en las actuaciones de obtención de información con trascendencia tributaria realizadas con el fin de mejorar la selección de las personas obligadas tributarias que vayan a ser objeto de los procedimientos de gestión, inspección y recaudación.

Tiene así mismo como objetivo la implementación de las herramientas tecnológicas necesarias para el análisis de riesgos y la planificación de las actuaciones de lucha contra el fraude fiscal.

Y por último se encuentra entre sus objetivos la coordinación del diseño, implementación, gestión y seguimiento del proyecto de control integral de las actividades económicas “Batuz”, habiéndose puesto en producción durante el ejercicio 2020 tanto el Registro de Entidades desarrolladoras de software garante como la aplicación “Haz tu factura”.

En 2021 se desarrollaron las aplicaciones relativas al libro registro de operaciones económicas, cuya puesta en producción se realizó el 1 de enero de 2022. Igualmente, para facilitar la implantación del sistema Batuz en las personas y entidades de Bizkaia que realizan actividades económicas en el año 2021 se aprobó que los años 2022 y 2023 constituyen un periodo voluntario incentivado de aplicación del sistema Batuz para aquellos y aquellas contribuyentes que quisieran adherirse al mismo, aprobándose 8 ventanas temporales de adhesión.

Hala, 2022ko urtarrilaren 1ean, Batuz sistema abian jarri zen hari atxikitako zergadunekin (10.000 enpresa baino gehiago). Horiek dagoeneko TicketBAI sistemarekin egiten dituzte fakturak (horietako asko “Egin zure faktura” aplikazioarekin, eta horrekin 100.000 faktura baino gehiago jaulki ziren 2022an).

Azkenik, proiektuari buruzko informazio-eduki guztiak www.batuz.eus webgunean daude.

De este modo, el 1 de enero de 2022 entró en funcionamiento el sistema Batuz con los y las contribuyentes adheridos al mismo (más de 10.000 empresas), las cuales emiten ya sus facturas con el sistema TicketBAI (muchas de ellas con la aplicación Haz tu factura, con la cual se emitieron más de 100.000 facturas en 2022).

Por último, todos los contenidos informativos relativos al proyecto se contienen en la web www.batuz.eus.

Saila eta Programa / Departamento y Programa

05	**OGASUNA ETA FINANTZAK** ***HACIENDA Y FINANZAS***
932122	**IKUSKAPEN, KLTZ ETA INFORMAZIOA ETA SISTEMAK** ***INSPECCION, SCAT E INFORMACIÓN Y SISTEMAS***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	**ZERGEN ARLOKO ARAUDIA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA** ***VERIFICAR CUMPLIMIENTO NORMATIVA TRIBUTARIA.***			
1	TRIBUTU-IKUSKAPENAK *INSPECCIONES TRIBUTARIAS*			
1	Ikuskapen-jardueren kop. *Nº de actuaciones inspectoras*	4.900	4.900	1.722
2	Zerga-agenteen jarduketa-kop. *Nº de actuaciones de agentes fiscales*	2.000	2.000	1.258
2	TXOSTENAK ETA EBALUAZIOAK *INFORMES Y VALORACIONES*			
1	Txosten-kop. *Nº de informes*	1.250	1.250	739
3	ESPEDIENTEEN BERRIKUSPENA ETA LIKIDAZIOA *REVISIÓN Y LIQUIDACIÓN EXPEDIENTES*			
1	Tributu-zorra, likidazio-kop. *Nº de liquidaciones-deuda tributaria*	2.900	2.900	1.240
2	Zehapenak, likidazio-kop. *Nº de liquidaciones-sanciones*	1.900	1.900	752
4	ERREKURTSOEN EBAZPENA *RESOLUCIÓN DE RECURSOS*			
1	Izapidetutako errekurtso-kop. *Nº de recursos tramitados*	75	75	56
5	AUDITORIA INFORMATIKOA *AUDITORÍA INFORMÁTICA*			
1	Informatika Auditoriarako Unitatearekin lankidetzan aritzeko eskabide kopurua *Nº de solicitudes de colaboración con la UAI*	450	450	189
2	**DOKTRINA ADMINISTRATIBOA EGIN ETA EZAGUTZERA EMATEA** ***ELABORACIÓN Y DIFUSIÓN DE DOCTRINA ADMINISTRATIVA***			
1	IDATZIZ EGINDAKO KONTSULTEI ETA TAP-EI ERANTZUTEA *CONTESTACIÓN A CONSULTAS ESCRITAS Y PPTS*			
1	Erantzundako kontsultak *Consultas contestadas*	310	310	167
2	Ebatzitako tributazioko aurretiazko proposamenak *Propuestas previas de tributación resueltas*	4	4	3
2	JARRAIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK PRESTATU ETA EZAGUTZERA EMATEA *ELABORACIÓN Y DIFUSIÓN DE INSTRUCCIONES Y CRITERIOS*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	Prestatutako jarraibideak eta irizpideak *Instrucciones y criterios elaborados*	3	3	4
2	Ezagutzera eman diren irizpideak *Criterios difundidos*	415	415	181
3	**BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANAK** ***RELACIONES CON OTRAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS***			
1	EPAITEGIEI INFORMAZIOA EMATEA *SUMINISTRO DE INFORMACIÓN A JUZGADOS*			
1	Eskuz erantzundako eskaerak *Peticiones atendidas manualmente*	8.000	8.000	575
2	Sistema automatikoaren bidez erantzundako eskaerak *Peticiones atendidas sistema automático*	33.000	33.000	5.426
2	DELITU-ESPEDIENTEAK *EXPEDIENTES DE DELITO*			
1	Bidalitako espediente-kop. *Nº de expedientes remitidos*	12	12	2
4	**BARNE-KOORDINAZIOA** ***COORDINACIÓN INTERNA***			
1	IKUSKAPEN-PLANEKO PROPOSAMENEN IZAPIDETZEA *TRAMITACIÓN DE LAS PROPUESTAS DEL PLAN DE INSPECCIÓN*			
1	Sartutako zergadunak *Contribuyentes incluidos*	750	750	261
5	**AITORPEN INFORMAZIOBOAK (EREDUAK: 781, 347, 345, 198, 182...)** ***DECLARACIONES INFORMATIVAS (MOD. 781,347,345,198,182,...)***			
1	AITORPENAK JASOTZEA ETA BERRIKUSTEA *RECEPCIÓN Y REVISIÓN DE LAS DECLARACIONES*			
1	Aitorpen-kop. *Nº de declaraciones*	50.000	50.000	43.200
2	Errekerimendu eta komunikazioen kop. *Nº de requerimientos y comunicaciones*	800	800	115
3	Ezarritako zehapen-kop. *Nº de sanciones impuestas*	150	150	19
2	ERREKURTSOEN EBAZPENA *RESOLUCIÓN DE RECURSOS*			
1	Errekurtso-kop. *Nº de recursos*	50	50	2
6	**ZENTSU-AITORPENAK (036-037)** ***DECLARACIONES CENSALES (036-037)***			
1	ZENTSU-AITORPENAK (036 ETA 037 EREDUAK) JASO ETA IZAPIDETZEA *RECEPCIÓN Y TRAMITACIÓN DE LAS DECLARACIONES CENSALES MOD. 036 Y 037*			
1	IFZri alta edo baja emateko eta aldatzeko eskabide-kop. *Nº de solicitudes de Alta, Baja y Modificación del NIF*	8.000	8.000	2.880
2	Aldian aldiko jarduera eta betebeharrak hasi, aldararazi eta uzteko aitorpenen kopurua *Nº de declaraciones de comienzo, modificación y cese de actividades y obligaciones periódicas*	47.000	47.000	22.438
3	Aurkezpen telematikoen kop. *Nº de presentaciones telemáticas*	47.000	47.000	18.397

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
2	ERAKUNDEEI IFZ EGIAZTATZEKO TXARTELAK EMATEA *EMISIÓN DE TARJETAS ACREDITATIVAS DEL NIF A LAS ENTIDADES*			
1	Emandako txartel-kop. *Nº de tarjetas expedidas*	7.500	7.500	2.990
2	Notariotzek emandako txartel-kop. *Nº de tarjetas expedidas por notarías*	2.000	2.000	956
3	ZENTSU, FITXATEGI (NAGUSIA, BAZKIDEAK ETA PARTAIDEAK...), DATU-BASEETATIK LORTUTAKO INFORMAZIOA SARTZEA *INCORPORACIÓN DE LA INFORMACIÓN OBTENIDA A LOS DIFERENTES CENSOS, FICHEROS (MAESTRO, SOCIOS Y PARTÍCIPES, ...), BASES DE DATOS*			
1	Sartutako gorabehera-kop. *Nº de incidencias introducidas*	46.000	46.000	20.431
4	ERREKURTSOEN ETA ZENTSU-AKORDIOEN EBAZPENA *RESOLUCIÓN DE RECURSOS Y ACUERDOS CENSALES*			
1	Errekurtsoen eta zentsu-akordioen kop. *Nº de recursos y acuerdos censales*	2.600	2.600	304
5	TRIBURUEN ARLOKO ARAU-HAUSTEEN ZEHAPENA *SANCIÓN DE INFRACCIONES TRIBUTARIAS*			
1	Ezarritako isun-kop. *Nº de multas impuestas*	100	100	
6	ERREKERIMENDUAK EGITEA *PRACTICAR REQUERIMIENTOS*			
1	Errekerimendu-kop. *Nº de requerimientos*	1.600	1.600	399
7	ERAKUNDEEN INDIZEA *ÍNDICE DE ENTIDADES*			
1	Erakundeen indizean izandako baja-kop. *Nº de bajas en el índice de entidades*	1.000	1.000	128
8	IFZ-REN ERREBOKATZEA *REVOCACIÓN DEL NIF*			
1	Errebokatze-kop. *Nº de revocaciones*	150	150	11
9	HELBIDE-ALDAKETARI BURUZKO ESPEDIENTEAK *EXPEDIENTES DE CAMBIO DE DOMICILIO*			
1	Espediente-kop. *Nº de expedientes*	60	60	12
10	ROI ETA RDM ERREGISTROETAKO ALTAK ETA BAJAK *ALTAS Y BAJAS REGISTRO ROI Y RDM*			
1	ROIko altak eta bajak *Altas y bajas en ROI*	3.600	3.600	2.011
2	RDMko altak eta bajak *Altas y bajas en RDM*	350	350	141
7	**BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI INFORMAZIOA EMATEA BFA-REN ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMAREN BIDEZ** ***SUMINISTRO DE INFORMACIÓN A OTRAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS A TRAVÉS DE LA PLATAFORMA DE INTEROPERABILIDAD DE LA DFB***			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEK ZERGA-ZERBITZUEI SARBIDE-ESKAERAK IZAPIDETZEA *TRAMITACIÓN DE SOLICITUDES DE ACCESO REALIZADAS POR DISTINTAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS A LOS SERVICIOS TRIBUTARIOS*			
1	Izapidetzeen kopurua *Número de tramitaciones*	800	800	622
8	**"BATUZ" JARDUERA EKONOMIKOEN KONTROL INTEGRALEKO PROIEKTUAREN DISEINU, EZARPEN, KUDEAKETA ETA JARRAIPENAREN KOORDINAZIOA** ***COORDINACIÓN DEL DISEÑO, IMPLEMENTACIÓN, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DEL PROYECTO DE CONTROL INTEGRAL DE LAS ACTIVIDADES ECONÓMICAS "BATUZ"***			
1	ALTAK IZAPIDETZEA SOFTWAREA GARATZEN DUTEN ERAKUNDEEN ERREGISTROAN *TRAMITACIÓN DE ALTAS EN EL REGISTRO DE ENTIDADES DESARROLLADORAS DE SOFTWARE*			
1	Alta-kopurua *Número de altas*	100	100	177

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto

Aldia: Urtarrila - Ekaina
Periodo: *Enero - Junio*

Saila		**OGASUNA ETA FINANTZAK**
Departamento	**05**	**HACIENDA Y FINANZAS**
Programa		**Zerga kudeaketa**
Programa	**932.123**	***Gestión Tributaria***

ZILZ

Zergadunentzako Informazio eta Laguntza Zerbitzuaren 2023ko lehen seihilekoko kudeaketaren balantzea aurkezten dugu.

Memoria hau testuinguruan kokatzeko, bi gertaera garrantzitsu aipatu behar ditugu:

1) Zuzendu egin da kanal ezberdinen bidez eskatutako laguntzaren bolumena. Pandemian eta pandemiaren osteko garaian, behera egin zuen aurrez aurreko kanalean; telefono bidez eta bide telematikoan, berriz, gora egin zuen, asko. Ikusi dugu aurrez aurreko kanalak goranzko joera bat duela 2022arekin alderatuta. Halaber, ikusi dugu gelditu egin dela telefono bidezko eskaeren kopuruaren igoera.
2) Errenta aurkezteko eredu berriari dagokionez, hirugarren urtean ondo gauzatu da, ez da egon gorabehera aipagarririk eta zergadunak oso pozik egon dira. Nabarmendu behar dugu bulego deszentralizatuetan aurrez aurre emandako zerbitzuak gora egin duela, % 24 aurreko kanpainarekin alderatua.

Amaitu berri den errentaren kanpainan, nabarmendu behar dugu bulego deszentralizatuetan 25.964 pertsona hartu direla (aurreko kanpainan, 20.919), hots, lehen esan dugu bezala, aurrez aurreko zerbitzuak % 24 egin du gora. Bilboko bulegoari dagokionez, 19.538 pertsona hartu dira, hau da, 2022an baino % 10 gehiago, bulego horretan 17.760 pertsona hartu baitziren kanpaina osoan zehar.

SIAC

Presentamos el balance de gestión del Servicio de Información y Asistencia al Contribuyente del primer semestre de 2023.

Para contextualizar esta memoria debemos mencionar dos hechos relevantes

1) Se observa una corrección en la tendencia sobre el volumen de demanda de asistencia en los distintos canales. La pandemia y postpandemia marcó una bajada en el canal presencial y por contra, una subida importante en los canales telefónico y telemático. Observamos que el canal presencial presenta un cierto repunte al alza respecto a 2022. Del mismo modo, observamos que el crecimiento del canal telefónico se ha estancado.
2) Respecto al nuevo modelo de presentación de renta, en su tercer año ha discurrido satisfactoriamente sin incidencias reseñables y con un alto índice de satisfacción por parte de los contribuyentes. Destacamos que la atención presencial en las oficinas descentralizadas ha crecido un 24% con respecto a la campaña pasada.

En esta campaña de la renta que acaba de terminar, en las oficinas descentralizadas reseñamos que han sido atendidas 25.964 personas frente a las 20.919 personas de la campaña pasada; lo cual supone un 24% de incremento en la atención presencial como se ha mencionado anteriormente. Por lo que respecta a la oficina de Bilbao, se han atendido a 19.538 personas, lo que también supone un incremento de un 10% con respecto al año 2022, cuando fueron atendidas en dicha oficina 17.760 personas a lo largo de la campaña.

Telefono bidezko kanalari dagokionez, apustu irmoa egin da kanal hori indartzeko. Errentaren kanpainaren barruan, laguntza emateko kanal nagusia da gaur egun.

2020 eta 2021eko kanpainan, estrategia telefono bidezko identifikazio-sistemak arautzean eta antolatzean oinarritu zen, kanal horren bidez informazio pertsonalizatuko zerbitzuak eskaini ahal izateko, baita orain arte bertaratzea eta bulego batera eramatea edo administrazio digitalean kudeatzea eskatzen zuten izapideak egiteko ere.

2023an, telefono bidezko zerbitzuan 394.591 dei jaso dira errentaren kanpainan; aurreko kanpainan, berriz, 476.460 dei, hau da, aurten % 17 gutxiago. Jaitsiera hori kanalak 2020tik 2022ra izandako igoeraren bilakaeraren doikuntzatzat jo daiteke, eta argi erakusten du orain dela bi urte kanpainan zehar izan ziren arazoak konponduz joan direla. Hortaz, zergadunek ez dute eskatzen hainbeste laguntza telefono bidez. Beste alde batetik, deien batez besteko iraupena 6 minutu eta 18 segundokoa izatetik apur bat luzeagoa izatera pasatu da: 6 minutu eta 25 segundokoa, hain zuzen ere.

Telefonoak abantaila handiak eskaintzen dizkie herritarrei, ez baitute gure bulegoetara joan beharrik Ogasunarekin dituzten arazoak konpontzeko. Kasu askotan nahikoa izaten da telefono-dei bat egitea, kontuan hartuta, gainera, telefono-kanalean ere arratsaldeko ordutegia dugula.

Azkenik, web-orriari dagokionez, araudi berriarekin eta eszenatoki berriarekin, pixkanaka hori izango dela Foru Ogasunarekin harremanetan jartzeko bide nagusia, adierazpenak aurkezteko behintzat. Hori kontuan hartuta, laguntza eta baliabide berriak sartzen jarraitu dugu, batez ere 2021eko errenta-kanpainarako, hala nola informazio-gidak eta tutoretza-bideoak, besteak beste.

En cuanto al desempeño del canal telefónico, hay una apuesta clara por el refuerzo de este canal; este canal se ha convertido, en el contexto de la campaña de renta, en el canal asistencial principal.

La estrategia ya en la campaña de 2020 y 2021 se basó en regular y organizar sistemas de identificación telefónica para poder ofrecer por este canal servicios de información personalizada, así como realizar trámites que hasta ahora requerían “sine qua non” la asistencia y traslado a una oficina o su gestión en administración digital.

En 2023 desde el servicio telefónico se han atendido 394.591 llamadas dentro de la campaña de la renta, frente a las 476.460 llamadas de la campaña anterior, lo que supone un descenso del 17%. Este descenso se puede interpretar como un reajuste de la evolución de crecimiento, de este canal, producida entre los años 2020 y 2022, y evidencia que las dificultades que hubo hace un par de años durante la campaña, se han ido resolviendo, con lo que los y las contribuyentes ya no demandan tanta asistencia y apoyo al teléfono. Por otra parte, la duración media de las llamadas ha pasado de 6 minutos y 18 segundos a tener una duración algo superior, en concreto la duración media es de 6 minutos con 25 segundos.

Este canal ofrece enormes ventajas a la ciudadanía, ya que no necesita trasladarse hasta nuestras oficinas para resolver sus asuntos con Hacienda; basta en muchos casos con una llamada telefónica, teniendo en cuenta además que en el canal telefónico tenemos también horario vespertino.

Por último, con respecto al canal Web, teniendo en cuenta que, con la nueva normativa y el nuevo escenario, éste va a ser progresivamente el canal principal de relación con Hacienda Foral, al menos para la presentación de declaraciones, hemos seguido trabajando en la incorporación de nuevos recursos asistenciales y de apoyo principalmente para la campaña de renta 2021, tales como guías informativas y videos tutoriales, entre otros.

Kudeaketa helburuei dagokienez, hauek izan dira emaitzak:

1. Aurrez aurreko arreta:

1.1.- Jendeari aurrez aurreko arreta ematea Bilbon.

Eragiketa konplexuetan, 49.000 pertsonari eman zaie arreta, aurreko urteko 45.869 pertsonen aldean. Hau da, % 7 egin du gora.

Kudeaketaren helburu orokorra ezarritako itxaronaldian % 80ri edo gehiagori arreta ematea da (15 edo 20 minutu, zerbitzuen arabera). 2023ko lehen seihilekoan, % 85,4ri eman zaie arreta hitzartutako denboran. Hortaz, helburua lortu dugu.

Izapide-eragiketetan, 12.643 pertsonari eman zaie arreta aurreko urteko 10.776 pertsonen aldean (1.867 pertsona baino gehiago, %17); % 93 12 minutu baino gutxiagoan artatu dira, eta arlo horretan ere gure kalitate-konpromisoak bete dira.

1.2.- Jendeari arreta ematea bulego deszentralizatuetan.

Bulego deszentralizatuei dagokienez, 2023ko lehen seihilekoan bi bulego berri zabaldu dira, Markinan eta Igorren, eta, beraz, gehiago hedatu da Bizkaiko Foru Aldundiaren “Gertu” estrategia.

2023ko lehen seihilekoan 11 bulegoetan arreta jaso duten pertsonen guztizko bolumena: 47.298, aurreko urteko 42.982 pertsonen aldean (%10). Horietatik % 90k 15 minutu baino gutxiago itxaron zuen arreta jasotzeko, eta hitzartutako zerbitzuaren kalitate-helburua bete da: arreta 15 minutu baino lehen ematea % 90ean.

Respecto a los objetivos de gestión los resultados han sido los siguientes:

1. Atención presencial:

1.1.- Atención al público presencial en Bilbao.

En el patio de operaciones complejas se ha atendido a un total de 49.000 personas frente a las 45.869 del semestre del año anterior; esto supone un incremento del 7%.

El objetivo global de gestión es atender al 80% o más en el tiempo de espera establecido (15 o 20 minutos según los servicios). En el primer semestre de 2023 hemos atendido a un 85,4% en el tiempo comprometido, por tanto, hemos alcanzado el objetivo.

En el patio de operaciones de trámite, se han atendido a 12.643 personas respecto a las 10.776 atendidas el año anterior (incremento de más de 1.867 personas, un 17%); el 93% han sido atendidos en menos de 12 minutos, cumpliendo en esta área también nuestros compromisos de calidad.

1.2.- Atención al público en oficinas descentralizadas.

En cuanto a las oficinas descentralizadas, durante el primer semestre de 2023 se han abierto dos nuevas oficinas en Markina e Igorre, desplegándose aún más la estrategia “Gertu” de la Diputación Foral de Bizkaia.

Volumen total de personas atendidas por las 11 oficinas durante el primer semestre de 2023: 47.298 frente a las 42.982 personas del año anterior (incremento del 10%). De ellas el 90% esperó menos de 15´ para ser atendida, alcanzando el objetivo de calidad del servicio comprometido en un 90 % de atención antes de 15 minutos.

Guztira, 108.941 pertsona hartu dira aurrez aurre, eta, iaz, berriz, 99.627, hau da, 2023ko lehen seihilekoan % 9 egin du gora aurrez aurre emandako zerbitzuak. Horrenbestez, datuek argi erakusten dute aurrez aurreko arretak nabarmen gora egin duela (bulegoetako, eragiketa konplexuen patioko eta izapide-eragiketen patioko datuak kontuan hartuta). Hala ere, ez gara hurbildu, inondik inora, pandemiaren aurreko urteetan (2019) izan genituen datuetara.

En total, 108.941 personas atendidas presencialmente, frente a las 99.627 personas del año pasado, es decir, un 9% de incremento en la atención presencial durante este primer semestre de 2023.Por tanto, vemos que los datos muestran un significativo repunte al alza de la atención presencial (considerando datos de oficinas, patio operaciones complejas y trámite), aunque en ningún caso nos acercamos a los niveles que teníamos los años anteriores a la pandemia (año 2019).

1.3.- Erregistroa eta jakinarazpenak.

Sailean aurkeztutako edo jasotako dokumentu ororen erregistroaren, sailkapenaren, zaintzaren, kontrolaren eta banaketaren kudeaketa integralari dagokionez, eta komunikazioen eta jakinarazpenen kudeaketari eta sailen arteko komunikazio-zerbitzuari dagokienez, urteko lehen seihileko honetako datu hauek aurkezten ditugu:

Erregistroko datuak:

- Paperezko sarreren bolumena: 59.238 (70.797 iaz).
- Internet bidezko sarreren bolumena: 1.019.574 (653.111, 2022.urtean)

Jakinarazpenen datuak:

- Hartu-agiriarekin: 157.649 (101.312 2022 urtean).
- Hartu-agiririk gabe: 1.027.041 (1.031.167 2022n).
- Jakinarazpen elektronikoak: 685.048 (657.926 iaz).

1.3.- Registro y Notificaciones.

Respecto a la gestión integral del registro, clasificación, custodia, control, distribución de todo documento presentado o recibido en el departamento y respecto a la gestión de comunicaciones y notificaciones y el servicio interdepartamental de comunicaciones los indicadores principales de actividad presentamos los siguientes datos de este primer semestre del año:

Datos de registro:

- Volumen de entradas en papel 59.238 (70.797 año anterior).
- Volumen de entradas vía Internet: 1.019.574 (653.111, año 2022).

Datos de notificaciones:

- Con acuse: 157.649 (101.312 año 2022).
- Sin acuse: 1.027.041 (1.031.167 en 2022).
- Notificaciones electrónicas: 685.048 (657.926 durante el año pasado).

2. Telefono bidezko arreta.

Guztira 713.809 dei jaso dira; aurreko urteko lehen seihilekokoan, berriz, 1.244.068 dei. % 10eko alde hori dago Estatuko 200 euroko laguntza eskatzeko epea hasi zelako otsailean. Hori dela eta, deien kopuruak nabarmen gora egin zuen, pertsona askok deitu baitzuten laguntza horri buruzko informazioa eskatzeko.

Jasotako dei horietatik 732.183 erantzun dira guztira, hau da, seihileko honetan sartu diren deien % 93 erantzun dira. Hortaz, 13 puntutan gainditu dugu sarrera-deien bolumenaren % 80ko arreta-helburua.

3. Erreklamazio, kexa eta iradokizunen zerbitzua

Gure beste eskumenetako bat zergadunek planteatutako kexak eta iradokizunak kudeatzea da.

2023ko lehen seihilekoan, 403 kexa eta iradokizun izapidetu dira guztira; aurreko urteko seihilekoan, berriz, 423 kexa eta iradokizun, hau da, % 5 egin du behera kopuruak.

Erantzuteko ezarritako epeak errespetatu dira (lehen mailakoetan, % 85 12 eguneko epean erantzun behar dira, eta 21 eguneko epean bigarren mailakoak), eta, beraz, ezarritako helburuak bete egin dira.

2. Atención telefónica.

Se han recibido un total de 713.809 llamadas, llamadas frente a las 1.244.068 del primer semestre del año anterior Este incremento de un 10% se debe a que en el mes de febrero comenzó el plazo para solicitar la ayuda estatal de 200 euros y debido a ello el número de llamadas se incrementó de manera importante de personas que llamaban solicitando información sobre la misma.

De estas llamadas recibidas han sido atendidas 732.183, lo que supone que se ha atendido el 93% de las llamadas que han entrado este semestre, por tanto, superamos en 13 puntos el objetivo del 80% de atención del volumen de llamadas entrantes.

3. Servicio de reclamaciones, quejas y sugerencias

Otra de nuestras competencias es la gestión de las quejas y sugerencias planteadas por los contribuyentes.

Durante el primer semestre del año 2023 se han tramitado un total de 403 quejas y sugerencias frente a las 423 quejas y sugerencias del semestre del año anterior, lo que significa que ha habido un descenso de un 5%.

Se han respetado los plazos establecidos para su respuesta (en las denominadas de primer nivel el 85% de las mismas se debe responder en un plazo de 12 días y de 21 días para las de segundo nivel), cumpliendo por tanto con los objetivos establecidos.

Zuzeneko Zergen Zerbitzua

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren Atala.

  Orain dela bi urte hasi zen aitorpenaren zirriborroa egiteko, eskura jartzeko eta aurkezteko sistema berria sendotzea ekarri du 2022ko errenta-kanpainak. Sistema hori mugarri bat da pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga kudeaketan.

  Apirilaren 17tik ekainaren 30era, 653.400 aurkezpen egin dira borondatezko epean: 469.626 itzultzeko, 511.125.179 € guztira (horietatik 58.168 isilbidezko aurkezpenak izan dira), 163.372 ordaintzeko, guztira 410.314.270 € eta 20.402 zero emaitzarekin.

  Aurreko ekitaldietan bezala, aurkezpenak modu digitalean aurkeztu ahal izan dira, web-orriaren edo errentaren aplikazioaren bidez, baita telefonoz eta aurrez aurre ere. Kanal bakoitzean 472.591, 90.429 eta 32.212 aurkezpen egin dira, hurrenez hurren.

  2023-06-30era arte, aitorpen horiek likidazio eta itzulketa prozesuaren aurretik berrikusteak 1.583.471 € aurreztea ekarri du.

- Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Konturako Ordainketen Atala.

  Txostenaren xede den aldian, hau da, 2023ko lehen seihilekoan, Sozietateen gaineko eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergen eta Konturako Ordainketen Atalak kudeatu behar dituen zergen kontrola egin du.

  a) Atxikipenen kudeaketari dagokionez, hauxe esan behar da:

Servicio de Tributos Directos

- Sección del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas e Impuesto sobre el Patrimonio.

  La campaña de Renta 2022 ha supuesto la consolidación del nuevo sistema de confección, puesta a disposición y presentación de borradores de declaración que se inició hace 2 años, y que marcó un antes y un después en la gestión del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

  Las presentaciones realizadas en periodo voluntario, desde el 17 de abril al 30 de junio, han sido 653.400: 469.626 a devolver por importe de 511.125.179€ (de ellas 58.168 han sido presentaciones tacitas), 163.372 a ingresar por importe de 410.314.270€ y 20.402 con resultado cero.

  Al igual que en ejercicios anteriores la presentación de las declaraciones se ha podido realizar digitalmente, a través de la web y APP de renta, telefónica y presencialmente. Las presentaciones realizadas por cada canal son respectivamente: 472.591, 90.429 y 32.212.

  Hasta el 30/06/2023, la revisión de dichas declaraciones, previa al proceso de liquidación y devolución, ha supuesto un ahorro de 1.583.471€.

- Sección de Impuestos sobre Sociedades y sobre la Renta de No Residentes y Pagos a Cuenta.

  Durante el período objeto de informe, es decir, durante el primer semestre de 2023 la Sección de Impuestos sobre Sociedades y sobre la Renta de No Residentes y Pagos a Cuenta ha venido efectuando el control de los impuestos cuya gestión tiene encomendada.

  a) En relación con la gestión de las retenciones cabe señalar que:

- Autolikidazioen aurkezpena dela eta, 2023. urteko lehen seihilekoan, Sozietateen gaineko Zergen eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergen eta Konturako Ordainketen Atalak dagozkion kontrolak egiten jarraitu du, hain zuzen ere urteko atxikipenen laburpenetan (190., 193., 194., 196., 180., 187. eta 188. ereduak) aitortutako errenten eta etekinen gaineko atxikipenak osorik sar ditzaten lurralde historiko honetan atxiki eta sartu behar dutenek.

  Era berean, atxikipen mota horri dagokionez, lehen seihilekoan, errekerimendua egin zaie zergapeko hauei: hilero edo hiru hilean behin atxikipenen autolikidazioak aurkeztu ondoren, aurreko paragrafoan aipatutako atxikipenen urteko aitorpen laburtuak aurkeztu ez dituztenei, 2022eko ekitaldiari buruzkoak, baita, lan pertsonalaren atxikipen gisa autolikidazioak aurkeztu dituztela egiaztatu ez bada ere, Bizkaiko Lurralde Historikoan langileak dituztela egiaztatu den kasuetan ere.

  Azkenik, 180 eta 190 ereduetan aitortutako atxikipenen eta egindako aldizkako diru-sarreren arteko aldeak erregularizatzeak berekin ekarri du dagozkion zehapen-espedienteak hastea.

b) Sozietateen gaineko Zergaren kudeaketari dagokionez, hauxe esan behar da:

- 2021. urteko ekitaldiari dagozkion autolikidazioak 2022. urteko uztailaren 26an amaitu ziren.

- Con motivo de la presentación de las, correspondientes, durante el primer semestre de 2023, se han seguido efectuando por parte de la Sección de Impuestos sobre Sociedades y sobre la Renta de No Residentes y Pagos a Cuenta los oportunos controles a fin de que las retenciones sobre las rentas y rendimientos declarados en los resúmenes anuales de retenciones (Modelos 190, 193, 194, 196, 180, 187 y 188) hayan sido ingresadas en su totalidad por los obligados a retener e ingresar en este Territorio Histórico.

  Asimismo, en relación con este tipo de retenciones, se ha requerido durante el primer semestre a los obligados tributarios que, habiendo presentado mensual o trimestralmente autoliquidaciones de retenciones, no han presentado las correspondientes declaraciones resúmenes anuales de retenciones mencionados en el párrafo anterior relativas al ejercicio 2022, así como a aquellos que, sin que conste que hayan presentado autoliquidaciones en concepto de retenciones de trabajo personal, se ha comprobado que tienen trabajadores prestando servicios en el Territorio Histórico de Bizkaia.

  Por último, señalar, que la regularización de las diferencias entre las retenciones declaradas en los modelos 180 y 190 y los ingresos periódicos realizados ha llevado aparejado la incoación de los correspondientes expedientes sancionadores.

b) En relación con la gestión del Impuesto sobre Sociedades hay que indicar que:

- Las autoliquidaciones correspondientes al ejercicio 2021 concluyeron en 26 de julio de 2022.

- Eta enpresei likidezia errazteko eta arazo ekonomikoak arintzeko, sozietateen gaineko zergaren itzulketak aurreratu egin ziren. Aipaturiko itzulketa horiek ia autolikidazioak aurkeztuta egin dira, epearen barruan (epea, oro har, 2023. urteko urtarrilaren 26an amaitu zen).

- 2023. urteko lehen 6 hilabeteetan, autolikidazioen berrikuspenari dagokionez, autolikidazio horiek aztertu dira, hain zuzen ere ekitaldiko bigarren seihilekoan berrikusiko diren autolikidazioak hautatzeko, eta, bereziki, zerga-oinarri negatiboak eta/edo etorkizuneko ekitaldietako oinarrian edo kuotan konpentsatu beharreko kreditu fiskalak egiaztatzeari dagokionez, 2020. urteko ekitaldiari dagozkion autolikidazioen berrikuspen programatua amaitu ondoren.

c) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionez, hauxe esan behar da:

- Txostenaren xede den epean, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kudeaketan, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Konturako Ordainketen Atalak lortutako datuen kontrol eta tratamendu informatikoak egiten ditu, 216 ereduaren bidez egindako diru-sarreren eta 296 ereduaren informazio-aitorpenen arteko doikuntza egokia lortzeko, dagozkion behin-behineko likidazioak eginda. Bestalde, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionez, 210, 215 eta 216 ereduei (ez-egoiliarrak) dagozkien autolikidazioak egiaztatu dira, eta, gainera, eredu horiei dagozkien errekerimenduak egin dira.

- Y para facilitar liquidez a las empresas y aliviar sus problemas económicos las devoluciones del Impuesto sobre Sociedades se adelantaron, realizándose las mismas, prácticamente, con la presentación de las autoliquidaciones, y, la totalidad, en plazo (plazo que finalizaba, con carácter general, el 26 de enero de 2023).

- Durante los 6 primeros meses de 2023, en cuanto a la revisión de autoliquidaciones, se ha procedido al examen de las mismas con el fin de efectuar la selección de aquellas autoliquidaciones que serán objeto de revisión durante el segundo semestre del ejercicio, y específicamente en lo que hace referencia a la comprobación de bases imponibles negativas y/o de créditos fiscales a compensar en la base o en la cuota de ejercicios futuros, habiendo finalizado la revisión programada de las autoliquidaciones correspondientes al ejercicio 2020.

c) En relación con el Impuesto sobre la Renta de No Residentes debe reseñarse que:

- Durante el plazo objeto del informe, en la gestión del Impuesto sobre la Renta de No Residentes, la Sección de Impuesto sobre Sociedades y sobre la Renta de No Residentes y Pagos a Cuenta lleva a cabo los oportunos controles y tratamientos informáticos de los datos obtenidos, a fin de obtener el adecuado ajuste entre los ingresos efectuados a través del modelo 216 y las declaraciones informativas modelo 296, practicándose las oportunas liquidaciones provisionales. Por otra parte, respecto del Impuesto sobre la Renta de No Residentes se han comprobado las autoliquidaciones relativas a los modelos 210, 215 y 216 (no residentes), habiéndose realizado además los oportunos requerimientos de los citados modelos.

- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Atala.

  Kontuan hartuta oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren kudeaketari buruzko 2023ko lehen seihilekoko datuak, ikusten da beste urte batez goranzko joera duela aurkeztutako espedienteen kopuruak, eta aurreko urteko datuak gainditu ditu beste zerga-ereduei dagokienez.

  Aztertutako aldian, sendotzen jarraitu du oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren ereduen aurkezpen telematikoak, eta espediente guztien laurdena izatera iritsi da, nahiz eta zergak konplexutasun tekniko handia izan. Bide elektronikoaren bidezko aurkezpen hori notariotzek egiten dute, SIGNO plataforma erabilita, baita gestoriek eta zergadunek ere, Bizkaibai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

  2023ko lehen seihileko honen amaieran, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren espedienteak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko Herritarren Karpetan kargatzeko prozesua amaitu da, gorago aipatutako konplexutasun teknikoak eragindako zailtasunak gainditu ondoren. Izan ere, zerga honen espedienteetan informazioa eskuratzeko maila ezberdinak dituzten esku-hartzaileak izan ohi dira aldi berean. Herritarren Karpetan sartzeko aukerari esker, zergadunek eta haien ordezkariek espedienteak kontsultatu eta izapidetu ahal izango dituzte.

- Sección del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

  Analizando los datos de gestión del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones durante el primer semestre de 2023, se constata que continúa, un año más, la tendencia al alza en el número de presentaciones de expedientes, superando los datos del año anterior respecto a todos los modelos tributarios.

  La presentación telemática de los modelos del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones sigue consolidándose en el periodo analizado, suponiendo ya la cuarta parte del total de expedientes a pesar de la complejidad técnica del impuesto. Esta presentación por vía electrónica se realiza por las notarías a través de la plataforma SIGNO, y por las gestorías y contribuyentes en general a través de Bizkaibai y la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

  A finales de este primer semestre de 2023 se ha completado el proceso de carga de los expedientes del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones en la Carpeta Ciudadana de la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, una vez superadas las dificultades derivadas de la complejidad técnica mencionada, al tratarse de un impuesto en cuyos expedientes coexisten distintos tipos de intervinientes con diferentes niveles de acceso a la información. El acceso a Carpeta Ciudadana facilitará la consulta y tramitación de los expedientes por las personas contribuyentes y sus representantes.

Zeharkako Zergen Zerbitzua

Zeharkako Zergen Zerbitzua Zerga Kudeaketako Zuzendariordetzaren barruan dago, eta haren helburua gure zerga sistema osatzen duten zeharkako zergak kudeatzea da, hau da, balio erantsiaren gaineko zerga, aseguru-primen gaineko zerga, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, zerga bereziak, ingurumen-zergak eta jokoaren gaineko zergak.

Kudeaketa lan horren helburua, funtsean, zergadunek zerga-betebeharren betetze-maila handiagoa lortzea da, bai betetze hori errazteko behar diren baliabideak emanda, bai iruzur fiskala saihesteko edo, gutxienez, murrizteko mekanismoak ezarrita.

Jarduerok egiteko, Zerbitzuak 90 pertsona inguruko lantaldea du, lau ataletan egituratuta:

1. BEZaren atala
2. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Atala
3. Zerga Berezien eta Ingurumen Zergen Atala
4. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren, Ibilgailuen Bigarren Eskualdaketaren, Aseguru Primen gaineko Zergaren eta Jokoaren gaineko Zerga Tasaren Atala

1. BEZaren atala

2023ko ekitaldiko lehen seihilekoan, jarduketa hauek nabarmendu behar dira:

Servicio de Tributos Indirectos

El Servicio de Tributos Indirectos, Servicio incluido en la Subdirección de Gestión Tributaria, tiene como finalidad última la gestión de los Impuestos Indirectos que forman parte de nuestro sistema tributario, es decir, del Impuesto sobre el Valor Añadido, Impuesto sobre Primas de Seguro, Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, Impuestos Especiales, Impuestos Medioambientales, así como la Tributación del Juego.

El objetivo de dicha labor de gestión es, fundamentalmente, conseguir un mayor grado de cumplimiento de las obligaciones tributarias por parte de los contribuyentes, bien suministrando los medios precisos para facilitar dicho cumplimiento, bien estableciendo los mecanismos para evitar, o por lo menos minorar, la existencia de fraude fiscal.

Para la realización de las actividades mencionadas el Servicio se compone de un equipo humano de, aproximadamente, 90 personas, estructurado en cuatro Secciones:

1. Sección de IVA
2. Sección de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados
3. Sección de Impuestos Especiales e Impuestos Medioambientales
4. Sección de Impuesto Especial sobre determinados medios de transporte, segunda transmisión de vehículos, Impuesto sobre Primas de Seguro, y Tasa Fiscal sobre el Juego

1. Sección de IVA

Durante el primer semestre del ejercicio 2023 cabe destacar las siguientes actuaciones:

Balio Erantsiaren gaineko Zerga hilero itzultzeko sistemari atxikitako autolikidazioak, 303 eredua. 2023ko lehen seihilekoan, 3.562 itzulketa-eskaera aurkeztu dira (374.069.927,83€), eta 1.281 eskaera ebatzi gabe geratu dira.

Autoliquidaciones acogidas al sistema de devolución mensual del Impuesto sobre el Valor Añadido, modelo 303. En el primer semestre de 2023, se han presentado 3.562 solicitudes de devolución por un importe de 374.069.927,83€, quedando pendientes de resolver 1.281 solicitudes.

Erakunde-taldeen araubide berezian alta emandako autolikidazioak, hileko eskaera 353 ereduaren bidez aurkeztuta. 2023ko lehen seihilekoan, 186 itzulketa-eskaera aurkeztu dira (41.735.704,57€), eta 102 eskaera ebazteke geratu dira.

Autoliquidaciones dadas de alta en el régimen especial de grupo de entidades, con presentación de solicitud mensual a través del modelo 353. Se han presentado en el primer semestre del 2023, 186 solicitudes de devolución por importe de 41.735.704,57€, quedando pendientes de resolución 102 solicitudes.

2023. urtean egiten ari diren eta 2022eko ekitaldiari dagozkion itzulketen kanpainaren barruan, 390 eta 391 ereduei dagokienez, 2023. urteko lehen bi hiruhilekoetan 4.398 itzulketa eskatu dira.

Dentro de la campaña de devoluciones que se está desarrollando durante el año 2023 y que corresponden al ejercicio 2022, relativas a los modelos 390 y 391, se han solicitado en los dos primeros trimestres del año 2023, 4.398 devoluciones.

Itzultzeko eskaera horietatik, Zeharkako Zergen Zerbitzuak 3.461 espediente ebatzi ditu 2023. urteko lehen seihilekoan, eta itzulitako zenbatekoa 105.133.842,80€ izan da. Era berean, 48 itzulketa-eskaera ukatu dira eta 58 likidazio igorri dira, itzultzeko eskaera guztietatik sartu edo konpentsatu beharreko saldoarekin. 390 ereduko (erregimen orokorra) eta 391 ereduko (erregimen sinplifikatua) itzultzeko 607 eskaera daude egiteke, batzuk administrazio organoek egiaztatzeko fasean, eta beste batzuk, zergadunei eskatutako egiaztagiriak aurkezteko zain.

De las citadas solicitudes de devolución se han resuelto por el Servicio de Tributos Indirectos durante el primer semestre de 2023, 3.461 expedientes, con un importe devuelto de 105.133.842,80€. A su vez, se han denegado 48 solicitudes de devolución y se han girado 58 liquidaciones, con saldo a ingresar o compensar, del total de solicitudes de devolución. Quedan pendientes 607 solicitudes de devolución del modelo 390 (régimen general) y 18 del modelo 391 (régimen simplificado), que se encuentran, bien en fase de comprobación por parte de los órganos administrativos, o bien pendientes de aportación de documentos justificativos que han sido solicitados a los contribuyentes.

Lehen seihileko honetan 3.677 eskaera egin dira guztira.

Durante este primer semestre se han efectuado un total de 3.677 requerimientos.

2023ko ekitaldiko lehen seihilekoan, 113 likidazio egin dira, zehapen-prozeduren ondoriozkoak, 325.901,68 eurokoak.

En el primer semestre del ejercicio 2023 se han emitido 113 liquidaciones derivadas de procedimientos sancionadores, por importe de 325.901,68€.

Erkidegoan baina ez kontsumoko estatu kidean kokatutako enpresaburuek edo profesionalek emandako zerbitzuei, enpresaburu edo profesional jarduten ez duten hartzaileei, interfaze digital baten bidez emandako Europar Batasunaren barruko urruneko ondasun-salmentei eta barne-entrega jakin batzuei eta hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urruneko salmentei –helmugako tributazioa dute ezaugarri, eta leihatila bakarreko mekanismoaren bidez instrumentalizatzen dira– aplika dakizkiekeen araubide berezi berriei dagokienez, 60 autolikidazio aurkeztu dira, guztira 839.635,70 eurokoak, 2023ko lehen hiruhilkoari dagozkionak, eta 59 autolikidazio, guztira 1.635.902,38 eurokoak, 2022ko laugarren hiruhilekoari dagozkionak hain zuzen ere.

En relación con los nuevos regímenes especiales aplicables a los servicios prestados por empresarios o profesionales establecidos en la Comunidad, pero no en el Estado miembro de consumo, a destinatarios que no tengan la condición de empresarios o profesionales actuando como tales, a las ventas a distancia intracomunitarias de bienes y a determinadas entregas interiores de bienes facilitadas a través de una interfaz digital y al régimen especial aplicable a las ventas a distancia de bienes importados de países o territorios terceros, caracterizados por la tributación en destino e instrumentalizados mediante el mecanismo de ventanilla única se han presentado 60 autoliquidaciones por un total de 839.635,70 euros relativas al primer trimeste-2023 y 59 autoliquidaciones por un total de 1.635.902,38 euros relativas al cuarto trimestre del 2022.

2. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Atala

2023ko lehen seihilekoan egindako jarduketei dagokienez:

Profesionalen, notariotzen eta gestorien aurkezpen telematikoa sendotu ondoren, 2023ko 600 ereduaren laguntza-programaren bertsioarekin, ordaintzeko modalitateen artean hautatzeko aukera ezarri da. Hori dela eta, ordaintzeko hainbat aukera izan dira orain arte egon den bakarraren ordez: erreferentzia-zenbaki konbinatua. Ezarpen horri esker, profesional horiek aukera izan dute Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidea erabiltzeko, eta, beraz, ordaintzeko hainbat aukera izan dituzte: txartelaren bidez, bankuko kontuan zordunduta, edo wallet eta bizumen bidez, besteak beste.

2. Sección de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados

Respecto a las actuaciones llevadas a cabo en el primer semestre del 2023:

Una vez consolidada la presentación telemática por parte de los profesionales, Notarías y Gestorías, se ha implantado, con la versión del programa de ayuda del modelo 600 de 2023, la posibilidad de que éstos elijan entre diferentes modalidades de pago, las cuales han supuesto alternativas a la existencia única, hasta ahora, del pago mediante un Número de Referencia Combinado. Esta implantación ha permitido a estos profesionales conectar con la pasarela de pagos del Gobierno Vasco, lo que ofrece alternativas de pago como el pago con tarjeta, con cargo a cuenta bancaria e incluso por wallet y bizum, entre otros.

Beste alde batetik, martxan dauden zergaren kudeaketaren arloko aldaketa garrantzitsuak, zeregin hori azkartzeko. Batetik, balio-egiaztapenak automatikoki lotuko dira dagokien likidazioarekin. Orain arte, eskuz egin da, balorazio bakoitza banan-banan grabatuta irudien sisteman eta, gero, dagokion espedienteari lotuta. Eta, bestetik, astiro-astiro, gure sistemetan (zeharkako gai bat da, eta ez dio eragiten soilik atal honi; beraz, lantze bateratua behar du), baloratu beharreko higiezinen zenbaki finkoaren ordez ondasun higiezinaren zenbakia jarriko da (identifikatzeko). Horren barruan sartzen da ondasun higiezin horri lotutako zenbaki finko guztiak identifikatzea ere. Hala, dauden aplikazioak Katastroko P30 programa berriarekin koordinatu ahal izango ditugu.

3. Zerga Berezien eta Ingurumen Zergen Atala

5	**SPRREN AURREKONTUA EGITEKO KUDEAKETA EGOKIA DELA BERMATZEA** ***GARANTIZAR LA ADECUADA GESTIÓN DE LA ELABORACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL SPF***			
1	SPFREN AURREKONTUA EGITEKO PROZEDURAK *PROCEDIMENTAR ELABORACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL SPF*			
1	Garatutako prozeduren % *% Procedimientos desarrollados*	10	10	
2	SAILEKIKO KOMUNIKAZIOA BULTZATZEA *POTENCIAR LA COMUNICACION CON LOS DEPARTAMENTOS*			
1	Jakinarazpenak/bilerak *Número de comunicaciones/reuniones*	16	16	
6	**AURREKONTUA KUDEATZEKO APLIKAZIO INFORMATIKOAN HOBEKUNTZAK JASOTZEA** ***INCORPORAR MEJORAS A LA APLICACION INFORMATICA GESTORA DEL PRESUPUESTO***			
1	HOBEKUNTZARAKO LEHENTASUNAK AZTERTZEA *ANALIZAR PRIORIDADES DE MEJORA*			
1	Jasotako hobekuntzen kopurua *Número de mejoras incorporadas*	5	5	
7	**AURREKONTUAREN INFORMAZIO SISTEMA HOBETZEA (MEMORIAK, HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK)** ***MEJORAR EL SISTEMA DE INFORMACIÓN DEL PRESUPUESTO (MEMORIAS, OBJETIVOS, ACCIONES E INDICADORES)***			
1	PROGRAMETAKO HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK AZTERTZEA *ANALIZAR OBJETIVOS, ACCIONES E INDICADORES DE LOS PROGRAMAS*			
1	Aztertutako programen % *% Programas analizados*	10	10	10
2	EXEKUZIO MEMORIAK AZTERTZEA *ANALIZAR MEMORIAS DE EJECUCIÓN*			
1	Aztertutako programen % *% Programas analizados*	10	10	10
8	**SPFREN KONTU OROKORRA EGOKI EGIN ETA KITATZEN DELA BERMATZEA** ***GARANTIZAR LA ADECUADA ELABORACIÓN Y RENDICION DE LA CUENTA GENERAL DEL SPF***			
1	KONTU OROKORRA EGITEKO PROZEDURAK AZTERTU ETA IDENTIFIKATZEA *ANALIZAR E IDENTIFICAR LOS PROCESOS DE ELABORACIÓN DE LA CUENTA GENERAL*			
1	Eginiko prozedurak, ehunekoa *Porcentaje de procedimientos elaborados*	10	10	10
2	HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK EGINIKO GOMENDIOAK JASOTZEA *INCORPORAR LAS RECOMENDACIONES REALIZADAS POR EL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS*			
1	Jasotako gomendioen kopurua *% recomendaciones incorporadas*	100	100	100
3	HKEEK EGITEN DITUEN ESKAEREI ERANTZUTEA. *ATENCION A LAS DEMANDAS QUE FORMULA EL TVCP.*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Kontsulten kopurua *Número de consultas*	50	50	50
9	**FORU ADMINISTRAZIOKO SEKTORE PUBLIKOAREN EKONOMIA ETA AURREKONTU KUDEAKETAREN BERRI EMATEA** ***INFORMAR SOBRE LA GESTIÓN ECONOMICA Y PRESUPUESTARIA DEL SECTOR PUBLICO ADMINISTRATIVO FORAL***			
1	TXOSTENAK EGITEA: ZERGA-BILKETA, EXEKUZIOA, ZORRA *ELABORAR INFORMES SOBRE RECAUDACIÓN, EJECUCIÓN, EV. DEUDA*			
1	Batzar Nagusietarako txostenak *Nº informes para Juntas Generales*	12	12	5
2	BFAko zuzendaritza organoentzako txostenak *Nº informes para órganos directivos de la DFB*	43	43	21
3	Eusko Jaurlaritza eta beste erakunde batzuetarako txostenak *Nº informes para Gobierno Vasco y otras instituciones*	23	23	12
10	**ENPRESAREN SEKTORE PUBLIKOAREN KUDEAKETAREN BERRI EMATEA** ***INFORMAR SOBRE LA GESTIÓN DEL SECTOR PUBLICO EMPRESARIAL***			
1	EPE LUZERAKO ZORPETZE OPERAZIOEN GAINEKO TXOSTENAK EGITEA ETA ONDAREAREN KONTABILITATE INFORMAZIOA *ELABORAR INFORMES SOBRE LAS OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO A LARGO PLAZO E INFORMACIÓN PATRIMONIAL CONTABLE*			
1	Batzar Nagusietarako txostenak *Número de informes para Juntas Generales*	4	4	2
11	**AURREKONTUA KUDEATZEKO APLIKAZIOA ERABILTZEN DUTENEN PRESTAKUNTZA HOBETZEA** ***MEJORAR LA FORMACIÓN DE LAS PERSONAS USUARIAS DE LA APLICACIÓN DE GESTIÓN PRESUPUESTARIA***			
1	BKON-I BURUZKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA PRESTATU ETA DISEINATZEA *ELABORACIÓN Y DISEÑO CURSO BÁSICO DE FORMACIÓN DE BKON*			
1	Ikasle-kopurua *Número de alumn@s*	30	30	50
12	**NEXT FUNTSEKIN FINANTZATUTAKO GASTU-PROIEKTUAK MODU ERAGINKORREAN KONTROLATZEA** ***CONTROLAR DE FORMA EFICAZ LOS PROYECTOS DE GASTO FINANCIADOS CON FONDOS NEXT***			
1	TRAMITAZIO-GIDAK EGUNERATZEA *ACTUALIZACIÓN DE GUÍAS DE TRAMITACIÓN*			
1	Eguneratuako gida kopurua *Número de guias actualizadas*	5	5	5
2	SAIL KUDEATZAILEEN LAGUNTZA *ASISTENCIA DE DEPARTAMENTOS GESTORES*			
1	Bileren kopurua *Número de reuniones*	5	5	8

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena Aldia: Urtarrila - Ekaina
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto *Periodo:* *Enero - Junio*

Saila		**OGASUNA ETA FINANTZAK**
Departamento	**05**	**HACIENDA Y FINANZAS**
Programa		**Ondarearen kudeaketa eta Arrriskuen aurreneurriak**
Programa	**933.125**	***Gestión del Patrimonio y Prevención de riesgos***

Ondare Zerbitzuak 2023. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren Memorian ezarritako helburuak erreferentziatzat hartuta, ekitaldi ekonomiko honen lehen seihilekoan 933.125 programa gauzatzeko egin diren honako jarduketa hauek nabarmendu behar dira:

1.- Foru Ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen kontrol zehatza.

Horri dagokionez, hauexek bereizi behar dira:

a) INBENTARIOA: Aurrera darrai Foru Ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztien datu juridiko eta arkitektoniko guztiak eta gainerako dokumentazio erantsia Inbentarioaren aplikazio informatikoan (BONDARE- Ondasun Higiezinen Modulua) grabatzen hasitako lanak. Aurreko ekitaldietan esan dugunez, lanaren konplexutasuna eta zehaztasunak eman beharra direla eta, ekitaldi ekonomiko bat baino gehiago hartu beharko da.

b) KATASTROA: Katastroko Zerbitzuari egindako berrogeita bost eskaera, foru ondasunen titulartasuna eta katastro-mugaketa egokitzeko eta ondasun higiezinen gaineko zerga zuzen egozteko.

c) KONTABILITATEA: Kontabilitate Atalera lekualdatzea BONDARE-Higiezinen Moduluan agerrarazitako etengabeko mugimenduak, dagokion alta emateko Aktibo Finkoen Moduluan.

Tomando como referencia los distintos objetivos marcados por el Servicio de Patrimonio en la Memoria de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2023 cabe destacar las siguientes actuaciones que, durante el primer semestre del presente ejercicio económico, han sido desarrolladas en ejecución del programa 933.125:

1.- Control exhaustivo de los bienes y derechos que integran el Patrimonio Foral.

En este aspecto hay que distinguir:

a) INVENTARIO: Continúa la labor iniciada de grabación en la aplicación informática del Inventario (BONDARE- Módulo Bienes Inmuebles) de todos los datos jurídicos y arquitectónicos y demás documentación anexa de la totalidad de los bienes y derechos que integran el Patrimonio Foral. Como ya se apuntaba en los anteriores ejercicios, la complejidad y minuciosidad de esta labor exigirá que su realización abarque más de un ejercicio económico.

b) CATASTRO: Cuarenta y cinco solicitudes efectuadas al Servicio de Catastro, en orden a la adecuación de la titularidad y delimitación catastral de los bienes forales y a la correcta imputación del Impuesto de Bienes Inmuebles.

c) CONTABILIDAD: Traslado a la Sección de Contabilidad de los constantes movimientos reflejados en BONDARE-Módulo Bienes Inmuebles para la correspondiente alta en el Módulo Activos Fijos.

d) SOZIETATEEN DATU-BASEA: Etengabe eguneratu eta mantendu behar da, berrogeita hamabost oharpen baino gehiagorekin.

e) JABETZA GORPUZGABEAREN ESKUBIDEEN DATU-BASEA: Etengabe eguneratu eta mantendu da, hogei jarduketa baino gehiagorekin.

f) HIGIEZINEN ERREGULARIZAZIO JURIDIKOA: Horri dagokionez, hauexek nabarmendu behar dira:

- Hogeitabost prozedura baino gehiago daude jabari publikoa edo foru jabetzako higiezinak lotzeko edo desatxikitzeko, baita haien adskripzioa aldatzeko ere, betiere destino-aldaketak kontuan hartuta.

- Erregistroko Inskripzioak eta Oharrak Ondasunen eta Eskubideen Inbentarioan, hainbat arrazoirengatik horiek eskuratzeko aukerarik izan ez zuten ehun higiezinen kasuan (batez ere errepideak desjabetzeko soberako lursailak).

2.- Ondarea errentagarri egitea eta, hala badagokio, besterentzea balioa emateko, eta ondare higiezina kontserbatzeko, hobetzeko eta babesteko neurriak hartzea:

Errentagarritasunaren gaineko politika, funtsean, Aldundiarentzat errentagarritasun ekonomiko edo soziala sortu beharrean, Aldundiarentzat karga diren lurrak edo higiezinak saltzean datza, baita erabilera espezifikorik gabeko foru jabetzei xede egokia ematean ere.

Horri dagokionez, jarduera hauek nabarmendu behar dira:

– Eskritura publikoan formalizatu da enkante publikoan adjudikatutako 2 higiezinen salmenta.

d) BASE DE DATOS DE SOCIEDADES: Permanente actualización y mantenimiento de la misma, con más de cincuenta y cinco anotaciones.

e) BASE DE DATOS DE DERECHOS DE LA PROPIEDAD INCORPORAL: Permanente actualización y mantenimiento, con más de veinte actuaciones.

f) REGULARIZACIÓN JURÍDICA DE INMUEBLES: En este aspecto cabe señalar:

- Más de veinticinco procedimientos de “afectación” y o “desafectación” del dominio público, así como de cambios de “adscripción” de los inmuebles de propiedad foral, en atención a los cambios de destino de los mismos.

- Inscripciones Registrales y Anotaciones en el Inventario de Bienes y Derechos de cien inmuebles que, por diversas circunstancias, no habían tenido acceso a los mismos (fundamentalmente terrenos sobrantes de expropiación de carreteras).

2.- Rentabilización y, en su caso, enajenación del patrimonio para su puesta en valor, así como adopción de medidas para la conservación, mejora y defensa del patrimonio inmobiliario:

La política de rentabilización se traduce básicamente en la venta de aquellos terrenos o inmuebles que, lejos de producir una rentabilidad económica o social para la Diputación, suponen una carga para la misma; así como en darle el destino adecuado a propiedades forales sin uso específico.

En este aspecto cabe destacar las siguientes actuaciones:

– Formalización en escritura pública de la venta de 2 inmuebles adjudicados en pública subasta.

Foru jabetzako azalera handietan oro har jarduteko neurriak:

- Trapagarango Zugaztieta auzoan lurzoruaren salmenta prestatzen jarraitzen da, eta eremu horren inguruko auzoetan etorkizunean egin daitezkeen jarduketak prestatzeko erabakiak hartzen. Zehazki, Gobernu Kontseiluak udalerri horretako Magdalena kaleko 5. zenbakian eta Correo kaleko 2. zenbakian dagoen eraikinari dagokion lurzorua saltzea onetsi du; eskritura sinatzea falta da.

- Prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartu dira Bilboko Artxandako jolas-parke zaharrean.

Ondarea defendatzeko jarduketen artean, hauek egin dira:

- Loiuko eta Ermuko zenbait lursail ofizioz berreskuratzeko prozedura hasi baino lehenagoko jarduketak.

- Aldundiak Foruan duen partzela 1 ofizioz ikertzeko prozedura.

3.- Arkitekturaren arloko jarduketen esparruan, Ondare Zerbitzuak, 2022ko lehen seihilekoan, Foru Aldundiaren jarduketak koordinatzeko eta zentralizatzeko lanean gauzatutako higiezin-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko prebentzio neurriak hartzeko, hauexek nabarmendu behar dira, besteak beste:

– Propietateak etengabe identifikatu eta egiaztatzea, hainbat dokumentazio grafiko gainjarrita (kartografia, hirigintza, ortoargazkiak).

Medidas de Actuación global en grandes superficies de propiedad foral:

- Se continúan preparando las pertinentes ventas de suelo en el barrio de La Arboleda de Trapagaran y toma de decisiones preparatorias para futuras actuaciones en barrios periféricos de dicha zona. En concreto, se ha aprobado en Consejo de Gobierno la venta del suelo correspondiente al edificio sito en c/Magdalena 5-Correo nº 2 de dicho municipio, estando pendiente la firma de la escritura.

- Realización de medidas preventivas y correctivas en el Antiguo Parque de Atracciones de Artxanda en Bilbao.

Entre las actuaciones de defensa del Patrimonio se ha procedido a:

- Actuaciones previas a la incoación del procedimiento de recuperación de oficio de varios terrenos en Loiu y Ermua.

- Procedimiento de investigación de oficio de 1 parcela de titularidad foral en Forua.

3.- Dentro del marco de actuaciones de índole arquitectónica, en orden a la adopción de medidas preventivas para la conservación y mejora del Patrimonio Inmobiliario llevadas a cabo por el Servicio de Patrimonio, durante el primer semestre de 2022 en su labor coordinadora y centralizadora de las actuaciones de la Diputación Foral, cabe destacar, entre otras, las siguientes:

– Permanente identificación y comprobación de propiedades mediante superposición de diferente documentación gráfica (cartografía, urbanística, ortofotos….).

- Higiezinen ondarea ikuskatzeko etengabeko bisitak egitea.
- Foru Sailei aholkularitza teknikoa ematea (bisitak, txostenak, preskripzio teknikoen pleguak idaztea), euren zerbitzuak kokatzeko higiezinak erosteko eta egokitzeko obrak egiteko, eta abar. Ehun jarduketatik gora izan da arlo horretan.
- Alegazioak Hirigintza Plangintzak BFAren jabetzako ondasunen gainean duen eraginari buruz, Bizkaiko Lurralde Historikoko hainbat lekutan. Zenbait jarduketa (Bilbo, Gorliz, Durango eta Loiu, etab.).
- Higiezinen balorazioaren eta egoeraren gaineko txostenak egitea, eta haiek mantentzeko eta kontserbatzeko neurriak proposatzea: 26 txosten.
- Foru jabetzako hainbat higiezin garbitzea: Gordexolako eta Gorlizko lursailak; La Casillako orubea, Bilbon; lokal bat Balmasedan.

- Realización de constantes visitas de inspección del patrimonio inmobiliario.
- Asesoramiento técnico a distintos Departamentos Forales (visitas, informes, redacción de pliegos de prescripciones técnicas) para la compra y obras de acondicionamiento de inmuebles para la ubicación de sus servicios. etc., que pueden contabilizarse en más de cien actuaciones.
- Alegaciones a la afección del Planeamiento Urbanístico sobre los bienes propiedad del DFB en distintos emplazamientos del THB. Varias actuaciones (Bilbao, Gorliz, Durango y Loiu, etc.).
- Elaboración de informes de valoración y estado sobre inmuebles con propuesta de medidas sobre su mantenimiento y conservación: 26 informes.
- Limpieza de diferentes inmuebles de propiedad foral: terrenos en Gordexola y Gorliz, solar de la Casilla en Bilbao, local en Balmaseda.

4.- Aseguru-politika eta arriskuen prebentzioa:

Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek dituzten arriskuak estaltzen dituzten aseguru-polizei dagokienez, indarrean jarraituko dute 2021. urtean esleitu ondoren, eta hasierako indarraldia bi urtekoa izango da; lehen luzapena onartu da, 2023ko ekitaldirako. Zehazki, sei kontratu hauek dira: (i) bizi- eta istripu-aseguru kolektiboa (esparru-akordio bidez esleitua); (ii) ibilgailu motordunen asegurua (kontratu mota beraren bidez esleitua); (iii) erantzukizun zibil orokorreko asegurua; (iv) kalte materialen asegurua (edukitzailea eta edukia); (v) herri-administrazioetako agintarien eta langileen erantzukizun-asegurua; eta (vi) eskola-kiroleko istripuen aseguru kolektiboa. Esan behar da erantzukizun zibileko aseguruaren poliza salatu

4.- Política aseguradora y prevención de riesgos:

En lo que respecta a las pólizas de seguro que cubren los distintos riesgos a los que se encuentran expuestas la Diputación Foral de Bizkaia y sus organismos autónomos, continúan vigentes tras su adjudicación en 2021, siendo su período de vigencia inicial de dos años, y habiéndose aprobado su primera prórroga para el ejercicio 2023. En concreto, se trata de los seis contratos siguientes: (i) el seguro colectivo de vida y accidentes (adjudicado vía acuerdo marco); (ii) el seguro de vehículos a motor (adjudicado a través de la misma figura contractual); (iii) el seguro de responsabilidad civil general; (iv) el seguro de daños materiales (continente y contenido); (v) el seguro de responsabilidad de autoridades y personal al servicio de las Administraciones

egin zuela haren erakunde kudeatzaileak, eta, ondorioz, aparteko luzapena onartu behar izan zen, sei hilabeterako, poliza berriaren kontratazioa izapidetu bitartean. Poliza berria 2023ko ekainean adjudikatu zen.

Era berean, gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen aseguru pribatuen bitartekaritza (artekaritza) eta laguntza eta aholkularitza zerbitzuen kontratua dago, 2022ko irailean adjudikatu ondoren. Hasierako adjudikazio-aldia bi urterako da

Zerbitzuaren eguneroko lanean, 2023ko lehen seihilekoan, hainbat ezbehar motaren erreklamazioei buruzko 290 espediente kudeatu dira, xehetasun hauen arabera:

- Erantzukizun zibila: 204.
- Bizia eta istripuak: 26.
- Ibilgailuak: 42.
- Kalte materialak (edukitzailea eta edukia): 12.
- Kirol-kanpainak: 6.

Era berean, berritu egin da Bizkaiko Foru Aldundiak suhiltzaileek eta lan-poltsan sartzeko gaitzeko prestakuntzako ikastaroak egiten dituzten suhiltzaileek praktika-aldia egiteko sinatuta duen aldizkako aseguru pertsonalen poliza.

Era berean, bidaiako laguntza-poliza kontratatu da Aldundiak Nevadako Unibertsitatean destinoa izango duen pertsona bat hautatzeko abian jarritako deialdian aukeratutako pertsonarentzat, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Nevadako Unibertsitateak sinatutako lankidetza-hitzarmenaren babesean, kontzertu ekonomikoari

Públicas y (vi) el seguro colectivo de accidentes de deporte escolar. Debe señalarse que la póliza de seguro de responsabilidad civil fue objeto de denuncia por la entidad gestora de la misma, con lo cual hubo de aprobarse una prórroga extraordinaria por un período de seis meses en tanto se tramitaba la contratación de la nueva póliza, cuya adjudicación tuvo lugar en junio de 2023.

Asimismo, se encuentra el contrato de servicios de mediación (correduría) de seguros privados de la Diputación Foral de Bizkaia y sus organismos autónomos y asistencia y asesoramiento en materia de seguros y riesgos, tras su adjudicación en septiembre de 2022, por un período inicial de dos años.

En el quehacer diario del Servicio, en el primer semestre de 2023, se han gestionado 290 reclamaciones de diferentes tipos de siniestros, conforme al detalle siguiente:

- Responsabilidad civil: 204.
- Vida y accidentes: 26.
- Vehículos: 42.
- Daños materiales (continente y contenido): 12.
- Campañas deportivas: 6.

Asimismo, se ha formalizado la póliza ocasional de seguros personales que la Diputación Foral de Bizkaia tiene suscrita para la realización del periodo de prácticas por parte de bomberos, así como para aquellos bomberos que realizan los correspondientes cursos de formación habilitantes para el acceso a la bolsa de trabajo.

De igual modo, se ha contratado la póliza de asistencia en viaje para la persona que resultó seleccionada en la convocatoria puesta en marcha por la Diputación para la selección de una persona con destino en la Universidad de Nevada para promover y difundir en el ámbito internacional la investigación sobre el concierto económico, al

buruzko ikerketa nazioartean sustatzeko eta zabaltzeko.

Azkenik, Udalekuak 2023 programako parte-hartzaileentzako (adingabeak eta begiraleak) nahitaezko istripu-poliza kolektiboa kontratatu da programak dirauen aldirako, hau da, uztailaren 1etik 29ra. Kanpaina horretan parte hartzen dute Arabako, Bizkaiako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Aseguruen arloko aholkularitza-lanei dagokienez, 46 dira.

5.- Ondare Zerbitzua “Zeharkako Zerbitzu” gisa kudeatzea:

Eginkizun hori betetzeko, eta egunez egun sortzen diren programatu gabeko hainbat jarduketari kalterik egin gabe, nabarmentzekoa da sailek eta foru erakunde autonomoek eskatuta egindako ondare-edukiko espediente guztiak (errentamenduak, erosketak, salmentak, trukeak, sozietate-eragiketak, jabetza industriala eta intelektuala, etab.) izapidetu eta formalizatu direla. Horien kuantifikazioa helburuen eta ekintzen adierazleetan ageri da.

6.- Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuekiko lankidetza eta koordinazio jarduerak:

- Bizkaiko Batzar Nagusiak: atxikita dituzten higiezinei buruzko kontsultak eta ondasun eta eskubideen inbentarioari buruzko kontsultak.

- Erakunde Autonomoak eta Foru Merkataritzako Sozietateak eta Sozietate Partaidetuak: Era askotako berrogeita hamar jarduketa baino gehiago.

amparo del convenio de colaboración suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y dicha universidad.

Por último, se ha contratado la preceptiva póliza colectiva de accidentes para los participantes (menores y monitores y monitoras) en el programa de Udalekuak 2023 para el periodo de duración del mismo, esto es, del 1 al 29 de julio. En dicha campaña participan las diputaciones forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

En lo que respecta a las labores de asesoramiento en materia de seguros, se cuantifican en 46.

5.- Gestión del Servicio de Patrimonio como “Servicio Transversal”:

En desarrollo de esta función, sin menoscabo de variadas actuaciones no programadas que surgen en el devenir de cada día, cabe destacar la tramitación y formalización de todos los expedientes de contenido patrimonial (arrendamientos, compras, ventas, permutas, operaciones societarias, propiedad Industrial e Intelectual, etc.) realizados a instancia de los distintos Departamentos y OO.AA. Forales, cuya cuantificación viene reflejada en los correspondientes indicadores de objetivos y acciones.

6.- Actuaciones de cooperación y coordinación con otras Administraciones de la Comunidad Autónoma, cabe señalar:

- JJ.GG. de Bizkaia: consultas realizadas sobre los inmuebles que tienen adscritos y sobre su Inventario de bienes y derechos, en general.

- OO.AA. y Sociedades Mercantiles Forales y Participadas: Más de cincuenta actuaciones de diversa índole.

- Eusko Jaurlaritza: Bi erakundeen artean egindako antzinako lagapenen eta beste ondare-eragiketa batzuen xede izandako higiezinak erregularizatzeko zenbait jarduketa. Horren ondorioz, gorago aipatutako higiezinen trukea egin zen. Ezin dira zenbatu bilerak, telefono bidezko izapideak eta posta elektronikoaren bidez egindakoak.

- Udalak: Laurogei jarduketa baino gehiago Bizkaiko Lurralde Historikoko udalekin, lizentzia-eskaerei, hirigintzako jardun-unitateei, lankidetza-hitzarmenei eta abarri buruzkoak...

7.- 2023ko lehen seihilekoan egindako jarduketa bereziak:

- Eusko Jaurlaritzaren aldeko azalera-eskubidea bat eratzea onetsi da, Iurretan dauden EITBren instalazio zaharren lursailak direla-eta.

- Zenbait lursail erosteko aukera baliatzea onetsi da, Kortezubin Omako Basoaren kokaleku berrirako. Eskritura publikoan formalizatu behar da.

- Basobarrin "Omako Basoa" proiektu berria egiteko baldintzak ezartzen dituen jabetza intelektualaren kontratua onetsi eta sinatu da, baita Agustin Ibarrola artistaren "Omako Basoa" arte-lana erregularizazioa eta ustiapena ere.

- EAEANren 88/2023 Epaia, otsailaren 27koa, 1. Instantziako epaia berresten duena, EHUk BFAren 2020ko irailaren 22ko Akordioaren kontra aurkeztutako apelazio-errekurtsoa ezesteko. Akordio horren bidez, San Mameseko ekipamendu-eremuko B eta C partzelak itzultzeko eskatzea erabaki zen.

- Gobierno Vasco: Diversas actuaciones relativas a la regularización de inmuebles objeto de antiguas cesiones y otras operaciones patrimoniales realizadas entre ambas administraciones. Fruto de ello, se realizó la permuta de propiedades antes mencionada. No pueden contabilizarse las reuniones, gestiones telefónicas y de correo electrónico.

- Ayuntamientos: Más de ochenta actuaciones con los diversos Ayuntamientos del THB, relativas a solicitudes de licencias, U.E. urbanística, Convenios de colaboración y un largo etc...

7.- Actuaciones especiales llevadas a cabo en el primer semestre de 2023:

- Aprobación de la constitución de un derecho de superficie, a favor de Gobierno Vasco, sobre terrenos de las antiguas instalaciones de EITB en Iurreta.

- Aprobación del ejercicio de la opción de compra de varios terrenos para el nuevo emplazamiento del Bosque de Oma en Kortezubi, estando pendiente su formalización en escritura pública.

- Aprobación y suscripción del contrato de propiedad intelectual por el que se establecen las condiciones para la ejecución del nuevo proyecto "el Bosque de Oma" en Basobarri, así como la regulación y explotación de la obra artística "El Bosque de Oma" del artista Agustín Ibarrola.

- Sentencia 88/2023, de 27 de febrero, del TSJPV ratificando la Sentencia de 1ª instancia, en el sentido de desestimar el recurso de apelación formulado por la UPV contra el Acuerdo de la DFB de 22 de septiembre de 2020 que decidió la reversión de las parcelas B y C de la UE del área equipamental de San Mámes.

– Gaur egun, zain gaude, EHUk Auzitegi Gorenean aurkeztutako kasazio-errekurtsoaren prestakuntza onartzen den ala ez jakiteko.

– EAEANren Administrazioarekiko Auzien Salako Kasazioko Sekzioaren autoa, Barakaldoko Udalak sala horren epai baten kontra prestatutako kasazio-errekurtsoa izapidetzeko ez onartzea xedatu duena. Zehazki, epai horren bidez ezetsi egin zen udal horrek Bilboko Administrazioarekiko Auzien 4 zenbakiko Epaitegia emandako epai baten kontra aurkeztutako apelazio-errekurtsoa. Epaitegiaren epai horren bidez, baietsi egin zen BFAk formalizatutako errekurtsoa, Barakaldon, EBOHk (Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea) 2020ko ekitaldian ondasun higiezinen gaineko zergatik salbuesteko eskubidea zuela aitortzeko. Exekutatu zain dago.

  EAEANren Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, Barakaldoko Udalak Bilboko Administrazioarekiko Auzien 5 zenbakiko Epaitegiaren epai baten kontra aurkeztutako apelazio-errekurtsoa ezesten duena. Epaitegiaren epai horren bidez, baietsi egin zen BFAk formalizatutako errekurtsoa, Barakaldon, EBOHk (Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea) 2021eko ekitaldian ondasun higiezinen gaineko zergatik salbuesteko eskubidea zuela aitortzeko. Exekutatu zain dago.

  Gaur egun, Barakaldoko Udalak aurkeztutako kasazio-errekurtsoaren ebazpenaren zain dago.

– Actualmente se está a la espera de admisión o no de la preparación del recurso de casación interpuesto por la UPV ante el Tribunal Supremo.

– Auto de la sección de casación de la Sala de lo contencioso-administrativo del TSJPV no admitiendo a trámite el recurso de casación preparado por el Ayuntamiento de Barakaldo contra la sentencia de dicha sala por la que desestimaba el recurso de apelación interpuesto por el propio Ayuntamiento contra la sentencia del Juzgado de lo contencioso-administrativo nº 4 de Bilbao por la que se estimaba el recurso formalizado por DFB, reconociendo el derecho del BICE (Variante Sur Metropolitanta) en Barakaldo, a disfrutar de la exención del Impuesto sobre Bienes Inmuebles en el ejercicio 2020.En estos momentos pendiente de ejecución.

  Sentencia de la Sala de lo contencioso-administrativo del TSJPV desestimando el recurso de apelación presentado por el Ayuntamiento de Barakaldo contra la sentencia del Juzgado de lo contencioso-administrativo nº 5 de Bilbao que estimó el recurso interpuesto por la DFB y reconociendo el derecho del BICE (Variante Sur Metropolitanta) en Barakaldo, a disfrutar de la exención del Impuesto sobre Bienes Inmuebles en el ejercicio 2021.

  En estos momentos está pendiente de resolución del recurso de casación presentado por el Ayuntamiento de Barakaldo.

- Mungiako udal-mugarteko Beko Kaleko 18. zenbakian dagoen higiezin bat erosi da eta erosketa eskritura publikoan formalizatu da. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren erabiltzaileen egonaldi ertainerako egoitza-zentroa jartzeko erabiliko da.

- Compra y formalización en escritura pública de un inmueble sito en Beko Kale, 18 del término municipal de Mungia, para su destino a centro residencial de media estancia para personas usuarias del Servicio de Mujer e Intervención Familiar del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

- Muxikako udal-mugarteko Astelarra auzoko 13. zenbakian dagoen higiezin bat erosi da eta erosketa eskritura publikoan formalizatu da. GUFEk kudeatutako desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-zentroa jartzeko erabiliko da.

- Compra y formalización en escritura pública de un inmueble sito en el barrio Astelarra, nº 13 del término municipal de Muxika, para su destino a centro asistencial de personas con discapacidad gestionado por el IFAS.

- BFAren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordean parte hartu da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen xede diren eraikinen eta instalazioen inbentarioa egin da.

- Participación en la Comisión de Sostenibilidad Energética de DFB, elaborando el inventario de edificios e instalaciones que son objeto de la Ley 4/2019 de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca.

- Eskritura publikoan formalizatu da 5 basoren erosketa, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak eskatuta, bertako basoa sustatzeko proiekturako.

- Formalización en escritura pública de 5 compras de montes para el proyecto de fomento del bosque autóctono a instancia del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

- Eskritura publikoan formalizatu da Sestaoko etxebizitza baten erosketa, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren HABITAT Bizkaia programarako.

- Formalización en escritura pública de la compra de un piso en Sestao para el programa de HABITAT Bizkaia del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

- Markina-Xemeinen lursail baten kostu bidezko dohaintza modal bat onetsi eta formalizatu da, Gizarte Ekintza Sailaren gizarte-zerbitzu propioak jartzeko.

- Aprobación y formalización de una donación modal onerosa de un terreno en Markina-Xemien para la implantación de servicios sociales propios del Departamento de Acción Social.

- Higiezinak bilatu dira Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zerbitzurako eta Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzurako.

- Búsqueda de inmuebles para los servicios de Inclusión Social y el Servicio de Mujer e Intervención Familiar del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

- Abanto-Zierbenako Parte Teknologikoko EICren egoitzaren eraikinari dagokion obra berriaren deklarazioa formalizatzeko prestatze-jarduketak egin dira.

- Laguntza etengabea eta lankidetza izan dugu Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren proiektuetan: Aldundiaren Egoitzen Plana, Bizkaiko Foru Aldundiaren Aktiboak Mantentzeko Plana, Herritarrei Arreta emateko Plana (GERTU bulegoak). Etengabea izan da, halaber, Gardentasun Zerbitzuarekin izan dugun lankidetza.

- Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen kalteen polizan sartuta dauden ondasun higiezin guztien eta haien eskubideen balorazioa egin da. Horretarako, baimena eman zen programako bitarteko langile bat kontratatzeko, 12 hilabeterako. 2023ko irailaren 18tik aurrera, kontratua 6 hilabetez luzatzeko eskatu da, berriro aztertu behar direlako balioak. Berrikuspen hori behar da balio horiek balorazioa egin zenean indarrean zeuden moduluak aplikatuta kalkulatu zirelako. Modulu horiek 2022ko uztailean eguneratu zirenez, balio horien kalkuluan ez zen kontuan hartu merkatuan 2022ko ekainetik aurrera izandako % 45eko gehikuntza.

- Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteak sustatutako Govtech Bizkaia proiektuaren barruko Aseguruen Erronkan parte hartu da.

- Actuaciones preparatorias para la formalización de la declaración de obra nueva del edificio Sede-EIC del Parque Tecnológico de Abanto-Zierbena.

- Asistencia continua y colaboración en proyectos del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, a saber: Plan de Sedes Foral, Plan de Mantenimiento de los Activos de Diputación Foral de Bizkaia, Plan de Atención ciudadana (oficinas GERTU). Sin olvidar la colaboración constante con el Servicio de Transparencia.

- Valoración de todos los bienes inmuebles y derechos sobre los mismos que se incluyen en la póliza de daños de esta Diputación y sus Organismos Autónomos. Al efecto, se autorizó la contratación de una persona interina de programa por el plazo de 12 meses, si bien se ha solicitado que se prorrogue el contrato 6 meses más, a partir del 18 de septiembre de 2023 porque resulta necesario revisar nuevamente los valores. La necesidad de dicha revisión se debe a que los mismos fueron valorados aplicando los módulos vigentes en el momento de su valoración. Dichos módulos son los actualizados en julio de 2022 y, debido a ello, en el cálculo de estos no se pudo considerar el incremento del 45% que tuvo lugar en el mercado, a partir de junio de 2022.

- Participación en el Reto de Seguros dentro del Proyecto Govtech-Bizkaia impulsado por el Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa de la DFB.

Saila eta Programa / Departamento y Programa

05	**OGASUNA ETA FINANTZAK** ***HACIENDA Y FINANZAS***
933125	**ONDAREAREN KUDEAKETA ETA ARRISKUEN AURRENEURRIAK** ***GESTION PATRIMONIO Y PREVENCION RIESGOS***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	**FORU ONDAREA OSATZEN DUTEN ESKUBIDE ETA ONDASUNEN KONTROLA** ***CONTROL DE LOS BIENES Y DERECHOS QUE INTEGRAN EL PATRIMONIO FORAL***			
1	INBENTARIO OROKORRA EGUNERATU ETA HAREN JARRAIPENA EGITEA *SEGUIMIENTO Y ACTUALIZACIÓN DEL INVENTARIO GENERAL*			
1	Ondasaun higiezinak BONDAREn eguneratzera jotzen duten aldaketak *Modificaciones tendentes a la actualización de inmuebles en BONDARE*	400	400	300
2	Ondasun higiezinen altak, erosketa, lagapen eta abarrengatik *Altas de inmuebles por compra, cesión, etc*	25	25	12
3	Ondasun higiezinen baxak, salmenta, lagapen eta abarrengatik *Bajas de inmuebles por venta, cesión, etc*	10	10	3
4	Ondasun higiezinen norakoa aldatzea *Cambios de destino de inmuebles*	20	20	12
2	INBENTARIOAREN APLIKAZIO INFORMATIKOA MARTXAN JARTZEA *PUESTA EN MARCHA DE APLICACIÓN INFORMÁTICA DEL INVENTARIO.*			
1	Lantikekin eginiko garapen-jarduerak *Actuaciones de desarrollo con LANTIK*	10	10	12
2	Koordinazio jarduketak beste sail eta zerbitzu batzuekin *Actuaciones de coordinación con otros Departamentos y Servicios*	150	150	80
3	ONDARE HIGIEZINAREN IKUSKAPENAK *INSPECCIONES DEL PATRIMONIO INMOBILIARIO*			
1	Higiezinak ikuskatzeko bisitak *Visitas de inspección de inmuebles*	300	300	170
2	Atontzeko, zaintzeko eta bestekoako jarduketa arkitektonikoei buruzko proposamen-txostenak *Informes de proposición de actuaciones arquitectónicas de acondicionamiento, conservación, etc.*	50	50	26
2	**JARDUKETA-PLANAK GARATU ETA BURUTZEA FORU JABETZAKO AZALERA HANDIETAN** ***DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE PLANES DE ACTUACIÓN EN GRANDES SUPERFICIES DE PROPIEDAD FORAL***			
1	JARDUKETAK LA ARBOLEDAKO 6.000.000 M2-ETAN. *ACTUACIONES EN LOS 6.000.000 DE M2 DE LA ARBOLEDA.*			
1	Koordinazio-lanak Zugaztieta auzoko bizikideekin *Actuaciones de coordinación con los vecinos del Barrio de La Arboleda*	20	20	10
2	Lurrak banantzeko eragiketak *Operaciones de segregación de terrenos*	5	5	
3	Lurren salmentak lurzoruaren jabeei *Ventas de terrenos a propietarios del suelo*	15	15	

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
4	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailarekin jarduketa bateratuak, bai norakoa antolatzeko, bai lurzoruak erabiltzeko *Actuaciones conjuntas con Sostenibilidad y Medio Natural para la ordenación del destino y utilización de los terrenos*	50	50	20
2	JARDUKETAK BESTELAKO ALORRETAN. *ACTUACIONES EN OTRAS ÁREAS.*			
1	Norako berezia duten azaleren erregistroko bereizketak *Operaciones de segregación registral de superficies que cumplen un destino específico*	2	2	
2	Alde horretako eraikinen antolamendua *Ordenación de las edificaciones existentes en dicha area*	2	2	
3	Beste batzuk *Otros*	2	2	2
3	**ONDARE HIGIEZINAREN HOBEKUNTZA ETA ERRENTAGARRITASUNA** ***RENTABILIZACIÓN Y MEJORA DEL PATRIMONIO INMOBILIARIO***			
1	ONDARE ERABILIGABEA BESTERENTZEA *ENAJENACIÓN DE PATRIMONIO OCIOSO*			
1	Herri bidearen soberakinen salmenta *Venta de sobrantes de vía pública*	8	8	1
2	Zerbitzu publikorik ez duten ondasun higiezinen salmenta *Venta de inmuebles sin utilidad de servicio público*	5	5	1
3	Foru Aldundiak erabiltzen ez dituen higiezinak erakunde batzuei lagatzea *Cesiones a diversas instituciones de inmuebles no utilizados por la D.F.*	4	4	2
2	ERABILI GABEKO ONDAREA ERRENTAN JARTZEA ETA BESTE ERA BATZUETAN USTIATZEA *ARRENDAMIENTO Y OTRAS FORMAS DE EXPLOTACIÓN DEL PATRIMONIO OCIOSO*			
1	Errentan jartzea eta bestela ustiatzea *Arrendamiento y otras formas de explotación*	1	1	
4	**FORU ONDAREAREN ARKITEKTURAN EGITEN DIREN ESKU-HARTZEAK BIDERATZEA ONDARE ZERBITZUAREN BITARTEZ** ***CANALIZACIÓN A TRAVÉS DEL SERVICIO DE PATRIMONIO DE LAS ACTUACIONES DE INTERVENCIÓN ARQUITECTÓNICA EN EL PATRIMONIO FORAL***			
1	SAILEI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEA JARDUN ARKITEKTONIKOETAN *APOYO TÉCNICO A LOS DISTINTOS DEPARTAMENTOS EN ACTUACIONES DE ÍNDOLE ARQUITECTÓNICA*			
1	Ondare higiezinen balorazio-txostenak *Informes de valoración de inmuebles*	25	25	18
2	Obrak zuzendu eta ikuskatzeko jarduketak *Actuaciones de dirección y supervisión de obras*	25	25	8
5	**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMIADUNEN ONDASUN, PERTSONA ETA JARDUERAK OSORIK ASEGURATZEA** ***ASEGURAMIENTO INTEGRAL DE LOS BIENES, PERSONAS Y ACTIVIDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL Y SUS OO.AA.***			
1	BITARTEKARITZA ETA ASEGURUEN AHOLKULARITZAKO ENPRESAK KONTRATATZEA *CONTRATACIÓN DE EMPRESAS MEDIADORAS Y ASESORAS DE SEGUROS*			
1	Erantzukizun zibileko aseguruaren bitartekaritzako kontratua formalizatzea *Formalización del contrato de mediador del seguro de Responsabilidad Civil*			
2	Bizitza eta istripuen aseguruaren bitartekaritzako kontratua formalizatzea *Formalización del contrato de mediador del seguro de Vida y Accidentes*			
3	Ibilgailuen aseguruaren bitartekaritzako kontratua formalizatzea *Formalización del contrato de mediador del seguro de Vehículos*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
4	Kalte materialen aseguruaren bitartekaritzako kontratua formalizatzea *Formalización del contrato de mediador del seguro de Daños Materiales*			
5	Kirol kanpainetarako aseguruaren bitartekaritzako kontratua formalizatzea *Formalización del contrato de mediador del seguro de Campañas Deportivas*			
6	Administratzaile publikoen aseguruaren bitartekari-kontratua formalizatzea *Formalización del contrato de mediador del seguro de Administradores Públicos*			
2	ASEGURU ETXEAK KONTRATATZEA. *CONTRATACIÓN DE COMPAÑÍAS ASEGURADORAS.*			
1	Erantzukizun zibileko poliza kontratatzea *Contratación póliza Responsabilidad Civil*	1	1	2
2	Bizitza eta istripuen poliza kontratatzea *Contratación póliza Vida y Accidentes.*	1	1	1
3	Ibilgailuen poliza kontratatzea *Contratación póliza Vehículos.*	1	1	1
4	Kalte materialen poliza kontratatzea *Contratación póliza Daños Materiales.*	1	1	1
5	Kirol kanpainetarako poliza kontratatzea *Contratación póliza Campañas Deportivas.*	1	1	1
6	Administratzaile publikoen polizaren kontratazioa *Contratación póliza Administradores Públicos*	1	1	1
7	Noizbehinkako polizen kontratazioa *Contratación pólizas ocasionales*	8	8	3
3	ONDAREAREN SEGIMENDUA GOITIK BEHERAKO ZERBITZU BEZALA. *SEGUIMIENTO PATRIMONIAL COMO SERVICIO HORIZONTAL.*			
1	Ezbeharrak: erantzukizun zibila *Siniestros Responsabilidad Civil*	450	450	205
2	Ezbeharrak: bizitza eta istripuak *Siniestros Vida y Accidentes*	40	40	26
3	Ezbeharrak: ibilgailuak *Siniestros Vehículos*	200	200	42
4	Ezbeharrak: kalte materialak *Siniestros Daños Materiales*	30	30	12
5	Ezbeharrak: kirol kanpainak *Siniestros Campañas Deportivas*	8	8	6
4	SAILEI ETA ERAKUNDE AUTONOMOEI AHOLKU EMATEA ASEGURU ARLOAN *ASESORAMIENTO A LOS DISTINTOS DEPARTAMENTOS Y OO.AA. EN MATERIA DE SEGUROS*			
1	Koordinazio-jarduketak beste sail eta erakunde autonomi batzuekin *Actuaciones de coordinación con otros Departamentos y OO.AA.*	45	45	46
6	**ONDAREAREN KUDEAKETA GOITIK BEHERAKO ZERBITZU BEZALA.** ***GESTION PATRIMONIAL COMO SERVICIO HORIZONTAL***			
1	SAIL ETA ERAKUNDE AUTONOMIADUNEI AHOLKATZEA ONDAREAREN ARLOAN *ASESORAMIENTO A LOS DISTINTOS DEPARTAMENTOS Y OO.AA. EN MATERIA PATRIMONIAL*			
1	Txosten juridikoak *Informes Jurídicos*	100	100	62
2	Txosten teknikoak *Informes Técnicos*	70	70	30

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
3	Kontsultak beste bide batzuk erabilita ebaztea *Resolución de consultas por otros medios*	500	500	350
2	ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA *TRAMITACIÓN EXPEDIENTES*			
1	Erosketak *Compras*	20	20	2
2	Errentamenduak *Arrendamientos*	5	5	2
3	Lagapenak beste batzuei *Cesiones a terceros*	3	3	2
4	Sozietate-eragiketak *Operaciones Societarias*	25	25	5
5	Ondare-izaerako baimentzeak *Autorizaciones de carácter patrimonial*	25	25	4
6	Ondare-izaerako baimentzeak *Expedientes de diversa índole*	200	200	120
3	GAIAK ETA JARDUNAK BESTE ORGASNISMO BATZUEKIN *CUESTIONES Y ACTUACIONES CON DIVERSOS ORGANISMOS*			
1	Erakunde publikoak (Eusko Jaurlaritza, udalak, batzar nagusiak, Ararteko, etab.) *Instituciones Públicas (Gobierno Vasco, Ayuntamientos, Juntas Generales, Ararteko, etc.)*	50	50	35
2	Notariotzak *Notarías*	30	30	15
3	Jabetza-erregistroak. *Registros de la Propiedad*	30	30	15
4	Epaitegiak *Juzgados*	20	20	5

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto

Aldia: Urtarrila - Ekaina
Periodo: *Enero - Junio*

Saila		**OGASUNA ETA FINANTZAK**
Departamento	**05**	**HACIENDA Y FINANZAS**
Programa		**Finantzak**
Programa	**934.127**	***Finanzas***

2023. urteko lehen seihilekoan, programa hau Aldundiaren finantza-baliabideak optimizatzeko helburuarekin gauzatu da. Aipaturiko helburu hori lortzeko, hainbat ekintza gauzatu dira, besteak beste:

– Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoaren eta kreditu-erakundeen arteko 2023ko finantza-eragiketen baldintzak arautzen dituen akordioa formalizatu da.

– 2023. urterako finantza plana onartu da, ordainketen denbora banaketa egokia eta zorpetze-beharraren estimazio zuzena lortzeko hain zuzen, baita ordaintzeko aginduak emateko bete behar diren ordainketa-egutegiak ere.

Era berean, diruzaintzako desorekei aurre egiteko, hauek formalizatu dira:

– Finantza-erakunde batekin kreditu-kontu bat izatea eta erakunde berarekin kontu arruntean zorpekoa izateko aukera, besteak beste konpromiso instituzionalen ordainketa-egutegiaren ondoriozko diruzaintzako desfaseak finantzatzeko erabiltzen diren tresna tradizionalak.

Era berean, merkataritzako foru sozietateen eremuan, zorpetze berriei buruzko informazioa eman da, baita aurretik zegoen zorpetzearen bilakaerari buruzkoa ere.

Azkenik, aktiboaren kudeaketari dagokionez, hauxe esan behar da: 2023ko lehen seihilekoan ez dela diruzaintzako aldi baterako likidezia-soberakinen errentagarritasunik egin.

Durante el primer semestre de 2023, este programa se ha ejecutado de acuerdo con el objetivo de optimizar los recursos financieros de esta Diputación. Para la consecución del citado objetivo se han llevado a cabo diversas acciones, entre las que cabe destacar las siguientes:

– Se ha formalizado el Acuerdo que regula las condiciones de las operaciones financieras entre el sector público del Territorio Histórico de Bizkaia y las entidades de crédito durante el año 2023.

– Se ha aprobado el plan financiero para el 2023 a fin de conseguir una adecuada distribución temporal de los pagos y una correcta estimación de la necesidad de endeudamiento, así como los calendarios de pagos a los que deben acomodarse la expedición de las órdenes de pago.

Asimismo, con el objetivo de hacer frente a los desfases de tesorería, se ha formalizado:

– Una cuenta de crédito con una entidad financiera y la posibilidad de descubierto en cuenta ordinaria con la misma entidad, instrumento~~s~~ tradicionales utilizado~~s~~ para financiar los desfases de tesorería derivados, entre otros, del calendario de pagos de los Compromisos Institucionales.

Asimismo, en el ámbito de las Sociedades Mercantiles Forales se ha informado acerca de nuevas operaciones de endeudamiento así como de la evolución del endeudamiento preexistente.

Finalmente, en lo que se refiere a la gestión del activo, reseñar que no se han realizado rentabilizaciones de puntas de tesorería durante este primer semestre del 2023.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Saila eta Programa / Departamento y Programa

05	**OGASUNA ETA FINANTZAK** ***HACIENDA Y FINANZAS***
934127	**FINANTZAK** ***FINANZAS***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	**FORU SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-ESPARRU OROKORRAREN DEFINIZIOA.** ***DEFINICIÓN DEL MARCO FINANCIERO GENERAL DEL SECTOR PÚBLICO FORAL.***			
1	FORU SEKTORE PUBLIKOARENTZAKO FINANTZA-BALDINTZAK EZARTZEA. *ESTABLECIMIENTO DE LAS CONDICIONES FINANCIERAS PARA EL SECTOR PÚBLICO FORAL.*			
1	Finantza-arloko hitzarmen kopurua *Nº de acuerdos financieros*	1	1	1
2	**DIRUZAINTZAKO POSIZIOEN OPTIMIZAZIOA.** ***OPTIMIZACIÓN DE LAS POSICIONES DE TESORERÍA.***			
1	ALTXORTEGIAREN SALDOEN PLANGINTZA. *PLANIFICACIÓN DE SALDOS DE TESORERÍA.*			
1	Urteko planifikaziorako txosten kopurua *Nº Informes de planificación anual*	1	1	1
2	Urteko ordainketen egutegiei buruzko txosten kopurua *Nº Informes de calendario pagos anual*	1	1	1
3	Ordainketen egutegiaren eguneratze kopurua *Nº actualizaciones del calendario pagos*	1	1	1
2	DIRUZAINTZAKO ERAGIKETEN AZTERKETA, PROPOSAMENA ETA FORMALIZAZIOA. *ESTUDIO, PROPUESTA Y FORMALIZACIÓN DE OPERACIONES DE TESORERÍA.*			
1	Aztertutako aukera kopurua *Nº de alternativas analizadas*	4	4	4
2	Finantza-erakundeekin egin den kontaktu kopurua *Nº de contacto con entidades financieras*	4	4	3
3	Formalizatutako diruzaintzako-eragiketa kopurua *Nº de operaciones de tesorería formalizadas*	3	9	9
3	DEFIZITEN FINANTZAZIOA / SOBERAKINAK ERRENTAGARRI BIHURTZEA. *FINANCIACIÓN DE DÉFICITS / RENTABILIZACIÓN EXCEDENTES.*			
1	Aztertutako aldi kopurua *Nº de periodos analizados*	12	12	6
2	Defiziten finantzazioari eta/edo soberakinak errentagarri bihurtzeari buruzko txosten kopurua *Nº de informes sobre financiación de déficits y/o rentabilización de excedentes*	12	12	6
4	ERAKUNDE ORDAINTZAILEEN JARRAIPENA *SEGUIMIENTO DE LAS ENTIDADES PAGADORAS.*			
1	Egin den txosten kopurua *Nº de informes elaborados*	1	1	
3	**FINANTZA ARLOKO KOORDINAZIOA.** ***COORDINACIÓN FINANCIERA.***			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	FORU SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEEN ETA/EDO PARTAIDETZADUN ERAKUNDEEN ZORPETZE-ERAGIKETEN AZTERKETA *ESTUDIO Y ANÁLISIS DE LAS OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO DE LAS ENTIDADES DEL SECTOR PUBLICO FORAL Y/O ENTIDADES PARTICIPADAS.*			
1	Txostena egin behar zaion eragiketa kopurua *Nº de Operaciones a informar*	3	3	2
2	PARTAIDETZADUN BESTE ENPRESA BATZUEN ZORPETZEAREN JARRAIPENA. *SEGUIMIENTO DEL ENDEUDAMIENTO DE OTRAS EMPRESAS PARTICIPADAS.*			
1	Kontrolerako txosten kopurua *Nº de Informes de control*	13	13	6
3	FORU SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEEN ZORPETZEARI ETA ERAKUNDE HORIEK EMANDAKO ABALEI BURUZKO TXOSTENA EGITEA. *INFORMAR SOBRE EL ENDEUDAMIENTO Y AVALES OTORGADOS POR LAS ENTIDADES DEL SECTOR PÚBLICO FORAL.*			
1	Batzar Nagusietara bidalitako txosten kopurua *Nº de informes a JJGG*	18	18	8
2	Beste erakunde batzuetara bidalitako txosten kopurua *Nº de informes a otras instituciones*	17	17	8
4	**KREDITUEN KALIFIKAZIOA ESKURATZEA (RATING).** ***OBTENCIÓN DE CALIFICACIÓN CREDITICIA (RATING).***			
1	FORU SEKTORE PUBLIKOKO EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARLOKO INFORMAZIOAREN RATING AGENTZIEN ESKURAGARRITASUNA KOORDINATZEA. *COORDINAR LA PUESTA A DISPOSICIÓN DE LAS AGENCIAS DE RATING DE LA INFORMACIÓN ECONÓMICO FINANCIERA DEL SECTOR PÚBLICO FORAL.*			
1	Egin den txosten kopurua *Nº de informes elaborados*	3	4	4
2	Kalifikazio-agentziekin egin den bilera kopurua *Nº de reuniones con las Agencias de calificación*	3	4	4
3	Informazioa zenbat aldiz eguneratu den *Nº de actualizaciones de información*	9	15	13

GARRAIOAK eta MUGIKORTASUN JASANGARRIA
TRANSPORTES y MOVILIDAD SOSTENIBLE

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena Aldia: Urtarrila - Ekaina
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto *Periodo:* *Enero - Junio*

Saila		**GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA**
Departamento	**06**	**TRANSPORTES Y MOVILIDAD SOSTENIBLE**
Programa		**Administrazio orokorra**
Programa	**920.106**	***Administración General***

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren barruan dagoen "Administrazio Orokorra" Programak, izaera globalizatzailea izategatik, hainbat alderdi biltzen ditu, eta justifikatuta dago berez existitzen dela; izan ere, horren bidez, Saila osatzen duten bulegoen eta atalen jarduera guztia koordinatu eta zentralizatzen da.

7	Gauzatutako aurrekontuaren % (VIII. kapitulua) *% presupuesto ejecutado capítulo VIII*	100	100	
8	Gastuaren kontabilitate-espedienteen kopurua *Número de expedientes contables de gasto*	6.000	6.000	
9	Kudeatutako likidazio-kopurua *Número de liquidaciones gestionadas*	70	70	
10	Kudeatutako autolikidazio-kopurua *Número de autoliquidaciones gestionadas*	80	80	
2	AURREKONTUA EGIN ETA BETETZEKO AHOLKULARITZA *ASESORAMIENTO EN LA ELABORACIÓN Y EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO*			
1	Aurrekontu-gauzatzeari buruzko estatistiken kopurua sailerako *Número de estadisticas de ejecución presupuestaria para el Departamento*	12	12	6
3	ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOAREN ARLOKO AHOLKULARITZA ETA KONTROLA *ASESORAMIENTO Y CONTROL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA*			
1	Kudeatutako administrazio-kontratuen kopurua *Nº de contratos administrativos gestionados*	65	65	65
2	**ERABILGARRIAK EDO GIZARTEAREN INTERESEKOAK DIREN JARDUERAK SUSTATU** ***FOMENTO DE LAS ACTIVIDADES DE UTILIDAD O INTERES SOCIAL***			
1	ERAKUNDE, ELKARTE ETA BESTE ENTE BATZUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK *SUBVENCIONES A ORGANISMOS, INSTITUCIONES, ASOCIACIONES Y OTROS ENTES*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Laguntza izendunen kopurua *Nº de ayudas nominativas*	3	3	3
2	Bestelako laguntzen kopurua *Nº de otras ayudas*			
3	**SAILETAKO INSTALAZIO ETA ERAIKINETAN HOBEKUNTZAK ETA MATENTZE INTEGRALA EGITEA** ***REALIZAR EL MANTENIMIENTO INTEGRAL Y MEJORAS DE LAS INSTALACIONES Y EDIFICIOS DEPARTAMENTALES***			
1	INSTALAZIOEN ZUZENKETAKO ETA PREBENTZIOKO MANTENTZE LANAK EGITEA. *REALIZAR EL MANTENIMIENTO CORRECTIVO Y PREVENTIVO DE LAS INSTALACIONES*			
1	Mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileetako kontratu-kopurua *Número contratos de mantenimiento preventivo y correctivo*	10	10	10
2	ERAKINETAN MANTENTZE- ETA HOBETZE-LANAK EGITEA *REALIZAR OBRAS DE MANTENIMIENTO Y MEJORA DE EDIFICIOS*			
1	Eraikinen mantentze-lan kopurua *Número de obras de mantenimiento de edificios*	20	20	4
2	Eraikinen hobetze-edo handitze-lan kopurua *Número de obras de mejora/ampliación de edificios*	5	5	2

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena Aldia: Urtarrila - Ekaina
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto *Periodo:* *Enero - Junio*

Saila		**HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK**
Departamento	**07**	**ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES**
Programa		**Foru plan informatikoa**
Programa	**920.110**	***Plan Informático Foral***

Foru Plan Informatikoaren helburua informazioaren teknologien munduak eskaintzen dituen tresna guztien erabilera sustatzea eta koordinatzea da, eta tresna horiek Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila eta Diputatu Nagusiaren Kabinetea osatzen dituzten administrazio-unitateek eginiko jarduera guztien zerbitzura jartzea.

Ildo horretan, eta FPIk dituen baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak kontuan hartuta, lehen seihileko honetan jarduera hauei ekin zaie:

- Mikroinformatika parkea egokitzea, betiere lanpostu bakoitzaren premia funtzionalen arabera, lanpostu finkoak pixkanaka telelana ahalbidetzen duten lanpostuekin ordezten jarraitzeko.
- BFAko funtzionarioen bulegotikako tresnei eta aplikazioak erabiltzeko tresnei buruzko prestakuntza, batetik, ikastaroak ematea bera, eta, bestetik, ikastaroetan emandako ikasgaiak erabiltzen eta aplikatzen laguntzea.
- Mikroinformatika erabiltzaileei eta sailetako taldeei laguntza teknikoa ematea.
- Erabiltzaile bakoitzaren segurtasun-profilak egokitzea, erabiltzaile bakoitzak bere jarduera behar bezala egiteko behar dituen tresnak eta aplikazioak eskura izan ditzan.
- Argitalpen berriak Interneten eta lehendik daudenak mantentzea.

El objetivo del Plan Informático Foral es el de fomentar y coordinar el uso de todas las herramientas que proporciona el mundo de las tecnologías de la información y ponerlas al servicio de todas las actividades desarrolladas por las diferentes unidades administrativas que componen el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales y el Gabinete del Diputado General

En este sentido y teniendo en cuenta los recursos, tanto económicos como humanos, de los que dispone el P.I.F., durante este primer semestre han sido abordado las siguientes actuaciones:

- Adecuación del parque de microinformática en base a las necesidades funcionales de cada uno de los puestos de trabajo, continuando la sustitución progresiva de los puestos de trabajo fijos por puestos que posibilitan el teletrabajo.
- Formación en las herramientas ofimáticas y de utilización de aplicaciones del funcionariado de la D.F.B., por un lado, la propia impartición de los cursos y por otro lado apoyo en la utilización y aplicación de las materias impartidas en los cursos.
- Soporte técnico a los usuarios/as de microinformática, así como a los equipos con carácter departamental.
- Acomodamiento de los perfiles de seguridad de cada usuario/a, al objeto de cada uno pueda tener acceso a las herramientas y aplicaciones necesarias para el correcto desarrollo de su actividad.
- Nuevas publicaciones en Internet y mantenimiento de las ya existentes.

- Sailaren Informatika Plana egitea, jarraipena egitea eta eguneratzea.
- BFAko langileak hautatzeko prozesuari buruzko kalitate-ziurtagiria mantentzea.
- Osasuna zaintzeko prozesuari buruzko kalitate-ziurtagiria mantentzea.

Era berean, landutako proiektuen artean, hauexek nabarmentzen dira:

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru saila

- **"Funtzio Publikoaren aginte-koadroa" proiektua:** Kontsultatzeko txosten interaktiboen egitura bat ezarri da; haren bidez, lanpostuei, plazei, langileei eta nominei buruzko informazioa ustiatu ahal da**.**
- **"Nomina eta langileak" proiektua:** Nomina eta langileen arloko tresnetara egokitzea, Gizarte Segurantzaren arau-aldaketetara, hitzarmenetara eta egitura-aldaketetara egokitzeko.
- **"Lege Aholkularitzako espedienteen kudeatzaile berria" proiektua:** 2023ko lehen seihilekoa, aplikazioaren garapena landu da. Espediente judizialak sartzea baztertu da, eta proiektua administrazio-espedienteen kudeaketara bideratu da.
- **«Enplegu Publikoaren Eskaintza» proiektua:** 2023ko lehen seihilekoan, enplegu publikoaren eskaintzaren deialdien lehen bi multzoei ekin zaie, hau da, egonkortze-prozesuari eta deialdi arruntei, Egoitzarekin integratutako formulario berrien bidez. Horrez gainera, azterketak irakurtzeko makina berriak erabiltzen hasi dira azterketak zuzentzeko.

- Elaboración, seguimiento y actualización del Plan Informático del Departamento.
- Mantenimiento de la Certificación de Calidad sobre el proceso de Selección del personal de la D.F.B.
- Mantenimiento de la Certificación de Calidad sobre el proceso de Vigilancia de la Salud

Asimismo, entre los proyectos abordados destacan los siguientes:

Departamento foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales

- **Poyecto "Cuadro de Mando de Función Pública":** Se ha implementado una estructura de informes interactivos de consulta que permiten explotar la información de puestos, plazas personal y nominas
- **Proyecto "Nómina y Personal"**: Adecuaciones a las herramientas de nómina y personal para adecuarlos a cambios normativos de la Seguridad Social, convenios, cambios de estructura…
- **Proyecto "Nuevo gestor de expedientes de Asesoría Jurídica:** Durante el primer Semestre de 2023 se ha implementado el desarrollo del aplicativo. Se ha descartado la incorporación de los expedientes Judiciales reenfocando el proyecto hacia la gestión de los expedientes administrativos.
- **Proyecto "Oferta Pública de Empleo":** durante el primer semestre de 2023 se han abordado los dos primeros bloques de convocatorias de oferta pública de empleo en las modalidades de estabilización y ordinarias a través de los nuevos formularios integrados con Sede. También se ha comenzado a realizar las correcciones de exámenes a través de las nuevas máquinas lectoras de exámenes.

- **"Prestakuntza eta Trebaleku" proiektua:** lanean ari gara IVAPera bidaltzen den informazioaren bolumena handitzeko, datu gehiago eta kasuistika berria sartuta.

- **"Gobernu Kontseiluak" proiektua:** Gobernu Kontseilura bidaltzen diren gaien kudeaketaren euskarria eta mantentzea. Gobernu kontseiluen euskarri diren azpiegiturak astero berrikustea. Legegintzaldi-aldaketarako aplikazioa prestatu da, eta sinatzeko morroi berri bat sartu da; sinaduren karpetaren funtzionalitateetan oinarrituta dago.

- **"Ondasunen eta Jardueren Erregistroa" proiektua:** lehen seihilekoan, goi-kargudunen urteko aitorpenak eta azken legegintzaldian goi-kargudun izan direnen kargua utzi ondorengo aitorpenak egin dira, bai eta goi-kargudunen erregistroan sartu diren pertsonen hasierako aitorpenak ere.

- **"Eskaeren kudeatzailea eta erosketa-zentrala" proiektua:** kontratazio-espedienteen kudeatzailearen bertsio berri bat ezarri da, Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zerbitzuak eskatutako hobekuntzak sartuta.

- **«Udal azterlanen prozedurak egoitza elektronikoan sartzea» proiektua:** Ordezkaritza bidezko sarbidea ezarri da, egoitza elektronikoan baimena duten guztiei balioa emateko EGOITZAn argitaratutako Zerbitzuaren espediente guztietan.

- **"Udalnet" proiektua:** formularioak argitaratu dira eta edukiak eguneratu dira Udalneten.

- **"Argia" proiektua:** Egituran izandako aldaketetara egokitzeko lanak egin dira eta prozeduren eta lotutako txantiloien mota eta azpimota berriak sartu dira.

- **Proyecto “Formación y Trebaleku”:** se está trabajando en ampliar el volumen de información que se envía al IVAP incluyendo más datos y abarcando nuevas casuísticas

- **Proyecto “Consejos de Gobierno”:** Soporte y mantenimiento de la gestión de los asuntos que se envían a Consejo de Gobierno. Revisión semanal de las infraestructuras que dan soporte a los consejos de Gobierno. Se ha preparado el aplicativo para el cambio de legislatura, e incorporado un nuevo asistente de firma basado en las funcionalidades del portafirmas.

- **Proyecto “Registro de Bienes y Actividades”:** Durante el primer semestre se ha abordado tanto la realización de las declaraciones anuales de los altos cargos como las declaraciones tras cese de los altos cargos de la última legislatura y las declaraciones de inicio de las personas que han pasado a formar parte del registro de Altos Cargos.

- **Proyecto “Gestor de pedidos y central de compra**s”: Se ha implantado una nueva versión del gestor de expedientes de contratación incluyendo mejoras solicitadas por el Servicio de Contratación de la Diputación Foral de Bizkaia.

- **Proyecto “Incorporación de procedimientos de Estudios Municipales en Sede electrónica”:** Se ha implementado la integración con representación, para dar validez a los autorizados en la Sede electrónica en todos los expedientes del Servicio publicados en la SEDE

- **Proyecto “Udalnet”:** Publicación de formularios, y actualización de contenidos en Udalnet,

- **Proyecto “Argia”:** Adecuaciones a cambios de estructura e incorporación nuevos tipos y subtipos de procedimientos y plantillas asociadas

- **"Udal Kontabilitatea" proiektua:** egonkortasun-formularioetako arau-egokitzapenak, udal adierazleak eta ministerioarekin datuak trukatzeko baldintzetara egokitzea.

- **"Bizkaiko Aldizkari Ofiziala" proiektua:** iragarkiak bidaltzeko estranetaren ezarpena, estatistiken modulua eta DDBNrekin integratzeko modua lantzen ari dira.

- "**GMAO" proiektua:** BFAren eraikin, ibilgailu eta biltegiak mantentzeko lanak kudeatzeko sistema ezartzea.

- "**SZZ" proiektua:** Suhiltzaile eta Salbamendu Zuzendariordetzaren garapenak lantzeaz eta normalizatzeaz arduratuko den lantaldea osatu da eta lehen lan-ildoei ekin zaie.

- **Proyecto "Contabilidad Municipal":** adecuaciones normativas en los formularios de estabilidad, indicadores municipales y adecuaciones a los requisitos de intercambio de datos con el ministerio.

- **Proyecto "Boletín Oficial de Bizkaia":** Se está trabajando en la implantación de la extranet de envío de anuncios, el módulo de estadísticas y la integración con la BDNS.

- **Proyecto "**GMAO**":** Implantación de un sistema de gestión del mantenimiento de edificios, vehículos y almacenes de la DFB

- **Proyecto "**SEIS**":** Se ha conformado el equipo de trabajo encargado de evolucionar y normalizar los desarrollos de la Subdirección de Extinción de Incendios y Salvamento y se han dado comienzo a las primeras líneas de trabajo en ese sentido.

Ahaldun Nagusiaren Kabinetea

- **"Bizkaia.eus (CIX)" proiektua:** Otsailean, Bizkaia.eus orriaren bertsio berri bat ezarri zen. Proiektu honen lan-ildoetako baten emaitza da. Horrez gainera, lan-ildo berriak definitzen ari dira.

- **"Invest Biscay" proiektua:** Bizkaiko ekosistema ekintzailea eta berritzailea hobetzeko startup-ak eta I+G unitateak Bizkaira erakartzeko proiektua. Dagoeneko erabilgarri dauden edukiak eguneratzeko eta hobetzeko proposamenak egin ditu.

- **«Batzar Nagusietako kontsulten kudeaketa» proiektua:** Ataza-erretiluaren bidez kontsulten izapidetzeko euskarria sarreren kudeatzailearekin eta Batzar Nagusien Kudeaketa Parlamentarioko Sistemaren bidalketa prebentiboekin integratu da.

Gabinete del Diputado General

- **Proyecto "bizkaia.eus (CIX)":** En el mes de febrero se implantó la nueva versión de Bizkaia.eus resultado de una de las líneas de trabajo de este proyecto. Adicionalmente se están definiendo nuevas líneas de trabajo.,

- **Proyecto "Invest Biscay":** Proyecto para la atracción a Bizkaia de startups y unidades de I+D para mejorar el ecosistema emprendedor e innovador de Bizkaia. Se han realizado propuestas para actualizar y mejorar los contenidos ya disponibles.

- **Proyecto "Gestión de consultas de Juntas Generales":** Soporte a la tramitación de las consultas a través de la bandeja de tareas se ha integrado con el Gestor de entradas y con los envíos prevenientes del Sistema de Gestión parlamentaria de Juntas generales.

- **"Gazteen weba" proiektua:** CiX analisia hasi da, orri honen beste bertsio bat garatzeko.

- **Ekitaldiak:** Ekitaldien eraketarako eta ekitaldietan hautemandako kasuistiketarako euskarria. Hobekuntza funtzionalak ezarri dira, hala nola CCMren erabilera gonbidapenak eta sarrerak prestatzeko.

- **Proyecto "web de Juventud":** Se ha comenzado el análisis CiX para desarrollar una nueva versión de esta página

- **Ekitaldiak:** Soporte a la configuración y casuísticas detectadas en los eventos. Implementación de mejoras funcionales como la utilización del CCM para la composición de las invitaciones y entradas.

Saila eta Programa / Departamento y Programa

07	**HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK** ***ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALE***
920110	**FORU PLAN INFORMATIKOA** ***PLAN INFORMATICO FORAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	**SAILEKO KUDEAKETA HOBETU, EUSKARRI INFORMATIKO BIDEZ** ***MEJORAR LA GESTIÓN DEL DEPARTAMENTO MEDIANTE SOPORTES INFORMÁTICOS***			
1	INFORMATIKAKO GAI DESBERDINETAN APLIKAZIOAK, MANTENTZEA ETA LAGUNTZA GARATU *DESARROLLO DE APLICACIONES, MANTENIMIENTO Y ASISTENCIA EN INFORMÁTICA EN DIFERENTES MATERIAS*			
1	Zuzentze- eta egokitzapen-mantenimenduaren orduak. *Horas de mantenimiento correctivo y adaptativo.*	22.032	22.032	12.117
2	Funtzionaltasun edo aplikazio berriak garatzeko ordu kopurua. *Horas de desarrollo de nuevas funcionalidades o aplicaciones.*	51.409	51.409	28.272
3	Fidelizaziorako, aholkularitzarako, kalitaterako eta politika teknologikoak prestatzeko erabilitako orduak. *Horas de fidelización, consultoria, calidad y elaboración de políticas tecnológicas.*	5.570	5.570	2.333
2	EKIPOAK BERRITZEA *RENOVACIÓN DE LOS EQUIPOS*			
1	Berritu beharreko ekipoen %/ekipo guztiak *% equipos a renovar/total equipos*	3	3	6
2	**ERABILTZAILEARI ARRETA EGOKIA BERMATU APLIKAZIO INFORMATIKOAK ERABILTZERAKOAN.** ***GARANTIZAR LA ADECUADA ATENCIÓN AL USUARIO EN EL USO DE LAS APLICACIONES INFORMÁTICAS.***			
1	LANPOSTUARI EMANDAKO LAGUNTZAREN JARRAIPENA *SEGUIMIENTO DE LA ASISTENCIA A PUESTO DE TRABAJO*			
1	Lanpostuan laguntza teknikorako emandako ordu-kopurua *Número de horas dedicadas por asistencia técnica en puesto de trabajo*	7.450	7.450	3.695

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto

Aldia: Urtarrila - Ekaina
Periodo: *Enero - Junio*

Saila **HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK**
Departamento **07** **ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES**

Programa **Foru moldiztegia**
Programa **920.112** ***Imprenta Foral***

Foru moldiztegiaren jarduera bi ataletan bana daiteke:

1) Bizkaiko Aldizkari Ofiziala egitea.

2) Bizkaiko Foru Aldundiko sailek inprimatzeko eta azaleztatzeko eginiko eskaerak betetzea.

La actividad de la Imprenta Foral se puede dividir en dos apartados:

1) Realización del Boletín Oficial de Bizkaia.

2) Elaboración de los distintos pedidos de impresión y encuadernación de los diversos departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia.

1) Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.

2023ko ekainaren 30erako 126 ale egin dira, eta aldizkari bat atera da, bi hizkuntza independentetan argitaratua (euskara/gaztelania), irakurtzeko aukeratutako hizkuntzaren arabera. Iragarkiak banaka kontsultatu daitezke.

2023. urtean, BAOn honako iragarki hauek sartu ziren:

1) Boletín Oficial de Bizkaia.

Al 30 de junio de 2023 se han realizado 126 números, resultando un boletín, publicado en dos idiomas independientes(euskera/castellano), según el idioma elegido para su lectura, donde los anuncios pueden ser consultados individualmente.

En el año 2023 el número de anuncios insertados en el B.O.B., es el siguiente:

Foru Aldundiko erregistrotik datozenak / Procedentes del Registro de la Diputación Foral:	4.481

Azken horiek honelaxe daude banatuta: /

Estos últimos distribuidos de la siguiente forma:

Foru Administrazioa / Administración Foral	800
Tokiko Administrazioa / Administración Local	3.184
Administrazio Autonomikoa / Administración Autonómica	148
Estatuko Administrazio Orokorra / Administración General del Estado	95
Justizia Administrazioa / Administración de Justicia	190
Beste herri administrazio batzuk / Otras Administraciones Públicas	22
Hainbat / Varios	42
Iragarki argitaratuak guztira / Total anuncios publicados	4.481

2) Bizkaiko Foru Aldundiko saileko inprimatzeko eta azaleztatzeko eginiko eskaerak gauzatzea.

2023. urteko ekainaren 30ean 293 enkargu egin dira guztira. Enkargu bakoitzak hainbat artikulu eta lan eska ditzake, eta, beraz, lan ugariagoak egiten dira, eta askotariko edukiak biltzen dituzte: bisita-txartelak, txartel handiak, gonbidapenak, agurrak, sarrerak, gutunak, txostenak, liburuxkak, gutun-azalak, poltsak, karpetak, paper autokopiatzaile sortak, azaleztatzeak, mota eta tamaina guztietako kartelak, artekak edo markak jartzeak, etab.

2) Elaboración de los distintos pedidos de impresión y encuadernación de los diversos departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia.

Al 30 de junio de 2023 se han realizado un total de 293 encargos. Cada encargo puede contener la petición de diversos artículos y trabajos, por lo que los trabajos efectivamente resultantes son más numerosos y comprenden gran diversidad de contenido : tarjetas de visita, tarjetones, invitaciones, saludas, entradas, cartas, informes, folletos, sobres, bolsas, carpetas, juegos de papel autocopiativo, encuadernaciones, carteles de todo tipo y tamaño, hendidos, etc.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Saila eta Programa / Departamento y Programa

07	**HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK** ***ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALE***
920112	**FORU MOLDIZTEGIA** ***IMPRENTA FORAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	**BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA MODU EGOKIAN EGITEN DELA BERMATU** ***ASEGURAR LA ADECUADA CONFECCIÓN DEL BOLETÍN OFICIAL DE BIZKAIA.***			
1	ALDIZKARIAREN EDIZIOA EGIN ETA KUDEATZEA *REALIZAR Y GESTIONAR LA EDICIÓN DEL BOLETÍN.*			
1	Indarrean dagoen administrazio-kontratuen kopurua *Número de contratos administrativos de apoyo en vigor*	1	1	1
2	BAOn argitaratutako iragarki-kopurua *Número de anuncios publicados en el BOB*	10.000	10.000	4.481
2	**SAILEN ESKABIDEEI ERANTZUN** ***ATENDER LAS PETICIONES DE LOS DEPARTAMENTOS.***			
1	SAILEN ESKABIDEAK JASO *RECEPCIONAR LAS PETICIONES DE LOS DEPARTAMENTOS.*			
1	Sailen inprimaki-eskabideen kopurua *Número de pedidos de impresos de los Departamentos*	650	650	293
2	Indarrean dauden laguntzako administrazio-kontratuen kopurua *Número de contratos administrativos de apoyo en vigor*	1	1	1
3	**INPRENTAKO JARDUERAK EGITEKO ESKURAGARRI DAUDEN BALIABIDEAK UGARITU ETA BERRIZTU** ***AMPLIAR Y RENOVAR LOS MEDIOS DISPONIBLES PARA LA REALIZACIÓN DE LAS ACTIVIDADES DE LA IMPRENTA.***			
1	ELEMENTU OSAGARRI BERRIAK ESKURATU, GEHITUZ EDO ORDEZKATUZ *ADQUIRIR NUEVOS ELEMENTOS AUXILIARES POR AMPLIACIÓN O SUSTITUCIÓN*			
1	Egindako eskuratze kopurua *Número de adquisiciones efectuadas*	1	1	1

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena Aldia: Urtarrila - Ekaina
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto *Periodo:* *Enero - Junio*

Saila **HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK**
Departamento **07** **ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES**

Programa **Langileria**
Programa **920.108** ***Personal***

Langileak Kudeatzeko Zerbitzua:

- Langileentzako laguntzak eta aurrerakinak kudeatzea. Seihilekoan 58 aurrerakin eta 1185 laguntza kudeatu dira.
- Aurrekontuaren I. kapitulua egitea, aurrekontuen aurreproiektuan sartzeko eta urtean onartu ondoren kudeatzeko. Seihilekoan, aldiari dagokion zatia gauzatu da 2023rako onartutako aurrekontuan, eta 2024ko aurrekontuaren I. kapitulua egiten hasteko prestaketa-lanei ekin zaie.
- Langileen ordezkapenen erregulazioa eta bitarteko langileen izendapena funtzio publikoaren arloko araudi berrira egokitzea. EKINen bidez digitalizatutako sinaduren prozesuan foru aginduak sartzeko eta langile berriak (finkoak eta aldi baterakoak) lanpostuaz jabetzeko hobekuntza-prozesuarekin jarraitu da. Besteak beste, bitarteko langileak izendatzeko zenbait programa jarri dira martxan hauetarako: errenta-kanpainako jardueretarako, langileen sendotze- eta egonkortze-prozesuetarako, ondarea eguneratzeko jardueretarako, Ukrainako gatazka belikoa dela-eta adingabeei emandako arretarako, Foru Ogasunaren Batuz programarako, Zentroen Zerbitzuan kasu-koordinaziorako trantsizioan emandako laguntzarako, kudeaketa prozesalerako AVANTIUS sistemarako laguntzarako.

Servicio de Gestión de Personal:

- Gestión de Ayudas y Anticipos al personal. En el semestre se han gestionado 58 anticipos y 1185 ayudas.
- Elaboración del Capítulo I del Presupuesto, para su inclusión en el anteproyecto de Presupuestos y su Gestión una vez aprobado a lo largo del año. En el semestre se ha ejecutado la parte correspondiente al periodo en el presupuesto aprobado para 2023 y se han iniciado los trabajos preparatorios para iniciar la elaboración del Capítulo I del Presupuesto para 2024.
- Elaboración de las adaptaciones en la regulación de las sustituciones del personal y nombramiento de personal interino a la nueva normativa en materia de función Pública, personal interino. Se ha continuado con el proceso de mejora para la inclusión en el proceso de firmas digitalizado a través de EKIN de las ordenes forales y de las tomas de posesión del personal nuevo ingreso (fijo y temporal). Se ha gestionado, entre otros, la puesta en marcha de diversos programas para el nombramiento de personal interino en actividades para la campaña de renta, consolidación y estabilización de la plantilla, actualización de patrimonio, atención de menores con motivo del conflicto bélico de Ucrania, programa “Batuz” de la Hacienda Foral, apoyo a la transición a la coordinación de caso en el Servicio de Centros, atención al sistema de gestión procesal AVANTIUS.

- Lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko deialdien arauak aztertu dira, deialdi horien eta lehiaketaren bidezko prozeduren oinarriak prestatu dira, deialdiak gauzatu eta garatu dira, eta haien jarraipena egin da. Seihilekoan, merezimenduen lehiaketaren deialdirako oinarriak onetsi eta argitaratu dira, deialdian jasotako 248 lanpostuak betetzeko izapideak hasi dira.

  Horrez gainera, ehun eta hamabost (115) zerbitzu-eginkizun arrunt izapidetu dira lanpostuak behin-behinean betetzeko. Halaber, elkarreragingarritasun-sistema sartzeko eta lanpostuak betetzeko deialdien oinarriak hobetzeko azterlana egiten jarraitu da.

- Enplegu publikoaren eskaintza aztertzea eta barne-sustapena egitea eta kudeatzea, karrerako funtzionarioak izendatzea (praktika-aldikoak, bitartekoak edo ordezkoak), eta edozein langile lanpostuetara atxikitzeko kudeaketa, baita langile berriak eta enplegu eta kargu publikodunak sartzeko kudeaketa ere. 2023ko lan-eskaintza onartu da, urte honetarako lan-eskaintza publikoaren lehen zatiari dagozkion ehun eta hamazortzi (18) plazarekin. Era berean, 2023. urterako bigarren lan-eskaintza aztertzen hasi da.

- Langileen ordainsari-araubidearen prozedurak kudeatzea, baita gizarte-aurreikuspeneko araubidea eta aurreikuspen sistema osagarriak ere, prozedura horiei eragiten dieten arau aldaketak aztertzea eta ondoriozko prozedurak definitzea eta kudeatzea, baita aurreikuspen sistema osagarriari ekarpen instituzionala egiteko jarduketak ere. Era berean, nomina ordaintzeko eta Gizarte Segurantzako foru aginduak ateratzeko prozesua hobetzen jarraitu da, betiere EKIN aplikazioaren bidez digitalizatutako sinadura-

- Análisis de la regulación de las convocatorias de cobertura de puestos de trabajo mediante comisiones de servicios, elaboración de las bases de dichas convocatorias y procedimientos de concurso, así como su ejecución, desarrollo y seguimiento. En el semestre se procede a aprobar y publicar las bases para la convocatoria de concurso de méritos, así como a iniciar los trámites para su cobertura con un total de 248 puestos de trabajo convocados.

  Además, se ha tramitado la cobertura de ciento quince (115) comisiones de servicios ordinarias para la cobertura temporal de puestos de trabajo. Así mismo, se ha continuado el estudio para la inclusión del sistema de interoperabilidad y mejora en las bases de las convocatorias para la obertura de puestos de trabajo.

- Análisis de la oferta de empleo público y elaboración y gestión de la promoción interna, los nombramientos de personal funcionario de carrera, en prácticas e interino o sustituto y gestión de la incorporación de cualquier personal las adscripciones del personal a los puestos de trabajo, y las de nuevo ingreso, así como de las del personal de empleo y cargos públicos. Se ha procedido a la aprobación de la oferta de empleo 2023 con dieciocho (18) plazas correspondientes a la primera parte de la oferta de empleo público para este año. Asimismo, se ha iniciado el análisis de una segunda oferta de empleo para el 2023.

- Gestión de los procedimientos del régimen retributivo del personal, así como de su régimen de previsión social y sistemas complementarios de previsión, análisis de las modificaciones normativas que afecten a dichos procedimientos y definición y gestión de los procedimientos resultante, así como actuaciones para la aportación institucional al sistema complementario de previsión. Así mismo, se ha continuado con la mejora del proceso de extracción de las Ordenes Forales de abono de Nómina y de Seguridad Social,

prozesua baliatuta horretarako. Esparru horretan, Akordioaren 54. artikuluko eta Hitzarmenaren 57. artikuluko lanaldi-murrizketak eskatzeko sistema berria, asteko edozein egunetan lizentziari heltzeko aukera ematen duena, sendotu egin da.

- Martxan jarri da behin-behineko langileentzako antzinatasunaren ondoriozko ordainketa, Euskal Enplegu Publikoaren Lege berriarekin bat. Hasierako fiskalizazio-prozesura kontsulta moduan sartu ahal izateko aukera aztertu da.
- Sendotu egin da langileen ordutegiko deskontuen automatizazioa, eta azkartasun eta argitasun handiagoa lortu da arlo horretan, baita enplegatuen minutuko prezioaren kalkulua hobetu ere.
- Langileen administrazio-egoeretako prozedurak eta haien gradu pertsonala kudeatzea. Zehazki, Bideratuzek gradu pertsonala aitortzeko sorkuntza automatizatua ezartzeko lan egin da, bai eta administrazio-egoerak Euskal Enplegu Publikoaren Legea indarrean jarri ondoren sortutako erregulazio berrira egokitzeko ere..
- Zenbait egokitzapen egin dira aplikazio informatikoetan eta berriak prestatu eta ezarri dira. Batez ere, martxan jarri da Power BI tresnaren bidezko aginte-koadroa, zeinak aukera ematen baitu plantillaren eta lanpostuen adierazleak hobeto ustiatzeko. Aztertzen jarraitu da adierazle berriak sartzeko edo lehendik daudenak hobetzeko aukerak.
- Horrez gainera, Informazio Zentroko datuak ateratzen eta lanpostuak betetzeko lehiaketetako balorazio-sistema hobetzen jarraitu da, baita destinoak aukeratzeko prozesuan aukeraketa automatizatua egiteko edo gradu pertsonala automatikoki sortzeko aukera emango digun tresna lantzen ere.

mediante el proceso de firmas digitalizado a través del aplicativo EKIN. En este ámbito, se ha consolidado el nuevo sistema de solicitudes de reducciones de jornada del artículo 54 del Acuerdo y 57 del Convenio que permite acogerse a la licencia cualquier día de la semana.

- Se ha puesto en marcha el pago de antigüedad para el personal eventual de acuerdo con la nueva Ley del Empleo Público Vasco. Así como el estudio para el acceso a modo de consulta al proceso inicial de fiscalización.
- Se ha consolidado la automatización de los descuentos horarios del personal consiguiendo una mayor agilidad y claridad en toda la materia y mejorando el cálculo del precio minuto del personal empleado.
- Gestión de los procedimientos de las situaciones administrativas del personal, así como de su grado personal. En particular, se ha trabajado para la implantación de la generación automatizada del reconocimiento del grado personal por Bideratuz, y la adaptación de las situaciones administrativas a la nueva regulación tras la entrada en vigor de la Ley de Empleo Público vasco.
- Diversas adecuaciones en aplicaciones informáticas, así como la preparación e implantación de las nuevas, especialmente ~~en~~ se ha puesto en marcha el cuadro de mando a través de la herramienta Power BI, que permite una mejor explotación de los indicadores de plantilla y puestos de trabajo, continuando con el estudio para la incorporación de nuevos indicadores o mejoras de los ya previstos.
- Además, se ha continuado con la extracción de datos del Centro de Información, y la mejora del sistema de valoraciones para los concursos de provisión de puestos de trabajo, así como, la herramienta que nos permita la elección automatizada del proceso de elección de destinos de los procesos de selección, o la generación automatizada del grado personal.

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 28ko 31/2023 Foru Dekretuaren bidez, Giza Baliabideak Kudeatzeko eta Belaunaldi Aldaketa Planifikatuan Ezaguera Transferitzeko Plan Estrategikoa onartu zen. Bizkaiko Foru Aldundia konprometiturik dago giza baliabideen gestioan eraginkortasun handiagoa lortzeko, eta, horretarako, Giza Baliabideen Plan Estrategiko berri bat planteatzen du, neurri asistentzialak jasotzen dituena, ez ordainsari izaerakoak, eta horri plantilla berritzea lotzen dio, belaunaldi-aldaketa eta ezagueraren transferentzia uztartuz. Exekutatu eta garatzeko, foru-agindu bat onetsi da. Guztira, 580 enplegatu sartu dira planean.

Mediante Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 31/2023, de 28 de marzo, se ha aprobado el Plan Estratégico de Recursos Humanos y Relevo Generacional Planificado con Transferencia del Conocimiento. La Diputación Foral de Bizkaia está comprometida en la búsqueda de una mayor eficacia en la gestión de sus recursos humanos, y se plantea un nuevo Plan Estratégico de Recursos Humanos que contempla medidas de naturaleza asistencial, no retributiva, uniendo la renovación de la plantilla con el relevo generacional y la transferencia de conocimiento. Para su ejecución y desarrollo se ha aprobado la Orden Foral. Se han incorporado al Plan un total de 580 empleados y empleadas.

Hori dela eta, prozedura zehazteko eta automatizaziorako aukerak aztertzeko lanak egin dira, eta planean jasotako neurriek nominan izango dituzten neurriak aztertu dira.

En consecuencia, se han efectuado los trabajos para la determinación del procedimiento y su posible automatización, así como los efectos en nómina de las medidas contempladas en el mismo.

- Prozedura berriak definitzeko eta ezartzeko bilerak, gradu pertsonalaren sorkuntza automatizatua, lanaldi-murrizketak, Bideratuz, POWER BI bidezko aginte-taularako adierazleak, destinoak hautatzeko sistema berria ezartzearen ondoriozkoak.

- Reuniones para la definición de nuevos procedimientos y su implantación, generación automatizada del grado personal, reducciones de jornada, Bideratuz. indicadores para el cuadro de mando a través de POWER BI, las derivadas de la implantación del nuevo sistema de elección de destinos.

- Arau eta prozeduren egokitzapenak egitea funtzio publikoaren eta aurrekontuen arloan, eta zenbait prozedura egokitzea funtzio publikoarekin eta langileen kudeaketarekin lotutako gaietan, bereziki Euskal Enplegu Publikoaren Lege berrian indarrean jartzearen ondoriozkoak.

- Elaboración de diversas adaptaciones normativas y procedimentales en materia de función pública y presupuestaria, así como adaptación de diversos procedimientos en materias relacionadas con la función pública y gestión del personal, derivadas fundamentalmente de la entrada en vigor de la nueva Ley del Empleo Público Vasco.

- Negoziazio mahaiari eta akordioaren eta hitzarmenaren kudeaketari laguntzea. Halaber, Akordio eta Hitzarmen berria onartzeko negoziazioekin zerikusia duten hainbat gai aztertzen lagunduko du. Aldundiko hauteskunde sindikalak kudeatzeko eta egiteko laguntza eman da batez ere.

- Apoyo a la Mesa de Negociación y a la gestión del Acuerdo y Convenio. Así como el apoyo para el análisis de diversas cuestiones relacionadas con las negociaciones para la aprobación del nuevo Acuerdo y Convenio. En especial se ha efectuado el apoyo en la gestión y ejecución de las elecciones sindicales forales.

- Langileen plantilla sortzea, amortizatzea eta aldatzea, baita berrantolatzea eta sortzen diren egoera berrietara egokitzea bultzatzea eta proposatzea ere. Era berean, plazak eta lanpostuak sortzen eta betetzen jarraitu da NEXT GENERATION EU proiektuen esparruan.

- Foru Dekretuaren proiektuak bultzatu, proposatu, egin eta kudeatzea, funtzio publikoaren arloko prozedurei dagokienez.

- Aurretiazko txostenak egitea, errekurtsoak eta eskaerak direla-eta espedienteak prestatzea, eta zerbitzu juridikoek eskatuta dokumentu-probak egitea, zerbitzuen arloko erreklamazio eta errekurtsoetan.

Langileen Aukeraketarako eta Trebakuntzarako Zerbitzua:

- Bitarteko funtzionarioen lan-poltsen, programako funtzionarioen eta aldi baterako kontratazioen kudeaketa. Lan-poltsak beste erakunde batzuei lagatzea eta kudeatzea. Lan-poltsak kudeatzeko programa informatiko berria ezartzea eta kideen bigarren birbaremazioa egitea modu normalizatuan. Beste zerrenda batzuetako pertsonak sartzea onartu da. Gainera, harremanetan jarri gara Lanbiderekin, kategoria batzuetako lanpostuak betetzeko.

- Lan-poltsen oinarriak eta deialdiak egitea. Karrerako funtzionario izateko deialdi hauek amaitu dira: Abenduaren 28ko 20/2021 Legearekin bat etorrita deitutako sendotze-prozesuko 12 deialdi amaituta daude, eta beste 8 deialdiak nahiko aurreratuta daude. Egonkortze-prozesuari eta enpleguaren azken eskaintza arrunteko deialdi arruntei dagokienez, bi garapen-fase daude, 31 kategoria hartzen dituztenak. Azkena hastea baino ez da falta: AOT, tributuen ikuskatzaileordeak eta AFKET.

- Creación, amortización y modificación de la Plantilla de personal, así como el impulso y propuesta de reorganización y adaptación a las nuevas circunstancias que se produzcan. Así mismo se ha continuado con la creación y cobertura de las plazas y puestos de trabajo en el ámbito de los proyectos NEXT GENERATION EU.

- Impulso, propuesta, elaboración y gestión de los diferentes proyectos de Decreto Foral en relación con los diferentes procedimientos en materia de función pública.

- Elaboración de informes previos, preparación de expedientes con ocasión de recursos y demandas, y confección de pruebas documentales a petición de los servicios jurídicos en las reclamaciones y recursos en materia de servicio.

Servicio de Selección y Formación Profesional:

- Gestión de las Bolsas de funcionariado interino, funcionariado de programa y contrataciones temporales. Cesión de bolsas a otras instituciones y su gestión. Implantación del nuevo programa informático de gestión de bolsas y realización de la segunda rebaremación de integrantes de forma normalizada, aprobando integrar a las personas provenientes de otras listas. Además, se ha contactado con Lanbide para la provisión de algunas categorías.

- Elaboración de bases y convocatorias de bolsas de trabajo: Han finalizado las convocatorias de acceso al funcionariado de carrera de: Están finalizadas 12 convocatorias de la consolidación convocada por mor de la ley 20/21 de 28 de diciembre y las 8 restantes están en muy avanzado estado. En cuanto a la estabilización y convocatorias ordinarias de la última oferta de empleo ordinaria, están dos tandas en desarrollo, correspondientes a 31 categorías, y solo falta de comenzar la última, relativa a las categorías de TAG, subinspección de tributos y TMGAF.

- Instantzien ezarpen sistematikoa egoitza elektronikoan, dagoen software-euskarriarekin. % 94ra iritsi da instantzia telematikoen kopurua.

- Dokumentu bidezko justifikazio gehienak kentzea, eta ad hoc ziurtagiriekin eta elkarreragingarritasunarekin ordeztea.

- Gai-zerrendak eta azterketak eskuratzeko aukerak hobetzea, deialdiak hobeto prestatzeko. Kalitate-helburuetatik eratorritako lehentasunezko helburu bat da, eta mantendu egin da urte honetarako. Ahalegin berezia egin da bibliografia eta gaiak emateko.

- Prestakuntzari dagokionez, 213 ikastaro eman dira, era guztietakoak, mikroinformatikakoak izan ezik, eta horietatik 52 administrazio hau eraldatzeko izan dira. Guztira, 73234 ordu eman dira: 1673 emakumek jaso dute prestakuntza eta 1055 gizonek jaso dute prestakuntza. Era berean, lan-poltsako ikastaro bat egin da suhiltzaile gidari kategoriarako.

- Erakundearteko esparru-hitzarmenak egitea unibertsitateekin (EHU, Deustu, Arrasate, UNED, CEU Cardenal Herrera eta Leon) eta lanbide heziketako zentroekin, ikasleek praktikak egin ditzaten. Hitzarmen espezifikoak formalizatu dira 42 pertsonarekin, 23 emakume eta 19 gizon, 12 titulazio-mota –horietako bat Lanbide Heziketakoa–.

- Datozen 4 urteetarako esparru-hitzarmen berri bat egiten hastea, araudi berria, praktiketako emaitzak eta unibertsitateen iradokizunak kontuan hartuta. Abendurako amaituko da.

- Implantación sistemática de instancias en la sede electrónica con el correspondiente soporte de software, elevando el número de instancias telemáticas al 94%

- Eliminación de la mayoría de las justificaciones documentales siendo sustituidas por certificados ad hoc y la interoperabilidad.

- Mejora de la accesibilidad a temarios y exámenes para la mejor preparación de las convocatorias, siendo un objetivo prioritario derivado de los objetivos de calidad, que se mantiene para este año, haciendo un esfuerzo especial en la bibliografía y aportando temas.

- En cuanto a formación se han impartido 213 cursos, de todo tipo salvo de microinformática, de los cuales 52 han sido para posibilitar la transformación de esta administración, Dedicando un total de 73234 horas que han supuesto 1673 mujeres distintas formadas y 1055 hombres distintos formados. También se ha desarrollado un curso de bolsa de trabajo para la categoría de Bombero/a conductora

- Elaboración de convenios marco interinstitucionales tanto con Universidades (EHU-UPV, Deusto, Mondragón, UNED, CEU Cardenal Herrera y León) y centros de formación profesional, para las prácticas de alumnos y alumnas. Se han formalizado convenios específicos, con 42 personas acogidas, 23 mujeres y 19 hombres, 12 tipos de titulaciones- una de ellas de formación profesional.

- Inicio de la elaboración de un nuevo convenio marco para los siguientes 4 años, de conformidad con la nueva normativa, resultados de las prácticas y sugerencias de las universidades que estará finalizado en diciembre.

Antolaketa Zerbitzua:

- Lanpostuen zerrenda aztertzea, berau mantentzeko eta eguneratzeko.
- Lanpostuak sortzea, amortizatzea eta aldatzea, lanpostuen zerrenda erakundearen funtzionamenduaren errealitatera egokitzeko; izan ere, aldakorra da sortzen diren premia berrien arabera edo epaiak betearaztearen ondorioz.
- Lanpostuen Zerrendarako proposatutako aldaketek “Egitura-unitate berriak sortzeko irizpideak eta irizpideoi egokitzen ez zaizkien egungo unitateak egokitzekoak” behar bezala aplikatzeko izango duten eraginaren jarraipena egitea. 2022ko otsailaren 15ean onetsi zituen irizpide horiek Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak.
- Lanpostu sortu berrien balorazioari buruzko proposamenak egitea, Lanpostuak Baloratzeko Batzorde Teknikoak otsailean eta ekainean egindako lau hilean behingo bileretan aurkezteko.
- Era berean, aurkeztutako Balorazioak Berrikusteko eskaerak aztertzea eta kasu bakoitzari dagokion proposamena egitea, aurreko atalean aipatutako Lanpostuak Baloratzeko Batzorde Teknikoaren bileretan aurkezteko.
- Funtzio Publikoan definitutako administrazio-prozedurak mantentzea eta hobetzea, eta Bideratuz aplikazioa gainbegiratzea eta hobetzea.
- Lanpostuen Zerrendako Lanpostuen Funtzioen Eskuliburuak mantentzea.

Servicio de Organización:

- Estudio de la Relación de Puestos de Trabajo para su mantenimiento y actualización.
- Creación, amortización y modificación de Puestos de Trabajo para la adaptación de la Relación de Puestos de Trabajo a la realidad de funcionamiento de la organización, cambiante en base a las nuevas necesidades que van surgiendo o por ejecución de sentencias.
- Seguimiento de la incidencia de las propuestas de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo en la correcta aplicación de los “Criterios para la creación de nuevas unidades de estructura y para la adaptación de unidades existentes que no se ajustan a los mismos”, que fueron aprobados en Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia de 15 de febrero de 2022.
- Elaboración de las propuestas relativas a la Valoración de los Puestos de Trabajo de nueva creación para la presentación de las mismas en las dos reuniones cuatrimestrales del el Comité Técnico de Valoración de Puestos de Trabajo celebradas en los meses de febrero y junio.
- Asimismo, análisis de las solicitudes de Revisión de Valoración presentadas y elaboración de la propuesta correspondiente en cada caso a efectos de presentación de las mismas en las sesiones del Comité Técnico de Valoración de Puestos de Trabajo a las que se ha hecho referencia en el apartado anterior
- Mantenimiento y mejora de los Procedimientos Administrativos definidos en la Función Pública y supervisión y mejora de la aplicación Bideratuz.
- Mantenimiento de los Manuales de Funciones de los Puestos de Trabajo existentes en la Relación de Puestos.

- Eragindako unitate eta sailekin batera, berrantolatzeko eta, ondorioz, lanpostuen zerrenda egokitzeko proposamenak aztertzea eta lantzea.

- Txostenak aztertzea eta egitea, Zuzendaritza Nagusiko gainerako zerbitzuekin lankidetzan, funtzio publikoaren arloan, eta Foru Aldundiaren funtzionamendua optimizatzeko antolatzea.

- Langileak Kudeatzeko Zerbitzuarekin batera, Giza Baliabideak Kudeatzeko eta Belaunaldi Aldaketa Planifikatuan Ezaguera Transferitzeko Plan Estrategikoa prestatzea. Martxoaren 28ko 31/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

- Giza Baliabideak Kudeatzeko eta Belaunaldi Aldaketa Planifikatuan Ezaguera Transferitzeko Plan Estrategikoan jasotako baimenak eta kontzeptuak kalkulatzeko irizpideei buruzko proposamena prestatzea, eta haien iraupena eta ezaugarriak zehazteko kalkulu-tresna bat egitea.

- Enplegatuek erabiltzeko simulagailu bat garatzea eta Giza Baliabideak Kudeatzeko eta Belaunaldi Aldaketa Planifikatuan Ezaguera Transferitzeko Plan Estrategikoari heltzeko foru-aginduen eranskinak sortzen dituen tresna bat garatzea, enplegatuen eskabideak kudeatzeko.

- Giza Baliabideak Kudeatzeko eta Belaunaldi Aldaketa Planifikatuan Ezaguera Transferitzeko Plan Estrategikoari heldu dioten enplegatuentzat datu-baseko gorabehera mota berriak sortzeko eta planari heldu izanari buruzko datuak sartzeko –banaka edo modu masiboan– sistema bat sortzeko proposamena egitea.

- Estudio y elaboración, conjuntamente con las Unidades y Departamentos afectados, de propuestas de reorganización y consecuente adaptación de la Relación de Puestos de Trabajo

- Estudio y elaboración de informes en colaboración con los demás Servicios de la Dirección General en materia de función pública y su organización para la optimización del funcionamiento de la Diputación Foral."

- Elaboración, conjuntamente con el Servicio de Gestión de Personal, de la propuesta del "Plan Estratégico de Recursos Humanos y Relevo Generacional Planificado con Transferencia del Conocimiento" aprobado por Decreto Foral 31/2023, de 28 de marzo.

- Elaboración de la propuesta relativa a los criterios de cálculo de los distintos permisos y conceptos que se incluyen en el "Plan Estratégico de Recursos Humanos y Relevo Generacional Planificado con Transferencia del Conocimiento" y elaboración de una herramienta de cálculo con el que obtener la duración y características de los mismos.

- Desarrollo de un simulador para uso de los empleados y un generador de Anexos de las Órdenes Forales de incorporación al "Plan Estratégico de Recursos Humanos y Relevo Generacional Planificado con Transferencia del Conocimiento" con el que gestionar las solicitudes de los empleados.

- Elaboración de propuesta de creación de los nuevos tipos de incidencias de la base de datos para los empleados incorporados al "Plan Estratégico de Recursos Humanos y Relevo Generacional Planificado con Transferencia del Conocimiento" y de un sistema de entrada de los datos relativos a cada acogida al mismo, tanto de forma individual como masiva."

- Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua aldatzeko proposamenari buruzko aginduzko txostena egitea.
- Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamena egitea, Ogasun eta Finantza Sailaren antolaketa berrira egokitzeko. Xedea izan da aurreko paragrafoan aipatutako sail horren egitura organikoari buruzko erregelamendua onartzeak eragindako antolaketa berrira egokitzea.
- Giza Baliabideen esparruan antolaketa auditoretzak egitea.
- 2022ko azarotik 2023ko apirilera bitartean lanaldia ez betetzeagatik hilero deskontuak egiteko foru aginduak eta 2022ko ekitaldian urteko lanaldia ez betetzeagatik deskontuak egiteko foru aginduak kudeatzea eta egitea.
- Aplikatu beharreko araudiaren ondorioz Presentzia Kontrolatzeko Aplikazioan egin beharreko aldaketak aztertzea eta proposatzea.
- Telelanaren bidez Zerbitzua aurrez aurrekoak ez diren lanaldiekin emateko programa berria abian jartzeko egindako proposamena lantzen jarraitzea.
- Dokumentazioa aztertzea, eta hautaketa-prozesuaren barneko auditoria prestatu eta egitea.
- Dokumentazioa aztertzea eta osasun-azterketa espezifikoen prozesuaren barneko auditoria prestatzea.

- Elaboración del Informe Preceptivo relativo a la propuesta de modificación del Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas.
- Elaboración de la propuesta de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo para su adecuación a la nueva organización del Departamento de Hacienda y Finanzas para su adecuación a la nueva organización derivada de la aprobación del Reglamento de Estructura Orgánica a la qu ese ha hecho referencia en el apartado anterior.
- La realización de Auditorías de Organización en el ámbito de los Recursos Humanos.
- Gestión de Control de Presencia y elaboración de las Ordenes Forales de Descuento mensuales por Incumplimiento de Jornada correspondientes al periodo “noviembre 2022 – abril 2023”, así como de las Ordenes Forales de Descuento por Incumplimiento de la Jornada Anual en el ejercicio 2022.
- Analizar y proponer las modificaciones precisas en la Aplicación de Control de Presencia como consecuencia de normativa de aplicación.
- Continuar trabajando sobre la propuesta elaborada para la puesta en marcha de un nuevo “Programa de Prestación de Servicio con Jornadas No Presenciales mediante Teletrabajo.”
- Análisis de documentación, preparación y realización de la Auditoria Interna del Proceso de Selección.
- Análisis de documentación y preparación de la Auditoria Interna del Proceso de Exámenes específicos de Salud.

Langileen Zerbitzu Juridikoa:

- Txostenak egitea: 8
  - Zuzendaritzak, Zuzendariordetzak eta horietan sartuta dauden gainerako zerbitzuek eskatuta.
  - Indarrean dagoen lege-araudiari, hura eguneratzeari eta biltzeari buruz.
  - Enplegu Publikoaren Eskaintzari buruzko Foru Dekretuaren proposamenari buruz.
El conjunto de tareas de mantenimiento de páginas realizadas con la herramienta MASPUB lo ha seguido haciendo cada servicio gestor y siendo SSGG el encargado de su publicación final y del mantenimiento de pequeñas tareas y actualizaciones para Servicios gestores que carecen actualmente de personal entrenado.

6) Prozesuak kudeatzeko aplikazioa garatzea.

Lehen seihileko honetan, eta Ekonomia Sustatzeko Saila buru duten hobekuntzetara mugatuta, nahiz eta gainerako foru sailek erabil ditzaketen, hauexek nabarmendu behar ditugu:

- Dirulaguntzen dekretuak kudeatzeko modulua garatzea eta ezartzea.
- Deialdietako datuei alta emateko eta datuak aldatzeko funtzionalitatea garatzea, DDBN-n alta emateko.
- Enpresa-deslokalizazioaren aitorpena egiteko prozeduraren –oso konplexua da, benetan– tratamendurako funtzionalitate berri bat garatzea.

Hauexek dira seihileko honetan hasitako proiektuak edo aurreko aldietan hasitakoak:

- Kontratazio txikiko kudeatzailea EKUNET plataforman. Zenbait urtez geldituta egon ondoren, berriro aktibatu da haren garapena.
- Dirulaguntzen jarraipen-fasea ezartzea EKUNET plataforman. Erabat garatuta dago, baina lehentasuna eman zaio zuzeneko dirulaguntzen eredua hedatzeari. Bigarren seihilekoan zabalduko da.
- EGOITZA ELEKTRONIKORA migratzea: herritarren karpeta egiteko eta inprimakiak prestatzeko fasea. Amaierako integrazio-probak hasi dira, baina bigarren aldiz eten egin da aurtengo urrira arte, 2022eko errenta-kanpainari emandako lehentasunarengatik.
- Azkenik, sailaren dirulaguntzen plan estrategikoak kudeatzeko modulua garatzen hasi da.

6) Desarrollo de la aplicación de Gestión de Procesos.

Durante este primer semestre y ya restringido únicamente a las mejoras lideradas por el Departamento de Promoción Económica, aunque utilizables por el resto de los departamentos forales, tenemos que destacar:

- Desarrollo e implantación del módulo de gestión de decretos de subvenciones.
- Desarrollo de la funcionalidad de alta y modificación de datos de convocatorias para su alta en la BDNS.
- Desarrollo de la funcionalidad nueva para el tratamiento del procedimiento, ciertamente muy complejo, de declaración de deslocalización empresarial.

Los proyectos iniciados en este semestre o con los que se continúa por haberse iniciado en periodos anteriores son los siguientes:

- Gestor de contratación menor en la plataforma EKUNET. Tras una paralización de varios años se ha reactivado su desarrollo.
- Implantación de la fase de seguimiento de subvenciones en la plataforma EKUNET. Está completamente desarrollado, pero se ha concedido prioridad al despliegue del mòdulo de subvenciones directas. Se desplegará en el segundo semestre.
- Migración a SEDE ELECTRÓNICA: fase de carpeta ciudadana y de preparación de formularios. Han comenzado las pruebas finales de integración, pero ha quedado paralizado por segunda vez hasta octubre de este año por la prioridad concedida a la campaña de Renta 2022.
- Finalmente ha comenzado el desarrollo del módulo de gestión de planes estratégicos departamentales de subvenciones.

7) Bulego birtuala.

Bulego Birtuala hobetu ondoren, 2020ko bigarren hiruhilekoan haren ahalmen operatiboa handitu ahal izateko, ondorioztatu da gaur egun 4.000 eskaera egiteko gaitasuna duela, orduko, sailaren benetako beharrak baino askoz handiagoa, baina COVID 19aren ondoriozko edozein ezustekori aurrea hartuta, Bulego Birtuala BAT tresnetan integratzeko lanari ekin zaio, batez ere G88 Erregistro Elektronikora sartzeko moduluarekiko konexioari. Hala, jasotako dokumentu guztiak elkarreragingarriak izango dira, eta, horren ondorioz, BFAren Egoitzari atxikitako Egoitza Elektronikoa sortzeko urratsa egin ahal izango da, 203/2021 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera (2021/03/31ko EAO). Izan ere, antolamendu eta eragiketa arrazoiengatik, Bulego Birtualak indarreko legeriak eskatzen duena bihurtu behar dira.

Edozelan ere, migrazio prozesua 2023ko urrira arte atzeratu da, 2022eko Errenta kanpainaren ondorioz. Izan ere, kanpaina horrek Bulego Birtualeko garatzaileei euskarria eman behar dien taldearen baliabide guztiak bereganatu ditu.

7) Oficina Virtual.

Una vez mejorada la Oficina Virtual para poder aumentar la capacidad operativa de la misma durante el segundo trimestre de 2020, concluyéndose que actualmente tiene una capacidad de 4000 solicitudes concurrentes a la hora, abrumadoramente superior a las necesidades reales del departamento, pero adelantándonos a cualquier imprevisto derivado de COVID 19, se ha comenzado a trabajar en la integración de la Oficina Virtual en herramientas BAT, principalmente la conexión con el módulo de acceso al Registro Electrónico G88. De este modo que todos los documentos recibidos serán interoperables y en consecuencia se podrá dar el paso de creación de la Sede Electrónica Asociada a la Sede de DFB, de acuerdo con lo recogido en el RD 203/2021 (BOE 31-03-221), ya que por razones organizativas y operativas las Oficina Virtual debe transformarse en lo exigido por la legislación vigente.

En cualquier caso, este proceso de migración ha quedado pospuesto hasta octubre de 2023 por la campaña Renta 2022 que ha absorbido todos los recursos del equipo que tiene que dar soporte a los desarrolladores de la Oficina Virtual.

Saila eta Programa / Departamento y Programa

08	**EKONOMIA SUSTATZEKO** ***PROMOCIÓN ECONÓMICA***
920110	**FORU PLAN INFORMATIKOA** ***PLAN INFORMATICO FORAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	**FPI-AREN PLANIFIKAZIO ETA ANTOLAKUNTZA PROZESUA GARATU ETA KUDEATZEA** ***DESARROLLAR Y GESTIONAR EL PROCESO DE PLANIFICACION Y ORGANIZACION DEL PIF***			
3	ZUZENDARITZA TEKNOLOGIKOA ERABAKITZEA. *DETERMINAR LA DIRECCIÓN TECNOLÓGICA.*			
1	Informatikako teknologien ikerketan egindako orduak *Horas dedicadas a investigación de tecnologías informáticas*	150	150	
4	INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAKO INBERTSIOA ADMINISTRATZEA *ADMINISTRAR LA INVERSION DE TECNOLOGIA DE INFORMACION*			
2	Aplikazio estrategikoak garatzeko orduak/pertsonak *Horas/personas de desarrollo de aplicaciones estratégicas*	18.000	18.000	12.563
3	Aplikazioak mantentzeko orduak/pertsonak *Horas/persona de mantenimiento de aplicaciones*	3.000	3.000	1.234
4	PPT-aren kudeaketan erabili diren orduak/pertsonak *Horas/persona empleadas en la gestión del PIF*	800	800	820
5	PROIEKTUAK ADMINISTRATZEA *ADMINISTRAR PROYECTOS*			
1	Lantik-ek definitutako metodologiaren arabera aurkeztu den proiektu kopurua *Nº de proyectos entregados en conformidad con la metodología definida por Lantik*	15	15	7
2	**INFORMAZIO SISTEMAK ESKURATZEA ETA ABIAN JARTZEA** ***ADQUIRIR E IMPLEMENTAR SISTEMAS DE INFORMACION***			
1	IRTENBIDE AUTOMATIZATUAK IDENTIFIKATZEA. *IDENTIFICAR SOLUCIONES AUTOMATIZADAS*			
1	Betekizunetan ondoren egindako aldaketa garrantzitsuek eragindako konponbide kopurua *Número de soluciones afectadas por cambios significativos posteriores en sus requisitos.*	10	10	5
3	TEKNOLOGIAREN AZPIEGITURA ESKURATU ETA MANTENTZEA *ADQUIRIR Y MANTENER INFRAESTRUCTURA DE TECNOLOGÍA*			
1	Lantik-eko estandarrekin bateragarriak ez diren plataforma teknologikoen ehunekoa *Porcentaje de plataformas tecnológicas no compatibles con los estándares de Lantik*	10	10	8
3	**SAILAREN ERABILTZAILEEI ETA BEZEROEI EUSKARRIA EMATEA.** ***DAR SOPORTE A LOS USUARIOS DEL DEPARTAMENTO Y A SUS CLIENTES***			
1	APLIKAZIOEN ZERBITZU-MAILAK ZEHAZTEA ETA ADMINISTRATZEA. *DEFINIR Y ADMINISTRAR LOS NIVELES DE SERVICIO DE LAS APLICACIONES*			
1	Okerra CAU-ri jakinarazten zaionetik konponbidea jasotzen denera arteko ordu kopurua, batez beste *Tiempo medio en horas de respuesta desde la denuncia del error al CAU y la solución*	6	6	4
4	SISTEMEN SEGURTASUNA BERMATZEA *GARANTIZAR LA SEGURIDAD DE LOS SISTEMAS*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Aplikazioetarako sarbideak aldatzeko eskaera kopurua *Nº de solicitudes de modificación de accesos a las aplicaciones*	420	420	356
6	ERABILTZAILEAK HEZI ETA TREBATZEA *EDUCAR Y ENTRENAR A LOS USUARIOS/AS*			
1	Programatu eta egindako trebakuntzako ordu kopurua *Nº de horas formación programados y realizados*	245	245	120
2	Ikastaroetara joan den ehunekoa *Porcentaje que ha asistido a cursos*	90	90	92
7	ERABILTZAILEEI LAGUNTZA ETA AHOLKUAK EMATEA *ASISTIR Y ASESORAR A LOS USUARIOS/AS*			
1	CAU-k jasotako laguntza-gorabehera kopurua *Nº de incidencias de asistencia recogidas por el CAU*	1.500	1.500	742
2	Jasotako laguntzak sortutako asetasun-gradua (0-10) *Grado de satisfacción con la asistencia recibida (0-10)*	6	6	

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto

Aldia: Urtarrila - Ekaina
Periodo: *Enero - Junio*

Saila		**EKONOMIA SUSTATZEKO**
Departamento	**08**	**PROMOCIÓN ECONÓMICA**
Programa		**Berrikuntza eta Lehiakortasuna**
Programa	**426.107**	***Innovación y Competitividad***

Berrikuntza eta Lehiakortasuneko aurrekontu-programaren helburu nagusia da Bizkaiko enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza eta nazioartekotzea sustatzeko estrategia eta politikak garatzea, haien lehiakortasuna hobetzea sustatuta eta berrikuntza enpresaren estrategiaren erdigunea bihurtuta. Horretarako, helburu estrategiko hauek diseinatu ziren:

- Bizkaiko enpresen lehiakortasuna bultzatzea, produktuan, prozesuan, antolaketan, merkatuan, diseinu industrialean eta babes industrialean berrikuntza-proiektuak garatzen eta berrikuntzari lotutako inbertsio produktiboak lagunduta.

- Trantsizio berdea eta digitala erraztea, enpresen urratsak bultzatuta oinarrizko digitalizazio aurreratuaren, ingurumen iraunkorraren eta ekonomia zirkularraren bidetik.

- Manufakturaren sektorearen modernizazioa sustatzea, ekoizpenaren eraginkortasuna handitzeko eta sektoreari malgutasuna emateko. Industria-enpresak 4.0 industriara igarotzen laguntzea, enpresen beharrak hautemateko ekintza espezifikoen bidez, ildo horretan aurrera egiteko eta industria-modernizazioa sustatzeko ekimenak bultzatzeko.

- Jakintza-zentroen eta enpresen artean teknologia transferitzeko mekanismoak bultzatzea eta hobetzea.

El programa presupuestario de Innovación y Competitividad tiene como objetivo principal el desarrollo de una estrategia y políticas que incentiven la innovación y la internacionalización en las pequeñas y medianas empresas de Bizkaia, promoviendo la mejora de su competitividad, haciendo de la innovación el centro de la estrategia de la empresa. Para ello se ha fijado los siguientes objetivos estratégicos:

- Impulso de la competitividad de las empresas de Bizkaia apoyando el desarrollo de proyectos de innovación en producto, en proceso, en organización, en mercado, en diseño industrial y protección industrial, así como apoyando inversiones productivas asociadas a la innovación.

- Facilitar la transición verde y digital, apoyando los pasos de las empresas hacia la digitalización básica y avanzada, la sostenibilidad ambiente y la economía circular.

- Fomento de la modernización del sector manufacturero para incrementar la eficacia de la producción y aportar flexibilidad al sector. Favorecer el tránsito de las empresas industriales a la denominada industria 4.0, mediante acciones específicas para detectar las necesidades de las empresas para avanzar en esta línea e iniciativas de fomento de la modernización industrial.

- Impulso y mejora de los mecanismos de transferencia de tecnología entre los centros de conocimiento y las empresas.

- Kudeaketa-sistemen hobekuntza eta berrikuntza ez-teknologikoa bultzatzea. Horretarako, ekimenak gauzatzen dira beste eragile eta administrazio batzuekin elkarlanean.

- Impulso de la mejora de los sistemas de gestión y la innovación no tecnológica, para lo que se desarrollan iniciativas en colaboración con otros agentes y administraciones.

- Berrikuntzarako enpresen arteko lankidetza bultzatzea, lankidetza-proiektuak sor daitezen, negozio-aukerak identifikatzeko eta negozio-eredu berriak definitzeko, proiektu horiek elkarrekin egiteko.

- Impulso de la colaboración entre empresas para la innovación con el objetivo de que emerjan proyectos en colaboración en los que se puedan identificar oportunidades de negocio, y definir nuevos modelos de negocio para desarrollar estos proyectos en común.

- Errepideko salgaien garraioaren sektoreari berariaz laguntzea modernizazioaren aldeko apustua egiten, egoera txarretik irteteko.

- Apoyar específicamente al sector del transporte de mercancías por carretera en su apuesta por la modernización, como salida de una coyuntura desfavorable.

- Kanpoko merkatu berrietara sartzen diren enpresen proiektuei laguntzea.

- Apoyo a proyectos de las empresas que acceden a nuevos mercados exteriores

- ETEak atzerrira irteteko prozesuan mobilizatu eta lagunduko dituzten erakundeen proiektuak, beste herrialde batzuetako enpresekiko lankidetza bideratuta.

- Proyectos de entidades que movilicen y acompañen a las pymes en su proceso de salida al exterior, facilitando la colaboración con empresas de otros países.

- Nazioarteko merkatuetan jarduten hasteko moduari buruzko informazioa ematea eta kanpoko merkataritzaren arloko zalantza teknikoei erantzutea.

- Proporcionar información sobre cómo comenzar a operar en los mercados internacionales, así como responder a las dudas técnicas en materia de comercio exterior.

- Harreman instituzionalak egitea, herrialde estrategikoetarako nazioarteko misioen bidez, etorkizunean enpresak merkatu horietan sartzen laguntzeko.

- Realización de contactos institucionales, a través de misiones internacionales a países estratégicos, que faciliten la posterior introducción de empresas en dichos mercados.

- Banku-finantzaketarako sarbidea hobetzea berrikuntza, digitalizazio, trantsizio ekologiko eta nazioartekotze proiektuetarako, elkarrekiko berme-sozietateekin elkarlanean.

- Mejora del acceso a financiación bancaria para proyectos de innovación, de digitalización, de transición ecológica y de internacionalización, mediante colaboración con Sociedades de Garantía Recíproca.

- Bizkaiko Lurralde Historikoaren posizio lehiakorra eta berritzailea hobetzea ahalbidetuko duten proiektu estrategikoak bilatzea eta laguntzea, arreta berezia enpresetan ikertzeko gaitasunean eta I+G+b garatzean jarrita, Bizkaiko garapen orekaturako lehentasunezko sektoreetan.

- Bizkairako proiektu estrategikoak babestea, hala nola AIC - Automotive Intelligence Center, automobilgintzaren sektorerako elkarlaneko berrikuntza-zentro espezifikoa; EIC-Energy Intelligence Center, energia-industria aurreratua dinamizatzeko gunea; edo NIC-Nagusi Intelligence Center, zaintzen ekonomiaren inguruko berrikuntza hub eta Silver Economy; edo BIKE- bizikletaren inguruko mugigarritasun iraunkorra dinamizatzeko poloa.

- Enpresekiko harremana sustatzea, haien premiak zuzenean ezagutzeko, Sailaren proposamenak hurbiltzeko eta horietara egokitzeko.

- Garapen iraunkorraren eta ekitatiboaren aldeko ekimenak sustatzea enpresen arlotik, adibidez pertsonek enpresetan parte hartzea, langileei enpresak eskualdatzea, enpresek garapen iraunkorreko helburuak betetzeko lan egitea, emakumeen ahalduntzea eta emakume enpresari eta zuzendariak ikusaraztea.

- Enpresen eta sistemako gainerako eragileen arteko topaguneak sortzen eta garatzen laguntzea, esperientziak partekatzeko eta errealitatea hobeto ulertzea ahalbidetzen duten gai guztiei buruz eztabaidatzeko, jardun eraginkorragoa izateko.

- Búsqueda y apoyo a los proyectos estratégicos que permitan mejorar la posición competitiva e innovadora del Territorio Histórico de Bizkaia, con particular atención al desarrollo de la capacidad investigadora y de I+D+i en empresas, en sectores prioritarios para el desarrollo equilibrado de Bizkaia.

- Apoyo a proyectos estratégicos para Bizkaia, como el AIC - Automotive Intelligence Center, centro de innovación colaborativa específico para el sector de Automoción; el EIC-Energy Intelligence Center, polo de dinamización de la industria energética avanzada; o el NIC-Nagusi Intelligence Center, hub de innovación en torno a la economía de los cuidados y la Silver Economy; o BIKE-Polo para la dinamización de la movilidad sostenible en torno a la bicicleta.

- Fomento del contacto con las empresas para conocer de primera mano sus necesidades, acercarles las propuestas del Departamento y para adecuarlas a las mismas.

- Impulsar iniciativas a favor del desarrollo sostenible y equitativo desde el mundo empresarial, en ámbitos como el de la participación de las personas en la empresa, la transmisión empresarial a personas trabajadoras, el enfoque de la empresa hacia los Objetivos de Desarrollo Sostenible o el empoderamiento de las mujeres y la visibilización de las empresarias y directivas.

- Favorecer la creación y el desarrollo de puntos de encuentro entre empresas y demás agentes del sistema, para compartir experiencias y debatir sobre todas aquellas cuestiones que permitan comprender mejor la realidad para tener una actuación más eficaz.

- BEAZ foru sozietateak zeregin aktiboa du programa honetan, berrikuntzaren arloak identifikatzen laguntzen du eta berrikuntza sistemako eragileen arteko harremanak hobetzen laguntzen du. BEAZek lan handia egiten du Bizkaiko sektore soziosanitarioetara eta enpresetara hurbiltzeko, berrikuntzako eta nazioartekotzeko proiektuak izan ditzaketen enpresak identifikatzeko.

2023ko lehen seihilekoan, aurreikusitako dirulaguntzen programa guztiak abiarazi dira, aurreikusitako epeetan.

- Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 2023ko 3i programa (158/2022 Foru Dekretua, abenduaren 20koa). Programa horren zortzigarren edizioa 2023an egin zen, aurreko urteetako esperientzia onen ondoren. Bertan, zenbateko handiko laguntzak ematen zaizkie Bizkaiko enpresetan eragin handia duten proiektuei, Europako Batzordearen 651/2014 salbuespeneko Erregelamendu Orokorraren babesean, norgehiagoka bidez. Deialdia amaituta, 2023ko otsailaren 24an, 22 eskaera jaso ziren, aurreko deialdien antzeko kopurua, eta 16 enpresari 5.756.174 euroko dirulaguntzak emanez ebatzi da.

- Berrikuntza eta inbertsio aurreratua sustatzeko 2i Plana 2023 (166/2022 Foru Dekretua, abenduaren 27koa). 2i plana 2017an jarri zen abian, eta programa bakar batean jaso nahi du berrikuntza eta inbertsio proiektuetarako laguntza. 2019an, berrikuntza bat gehitu zen: diruz lagundutako proiektuek dirulaguntza gehigarria lor dezakete berrikuntza sustatzeko Europako funtsen maileguen finantza-gastuengatik, martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatzen direnak. Baina eskari-eskala ikusita, 2023an dirulaguntza ildo hori ezabatu egin da, eta dirulaguntzaren lehenengo lerroak

- La sociedad foral BEAZ desempeña un papel activo en este Programa, ayudando en la identificacion de áreas de innovación y colaborando a la mejora en las relaciones entre los diferentes agentes del sistema de innovación. Desde BEAZ se desarrolla un importante trabajo destinado a acercarse a los sectores estrátegicos y a las empresas de Bizkaia para dentificar aquellas empresas existentes que puedan tener proyectos de innovación e internacionalización.

En el primer semestre de 2023 se ha puesto en marcha la totalidad de los programas de subvenciones previstos y en los plazos previstos.

- Programa 3i de apoyo integral a la innovación, la internacionalización y la inversión 2023 (Decreto Foral 158/2022, de 20 de diciembre). Este programa vive en 2022 su octava edición, tras las satisfactorias experiencias de años anteriores. En él se conceden ayudas de elevada cuantía a proyectos de alto impacto en empresas de Bizkaia, al amparo del Reglamento general de exención número 651/2014 de la Comisión Europea, en régimen de concurrencia competitiva. Cerrada la convocatoria, el 24 de febrero de 2023, se recibieron 22 solicitudes; un número similar al de convocatorias anteriores, y se ha resuelto con la concesión de subvenciones a 16 empresas por un importe total de 5.756.174 euros.

- Plan 2i de promoción de la innovación y la inversión avanzada 2023 (Decreto Foral 166/2022, de 27 de diciembre). El plan 2i se puso en marcha en 2017 y pretende recoger en un único programa, el apoyo a proyectos de innovación e inversión asociada. En 2019 se incorporó la novedad de que los proyectos subvencionados pueden obtener una subvención adicional por los gastos financieros de préstamos de fondos europeos para el impulso de la innovación a los que se refiere el artículo 4 de la Norma Foral 2/2018, de 21 de marzo. Pero ante la escala demanda, en 2023 se ha eliminado esta línea de

bakarrik jarraitzen du, berrikuntza-proiektuei laguntzak emateko. Laguntzak eskatzeko epea martxoaren 31n amaituta, 194 eskaera jaso dira, eta deialdia ebaluatzeko eta ebazteko prozesuan daude, norgehiagoka bidez. 2023an jasotako eskaeren kopurua 2022koa baino nabarmen handiagoa izan da.

subvención y sólo permanece la primera línea de subvención, para otorgar ayudas a los proyectos de innovación. Finalizado el plazo de solicitud de ayudas el 31 de marzo, se han recibido 194 solicitudes y se está en proceso de evaluación y resolución de la convocatoria, en régimen de concurrencia competitiva. El número de solicitudes recibida en 2023 ha sido sensiblemente superior al de 2022.

- Elkarlanean 2023 programa (13/2023 Foru Dekretua, urtarrilaren 24koa), enpresen arteko lankidetza-proiektuetarako. Enpresen arteko lankidetza sustatzen duen programa bat da, bai baterako negozio-aukera berriak esploratzeko, bai lankidetzan berrikuntza-proiektuak egiteko. Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 31n amaitu zen, eta guztira 14 enpresak parte hartu duten proiektuen 7 eskaera jaso dira. Ebaluazioaren ondoren, 4 proiekturi eman zaie dirulaguntza. Proiektu horietan 8 enpresak parte hartu dute, eta guztira 167.409 euro eman dira.

- Programa Elkarlanean 2023 (Decreto Foral 13/2023, de 24 de enero) para proyectos de cooperación interempresarial. Se trata de un programa que impulsa la cooperación entre empresas tanto para explorar nuevas oportunidades de negocio conjunto como para realizar proyectos de innovación en colaboración. El periodo de presentación de solicitudes finalizó el 31 de marzo y han recibido 7 solicitudes de proyectos en los que participan un total de 14 empresas. Tras la evaluación se ha otorgado subvención a 4 proyectos, en los que toman parte 8 empresas, por un importe total de 167.409 euros.

- Innobideak-Kudeabide 2023 programa (51/2023 Foru Dekretua, apirilaren 18koa). Laguntza programa Eusko Jaurlaritzak, SPRIk, Euskalitek eta hiru foru aldundiek enpresetan kudeaketa aurreratua bultzatzeko egindako apustu bateratuaren barruan sartzen da. Apustu horrek ibilbide artikulatua proposatzen du, eta ibilbide hori hasteko, enpresaren kudeaketa Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin alderatzen da. Ondorioz, kudeaketa hobetzeko gomendio batzuk eman dira, eta enpresak egin ditzake prestakuntza-plan pilotuen, ekintzaren eta Know-Inn metodologiaren (2A proiektuak) edo sendotze-proiektuen bidez, kanpoko aholkularitzaren laguntzarekin (2B proiektuak). BFAren dirulaguntzen programak 5-49 lanpostuko plantilla duten Bizkaiko enpresentzako 2B proiektuak (sendotze-proiektuak) babesten ditu. Eskabideak aurkezteko epea irailaren 29ean amaituko da. Seihilekoaren amaieran 7 eskabide jaso dira. Ebaluazio-prozesuan dago, eta ekainaren

- Programa Innobideak-Kudeabide 2023 (Decreto Foral 51/2023, de 18 de abril). Este programa de ayudas se integra dentro de la apuesta conjunta de Gobierno Vasco, SPRI, Euskalit y las tres Diputaciones Forales por impulsar la gestión avanzada en las empresas. Esta apuesta propone un itinerario articulado que se inicia con un contraste de la gestión de la empresa respecto al Modelo de Gestión Avanzada de Euskalit, del que se derivan unas recomendaciones de mejora en gestión que la empresa puede abordar mediante planes piloto de formación acción con la metodología Know-Inn (proyectos 2A) o proyectos de consolidación con el acompañamiento de consultoría externa (proyectos 2B). El programa de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia apoya los proyectos 2B (proyectos de consolidación) para empresas de Bizkaia con plantilla entre 5 y 49 empleos. El periodo de presentación de solicitudes finaliza el 29 de septiembre. Se han recibido cierre de semestre 7 solicitudes. Se está en

30ean ez da ebazpenik eman lehia askearen bidez.

- Nazioartekotzerako dirulaguntzen programa 2023 (6/2023 Foru Dekretua, urtarrilaren 7koa). Esportatzen ari ziren edo ezarrita zeuden herrialdeetan enpresak merkaturatzen laguntzea du helburu. Martxoaren 31n amaitu zen laguntzak eskatzeko epea, eta 13 eskaera jaso dira. Nazioartekotzeko proiektu horiek ebaluatzen ari dira, norgehiagoka bidez. Eskaeren kopuruak gora egin du 2021ekoekin eta 2022koekin alderatuta. Izan ere, urte horretan beherakada argia gertatu zen, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko ezarritako mugikortasun murrizketen ondorioz, eta horrek nazioartekotzeko proiektuak zailtzen ditu, zeren eta kasu gehienetan xedeko herrialdera joatea eskatzen baitute.

- Nazioarteko partzuergoak sustatzeko dirulaguntzen programa 2023 (5/2023 Foru Dekretua, urtarrilaren 7koa). Laguntza-programa honen onuradunak bitarteko eragileak dira, irabazi-asmorik gabekoak, sektore edo lurralde esparrukoak eta enpresak biltzen dituztenak. Eragile horiek gidatutako proiektuak babesten ditu, hainbat enpresak elkarrekin egindako nazioarteko merkatu zehatzak esploratzeko, xedeko herrialdeetan etorkizunean merkataritza-eragiketak gauza daitezen, bai banaka, bai enpresen artean lankidetzan. Programa honetan eskabideak aurkezteko epea otsailaren 24an amaitu da, eta 7 eskaera jaso dira. Horietatik 6k jaso dute dirulaguntza, guztira 290.725 eurokoa.

- Trantsizio Digitala eta Berdea 2023 Programa (43/2023 Foru Dekretua, apirilaren 4koa). Dirulaguntzen programa hori 2021ean abiarazi zen, eta garapen inklusibo eta egonkorragoa lortzeko funtsezko bi erronkatara bideratzen da: digitalizazioa eta ingurumenaren iraunkortasuna. Europako

proceso de evaluación, sin que a 30 de junio se hayan emitido resoluciones, en régimen de libre concurrencia.

- Programa de subvenciones para la Internacionalización 2023 (Decreto Foral 6/2023, de 7 de enero). Su objetivo es apoyar la entrada comercial de empresas en países en los que no estaban presentes exportando o con implantación. Finalizado el plazo de solicitud de ayudas el 31 de marzo, se han recibido 113 solicitudes y se está en proceso de evaluación de dichos proyectos de internacionalización en régimen de concurrencia competitiva. El número de solicitudes se ha recuperado, respecto a las de 2021 y 2022 porque en ese año se produjo un nítido descenso motivado por las restricciones a la movilidad instauradas para combatir la pandemia de COVID-19, y que dificultan los proyectos de internacionalización que implican en la mayoría de los casos desplazamientos al país objetivo.

- Programa de subvenciones de Fomento de Consorcios Internacionales 2023 (Decreto Foral 5/2023, de 7 de enero). Este programa de ayudas tiene como beneficiarios a agentes intermedios, sin ánimo de lucro, de ámbito sectorial o territorial, que agrupan empresas. Apoya proyectos liderados por estos agentes para la exploración mercados internacionales concretos realizada conjuntamente por varias empresas, que pueda materializarse en futuras operaciones comerciales en los países destino, tanto de forma individual como de forma colaborativa entre las empresas. En este programa el plazo de solicitudes ha finalizado el 24 de febrero y se han recibido 7 solicitudes, otorgando subvención a 6 de ellas por un importe total de 290.725 euros.

- Programa Transición Digital y Verde 2023 (Decreto Foral 43/2023, de 4 de abril). Este es un programa de subvenciones que se lanzó en 2021 y se orienta hacia dos de los retos clave para conseguir un desarrollo más inclusivo y más estable: la digitalización y la sostenibilidad ambiental. No en vano el plan de recuperación

Batzordeak abian jarri duen Next Generation EU Europarako suspertze-planak adierazten du haren helburua Europa ekologikoagoa, digitalagoa eta erresilienteagoa eraikitzea dela. Horregatik, laguntza-programa horren helburua da enpresei eraldaketa digitaleko edo ingurumenaren iraunkortasuneko ibilbidea planteatzen laguntzea, beren koiunturara eta negoziora egokituta, eta bide horretan proiektu zehatzak gauzatzen laguntzea. Ondorioz, 4 laguntza-lerrotan egituratuta dago:

1. Digitalizaziorako (oinarrizkoa edo aurreratua) eta ingurumenaren iraunkortasunerako planak garatzea.
2. Oinarrizko digitalizazioko proiektuak.
3. Digitalizazio aurreratuko proiektuak.
4. Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuak.

1. eta 2. lerroak lehia askearen bidez ebazten dira. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko maiatzaren 22tik uztailaren 28ra artekoa da. Seihilekoaren amaieran, bi lerroetako 42 eta 130 eskaera inguru jaso ziren, hurrenez hurren, eta ebaluazio-prozesuan daude. Ekainaren 30ean, ordea, ez da ebazpenik emateko foru agindurik eman.

Bestalde, 3. eta 4. lerroak lehia bidez ebazten dira. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko ekainaren 9an amaitu zen, eta 31 eta 16 eskaera jaso ziren, hurrenez hurren. Proiektuak ebaluatzen ari dira, batera ebazteko.

- 2023ko Transferentzia Teknologikoko Programa. Programa 2021ean abiarazi zen lehen aldiz. Bizkaiko zentro zientifiko-teknologikoei laguntzea du helburu, maila handiko I+G proiektuak egin ditzaten, eta lehentasuna ematen die ezagutza Bizkaiko produkzio-sarera benetan transferitzera bideratuta daudenei. Ekainaren 30ean dekretu arautzailea izapidetzen ari zen.

para Europa Next Generation EU que ha puesto en marcha la Comisión Europea indica que su objetivo es el de construir una Europa más ecológica, digital y resiliente. Por ello ese programa de ayudas trata de favorecer que las empresas se planteen un itinerario de transformación digital o en sostenibilidad ambiental adaptado a su coyuntura y a su negocio, y apoya la ejecución de proyectos concretos en ese camino. En consecuencia, está estructurado en 4 líneas de apoyo:

1. Desarrollo de planes para la digitalización (básica o avanzada) y la sostenibilidad ambiental.
2. Proyectos de digitalización básica.
3. Proyectos de digitalización avanzada.
4. Proyectos de innovación ambiental y economía circular.

Las líneas 1 y 2 se resuelven en régimen de libre concurrencia. El plazo de solicitudes se extiende desde el 22 de mayo hasta el 28 de julio de 2023. A cierre de semestre se habían recibido 42 y 130 solicitudes de ambas líneas, respectivamente, y se encuentran en proceso de evaluación, sin que a 30 de junio se hayan emitido órdenes forales resolutorias.

Las líneas 3 y 4, por su parte, se resuelven en régimen de concurrencia competitiva. El plazo de solicitudes finalizó el 9 de junio de 2023 y se recibieron 31 y 16 solicitudes, respectivamente. Los proyectos están siendo evaluados para su resolución conjunta.

- Programa de Transferencia Tecnológica 2023. Es también un programa que se lanzó en 2021 por primera vez. Está destinado a apoyar a los centros científico-tecnológicos de Bizkaia para la realización de proyectos de I+D de amplio rango, con preferencia por aquellos que están orientados a la transferencia efectiva de conocimiento al tejido productivo de Bizkaia. A 30 de junio el decreto regulador se encuentra en tramitación.

- 2023ko Bitarteko Eragileen Programa (martxoaren 14ko 26/2023 Foru Dekretua). Programa hau 2022an jarri zen abian eta enpresa-elkarteei eta sektore ekonomikoak dinamizatzea helburu duten beste eragile batzuentzat da. Erakunde horiek enpresak mobilizatzeko gaitasun handia dute, eta proposatzen dituzten ekimenak babestu nahi dira, betiere Bizkairako erronka estrategikoen ebazpenarekin lerrokatuta badaude eta horietan gutxienez 5 enpresa sartzen badira. 2023ko deialdian 5 gai edo erronka ezarri dira: enpresen arteko lankidetza, ekonomia zirkularra, Bizkaiko industriak birkokatzea, enpresen digitalizazioa eta Bizkaiko enpresen sustraitzea eta jarraitutasuna. Eskabideak aurkezteko epea apirilaren 14an amaitu zen, eta 13 eskaera jaso dira. Horiek ebaluatzen ari dira.

- Errepide bidezko salgaien garraioa modernizatzeko programa 2023 (urtarrilaren 7ko 7/2023 Foru Dekretua). Programa berri honen helburua da azken urteotan zoritxarreko ekonomia inguruabarrek bereziki kaltetu duten sektore bati laguntzea, salgaien errepideko garraioaren sektoreko enpresa eta pertsona autonomoei ibilgailu astunen flota egokitzen laguntzeko, sektorearen segurtasuna, bideragarritasuna, digitalizazioa eta iraunkortasuna hobetzeko. Urtarrilean ireki da programa hori, eta irailaren 30era arte egongo da zabalik. Lehia askeko erregimenean ebazten da, hileroko ebazpenekin. Ekainaren 30era arte 527 eskaera jaso ziren, 474 ebatzi dira eta 440ri dirulaguntza eman zaie, 1.352.159,02 euroko zenbateko metatuarekin.

2023ko dirulaguntzen programen deialdiekin batera, nabarmentzekoak dira 2023ko lehen seihilekoan egindako jarduera hauek:

- Programa Agentes Intermedios 2023 (Decreto Foral 26/2023, de 14 de marzo). Éste es un programa lanzado en 2022 que se dirige a las asociaciones empresariales y otros agentes que tienen entre sus objetivos la dinamización de sectores económicos. Estas entidades tienen una alta capacidad de movilización de las empresas y se pretende apoyar las iniciativas que propongan, siempre y cuando estén alineadas con la resolución de retos estratégicos para Bizkaia e involucren en ellos a un mínimo de 5 empresas. En la convocatoria 2023 se han establecido 5 temáticas o retos: la cooperación entre empresas, la economía circular, la reubicación de implantaciones industriales en Bizkaia, la digitalización de las empresas y el arraigo y continuidad de las empresas en Bizkaia. El plazo de solicitudes finalizó el 14 de abril y se han recibido 13 solicitudes, que se encuentran en evaluación.

- Programa Modernización del Transporte de Mercancías por carretera 2023 (Decreto Foral 7/2023, de 7 de enero). Éste es un nuevo programa que pretende apoyar a un sector particularmente dañado por circunstancias adversas de la economía en los últimos años y cuya finalidad es acompañar a las empresas y personas autónomas del sector del transporte de mercancías por carretera en la adaptación de la flota de vehículos pesados para mejorar la seguridad, viabilidad, digitalización y sostenibilidad del sector. Se trata de un programa cuyo plazo de solicitudes se abrió en enero y está abierto hasta el 30 de septiembre. Se resuelve en régimen de libre concurrencia, con resoluciones mensuales. Hasta el 30 de junio se habían recibido 527 solicitudes, se han resuelto 474 de ellas y se ha otorgado subvención a 440, por un importe acumulado de 1.352.159,02 €.

Junto a las convocatorias de programas de subvenciones 2023, son destacables las siguientes actividades a lo largo del primer semestre de 2023.

- Aurreko ekitaldietan diruz lagundu daitezkeen programen justifikazioen jarraipena.

  Jarraipena programen arabera banakatzen bada, hauxe aurkituko dugu:

  – 3i programa, berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala ematekoa 2020an, 2021ean eta 2022an. 2023. urteko lehen seihilekoan 2020ko deialdiaren proiektu ia guztien justifikazioaren azterketa amaitu da, eta ez-betetzeen kasuetako izapide batzuk egiteke geratu dira. 2021. urteko deialdiari dagokionez, justifikazioa 2023. urteko lehen seihilekoan egin behar zen, baina lagundutako 15 proiektuetatik 7k luzapena dute. Luzapenik gabeko 8 espedienteen tarteko justifikazio batzuk eta azken justifikazioak aztertu dira. 2022ko deialdiari dagokionez, urte horretan lagundutako proiektu batzuen tarteko justifikazioak (aukerakoa) jaso eta aztertu dira.

  – 2i programa 2021 eta 2022. 2023ko lehen seihilekoan 2i 2021 programa itxi da, luzapenean dauden espedienteen justifikazioak aztertu eta ez-betetze guztiak izapidetu ondoren. 2021eko deialdiari dagokionez, proiektuen justifikazioa 2023ko uztailaren 31 baino lehen aurkeztu behar da, eta 2023ko lehen seihilekoan tarteko justifikazio batzuk eta enpresa batzuen luzapen-eskaerak izapidetu dira.

    Era berean, 2i 2022 planean oinarritutako proiektuak finantzatzeko kostuetarako dirulaguntzen eskaerak izapidetu ziren, finantza-gastuak laguntzeko Europako funtsek proiektu horietarako emandako maileguetan. Guztira 6 eskabide. Aurreko urteetan emandako maileguen jarraipenari

- Seguimiento de las justificaciones de los programas subvencionables correspondiente a ejercicios anteriores.

  Si se desglosa el seguimiento por programas encontramos lo siguiente:

  – Programa 3i de apoyo integral a la innovación, la internacionalización y la inversión 2020, 2021 y 2022. En el primer semestre de 2023 se ha finalizado el análisis de la justificación de prácticamente todos los proyectos de la convocatoria 2020 y simplemente quedan pendientes algunos trámites de en los casos de incumplimiento. Respecto a la convocatoria 2021, la justificación debía realizarse en el primer semestre de 2023, pero 7 de los 15 proyectos apoyados cuentan con prórroga. Se han analizado algunas justificaciones intermedias y las justificaciones finales de los 8 expedientes sin prórroga. Y en cuanto a la convocatoria 2022, se han recibido y analizado justificaciones intermedias (potestativa) de algunos de los proyectos apoyados en ese año.

  – Programa 2i 2021 y 2022. En el primer semestre de 2023 se ha cerrado el programa 2i 2021, tras el análisis de las justificaciones de expedientes en prórroga y la tramitación de todos los incumplimientos. En cuanto a la convocatoria 2022, la justificación de los proyectos debe presentarse antes del 31 de julio de 2023 y en el primer semestre de 2023 se han tramitado algunas justificaciones intermedias y las solicitudes de prórroga de algunas empresas.

    También correspondía la tramitado las solicitudes a las subvenciones para costes de financiación de proyectos apoyados en el plan 2i 2022, para apoyar los gastos financieros los préstamos otorgados por fondos europeos para dichos proyectos. Un total de 6 solicitudes. Respecto al

dagokionez, behar bezala egin da, Elkargi EBBrekin hitzartutako lankidetza-hitzarmenaren esparruan.

seguimiento de los préstamos concedidos en años anteriores, se ha realizado satisfactoriamente, en el marco del convenio de colaboración que con esta finalidad se ha concertado con Elkargi SGR.

- Elkarlanean programa. 2021ko deialdian lagundutako proiektuak 2022eko irailaren 1a baino lehen justifikatu behar ziren, eta 2023ko lehen seihilekoan amaitu da deialdi horretako espediente guztien itxiera. 2022eko deialdiari dagokionez, justifikazio-epea 2023ko irailaren 1ean amaituko da, eta aukerako tarteko justifikazio batzuk izapidetu dira.

- Programa Elkarlanean. Los proyectos apoyados en la convocatoria 2021 debían justificarse antes del 1 de septiembre de 2022, y en el primer semestre de 2023 se ha culminado el cierre de todos los expedientes de dicha convocatoria. Respecto a la convocatoria 2022, el plazo de justificación finaliza el 1de septiembre de 2023 y se han tramitado algunas justificaciones potestativas intermedias.

- Kudeabide programa 2021. urteko edizioan dirulaguntza jaso zuten espedienteek 2022. urteko azaroaren 1a zuten justifikatzeko azken eguna. Justifikazio guztiak jaso dira, aztertu dira eta espediente guztiak itxi dira, ez-betetze batzuk izan ezik, zeren eta horien izapidetzea ez baita oraindik amaitu. 2022eko deialdian babestu zirenek 2023ko azaroaren 1a dute justifikatzeko azken eguna. Zenbait justifikazio jaso badira ere, zatirik handiena urteko bigarren seihilekoa izatea espero da.

- Programa Kudeabide. Los expedientes que recibieron subvención en la edición 2021 tenían el 1 de noviembre de 2022 como fecha límite de justificación. Se han recibido todas las justificaciones, se han analizado y se han cerrado todos los expedientes, exceptos algunos con incumplimiento cuya tramitación no ha finalizado aún. Los que fueron apoyados en la convocatoria 2022 tienen como fecha límite de justificación el 1 de noviembre de 2023; aunque ya se han recibido algunas justificaciones, el grueso se espera en el segundo semestre del año.

- Txekeoak programa. 2022eko deialdian lagundutako 12 proiektuen justifikazioak izapidetu dira.

- Programa Chequeos. Se han tramitado las justificaciones de los 12 proyectos apoyados en la convocatoria de 2022.

- Nazioartekotzeko Programa 2019. urteko deialdiko proiektuen justifikazioak aurkezteko epea 2021. urteko irailaren 1etik 15era arte luzatu da, COVID-19aren pandemiaren larrialdiak eskatuta administrazio-izapideak gelditu izanaren ondorioz. 2022. urteko lehen seihilekoan, deialdi horren zain dauden espediente guztiak itxi dira. Bestalde, 2020ko deialdiko espedienteen justifikazioa 2022. urteko otsailean jaso behar zen nahitaez, eta espedienteen justifikazio guztiak

- Programa Internacionalización. El plazo de presentación de justificaciones de los proyectos de la convocatoria 2019 se ha desplazado hasta el periodo entre el 1 y el 15 de septiembre de 2021, por efecto de la paralización de trámites administrativos decretada por el estado de emergencia por pandemia de COVID-19. En el primer semestre de 2022 se han cerrado todos los expedientes pendientes de esa convocatoria. Por su parte, la justificación de los expedientes de la convocatoria

izapidetu dira, luzapena duten kasuetan izan ezik. 2021. urteko deialdiko proiektuei dagokienez, aukerako tarteko justifikazio batzuk izapidetu dira.

- Nazioarteko Partzuergoen Programari dagokionez, 2021eko deialdiaren justifikazioak 2022ko bigarren seihilekoan jaso dira eta 2023ko lehen seihilekoan tramitatzen amaitu da.

- Trantsizio Digitala eta Berdea programak 4 laguntza-lerro ditu. 2021ko deialdiari dagokionez, 2., 3. eta 4. lerroetako justifikazioak izapidetzen amaitu da, justifikazioa 2022ko bigarren seihilekoan bidali baitzuten. Eta 2022ko deialdiari dagokionez, 2023ko lehen seihilekoan 1. lerroko (planak) justifikazioak jaso ziren, eta lerro horretako espediente guztiak aztertu eta itxi dira. Beste 3 lerroetako espedienteen justifikazioa bigarren seihilekorako espero da, eta aldez aurretik iritsi diren zenbait justifikazio aztertu dira, baita luzapen-eskaera batzuk ere.

- 2021eko Transferentzia Teknologikoa programako espedienteak ez dira justifikatu behar 2023ko bigarren seihilekora arte, eta ez dute jarduerarik sortu 2023ko lehen seihilekoan.

- Aurreko ekitaldietatik datozen zuzeneko laguntzen jarraipena. Hau da:

2020 debía recibirse en febrero de 2022 y se han tramitado todas las justificaciones de los expedientes; excepto en aquellos casos que cuentan con prórroga. Respecto a los proyectos de la convocatoria 2021, se han tramitado algunas justificaciones intermedias potestativas.

- Respecto al Programa de Consorcios Internacionales, las justificaciones de la convocatoria 2021 se han recibido en el segundo semestre de 2022, y se han terminado de tramitar en el primer semestre de 2023.

- El programa Transición Digital y Verde cuenta con 4 líneas de ayuda. Respecto a la convocatoria 2021 se han terminado de tramitar las justificaciones de las líneas 2, 3 y 4, que entregaron la justificación en el segundo semestre de 2022. Y respecto a la convocatoria 2022, en el primer semestre de 2023 se recibieron las justificaciones de la línea 1 (planes), se han analizado y se han cerrado todos los expedientes de esta línea. La justificación de los expedientes de las otras 3 líneas se espera para el segundo semestre y se han analizado algunas justificaciones que han llegado anticipadamente, así como algunas solicitudes de prórroga.

- Los expedientes del programa Transferencia Tecnológica 2021 no deben justificarse hasta el segundo semestre del año 2023, y no han generado actividad en el primer semestre 2023.

- Seguimiento de las ayudas directas provenientes de ejercicios anteriores. A saber:

Erakundea / *Entidad*	**Lagundutako proiektua / *Proyecto apoyado***	**Indarraldia *Vigencia***	**Zenbatekoa *Importe***
AIC fundazioa *Fundación AIC*	Automotive Intelligence Centre-ren IV. fasea *Fase IV del Automotive Intelligence Centre*	2019-2025	20.000.000 €
Elkargi SGR	Finantza-erakundeei Bizkaiko enpresa txiki eta ertainentzako maileguen amortizazioan gabeziak ematen laguntzea *Facilitar que las entidades financieras concedan carencias en la amortización de los préstamos a las pequeñas y medianas empresas de Bizkaia.*	2022	100.000 €
Elkargi SGR	Digitalizazio eta iraunkortasun-proiektuetarako abalen finantzaketa / *Financiación de avales para proyectos de digitalización y sostenibilidad*	2020-sine die	400.000 €
Merkataritza Ganbera *Cámara de Comercio*	Barrixe - Berrikuntzaren Behatokia *Barrixe - Observatorio de la Innovación*	2022	120.000 €
Merkataritza Ganbera *Cámara de Comercio*	BizkaiExt - Nazioartekotzea bultzatzea *BizkaiExt - Impulsar la internacionalización*	2022	160.000 €
Merkataritza Ganbera *Cámara de Comercio*	Industrial Marketing Center	2022	65.000 €
CEBEK	ekinBarri	2022	150.000 €
CEBEK	Enpresan Bardin	2022	30.000 €
CEBEK	Helburu 2030	2022	35.000 €
ASLE	Enpresa eskualdatzea *Transmisión empresarial*	2022	20.000 €
Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien elkartea Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia	Enpresa eskualdatzea *Empoderamiento de las mujeres en la empresa*	2022	42.000 €
FAAZ Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroaren (EHU) CFAA Centro de Fabricación Avanzada Aeronáutica (UPV)	FAAZaren jarduera bultzatzea *Impulso de la actividad del CFAA*	2022	140.000 €
MARISTAK DURANGO	Bizikletaren ekosistema industriala aktibatzea *Activación del ecosistema industrial de la bicicleta*	2022-2023	75.000 €
GAIA + Federación Vizcaína de Empresas del Metal	Teknologia digitala garatzeko pilotua *Piloto de desarrollo de tecnología digital*	2022-2023	170.000 €
AEFAME - Euskadiko familia-enpresaren elkartea *AEFAME - asociación de la empresa familiar de Euskadi*	Enpresa-familien gobernantza hobetzea, familia-enpresak errotzeko *Mejorar la gobernanza de las familias empresarias para el arraigo de las empresas familiares*	2021-2022	110.000 €

- EIC-Energy Intelligence Center proiektua bultzatzen jarraitzen da. 426.107 Berrikuntza eta Lehiakortasuna izeneko gastu-programatik Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Teknologi Elkartegia SAren arteko hitzarmena diruz hornitu da, Ezkerraldea/Meatzaldeko Parke Teknologikoko sarbidea egokitu, urbanizatu eta hornitutako eraikin bat eraikitzeko hain zuzen ere. Zehazki, programatik eginiko ekarpena EICren Energia Sektorerako Ingeniaritza Aurreratuko (IASE) unitatea izango den eraikin horniturako da. Azpiegiturak SAri eraikina eraikitzeko egindako enkarguaren jarraipena ere egiten da. Gainera, IASE unitatearen ustiapen-ereduaren definizioan aurrera egiten jarraitzen da, sektoreko enpresekin elkarlanean.

- Se continúa avanzando en el impulso del proyecto EIC-Energy Intelligence Center. Desde el programa de gasto del 426.107 Innovación y Competitividad se ha dotado económicamente el Convenio entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Parque Tecnológico/Teknologi Elkartegia SA, para la ejecución de la adecuación de acceso, primera fase de urbanización y construcción de un edificio equipado del Parque Tecnológico Ezkerraldea/Meatzaldea. En concreto la aportación desde el programa está destinada al edificio equipado que constituirá la unidad de Ingeniería Avanzada para el Sector Energético (IASE) del EIC. También se hace seguimiento del encargo a medio propio a Azpiegiturak S.A. para la construcción del edificio. Además, se sigue avanzando en la definición del modelo de explotación de la unidad IASE, en colaboración con empresas del sector.

- Berrikuntza eta Lehiakortasuneko aurrekontu-programaren barruan dago Bizkaiko Foru Aldundiak ABE Private Equity Fund arrisku-kapitalaren funtsari egindako ekarpenaren zenbatekoa. Funts horren helburua lurraldeko enpresa-proiektu estrategikoetan inbertitzea da. Ekarpenari dagozkion kopuruak ordaindu dira. Funtsak 4 enpresatan egin ditu inbertsioak, horietako bi Bizkaian.

- Dentro del programa presupuestario de Innovación y Competitividad se encuentra el importe destinado a la aportación de la Diputación Foral de Bizkaia al fondo de capital riesgo ABE Private Equity Fund, que tiene como objetivo invertir en proyectos empresariales estratégicos para el territorio. Se han desembolsado las cantidades pertinentes de esta aportación. El fondo ha realizado inversiones en 4 empresas, dos de ellas de Bizkaia.

- 2023ko lehen seihilekoa, aholkularitzako zerbitzuen esparru-akordioaren jarraipena egin da. Esparru-akordio horren xedea da, hain zuzen ere arriskuan edo aukeran dauden Bizkaiko enpresen diagnostikoa egitea, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailari informazioa eta ezagutza emateko, ekonomia sustatzeko politika publikoak ezartzeko, doitzeko edo garatzeko. Hasieratik 5 esperientzia garatu dira 5 ETErekin, dagozkien kontratu eratorrien bidez

- En el primer semestre de 2023 se ha continuado con el seguimiento del acuerdo-marco de servicios de consultoría para realizar el diagnóstico de las empresas de Bizkaia en situaciones de riesgo o de oportunidad, con la finalidad de que sirva de información y conocimiento al Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia para la implantación, ajuste o desarrollo de las políticas públicas de promoción económica. Se han desarrollado desde su inicio 5

bideratuak. Lan horietako bi 2023an hasi dira.

Horrez gain, elkarrizketak hasi dira hauexekin:

- Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Itsasketako Ganberak 110.000 €-ko zenbatekoarekin finantzatuko ditu 2023an Bizkaiko jarduera ekonomikoko espazioen geoataria eguneratu, mantendu eta garatzearekin lotutako lanak, Gislur, hain zuzen ere.

- Con fecha 13 de junio se ha aprobado una ayuda a Bilbaodendak, por importe de 45.000€ Se trata de ayuda nominativa para contribuir al fomento del comercio de Bilbao. Esta actuación tiene por objeto favorecer la profesionalización y competitividad del comercio a través de herramientas que potencien la digitalización y la omnicanalidad.

- Con fecha 13 de junio se ha aprobado una ayuda a Bizkaidendak, por importe de 135.000€ Se trata de una ayuda nominativa para contribuir al fomento del comercio de Bizkaia que tiene por objeto la puesta en marcha de una serie de acciones que contribuyan a la mejora continua del comercio local en Bizkaia así como a la transformación digital del sector.

- Con fecha 13 de junio se ha aprobado una ayuda a la Confederación empresarial de comercio de Bizkaia CECOBI, por importe de 250.000€. Se trata de ayuda nominativa para contribuir al fomento del comercio local que tiene por objeto la formación permanente en gestión empresarial, la incorporación de herramientas de competitividad en el sector, así como de la sociedad de la información en la actividad comercial.

- Con fecha 13 de junio se ha aprobado una ayuda a la Asociación Bermeo Capital Mundial del Atún financiar con un importe de 50.000€ el desarrollo del proyecto Bermeo Tuna World Capital, BTWC.

Adicionalmente se han iniciado conversaciones con:

- La Cámara de Comercio, Industria, Servicios y Navegación de Bilbao para financiar con un importe de 110.000€ el desarrollo durante 2023 de trabajos relacionados con la actualización, mantenimiento y desarrollo del geoportal de espacios de actividad económica en Bizkaia, “Gislur”.

- Lehiakortasunerako Euskal Institutua – Deusto Fundazioa, Orkestra, 2023. urtean Bizkaiko dinamizazioa, lehiakortasuna eta lurralde-oreka finantzatzeko, 115.000 euroko zenbatekoarekin.

- BBK Fundazioa, EUP! plataformaren esperientziatik eratorritako Bizkaiko merkataritzaren digitalizazioa bultzatzeko ekintzak finantzatzeko, 320.000 €-tan.

Seihileko honetan, Bizkaia Orekan Sakonduz ekimenak protagonismo berezia izaten jarraituko du, bide ezin hobea izan baita Sailaren eta agentzien arteko koordinaziorako, eskualde mailan bultzatutako ekimenak hedatzeari begira.

Sei hilabete hauetan egindako jarduera nagusien artean, hauexek nabarmendu behar ditugu:

- Bizkaiko Orekan Sakonduz sarearen gobernantza eredu berria finkatzea. Bertan, BFA/BEAZk eta eskualdeko garapenerako agentziek lankidetzan jarduten dute, beste eragile eta aliatu estrategiko batzuekin batera. Koordinazioan hobekuntzak egin dira, hala nola 2023ko kudeaketa plana egitea urte hasieran eta sareko kide diren erakunde guztiekin kontrastatzea.

- BOSz sarearen jarraipena egitea, BOSz 2020-2023 estrategiaren zeharkako bigarren helburuari erantzunez. Aginte-koadro bat elikatzen duen datu-egitura batek osatzen du, bai eta informazioa hartzailearen arabera erakusteko beste euskarri batzuek ere: panela Power Bi-n, adierazleen eranskin deskribatzailea, etab. Lortutako emaitza nagusia "BOSz 2022 urteko jarraipen-txostena" da, analisi kualitatiboa eta kuantitatiboa jasotzen duena, eta jarraipen-sisteman eskuragarri dagoen informazioari esker lortu dena.

- El Instituto Vasco de Competitividad – Fundación Deusto, Orkestra para financiar con un importe de 115.000€ la dinamización, el fomento de la competitividad y el equilibrio territorial de Bizkaia, durante el año 2023.

- La Fundación BBK para la financiar acciones de impulso a la digitalización del comercio de Bizkaia derivadas de la experiencia de la plataforma, EUP! por un importe de 320.000 €.

Indicar que durante este semestre la iniciativa Bizkaia Orekan Sakonduz sigue teniendo un protagonismo especial pues ha sido un cauce privilegiado para la coordinación entre el Departamento y las agencias de cara al despliegue de las distintas iniciativas impulsadas a nivel comarcal.

Entre las principales actuaciones realizadas en estos seis meses destacamos las siguientes:

- Consolidación del nuevo modelo de gobernanza de la red Bizkaia Orekan Sakonduz donde DFB/BEAZ y las agencias de desarrollo comarcal trabajan de forma colaborativa, además de otros agentes y aliados estratégicos. Se han introducido mejoras en la coordinación como realizar un Plan de gestión 2023 al inicio de año y contrastarlo con todas las entidades miembros de la red.

- Seguimiento de la red BOSz dando respuesta al segundo de los objetivos trasversales de la estrategia BOSz 2020-2023. Se compone de una estructura de datos que alimenta un cuadro de mando, así como de otros soportes para mostrar la información en función del público destinatario: panel en Power BI, anexo descriptivo de indicadores, etc. El principal resultado obtenido es el “Informe de seguimiento anual BOSz 2022” que contiene el análisis cualitativo y cuantitativo y que ha sido posible gracias a la información disponible en el sistema de seguimiento.

- BEAZ/BFAko erreferentziako teknikari bakoitzaren bilerak eskualdeko erakundeekin, jarduketak koordinatzeko eta informazioa partekatzeko. Agentziekin beren industria-ehunari eta lotutako zerbitzuei buruzko datuak partekatzen jarraitu da, baita sailaren programen onuradun diren enpresei buruzko informazioa ere.

- Kontsultei erantzutea, bai agentziarentzat berarentzat, bai enpresekin bitartekari jarduten duten kontsultentzat. 2023ko urtarriletik, 120 kontsulta baino gehiago egin zaizkie agentziei, eta 30 erregistro nabarmendu dira, etorkizunean lantzeko aukera eta gaiak dituztenak.

- 4 saio tekniko egitea, honako gai hauekin: Ekonomia Sustatzeko Sailaren programak eta proiektu estrategikoak; lankidetza eskualde-lehiakortasuneko ekimenetan; saio teknikoa: agentziak industria-jarduera ekonomikoko guneen dinamizatzaile gisa; 2023ko lan-planaren aurkezpena.

- Reuniones de cada técnico de referencia BEAZ/DFB con las entidades comarcales para coordinar actuaciones y compartir información. Se ha continuado con la compartición con las Agencias de datos sobre su tejido industrial y de servicios conexos, así como información sobre las empresas beneficiarias de programas del departamento.

- Atención de consultas tanto para propia agencia como las consultas en las que actúan de intermediarios con sus empresas. Desde enero de 2023 se han registrado más de 120 consultas a las agencias, destacando 30 registros con posibles oportunidades, temáticas para trabajar a futuro.

- Celebración de 4 sesiones técnicas con las siguientes temáticas: Novedades Programas Departamento de Promoción Económica y Proyectos estratégicos; Colaboración en iniciativas de competitividad comarcal; Sesión Técnica: Las agencias como dinamizadoras de los espacios de actividad económica industriales; Presentación plan de trabajo 2023.

Saila eta Programa / Departamento y Programa

08	**EKONOMIA SUSTATZEKO** ***PROMOCIÓN ECONÓMICA***
433121	**ESKUALDE GARAPENA** ***DESARROLLO COMARCAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	**BIZKAIKO ESKUALDEEN GARAPEN OREKATUA SUSTATZEA** ***IMPULSAR EL DESARROLLO EQUILIBRADO DE LAS COMARCAS DE BIZKAIA***			
1	ESKUALDE-ESTRATEGIAREN PLANGINTZA ETA ZABALKUNDEA *PLANIFICACIÓN Y DESPLIEGUE DE LA ESTRATEGIA COMARCAL*			
1	Eskualde-garapenerako 2020-2023 ekintza-plana egitea *Elaboración de un plan de acción de desarrollo comarcal 2020-2023*	1	1	1
2	Eskualde-garapeneko estrategian diharduten eskualde-garapeneko eragileen kopurua *Nº de agentes de desarrollo comarcal implicados en la estrategia de desarrollo comarcal*	30	30	28
3	Landutako eskualde-erronken kop *Nº de retos comarcales trabajados*	50	50	
4	Eskualde-garapeneko eragileentzat garatutako gaikuntza-ekintzen kopurua *Nº de acciones de capacitación desarrolladas para los agentes de desarrollo comarcal*	5	5	4
2	ESKUALDE-PROIEKTUEN FINANTZAKETA *FINANCIACIÓN DE PROYECTOS COMARCALES*			
1	Aurkeztu eta lagundutako eskualde-garapeneko proiektuen kop *Nº de proyectos de desarrollo comarcal presentados y apoyados*	80	80	54
2	Emakumeek kudeatutako proiektuen kop *% de proyectos gestionados por mujeres*	40	40	63
3	ESKUALDEENTZAKO GARRANTZI HANDIKO JARDUERAK SUSTATZEA (PLAN ESTRATEG. ETA GISAKOAK) *IMPULSO DE ACTUACIONES RELEVANTES PARA LAS COMARCAS (PLANES ESTRATÉGICOS Y SIMILARES)*			
1	Sustatutako eskualde-plan estrategikoen kop. *Nº de planes estratégicos comarcales promovidos*	3	3	3
2	Sustatuko garrantzizko jardueren kop. *Nº actuaciones significativas impulsadas*	15	15	13
2	**ESKUALDE-LEHIAKORTASUNAREN INGURUNE-BALDINTZAK HOBETZEA** ***MEJORA DE LAS CONDICIONES DE ENTORNO DE LA COMPETITIVIDAD COMARCAL***			
1	INDUSTRIALDEAK HOBETZEA *MEJORA DE LOS POLÍGONOS INDUSTRIALES*			
1	Industrialdeetan asoziazionismoa sustatzea *Fomento del asociacionismo en los polígonos industriales*	4	4	2
2	Lagundutako industrialdeetan egindako inbertsio-proiektuen kop. *Nº de proyectos de inversión en los polígonos industriales apoyados*	10	10	
2	*DESARROLLO Y MEJORA DE OTROS ESPACIOS EMPRESARIALES*			
1	*Número de iniciativas*		1	

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
3	**TOKI-MERTATARITZA SUSTATZ.** ***FOMENTO DEL COMERCIO LOCAL***			
1	MERKAT. DINAMIZATZEA *DINAMIZACIÓN COMERCIAL*			
1	Merkataritzako elkarteekin edo beste erakunde batzuekin sinatutako akordioak *Acuerdos suscritos con asociaciones de comercio u otras entidades*	5	5	3
2	Tokiko merkataritzaren digitalizazioa sustatzea *Impulso de la digitalización del comercio local*	1	1	
4	**ARTISAUTZA SUSTATZEA** ***FOMENTO DE LA ARTESANÍA***			
1	ARTISAUTZA-PROIEKTUAK SUSTATZEA *IMPULSO DE PROYECTOS DE ARTESANÍA*			
1	Diruz lagundutako artisautza-enpresek garatutako jarduerak *Actuaciones desarrolladas por empresas artesanas subvencionadas*	105	105	
2	Diruz lagundutako artisautza-elkarteek garatutako jarduerak *Actuaciones desarrolladas por asociaciones artesanas subvencionadas*	5	5	
3	Artisautza-erregistroan dauden artisau-enpresen kop *Nº de empresas artesanas en el registro de artesanía*	170	170	

ENPLEGUA, GIZARTE COHESIOA eta BERDINTASUNA
EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL e IGUALDAD

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena Aldia: Urtarrila - Ekaina
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto *Periodo:* *Enero - Junio*

Saila **ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA**
Departamento **09** **EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD**

Programa **Administrazioa orokorra**
Programa **920.106** ***Administración General***

"Administrazio Orokorra" programaren egikaritze-maila honako hau da 2023ko ekainaren 30ean:

“Administrazio Orokorra” programa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren zeharkako aurrekontu-programa da, eta hiru ardatz nagusitan egituratuta dago.

Lehenik eta behin sail arteko jarduketak koordinatzeko euskarria da, eta, horretarako, legezko eta administrazioko xedapenak sortzen parte hartzen dugu, baita maila goreneko erabakiak hartzen ere, zuzentarau orokorrak eta kudeaketakoak definituz, eta jarduketa-lerro nagusien antolaketa- eta kontrol-moduak ere zehazten ditugu.

Bigarrenik, Saila osatzen duten bulegoen administrazio-jarduera koordinatzeko balio du, eta Sailaren funtzionamendua ezin hobea izatea zaintzen du. Horretarako, baliabideak eta bitartekoak ematen dira, giza baliabideak eta baliabide materialak, hain zuzen ere.

Hirugarren alderdiari dagokionez, “Administrazio Orokorra” programaren bidez, beren zeharkakotasuna eta orokortasuna dela-eta, laguntza ematen zaie Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko plan estrategikoa betetzeko jarduera guztiei.

Jarduerak eraginkortasunez gauzatu dira, zerbitzuetako administrazio-kudeaketa errazteko helburuarekin.

El nivel de ejecución del Programa “Administración General”, a fecha treinta de junio de 2023, es como se indica a continuación:

El Programa "Administración General" es el programa presupuestario transversal del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, y se estructura en torno a tres ejes principales.

En primer lugar, sirve de soporte para la coordinación de las actuaciones de ámbito interdepartamental, participando en la elaboración de disposiciones de carácter legal o administrativo y en la instrumentación de decisiones al más alto nivel, definiendo las directrices generales y de gestión, así como los modos de organización y control de las principales líneas de actuación.

En segundo lugar, permite la coordinación de la actividad administrativa de las distintas dependencias que integran el Departamento, velando para que la misma se encamine a conseguir un óptimo funcionamiento. Para ello, se les dota de los recursos y medios necesarios, tanto personales como materiales.

En cuanto al tercer aspecto, también se desarrollan a través del programa de “Administración General” todas aquellas actividades que por su transversalidad y carácter general coadyuven al cumplimiento del Plan Estratégico del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Las actividades se han desarrollado de una manera eficaz con objeto de facilitar la gestión administrativa de los diferentes Servicios.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Batzordera eraman dituen gaien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

Bizkaiko Foru Aldundiaren 162/2022 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, 2023ko ekitaldiko oinarri arautzaileak ezartzen eta deialdiak onartzen baitira ekintzailetzako ekimenak sustatzeko: autoenplegua, enpresa-transmisioa eta enpresa-kontsolidazioa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 27ko 163/2022 FORU DEKRETUA, 2023ko ekitaldian dibertsitatea kudeatzeko jarduerak egiteko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 1/2023 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 10ekoa, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena, 2023ko ekitaldian

Bizkaiko Foru Aldundiaren 24/2023 FORU DEKRETUA, martxoaren 14koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko laneratzea sustatzeko Lan Berri Programaren 2023ko ekitaldiko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia ezartzen dituena

Bizkaiko Foru Aldundiaren 25/2023 FORU DEKRETUA, martxoaren 14koa, 2023ko ekitaldian ekintzailetzako eta enplegu egonkor eta kalitatezko proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dituena

Bizkaiko Foru Aldundiaren 36/2023 FORU DEKRETUA, martxoaren 28koa, langabezian dauden pertsonentzak berrorientazioko eta beste lan bat bilatzeko neurriak, Behargintza Enplegu- eta Toki-Garapenerako Zentroen eta Toki Erakundeen bidez (3R Programa, Tokiko Enplegua 2023) abiarazteko dirulaguntzen emakidaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten duena.

Entre los asuntos que el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad ha elevado al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, cabe destacar los siguientes:

DECRETO FORAL 162/2022, de 27 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen las bases reguladoras y se aprueban las convocatorias de la concesión de subvenciones para el fomento de iniciativas emprendedoras, del ejercicio 2023: autoempleo, transmisión empresarial, y consolidación empresaria

DECRETO FORAL 163/2022, de 27 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones para la realización de actividades en el ámbito de la gestión de la diversidad, en el ejercicio 2023

DECRETO FORAL 1/2023, de 10 de enero, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para la cooperación al desarrollo y la educación para la transformación social, en el ejercicio 202

DECRETO FORAL 24/2023, de 14 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2023

DECRETO FORAL 25/2023, de 14 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases y convocatoria reguladoras de las subvenciones destinadas al desarrollo de proyectos innovadores de emprendimiento y empleo estable y de calidad, del ejercicio 2023

DECRETO FORAL 36/2023, de 28 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones para la puesta en marcha de medidas de reorientación y recolocación dirigidas a personas desempleadas a través de los Centros de Empleo y Desarrollo Local Behargintza y Entidades Locales, programa 3R Empleo Local 2023

Bizkaiko Foru Aldundiaren 37/2023 FORU DEKRETUA, martxoaren 28koa, kontratazioa bultzatzeko eta enplegua mantentzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dituena. (Kontrata programa 2023).	DECRETO FORAL 37/2023, de 28 de marzo, por el que se aprueban las bases y convocatoria de subvenciones para el apoyo a la contratación y mantenimiento del empleo, Programa Kontrata 2023
Bizkaiko Foru Aldundiaren 42/2023 FORU DEKRETUA, apirilaren 4koa, zeinaren bidez, onesten baitira 2023ko ekitaldian emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emango dituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira	DECRETO FORAL 42/2023, de 4 de abril, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones que se concedan por el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad que tengan por finalidad la realización de proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres en el ejercicio 2023
Bizkaiko Foru Aldundiaren 54/2023 FORU DEKRETUA, apirilaren 25ekoa, 2023ko ekitaldian gizarte- eta lan-arloko berrikuntza-proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena	DECRETO FORAL 54/2023, de 25 de abril, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones para el desarrollo de proyectos de innovación sociolaboral, del ejercicio 2023.
Bizkaiko Foru Aldundiaren 58/2023 FORU DEKRETUA, maiatzaren 2koa, zeinaren bitartez arautzen baita inklusio-prozesu espezializatuei lotutako prestazio ekonomikoa	DECRETO FORAL 58/2023, de 2 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la prestación económica vinculada a procesos especializados de inclusión.
Bizkaiko Foru Aldundiaren 66/2023 FORU DEKRETUA, maiatzaren 23koa. Honen bidez, dirulaguntza batzuen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira 2023ko ekitaldirako, enplegu eta prestakuntza programa mistoen bitartez ibilbide integral eta pertsonalizatu batzuk martxan jartzeko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak gazteei laguntzeko duen programan sartutakoentzat. Gazte On programa.	DECRETO FORAL 66/2023, de 23 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases y convocatoria de subvenciones para la puesta en marcha de itinerarios integrales y personalizados, a través de programas mixtos de empleo-formación, dirigidos a integrantes del programa de atención a personas jóvenes de la Dirección General de Inclusión Social del ejercicio 2023. Programa Gazte On
Bizkaiko Foru Aldundiaren 71/2023 FORU DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, zeinaren bidez, aldatu egiten den Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretua, gizarte inklusiorako laguntza berezia arautzen duena.	DECRETO FORAL 71/2023, de 30 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se modifica el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 60/2011, de 22 de marzo, regulador de la ayuda especial para la inclusión social

Saila eta Programa / Departamento y Programa

09	**ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUS.** ***EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD***
920106	**ADMINISTRAZIO OROKORRA** ***ADMINISTRACION GENERAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	**SAILEKO LANGILERIARI BURUZKO POLITIKARI DAGOZKION GAIAK KOORDINATU ETA IZAPIDETZEA** ***COORDINAR Y TRAMITAR LOS ASUNTOS REFERENTES A LA POLÍTICA DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO***			
1	LANGILERIA ARLOKO BEHARRIZANAK EZAGUTZEA *CONOCER LAS NECESIDADES DE PERSONAL*			
1	Aldi baterako kontratatuen % (aldi baterako kontratua duten emakumeak/plantilla osoa) *% plantilla contrato temporal (mujeres contrato temporal/total plantilla)*	3	3	5
2	Aldi baterako kontratatuen % (aldi baterako kontratua duten gizonak/plantilla osoa) *% plantilla contrato temporal (hombres contrato temporal/total plantilla)*	1	1	
3	Funtzionarioen % (emakume funtzionarioak/plantilla osoa) *% plantilla funcionaria (mujeres funcionarias/total plantilla)*	80	80	83
4	Funtzionarioen % (gizon funtzionarioak/plantilla osoa) *% plantilla funcionaria (hombres funcionarios/total plantilla)*	20	20	17
2	LANGILERIARI BURUZKO PREMIEI ERANTZUTEA *DAR COBERTURA A LAS NECESIDADES DE PERSONAL*			
1	Ordezko bidez betetako lanpostuen kopurua *Número coberturas puestos por sustitución*	15	15	5
2	Zerbitzu eginkizunetan betetako lanpostuen kopurua *Número coberturas por comisiones de servicio*	4	4	4
3	Bitarteko bidez betetako plaza hutsen kopurua *Número coberturas de plazas por interinos vacantes*	6	6	9
2	**LANGILEEN TREBAKUNTZA-BEHARRIZANAK PLANIFIKATZEA** ***PLANIFICAR LAS NECESIDADES DE FORMACIÓN DEL PERSONAL***			
1	BARRUKO TREBAKUNTZAREN BIDEZ LANPOSTUEN EGUNERATZE TEKNIKOA EGITEA *ACTUALIZACIÓN TÉCNICA DE LOS PUESTOS DE TRABAJO MEDIANTE FORMACIÓN INTERNA*			
1	Bertaratutako emakumeen kopurua *Número de asistentes mujeres*	160	160	54
2	Bertaratutako gizonen kopurua *Número de asistentes hombres*	40	40	18
3	Emandako orduen kopurua *Número de horas dedicadas*	2.000	2.000	750
4	Ikastaro kopurua *Número de cursos*	20	20	6
5	Trebatutako gizon desberdinen kopurua *Número de hombres distintos formados*	20	20	15

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
6	Trebatutako emakume desberdinen kopurua *Número de mujeres distintas formadas*	90	90	52
2	KANPOKO TREBAKUNTZAREN BIDEZ LANPOSTUEN EGUNERATZE TEKNIKOA EGITEA *ACTUALIZACIÓN TÉCNICA DE LOS PUESTOS DE TRABAJO MEDIANTE FORMACIÓN EXTERNA*			
1	Bertaratutako emakumeen kopurua *Número de asistentes mujeres*	3	3	
2	Bertaratutako gizonen kopurua *Número de asistentes hombres*	1	1	
3	Emandako orduen kopurua *Número de horas dedicadas*	50	50	
4	Ikastaro kopurua *Número de cursos*	4	4	
5	Trebatutako gizon desberdinen kopurua *Número de hombres distintos formados*	1	1	
6	Trebatutako emakume desberdinen kopurua *Número de mujeres distintas formadas*	3	3	
3	LANPOSTUEN EGUNERATZE TEKNIKOA MIKROINFORMATIKA ARLOAN *ACTUALIZACIÓN TÉCNICA DE LOS PUESTOS DE TRABAJO EN MICROINFORMÁTICA*			
1	Bertaratutako emakumeen kopurua *Número de asistentes mujeres*	30	30	28
2	Bertaratutako gizonen kopurua *Número de asistentes hombres*	5	5	8
3	Emandako orduen kopurua *Número de horas dedicadas*	350	350	
4	Ikastaro kopurua *Número de cursos*	5	5	13
5	Trebatutako gizon desberdinen kopurua *Número de hombres distintos formados*	5	5	5
6	Trebatutako emakume desberdinen kopurua *Número de mujeres distintas formadas*	30	30	17
3	**LAN-OSASUNAREN ARLOKO ARAUTEGIA BETETZEN DELA BERMATZEA** ***GARANTIZAR EL CUMPLIMIENTO DE LA NORMATIVA EN MATERIA DE SALUD LABORAL***			
1	LARRIALDI-TALDEAREN JARDUKETAK *ACTUACIONES EQUIPO DE EMERGENCIA*			
1	Larrialdi-taldearen bileren kopurua *Número de reuniones de equipo de emergencia*	3	3	
2	Ebakuazio saioen kopurua *Número simulacros de evacuación*	3	3	
4	Bertaratutakoen kopurua *Número de asistentes*	7	7	
5	Bertaratutako emakumeen kopurua *Número de asistentes mujeres*	6	6	
2	LAN SEGURTASUN ETA OSASUNAREN BATZORDEAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA *COLABORAR CON EL COMITÉ DE SEGURIDAD Y SALUD LABORAL*			
1	Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuarekin egindako bileren kopurua *Número de reuniones con Servicio de prevención de Riesgos y Salud Laboral*	5	5	2

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
3	AIREAREN ETA KONTSUMORAKO URAREN OSASUN ETA INGURMEN KALITATEA BERMATZEA *ASEGURAR LA CALIDAD SANITARIA Y AMBIENTAL DEL AIRE Y DEL AGUA DE CONSUMO*			
1	Berrikuspen kopurua *Número revisiones*	2	2	2
4	**SAILAREN INSTALAZIO, ALTZARI ETA BULEGOKO EKIPAMENDUEN MANTENTZE INTEGRALA** ***MANTENIMIENTO INTEGRAL DE LAS INSTALACIONES, MOBILIARIO Y EQUIPOS DE OFICINA DEL DEPARTAMENTO***			
1	INSTALAZIOEN MANTENTZE ZUZENTZAILE ETA PREBENTIBOA EGITEA *REALIZAR EL MANTENIMIENTO CORRECTIVO Y PREVENTIVO DE LAS INSTALACIONES*			
1	Mantentze prebentiboko jarduketen kopurua *Número de actuaciones de mantenimiento preventivo*	10	10	10
2	Mantentze zuzentzaileko jarduketen kopurua *Número de actuaciones de mantenimiento correctivo*	6	6	6
2	ALTZARIAK ETA BULEGOKO EKIPAMENDU EZ-INFORMATIKOAK MANTENTZEKO LANAK EGITEA *REALIZAR EL MANTENIMIENTO DEL MOBILIARIO Y EQUIPOS DE OFICINA NO INFORMÁTICOS*			
1	Mantentze-jarduketen kopurua *Nº de actuaciones de mantenimiento*	15	15	7
5	**SAILAREN EKONOMIA ETA AURREKONTUAREN KUDEAKETA HOBETZEA** ***OPTIMIZAR LA GESTIÓN ECONÓMICO-PRESUPUESTARIA DEL DEPARTAMENTO***			
1	GASTUEN AURREKONTUAREN GAUZATZEA KONTROLATZEA *CONTROL EJECUCIÓN PRESUPUESTO DE GASTO*			
1	Kreditu-aldaketen kopurua (gehikuntzak, handitzeak, sorrerak eta transferentziak) *Número de modificaciones de crédito (incorporaciones, ampliaciones, generaciones y transferencias)*	10	10	8
2	II. kapituluan gauzatutako aurrekontuaren % *% presupuesto ejecutado capítulo II*	100	100	60
3	IV. kapituluan gauzatutako aurrekontuaren % *% presupuesto ejecutado capítulo IV*	100	100	48
4	VI. kapituluan gauzatutako aurrekontuaren % *% presupuesto ejecutado capítulo VI*	100	100	45
5	VII. kapituluan gauzatutako aurrekontuaren % *% presupuesto ejecutado capítulo VII*	100	100	65
6	Fiskalizaziotik salbuetsita dauden BKON kontabilitateko espedienteen kopurua *Número de expedientes contables BKON exentos de fiscalización*	570	570	244
7	Sailean izanpidetu den BKON kontabilitate-espediente kopurua *Número de expedientes contables BKON tramitados en el Departamento*	8.000	8.000	5.309
2	AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA ETA PROIEKTUA EGITEKO AHOLKULARITZA *ASESORAMIENTO EN LA ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO Y PROYECTO DE PRESUPUESTOS*			
1	Zerbitzuekin eginiko bileren kopurua *Nº de reuniones con los servicios*	8	8	6
3	AURREKONTUA GAUZATZEARI BURUZKO AHOLKULARITZA *ASESORAMIENTO EN LA EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO*			
1	Zerbitzuekin eginiko bileren kopurua *Nº de reuniones con los servicios*	18	22	10
4	ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOARI BURUZKO AHOLKULARITZA ETA KONTROLA *ASESORAMIENTO Y CONTROL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Gauzatzen ari diren administrazio-kontratuen kopurua *Nº de contratos administrativos en ejecución*	10	10	8
2	Administrazio-kontratu berrien kopurua *Nº de contratos administrativos nuevos*	4	4	
5	HITZARMENEN INGURUKO AHOLKULARITZA ETA KONTROLA *ASESORAMIENTO Y CONTROL EN MATERIA DE CONVENIOS*			
1	Indarreko hitzarmenen kopurua *Nº convenios en vigor*	130	130	85
2	Hitzarmen berrien kopurua *Nº convenios nuevos*	8	8	18
6	**ERABILTZAILEENGANAKO ARRETA HOBETZEA** ***MEJORAR LA ATENCION A LAS PERSONAS USUARIAS***			
1	ERABILTZAILEEN TELEFONO BIDEZKO ARRETA HOBETZEA *MEJORAR LA ATENCION TELEFONICA A LAS PERSONAS USUARIAS*			
1	Sartu diren guztietatik, call center-ean erantzun den deien % *% llamadas atendidas en el Call Center sobre las entrantes*	75	75	100
2	Sail mailan (2. maila) erantzun den deien % *% llamadas atendidas en el nivel departamental (2º nivel)*	74	74	90
2	WEB ORRIAN ERABILTZAILEEN ESKURA DAGOEN INFORMAZIOA HOBETZEA *MEJORAR LA INFORMACION WEB A LAS PERSONAS USUARIAS*			
1	Web orria berriro diseinatu eta eguneratzea (Bai/Ez) *Rediseño y Actualización de la página Web (Sí/No)*	2	2	10

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto

Aldia: Urtarrila - Ekaina
Periodo: *Enero - Junio*

Saila **ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA**
Departamento **09** **EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD**

Programa **Foru plan informatikoa**
Programa **920.110** ***Plan Informático Foral***

Foru Plan Informatikoa honako puntu hauen arabera garatu da:

1. Ordenagailu nagusiko aplikazioak:
   - "PE" Langileen kudeaketa: pasahitz berriak sortzeko baimenak izapidetzea.
2. Micro-ren aplikazioak:
   - BKON: eguneratze teknologikoak.
   - Diru-laguntzak: Emakumeak babesteko eta Familiei laguntzeko Zerbitzuaren aplikazioak ekitaldira egokitzea.
   - Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren eta Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiaren diru-laguntzen baremazioaren egokitzapenak.
3. Interneteko aplikazioak:
   - Ardatz: Emakumeak Babesteko eta Familiei laguntzeko Zerbitzuaren eta Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuaren prozeduren egokitzapena.
     - "T0" Ardatz-en administrazio-prozeduren azpiegitura: egokitzapenak eta hobekuntzak.
     - "T4" Ardatz-en administrazio-prozedurak Gizarte Inklusioko Zerbitzurako: hobekuntzak hainbat prozeduratan.
     - "T2" Itxarote-zerrendak.

El Plan Informático Foral se ha desarrollado de acuerdo con los siguientes puntos:

1. Aplicaciones de Ordenador Central:
   - "PE" Gestión de personal: tramitación de autorizaciones para generar nuevas contraseñas.
2. Aplicaciones de Micro:
   - BKON: actualizaciones tecnológicas.
   - Subvenciones: adaptaciones al ejercicio de las aplicaciones del Servicio de Mujer e Intervención Familiar.
   - Adaptaciones en la aplicación de baremación de subvenciones de la Dirección General de Igualdad y de la Dirección General de Cooperación y Diversidad.
3. Aplicaciones de Internet:
   - Ardatz: adaptación de los procedimientos del Servicio de Mujer e Intervención Familiar y del Servicio para la Inclusión.
     - "T0" Infraestructura de procedimientos administrativos de Ardatz: adaptaciones y mejoras.
     - "T4" Procedimientos administrativos de Ardatz para el Servicio para la Inclusión: mejoras en diferentes procedimientos.
     - "T2" Listas de espera.

- "MJ" Emakumea eta familia: egokitzapenak.
- Familia ugarien eskaerak egoitzan.
- Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren webgunearen (orain Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Webgunea da) diseinu berriaren mantentze-lanak egitea, argitaratzea eta aztertzea.
- "JI" Berdintasuna: ekitaldira egokitzea eta egoitzara migratzea.
- "JP" Enplegu-espedienteak: lineak mantentzea.
- "LG" Enplegurako laguntzak: Ekunet Enplegu Zerbitzuaren Foru Dekretu berrietara egokitzea.
- Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea kudeatzeko aplikazioa.
- Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren webgunea.

- "MJ" Mujer y familia: adaptaciones.
- Solicitudes de familias numerosas en Sede.
- Mantenimiento, publicación y estudio del nuevo diseño de la web del Observatorio de la Violencia de Género de Bizkaia ahora Web de Violencia Machista de Bizkaia
- "JI" Igualdad: adaptación al ejercicio y migración a SEDE.
- "JP" Expedientes de Empleo: mantenimiento de las diferentes líneas.
- "LG" Ayudas de empleo: adaptación de Ekunet a los nuevos Decretos Forales del Servicio de Empleo.
- Aplicación para la gestión de la Red Territorial para la Igualdad de Mujeres y Hombre de Bizkaia.
- Web del Consejo de Participación de Mujeres de Bizkaia.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Saila eta Programa / Departamento y Programa

09	**ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUS.** ***EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD***
920110	**FORU PLAN INFORMATIKOA** ***PLAN INFORMATICO FORAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	**SAILAREN KUDEAKETA HOBETZEA EUSKARRI INFORMATIKOEN BIDEZ** ***MEJORAR LA GESTIÓN DEL DEPARTAMENTO MEDIANTE SOPORTES INFORMÁTICOS***			
1	INFORMATIKAKO GAI DESBERDINETAN APLIKAZIOAK ETA MANTENTZEA EGITEA, ETA LAGUNTZA EMATEA *DESARROLLO DE APLICACIONES, MANTENIMIENTO Y ASISTENCIA EN INFORMÁTICA EN DIFERENTES MATERIAS*			
1	Aplikazioetan egindako mantentze eta egokitze orduak *Horas de mantenimiento y adaptaciones al ejercicio de aplicaciones*	1.700	1.700	16.605
2	Aplikazio berriak garatzeko orduak *Horas de desarrollo de nuevas aplicaciones*	6.405	4.798	5.310
3	Egiteko hauetan emandako orduak: antolaketa, aholkularitza, kalitatea, web orrien argitalpena, eta politika teknologikoak egitea. *Horas de organización, consultoría, calidad, publicación páginas web y elaboración de políticas tecnológicas*	675	675	301
2	EKIPOAK BERRIZTATZEA *RENOVACIÓN DE LOS EQUIPOS*			
1	Berriztatu beharreko ekipoen %/ekipo guztiak *% de equipos a renovar/total equipos.*	15	15	14
2	**APLIKAZIO INFORMATIKOAK ERABILTZERAKOAN ERABILTZAILEARI ARRETA EGOKIA BERMATU** ***GARANTIZAR LA ADECUADA ATENCIÓN AL USUARIO EN EL USO DE LAS APLICACIONES INFORMÁTICAS***			
1	BARRUKO EAZ-RI EGINDAKO KONTSULTEN JARRAIPENA *SEGUIMIENTO DE CONSULTAS AL CAU INTERNO*			
1	Barruko EAZ-k konpondutako gorabehera kopurua *Nº incidencias resueltas por el CAU interno*	32	32	12
2	KANPOKO ERABILTZAILEEK (LAGUNTZEN ESKATZAILEAK...) EAZ-I EGINIKO KONTSULTEN JARRAIPENA *SEGUIMIENTO DE CONSULTAS AL CAU DE USUARIOS EXTERNOS (SOLICITANTES DE AYUDAS, ...)*			
1	Kanpoko EAZek konpondutako gorabeheren kopurua *Número de incidencias resueltas por el CAU externo*	713	713	578

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena Aldia: Urtarrila - Ekaina
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto *Periodo:* *Enero - Junio*

Saila		**ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA**
Departamento	**09**	**EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD**
Programa		**Emakumea eta familiako esku-hartzea**
Programa	**232.113**	***Mujer e Intervención familiar***

Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Programaren egikaritze-maila, 2023ko ekainaren 30ean, honako hau da:

1) “Baliabiderik gabeko Emakumeen Gizarte Larrialdiko Egoerak Arintzea” izeneko helburuari dagokionez, zeinak berekin baitakar “Arreta psikosozialeko programa bat eskaintzea” ekintza, esan behar da 2023ko ekainaren 30era bitartean, 17 onuradun artatu direla ostatu-laguntzarekin; haietatik 6k 18 eta 29 urte bitartean zituzten. Artatutako onuradunen seme-alaba adingabeak, berriz, 11 izan dira. Sarrera horietatik, berriak ziren 4 emakume eta 3 ume. Laguntza anbulatorioarekin artatutako onuradunak 14 izan dira.

   “Zentroetan sartzeko, erakunde laguntzaileekin ezarritako hitzarmenak” ekintzari dagokionez, 2023ko ekainaren 30era arte 7 hitzarmen sinatu ziren.

   “Zentroetan sartzeko banakako laguntzak ematea” ekintzari dagokionez, 2 izan dira onuradunak.

2) "Indarkeria matxista eta sexualeko kasuen ondoriozko gatazkak prebenitzea eta arintzea" helburuari dagokionez (Arreta Juridikoko Zerbitzu bat emateko ekintzan gauzatzen da hori), 73 kontsultari erantzun zaie guztira, eta 73 emakume izan dira onuradunak; horietatik, 18 eta 29 urte bitartekoak, 13 guztira.

El nivel de ejecución del Programa de Mujer e Intervención Familiar, a 30 de junio de 2023, es como se expone a continuación:

1º) En relación al objetivo “Paliar situaciones de Emergencia Social de Mujeres sin recursos” y que se concreta en la acción “Prestación de un programa de atención Psicosocial”, cabe señalar que el número de beneficiarias atendidas con apoyo alojativo a 30 de junio de 2023 han sido 17, de las cuales 6 tenían entre 18 y 29 años, el de menores hijos/as de las beneficiarias atendidos/as 11; de este total de ingresos corresponden a ingresos nuevos de mujeres 4 y de menores 3. Las beneficiarias atendidas con apoyo ambulatorio han sido 14.

   Con respecto a la acción “Convenios establecidos para ingresos en Centros con Entidades Colaboradoras”, el número de Convenios a 30 de junio de 2023 ha sido de 7.

   Con respecto a la acción “Conceder Ayudas individuales para ingreso en centros”, las beneficiarias han sido 2.

2º) En relación al objetivo “Prevenir y paliar la conflictividad derivada de supuestos de violencia machista y sexual, que se concreta en la acción de Prestación de un Servicio de Atención Jurídica, se han atendido un total de 158 consultas, siendo 158 las mujeres beneficiarias, de las cuales tenían entre 18-29 años un total de 20.

3) “Emakumezkoei gizarteko baliabideen ezagutza erraztea” helburuari dagokionez, zeinak berekin baitakar “Emakumeen kolektiboari gizarte-baliabide eta -zerbitzuei buruzko argibideak eta orientabideak eskaintzea” ekintza, adierazi behar da 2023ko ekitaldiko lehen seihilekoan 780 kontsultari erantzun zaiela.

4) "Indarkeria matxista eta sexuala gertatuz gero, indarkeria matxistaren ondorioak prebenitzea eta arintzea" izeneko helburuari dagokionez, zeinak berekin baitakar "Laguntza psikologikoa ematea" ekintza, 2023ko ekainaren 30era arte 986 emakumeri eman zaie arreta (emakume horietako 171k 18 eta 29 urte bitartean zituzten); emakumeen kasu berriak 408 izan dira; 114 pertsona artatu dira sexu-indarkeriaren biktima izan direlako (58 kasu berri), eta indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak 727 izan dira (288 kasu berri); tratu txarrak eman dituzten 41 pertsona artatu dira (23 kasu berri). Artatutako gizonak 90 izan dira (kasu berriak: 49), eta haietatik 16k 18-29 urte bitartean zituzten. Guztira 95 adingabe artatu dira (45 kasu berri).

5) "Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak gizartean erabat integratzen laguntzea" helburuari dagokionez, zeinak lotuta baitu "Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen egoitza-harrera gizartearen barruan" ekintza, aurtengo lehen seihilekoan 99 emakumeri eman zaie arreta larrialdi-zerbitzuan (haietako 38k 18 eta 29 urte bitartean zituzten). Kasu berriak 82 izan dira, eta arreta eman zaien emakume horien 52 seme-alaba adingabe artatu dira; kasu berriak 48 izan dira.

3º) En relación al objetivo “Facilitar a las Mujeres el conocimiento de los medios en la Sociedad” que se concreta en la acción “Informar y orientar al Colectivo de Mujer de los recursos y servicios sociales”, es preciso indicar que durante el primer semestre del presente ejercicio 2023, el número de consultas atendidas a este respecto ha ascendido a 780.

4º) Referente al objetivo “Prevenir y paliar las consecuencias de la violencia machista en supuesto de violencia machista y sexual” que se concreta en la acción “Prestar asistencia psicológica”, a fecha 30 de junio de 2022 el número de mujeres atendidas ha sido de 986 (171 de estas mujeres tenían de 18 a 29 años de edad), casos nuevos de mujeres 408; siendo 114 las personas atendidas por víctimas de violencia sexual (58 casos nuevos), siendo 727 las mujeres atendidas víctimas de violencia machista (288 casos nuevos), habiendo sido atendidas 41 personas maltratadoras (23 casos nuevos). Los varones atendidos han sido 90 (casos nuevos 49), de los cuales 16 tenían entre 18-29años. Han sido atendidos/as un total de 95 menores (45 casos nuevos).

5º) En cuanto al objetivo “Favorecer la plena integración de las Mujeres víctimas de violencia machista dentro de la Sociedad”, que se concreta en la acción “Acogimiento residencial de mujeres víctimas de violencia machista dentro de la sociedad”, durante el primer semestre del presente año se ha prestado atención en el servicio de urgencias a 99 mujeres ingresadas (38 de ellas tenían de 18 a 29 años de edad), siendo 82 los casos nuevos y se han atendido a 52 menores hijos/as de las mujeres ingresadas, siendo 48 los casos nuevos.

Aldi horretan, tratu txarren biktima izan diren emakumeak eta haien seme-alabak hartzeko egonaldi ertain eta luzeko zentroetan 25 emakumeri egin zaie harrera (haietatik 2k 18 eta 29 urte bitartean zituzten), eta 6 kasu berri izan dira; 12 adingabe ere hartu dira, eta haietako bakarra izan da kasu berria.

6) "Familia Ugarien Kudeaketa" izeneko helburuari dagokionez, zeinak berekin baitakar "Familia ugarientzako tituluei buruzko argibideak ematea, kudeatzea eta egitea" ekintza, aurtengo lehen seihilekoan 401 titulu berri izapidetu dira (386 kategoria orokorrekoak eta 15 kategoria berezikoak), eta titulu berrituak 2.313 izan dira (1.947 kategoria orokorrekoak eta 366 kategoria berezikoak). Indarrean dauden Familia Ugariko Tituluak 14.394 dira (13.253 kategoria orokorrekoak eta 1.141 kategoria berezikoak).

7) "Genero-indarkeria prebenitzea eta desagerraraztea, biktima diren adingabeei eta haien amei laguntza osoa emanez" helburuari dagokionez, zeinak berekin baitakar "Biktima diren adingabeei eta haien amei laguntza terapeutikoa eta/edo hezkuntza-laguntza ematea" ekintza, 2023ko ekainaren 30era bitartean, 48 adingabe artatu dira guztira (24 neska eta 24 mutil), eta kasu berriak 9 izan dira. Artatu diren adingabeen artean, neska bat eta 4 mutil 15 eta 17 urte bitartekoak ziren. 33 familia artatu dira eta haietatik 7 berriak izan dira.

Durante este periodo en centros de media y larga estancia para mujeres víctimas de malos tratos y a las hijas e hijos a su cargo se ha proporcionado acogimiento a 25 mujeres (de las cuales 2 tenían de 18 a 29 años de edad), siendo 6 los casos nuevos, y a 12 menores, siendo 1 de ellos caso nuevo.

6º) Con respecto al objetivo "Gestión de Familias Numerosas", que se concreta en la acción "Informar, gestionar y realizar Títulos de Familia Numerosa", el número de Títulos nuevos tramitados en el primer semestre del presente año ha sido de 401(386 de categoria general y 15 de categoria especial), el número de títulos renovados ha sido de 2313 (1947 de categoria general y 366 de categoria especial). El número de Títulos de Familia Numerosa en vigor es de 14394 (13253 de categoria general y 1141 de categoria especial).

7º) Referente al objetivo "Prevenir y erradicar la violencia de género prestando asistencia integral a Menores víctimas y a sus madres", que se concreta en la acción "Proporcionar apoyo terapéutico y/o educativo a las y los menores víctimas y a sus madres", a fecha 30 de junio de 2023 el total de menores atendidos ha sido de 48 (niñas 24 y niños 24) siendo 9 el número de casos nuevos De los/as menores atendidos/as tenían entre 15 y 17 años 1 niña y 4 niños. Las familias atendidas han sido 33 siendo 7 familias nuevas.

8) “Indarkeria matxistaren ondorioak arintzea” helburuak ekintza hau dakar: “Arreta psikosozialeko eta familiei laguntzeko programa bat eskaintzea”. 2023ko lehenengo seihilekoan adierazi behar da 39 emakumeri eman zaiela arreta (11 emakume, 18-29 urte bitartekoak), eta adingabeak 43 izan direla; guztira 17 emakumeri eman zaie ostatu-laguntza (4 emakume, 18-29 urte bitartekoak), eta 24 adingabe hartu dira, ama biktimekin batera. Arreta anbulatorioko programan artatutako emakumeak 39 izan dira guztira.

8º) En relación al objetivo “Paliar las consecuencias de la violencia machista”, y que se concreta en la acción “Prestación de un programa de atención psicosocial e intervención familiar”, se ha de indicar que durante el primer semestre de 2023 se ha prestado atención a 39 mujeres (11 entre 18-29años), siendo los/as menores 43, prestando apoyo alojativo a un total de 17 mujeres (4 entre 18-29años), siendo 24 los/as menores acogidos/as junto a sus madres víctimas, las mujeres atendidas en el programa de atención ambulatoria han sido un total de 39.

9) "Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek bizitza independentea, erasorik gabea, izan dezaten sustatzea" helburuari dagokionez, zeinak berekin baitakar "Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko programa bat eskaintzea" ekintza, adierazi behar da artatutako emakumeak 77 izan direla (haietatik 18-29 urte bitartekoak izan dira 20), programan artatutako adingabeak 53 izan direla, arreta anbularorioko programan artatutako pertsonak 130 izan direla (23 pertsona berri), ostatu-baliabidean artatutako emakumeak 13 izan direla (6 berri), eta 10 seme-alaba artatu direla ostatu-baliabidean, ama biktimekin batera (5 berri).

9º) Respecto del objetivo, “Promover que las mujeres víctimas de violencia machista alcancen una vida independiente, libre de agresiones, y que se concreta en la acción “Prestación de un programa de intervención socioeducativa y /o psicosocial, se ha de indicar que las mujeres atendidas han sido 77 (20 de ellas entre 18-29 años), los/as menores atendidos/as en el programa han sido 53, las personas atendidas en el programa de atención ambularoria han sido 130 (23 personas nuevas), el número de mujeres atendidas en el recurso alojativo han sido 13 (6 nuevas) y los hijos/as atendidos/as en el recurso alojativo junto con sus madres víctimas han sido 10 (5 nuevos/as).

10) “Familia-eremuan gatazken konponbide bortitza aldatzea, nerabe erasotzaileen harreman-jarraibideak alda daitezela sustatuz” helburuari dagokionez, zeinak berekin baitakar “Familiei eta nerabe erasotzaileei laguntza espezializatua ematea” ekintza, 2023ko ekainaren 30era bitartean, 82 familia (haietatik 21 kasu berriak ziren) eta 83 nerabe erasotzaile (41 nerabe 15 eta 21 urte bitartekoak ziren) artatu dira programan; kasu berriak 31 izan dira.

10º) En referencia al objetivo “Modificar la resolución violenta de conflictos en el ámbito familiar promoviendo la modificación de pautas relacionales en los y las adolescentes agresores”, que se concreta en la acción “Proporcionar intervención especializada a las familias y a los y las adolescentes agresores”, a fecha 30 de junio de 2023 han sido atendidas en el programa 82 familias (de los cuales 21 eran casos nuevos) y 83 adolescentes agresores (41 adolescentes tenían de 15 a 21 años de edad), siendo 31 casos nuevos.

11) “Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztearen inguruko gizarte-kontzientziazioa sustatzea” helburuari dagokionez, zeinak berekin baitakar “Gizarte-bitartekarien sarea eratzea” ekintza, 2023ko ekainaren 30era bitartean 23 hitzarmen sinatu dira elkarteekin, 34 pertsona prestatu dira gizarte-bitartekari izateko, 48 biktimari eman zaie laguntza eta babesa, eta 60 informazio- eta sentsibilizazio-hitzaldi izan dira.

11º) En cuanto al objetivo “Promover la concienciación social en la erradicación de la violencia contra las mujeres” y que se concreta en la acción “Constitución de una Red de Mediadoras Sociales”, a fecha 30 de junio de 2023 el número de Convenios con Asociaciones ha sido de 23, el número de personas formadas como mediadoras sociales ha sido de 34, las mujeres víctimas que han recibido apoyo y acompañamiento han sido 48 y el número de charlas informativas y de sensibilización ha sido de 60.

12) "Familien kalteberatasun handiko egoerak prebenitzea" helburua honako ekintza honetan gauzatu da: "Familiekin esku-hartze psikosozialeko proiektu bat garatzea, banakakoa edo taldekoa". 44 esku-hartze soziodedukatibo eta psikosozial izan dira, eta 31 familia artatu dira.

12º) El objetivo de “Prevenir situaciones de alta vulnerabilidad de las familias”, se ha concretado en la accion de “Desarrollar un proyecto de intervención psicosocial, individual, grupal con las familias”. El número de intervenciones sociodeducativas y psicosociales han sido 44, y el número de familias atendidas han sido 31.

Saila eta Programa / Departamento y Programa

09	**ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUS.** ***EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD***
232113	**EMAKUMEA ETA FAMILIAKO ESKU-HARTZEA** ***MUJER E INTERVENCION FAMILIAR***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	**BALIABIDERIK EZ ETA ARAZO SOZIALA DUTEN EMAKUMEEN LARRIALDI-EGOERAK ARINTZEA.** ***PALIAR SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL DE MUJERES SIN RECURSOS Y CON PROBLEMATICA SOCIAL.***			
1	ARRETA PSIKOSOZIALEKO PROGRAMA BAT EMATEA *PRESTACION DE UN PROGRAMA DE ATENCION PSICOSOCIAL*			
1	Bizitoki-baliabidean arreta jaso duten onuradunen kopurua *Número de beneficiarias atendidas en recurso alojativo*	50	50	17
2	Bizitoki-baliabidean arreta jaso duten 18-29 urteko onuradunen kopurua *Número de beneficiarias de 18-29 años atendidas en recurso alojativo*	20	20	6
3	Bizitoki-baliabidean arreta jaso duten onuradunen seme-alaba adingabeen kopurua *Número de menores hijos/as de las beneficiarias atendidos/as en recurso alojativo*	20	20	11
4	Bizitoki-baliabidean sartzen diren emakume berrien kopurua *Número de nuevos ingresos de mujeres en recurso alojativo*	20	20	4
